

*«Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak, LII*

EUSKARA ETA EUSKARAK:  
ALDAKORTASUN SINTAKTIKOA AZTERGAI

Beatriz Fernández, Pablo Albizu, Ricardo Etxepare  
(arg.)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Bilbao Bilbo  
2010

ASJU-REN GEHIGARRIAK  
ANEJOS DEL ASJU  
SUPPLEMENTS OF ASJU

- XI. LUIS MICHELENA-IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 12 €.
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 8 €.
- XIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 36 €.
- XV. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. mendeak*, 1992. 18 €.
- XVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de "Charlemagne"*, 1990. 18 €.
- XVII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. mendeak*. Prestatzen.
- XVIII. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, 1994. 10 €.
- XIX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, II. Ardun-Beuden*, 1990, 1993. Agotado.
- XX. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1990 (1963, 1986). 8 €.
- XXI. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación*, 1991. 12 €.
- XXII. LASZLÓ K. MARÁ CZ, *Asymmetries in Hungarian*, 1991. 15 €.
- XXIII. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 10 €.
- XXIV. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, III. Beule-Egileor (Babarraso-Bazur)*, 1991. Agotado.
- XXV. JOSÉ M.<sup>a</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 15 €.
- XXVI. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, IV. Egiluma-Galanga*, 1991. Agotado.
- XXVII. JOSEBA A. LAKARRA - JON ORTIZ de URBI NA (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, 1992. 18 €.
- XXVIII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailaren 2-6)*, 1994. 21 €.
- XXIX. JOSÉ I. HUALDE - XABIER BILBAO, *A phonological study of the Basque dialect of Getxo*, 1992. 8 €.
- XXX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, V. Galani-Iloza*, 1992. 8 €.





EUSKARA ETA EUSKARAK:  
ALDAKORTASUN SINTAKTIKOA AZTERGAI

Beatriz Fernández, Pablo Albizu, Ricardo Etxepare  
(arg.)



# EUSKARA ETA EUSKARAK: ALDAKORTASUN SINTAKTIKOA AZTERGAI

Beatriz Fernández, Pablo Albizu, Ricardo Etxepare  
(arg.)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen hau lagundu duten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila (HM 2008-1-10) (IT 414-10),
- Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa (FFI 2008-00240/FILO),
- Agence Nationale de la Recherche (ANR-07-CORP033).

- © B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare
- © Atal bakoitzaren egileak
- © «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia
- © Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-397-2

Depósito legal / Lege gordailua: BI - 1.599-2010

Fotocomposición / Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)

Impresión / Inprimatzea: Itxaropena, S.A.  
Araba kalea, 45 (20800 Zarautz-Gipuzkoa)



## AURKIBIDEA

BEATRIZ FERNÁNDEZ, PABLO ALBIZU eta RICARDO ETXEPARE, Atarian . . . . .	1
GONTZAL ALDAI, Euskararen kasu-markaketaren aldakortasun dialektala . . . . .	5
MAIA DUGUINE eta ARITZ IRURTZUN, <i>Nz-in situ</i> euskaraz: gazteen nafar-lapurte- razko galdera-estrategia berri bat. . . . .	21
ARANTZAZU ELORDIETA, Aditzaren bikoizketa foku-topikoa denean . . . . .	37
IRANTZU EPELDE eta BEÑAT OYHARÇABAL, Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan . . . . .	55
URTZI ETXEBERRIA, <i>-a, -ak</i> eta <i>-(r)ik</i> euskal hizkeretan zehar . . . . .	65
RICARDO ETXEPARE, <i>Omen</i> bariazioan . . . . .	85
BEATRIZ FERNÁNDEZ eta MILAN REZAC, <i>Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Le- kualdatzea</i> : ari nai diyot eta kanta egin nazu <i>bidegurutzean</i> . . . . .	113
CÉLINE MOUNOLE, Alineazio aldaketak euskararen diakronian . . . . .	151
GOTZON SANTANDER, AITOR SOROA, MIKEL LERSUNDI eta LARRAITZ URIA, Atlas sintaktikoaren aplikazio informatikoa . . . . .	171
<i>Eranskina</i>	
KONTXI ARRAZTIO, <i>Datibo osagarri bitxiak Araitz-Beteluko hizkeran</i> . . . . .	187



# ATARIAN

Beatriz Fernández

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea)

Pablo Albizu

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea)

Ricardo Etxepare

(Iker, UMR5478)

Gramatika sortzailearen ibilbidean, unibertsaltasunari eta bere ildotik hizkuntzen ezaugarrien batasunari eman zaion lehentasunak ez du lausotu euskalarion ikerkuntzan parametroek eta oro har hizkuntzen arteko aldakortasunak sortzen duten xarma eta jakin-mina. Izan ere, euskalaritza modernoan, hizkuntza artean bat datozen alderdiez gain, bereziki begiratu izan zaie euskaratik gainerako hizkuntzetara dauden alderdi aldakorrei.

Parametroen ikerketan, iragan eta orainaren arteko muga ezarri zuen euskalaritzan Ortiz de Urbinaren doktorego tesiak (1989) *Parameters in the grammar of Basque: a G-B approach to Basque Syntax* eta lan honen zordun gara parametroekin lanean jarraitu dugun euskalari guztiok. Esan gabe doa parametroetatik batzuek berebiziko garrantzia izan dutela euskalarien lanetan eta arreta berezia eman izan zaiela, euskararen izaera hobeto ezagutzeko lan tresna izan zitezkeelakoan. Jo, adibidez, oinarritzko hitz hurrenkerara, edo nahiago bada, teknikoki *buru-parametroa* deitu izan zaion horretara. Euskaraz aspaldi arakatzen hasitako auzia da eta eztabaida ugari sortu dituen, eta ez dira oso aspaldikoak horri buruz hipotesi berrien argitara egindako lanak, besteak beste, antisimetriaren hipotesiaren inguruko eztabaida biltzen duen Artech, Artiagoitia eta Elordietak (2008) argitara emandakoa. Adibide modura, lan horretan jasotzen da gramatika teoriaran proposatu den hipotesi bat, Kaynerena (1994), ordura arte buru-parametroa nagusi zen eremuan hautsak harrotu zituen, eta hipotesi hori eta parametroa bera eztabaidagai bihurtzen dira hiru euskalariak argitaratutako lanean, euskaraz antisimetriaren hipotesia ala buru-parametroa bietarik zein ote den egokiena erabaki nahian.

Beste parametro ezagun batzuen kasuan, ergatibotasunarenean adibidez, berebiziko garrantzia izan dute euskararen ebidentziek —gogoan izan, adibidez, inergati-boei buruzko hipotesirako Halle & Keyserren (1993) lanean izena + *egin* itxurako predikatuek izan zuten garrantzia—, eta euskalarien ekarpenak oihartzun handia izan du gramatika teoriaran. Ildo honetan, Lakak euskararen ergatibotasunaz idatzitako zenbait lanek, hala nola, *ari* progresiboaren ingurukoak (Laka 2006) berehalako eragina izan du kanpoko ikertzaileen lanetan, adibidez, Coonenean (2009) maiar hizkuntzen ergatibotasun erdibiturako lan argitara berri bat aipatzearren. Hizkuntzatik hizkuntzarako aldakortasuna, beraz, euskal gramatikarion jakin-mina pizteaz gain, deskribapen zein azalbideetan beti gogoan erabili den gaia izan da.

Alabaina, hizkuntzen arteko aldakortasunetik hizkuntzaren beraren barruko aldakortasunera jauzi egin du aspaldion euskalaritzak, eta sintaxian gabiltzanok makroaldakortasunetik (hizkuntzatik hizkuntzarakotik) mikroaldakortasunera (hizkeratik hizkerarakora) begira jarri gaitu. Dena den, ez diogu amets umotzen hasiari muzin egin eta xedea bat bera da oraindik ere guretzat, hots, giza hizkuntzaren muineko ezaugarriak zein diren jakitea, zein diren aldagaitz eta zein aldakor. Azken batean hizkuntzei ala hizkerari begiratzat hizkuntzalariorok deskubritzen dugun aldakortasuna argazkilariek darabiltzaten optikek eskaintzen digutenaren modukoa da, galiziar hizkuntzalariorok on batek ez oso aspaldi esan zigun bezala: makroa darabilte naturazaleek —eta kontuz, optikaz ari baikara orain eta ez lehen aipatu dugun *makro-*, *beraz*— amaraunaren arkitekturaren xehetasunik txikiak ere ikusi ahal izateko edo ur tanta baten edertasun bikaina; angular handiaz ur tanta ez, ozeanoa jasotzen da bere handitasunean, eta amarauna ikusiezin bihurtzen da oihanaren erdian. Optika kontua da, beraz, hizkuntzei ala hizkerari begiratzea, hizkerak erakuts dezaketelako hizkuntzaren beraren barruan sarri askotan hizkuntzen artean antzeman daitezkeen diferentziak. Beste modu batez adierazteko, hizkuntzaren beraren lurralde miresgarriaren barruan, Zumaiako kostaldeko *fyschak*, Iratiko oihana eta Bardeako mortua ikuska daitezke, eta naturaren adierazpide aldakor horiek guztiak kanpora begira ere deskubritzen ditugu paraje urrun eta ezezagunagoetan.

Itzul gaituzen, bada, hizkuntzara. Esaterako, ergatibotasunari ia aurre hartuz, datiboaren inguruko lanak bihurtu dira euskalari askoren interesgune lauogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Horietatik batzuek, bereziki datibo komunztadura galerrari buruzkoek —hala nola, Etxepare & Oyharçabalek (2008a,b,c) egindakoak edota Fernández & Landa (2008) eta Fernández, Landa & Ortiz de Urbinak (2009)— erakutsi dute asimetria garbia dagoela euskal hizkeretan: datibo komunztadura (ez noiznahi ez nonahi) ezabatzeko joera dago ipar-ekialdeko hizkeretan eta salbuespenak salbuespen sendo zaintzekoa hego-mendebaldean. Horrek galdera teoriko benetan interesgarriak sortzen ditu datibo kasu eta komunztadurari buruz, eta komunztaduraren hezurdura bera hobe zehazten laguntzen digute. Bada, hizkeren diferentziak hautemateak eta hizkeraren batean komunztadurarik gabeko datiboak aurkitzeak beste hizkuntza batzuetan, ingelesez, adibide ezagun samar bat baino ez ematearren, eraman gaitzake galdetzeraz ere ote diren horiek osagarri bikoitzeko egiturekin txandakatzaren preposiziodun egituren modukoak, Etxepare eta Oyharçabalek inoiz galde egin eta proposatu duten bezala. Jakina, datibo komunztadura galera bera edota beselako fenomenoak, hala nola, markapen bereizgarriko datiboak, bikoitzeta bera, ez dira euskaraz orokorturik dauden ezaugarriak, ezta estandarrean isuri direnak ere, ezpada hizkera jakinetan bakarrik aurki daitezkeenak. Horregatik, hain zuzen, ekin diogu guretzat ia *terra ignota* dena esploratzeari. Kontuan izan, dena den, hizkeren azterketak tradizio luze eta oparoa duela Euskal Herrian, eta dialektologoen berezko lan eremua izan dela eta badela egun ere. Dialektologoen galderak ez dira nahitaez gureak bezalakoak, ezta azalbideak ere, baina gure lana eta haiena auzolana izan dadin nahi genuke. Makazagak (2009), adibidez, bere doktorego tesi defendatu berrian sintaxiari eskaini dion atalak bide itxuraz bereziak batzeko aukera eman liezaguke.

Hona hemen, bada, hizkeren aldakortasun sintaktikoaren inguruan bildu garen hizkuntzalariorok ekarpena. Nagusiki UPV/EHU eta IKER ikerguneko ikertzaileak. Ez nahitaez ikertalde bakarrekoak, nahiz eta guztiok *Basdisyn* (*Basque Dialect Syntax*) de-

ritzogun egitasmoarekin modu batean edo bestean bat egiten dugun. Ez gara denak ezta ikerketa eremu berekoak ere: gehienak gramatikari eta gramatikari sortzaileak, gainera, izan arren, badira orobat hizkuntza tipologia eremu funtzionalistez egiten duten hizkuntzalariak; badira hizkuntzari bilakaera historikoan eta ez nahitaez sinkronikoki begiratzen diotenak; badira izan hizkuntzalaritza konputazionalako adituak (IXA taldekoak) eta bai dialektologoak ere. Eta diferentzia horiek gorabehera —aldakorra gure taldearen baitan ere biltzen dena—, guztiok muineko proiektu berean bildu gara, euskal hizkeren aldakortasun sintaktikoa aztertzeko egitasmo ederrean. Hala, hamar lan dira hemen bildu ditugunak, eta hizkuntzalariak hamaika: Gontzal Aldai (UPV/EHU), Kontxi Arraztio (UPV/EHU), Maia Duguine (IKER, UPV/EHU, Bordeaux 3, HiTT) eta Aritz Irurtzun (UPV/EHU eta HiTT), Arantzazu Elordieta (UPV/EHU), Irantzu Epelde (IKER) eta Beñat Oyharçabal (IKER), Ricardo Etxepare (IKER), Urtzi Etxeberria (IKER), Beatriz Fernández (UPV/EHU) eta Milan Rezac (Paris VIII), Celine Mounole (IKER, UPV/EHU), eta azkenik, Go-tzon Santander, Aitor Soroa, Mikel Lersundi eta Larraitx Uria, guztiak UPV/EHUko IXAko taldekideak.

Hortaz, eskerrak ematea baino ez zaigu gelditzen. Lehenik, ikertzaileei eurei *XXVII Uda ikastaro/XXI Europar Ikastaroetan* Beatriz Fernández eta Ricardo Etxeparek *Euskaren sintaxia: aldakortasun sintaktikoa euskal hizkeretan* nazioarteko elkargunean (2009ko uztailaren 2-3) parte hartu eta orain beren idatzizko lanak gure esku uztegatik. Bigarrenik, UPV/EHUko Uda Ikastaroen antolatzaile, kudeatzaile eta teknikari guztiei elkargunea antolatzeko bidean gure lagun nekaezinak izategatik. Hirugarrenik, Joseba Lakarrari *ASJU*ko ale berezi bat argitaratzeko proposamena berehala onartu eta argitaratze bidean eman digun laguntzagatik. Eta azkenik, gure egitasmoa aurrera ateratzeko diruz lagundu diguten instituzio guztiei: UPV/EHUren EHU06/20; Ministerio de Ciencia e Innovaciónen FFI2008-00240/FILO; Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Sareak HM-2008-1-10, eta Agence Nationale de la Rechercheren ANR-07-CORP-033.

Donostian, 2009ko abenduaren 21ean



# EUSKARAREN KASU-MARKAKETAREN ALDAKORTASUN DIALEKTALA

Gontzal Aldai

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea)

## Abstract

*In this talk I present a summary of the works I have published in the last years on Basque case-marking, where I make the point that there is important dialectal variation regarding this issue. Even though there are many complications in the Basque data which pose difficulties for any analysis, the main conclusion from my work is that Western Basque's case-marking should be considered semantically-aligned (i.e. split-intransitive) instead of ergative. As for Central and Eastern Basque's case-marking, I argue that it could (still) be considered ergative, but also that it is not too different from a semantic alignment. Diachronically, it seems all dialects of Basque are evolving towards a more consistent semantic alignment, as younger generations of speakers of Central and Eastern Basque tend to use the ERG case-marker with unergative verbs.*

## 1. Sarrera

2002 urtean amaitu nuen tesian, orripeko ohar batean, zera aipatzen nuen (Aldai 2002: 47-48):

I cannot pursue in this work the complex issue whether Modern Basque should be considered (predominantly) ergative-absolutive or active-inactive. The terminology I will be using is the traditional one which assumes that Basque is morphologically ergative. However, this question is open to discussion and clearly needs more empirical work. In addition, the dialectal division seems fundamental in this case, to the extent that we may perhaps need to talk about eastern dialects being ergative and western dialects being active-inactive or agentive-nonagentive.

Ohar hori jartzera eraman ninduen ikusteak euskal aditz iragangaitz batzuek bi erregimen posible zituztela (ABS eta ERG), baina gehienetan subjektu ABSa ekialdeko euskalkietan bakarrik agertzen zela, mendebaldeko euskalkietan ERGa erabiltzen zen bitartean. Harrezkero, hasi nintzen euskal ergatibotasunaren gai honetaz ikertzen, eta atera dudan ondoriozik garbiena da delako gaia ikaragarri konplexua dela eta, beraz, ez dela asetzen inola ere ohar txiki batekin.

Ponentzia honetan ez dut gauza berri askorik plazaratuko, baina bai saiatuko naitzela azken urteotan argitaratu ditudan lanetako ikerketaren ideia nagusiak islatzen eta zenbait puntu argitzen; zeren, ikusiko denez, asko baitira gai honetan dauden zailtasunak. (Nire ikerketari buruzko informazio gehiagorako, jo bedi bibliografia atalean aipatzen diren lanetara).

## 2. Zailtasunak

Hizkuntza bati ezaugarri zehatz baten arabera etiketa tipologiko bat ezarri nahi zaionean, batzuetan gerta daiteke delako hizkuntza ez dela hain erraz sailkatzen. Hori berori gertatzen zaio euskarari, kasu-markaketari dagokionez, eta ondorioz laguntzailleen hautaketari dagokionez ere, ezaugarri bi hauek batera baitoaz.

Euskararen kasu-markaketak zailtasun asko dauzka deskribatu, sailkatu edo analizatzeko orduan; haien artean, ondoko lerroetan aurkeztuko ditudanak daude, alegia: aditz iragangaitzen arteko aurkaritza semantikoa zehaztea eta ulertzea; bestelako faktoreak aurkitzea (maileguen joera barne); *egin*-konposatuak bereiztea; aditz inergatibo bakunak kontuan hartzea; eta batez ere aldakortasun dialektala eta soziologikoa (adin araberakoa) sakonki ikertzea; hori guztia dimentsio historikoa ere alde batera utzi gabe.

## 3. Euskal aditz iragangaitzen arteko aurkaritza semantikoaz

Funtsean, kasu-markaketa ergatiboaren eta kasu-markaketa semantikoaren artean desberdintzeko, begiratu behar dena da ea aditz iragangaitzen barruan bi talde semantiko osagarri dauden ala ez, zein islatzen baitira kasu-markaketa ezberdinetan (hots, kasu-markaketari dagokion *split intransitivity* delakoan). Levinek (1983) euskal aditz iragangaitzen artean oposizio semantiko bat bazela proposatu zuen, eta oposizio hori kasu-markaketan islatzen zela. Haatik, Trask (1997, 2002), adibidez, horren kontra azaldu zen, esanez bi talde semantiko osagarri ez zirela existitzen.

Beraz, finkatu behar den lehenengo gauza da ea bi talde semantiko horiek existitzen diren ala ez (beharbada, nahikoa lan erraza dirudiena). Alabaina, bi talde semantiko osagarri aurkitzeko asmoz, jakin behar dena da zer oposizio semantikok desberdintzen dituen bi talde horiek. Beraz, gauzak zailtzen hasten dira da goeneko.

Tradizionalki, oposizio hori agente (egile) vs. paziente (jasaile) bezala izan da ulertua (Levin 1983). Baina honen aurka Traskek (2002: 271) zera esaten du:

Basque possesses a sizeable number of intransitive verbs which unquestionably take *agent subjects* but which are morphologically strictly intransitive in all varieties, such as *joan* 'go', *etorri* and *jin* 'come', *sartu* 'enter', *igan* 'go up', *jaitsi* 'go down', *jaiki* 'get up', *etzan* 'lie down', *zutitu* 'stand up', *belaunikatu* 'kneel', *jantzi* 'get dressed', *erantzi* 'get undressed', *ezkondu* 'get married', and many others.

Orduan, Trasken ondorioa ondokoa da (2002: 271-272):

Levin (1983, 1989) suggests that the class of vTm ['verb intransitive with transitive morphology'] verbs in Basque is semantically motivated, specifically that they represent the class of unergative verbs or intransitive verbs with *agent subjects*, while simple intransitive verbs represent unaccusative verbs, those with *non-agentive subjects*. This seems unlikely. [...] [The data are] hardly encouraging for any attempt to see the vTm verbs as semantically motivated.

Aspaldion idatzi ditudan lanetan proposatu dudana da euskal aditz iragangaitzen artean badela kasu-markaketan islatzen den oposizio semantiko bat, baina oposizio



hori ez dela oinarritzen agente vs. paziente aurkaritzan (edo agente vs. ez-agente aurkaritzan), paziente vs. ez-paziente aurkaritzan baizik.

Honez gain, ondokoa ere proposatu dut: oposizio horrek bi talde semantiko be-reizten dituela, baina taldeok ez direla zeharo osagarriak, talde bietan ager daitezkeen zenbait aditz badaudelako. Beraz, proposatzen ari naizen oposizioa ez litzateke guztiz diskretua, baizik eta prototipo bitan oinarritutakoa: proto-pazientea eta proto-ez-pazientea. Hortaz, prototipo bietatik hurbilen dauden aditz iragangaitzek kasu-marka bakarra hartuko lukete: ABS ala ERG. Baina prototipoetatik urruntzen diren aditz iragangaitz batzuek, hots, bitarteko jarrera duten zenbait aditz iragangaitzek, bai ABS bai ERG markak, biak, har litzakete.

Proto-pazientea eta proto-ez-pazientea definitzea ez da kontu erraza. Dowtyri (1991) jarraituz, ezaugarri batzuk ezarri dizkiot hauetako prototipo bakoitzari. Horrela, proto-pazienteak ondoko oinarritzko ezaugarriak izango lituzke: a) egoera edo jarrera aldaketa, b) telizitatea, eta c) jasankortasuna. (Xehetasun gehiagorako, ikus Aldai 2006, 2009). Hortaz, telizitatea inplikatzan ez duten aldaketa iragangaitzek (nahiz eta aldaketak izan) ez dute oso paziente prototipikorik eramaten. Adibidez, *eboluzionatu*, *aldatzen joan*, edo *gora egin* bezalako predikatu iragangaitzek ez dute erakusten subjektu paziente prototipikoa. Bai, ordea, *altxatu*, *apurtu*, *erori*, *eseri*, *heldu* edo *hil* bezalako predikatuek (aldaketa telikoe); eta gainera, ez bakarrik ez-agentiboak direnean (*apurtu*, *erori*, *hil*) baina baita agentiboak direnean ere (*altxatu*, *eseri*, *heldu*).

Azkenez, jasankortasuna (*affectedness*) definitzea nahiko zaila da. Hirugarren ezaugarri honekin adierazi nahi dena zera da: subjektu iragangaitz batzuek jasaten dutela aditzak adierazten duen ekintzaren (edo egoeraren) ondorioa, eta beste subjektu iragangaitz batzuek, aldiz, ez dutela holako ondorioa jasaten. Lehen motako subjektuek ‘jasankortasuna’ inplikatzan dute. Egoerei dagokionez, jasankortasunak egoera-adjektiboan antzeko ezaugarri bat inplikatzan du subjektu iragangaitz hauetan (adibidez, *egon*, *izan*, *etzan*). Ekintzen kasuan, ordea, jasankortasunak emaitza bat inplikatzan du, zeina subjektuari baitagokio. Azken kasu honetan, telizitatea eta jasankortasuna korrelazioan egoten dira (adibidez, *apurtu*, *heldu*, *hil*). Baina badaude aditz batzuk non, telizitatea izan arren, ez baitute nahitaez jasankortasuna adierazten (adibidez, *lehertu*). Jasankortasunari buruzko eztabaida gehiagorako, ikus 14. atala.

Bestalde, ez-paziente prototipikoei kontrako ezaugarriak izango lituzkete. Beraz, aldaketak baino, prozesuak edo aktibitateak dira subjektu ez-pazientea eramaten duten predikatu iragangaitzak, eta hauen artean igortze edo isurtze (emisio) prozesuak daude. Ondorioz, subjektu iragangaitz ez-paziente tipikoak ez dagozkie aktibitateei bakarrik —adibidez, *lan egin*, *dantza egin*, *korrika egin* edo *igeri egin*— baizik eta emisioei ere, *oihukatu*, *zaunka egin*, *zarata egin*, *zurrunga egin* edo *distiratu* kasu.

Zeresanik ere ez dago, kasu-markaketari dagokionez, subjektu paziente tipikoa eramaten duten aditz iragangaitzek ABS marka erakutsiko dute; eta, aldiz, subjektu ez-paziente tipikoa daramatenek ERG marka. Tradizio luzeari (nahiz eztabaidagarriari) jarraituz, aurreneko aditzak aditz iragangaitz ‘inakusatiboak’ izendatuko ditut, bigarrenak, aldiz, ‘inergatiboak’. Hau da:

- (1) a. Subjektu *pazientea* daukatenean → ABS → aditz iragangaitz *inakusatiboak*
- b. Subjektu *ez-pazientea* daukatenean → ERG → aditz iragangaitz *inergatiboak*

#### 4. Bestelako faktoreak

Ez da euskararen aditz iragangaitzen arteko oposizio semantikoa ulertzea zailtasunak ekartzen dituen gauza bakarra. Semantika ulertzeaz gain, badaude bestelako faktoreak euskararen kasu-markaketaren auzia benetan zail dezaketanak. Hauen artean garrantzitsuena *egin*-konposatuen arazoa litzateke. Baina *egin*-konposatuek dakarten zailtasuna alde batera utzirik ere, badaude bestelako faktoreak: esate baterako, euskal aditz iragangaitz bat hitz zaharra ala mailegu berria den; edota euskara batuan erabiltzen den aditz iragangaitz bat (ad. *mintzatu*) norberaren euskalkikoa den ala beste euskalki batetik hartua izan den.

Nola moldatu behar diren faktore hauek modelo psikolinguistiko batean oso zaila da azaltzeko. Baina, garbi dagoena zera da: delako modelo hori (haurren jabe-kuntza barne) osorik egon dadin, aipaturiko faktore hauek kontuan hartu behar dira. Honek ez du esan nahi euskal hiztun batek jakingo duela aditz bat zaharra ala berria den. Baina euskal hiztun (elebidun) batek bai jakin dezakeela aditz bat bere bigarren hizkuntzan existitzen denetz, baita beste hizkuntza horretan zer joera sintaktiko daukan ere; adibidez, zer laguntzaile mota edo zer izenordain klitiko darman beste hizkuntzan (maileguen gaiari buruz, ikus 13. atala). Honez gain, kasu batzuetarako behintzat, memorian oinarrituriko jabe-kuntza lexikala ezin da alde batera utzi faktore psikolinguistiko bezala, joera kontserbadore batzuk azal bailitezke modu horretan.

#### 5. *Egin*-konposatuak

Behin euskal aditz iragangaitzen arteko oposizio semantikoa finkatuz gero, aurkitzen den aurreneko arazoa ondokoa da: aditz iragangaitz inergatiboen barruan egon beharko lirakeen aditz asko (beharbada, gehienak) ez direla aditz bakunak, aditz konposatuak baizik. Hauetariko gehiengo batek *egin* aditza dauka *light verb* bezala. Hau da, euskal aditz inergatibo gehienak *egin*-konposatuak dira.

Datu hau, nik uste, nahikoa adierazgarria da euskal aditz iragangaitzak lexikoki antolatuta nola dauden ulertzeko (cf. Levin 1989). Alabaina, aditz iragangaitzen arteko zatiketa lexikal hori existitzea ez da aski esateko euskararen kasu-markaketak zatiketa bera islatzen duela. Horrela, Traskek zera argudiatu zuen (2002: 271):

It seems far more plausible to conclude that the *VTM* verbs which are compound in form are morphologically transitive for that very reason: etymologically, they are collocations with such literal senses as ‘do sleep’, ‘do laughter’, ‘do snoring’, ‘do good’, ‘give pain’ and ‘give word’, and so their transitive morphology can be entirely explained by their origin, with no appeal to semantics.

Traskekin ados nago *egin*-konposatuen (eta beste aditz inergatibo konposatuen) jatorri konposatuak euren morfologia iragankorra eta euren subjektu ERGa azal ditzakeela. Hortaz, hemen ez daukagu zertan proposatu ergatibotasunetik aldentzen den kasu-markaketa berezirik (hots, semantikorik): aditz hauek iragankorrak izango ziren jatorriz, eta beraz, morfosintaktikoki, subjektu ERGa eskatuko zuten.

Egia esan, Trasken obserbazioa zuzena bada ere, kontuan hartu behar da horrek ez duela dena azaltzen: kasu-markaketa bai, baina hautaketa lexikala azaltzeke gelditzen da. Hau da, orain azaldu beharko litzateke zergatik, aditz iragangaitzen artean, iner-

gatiboak diren, hain zuzen, —oso portzentaje handi batean, behintzat— gramatikalizazio iturri hori (hots, *egin*-konposatuena) hartzen dutenak.<sup>1</sup>

Dena den, momentuz, kasu-markaketari dagokionez, gauzak ondo azalduta daude *egin*-konposatuen gramatikalizazio iturria aipatuaz. Alabaina, arazorik larriena ez da aditz inergatibo konposatuek ekartzen dutena; segidan ikusiko dugunez, benetakoa auzia aditz inergatibo bakunek ekartzen dute.

## 6. Aditz inergatibo bakunak (ez-konposatuak)

Nahiz eta aditz inergatiboen gehiengo batek aditz konposatuen itxura daukan, badaude aditz inergatibo bakunak ere. Esan dudan bezala, euskararen kasu-markaketaren benetako eztabaida aditz inergatibo bakunek sortzen dute. Izan ere, hauek dira kasu-markaketa motaren auzia, alde batera ala bestera, aska dezaketena.

Levinen hipotesia zuzena balitz (hots, euskararen kasu-markaketa semantikoa, i.e. *split-intransitive*, balitz), aditz inergatibo bakunek subjektu ERGa eskatu beharko lukete; eta, jakina, aditz inakusatibo bakunek subjektu ABSa. Aldiz, Trasken hipotesia zuzena balitz (hots, euskararen kasu-markaketa ergatiboa balitz), aditz iragangaitz bakun guztiek, bai inakusatiboek eta bai inergatiboek, subjektu ABSa eraman beharko lukete.

Ikusiko dugunez, datuek ez dute guztiz berresten ez Levinen hipotesia ez eta Traskena ere. Gauzak uste baino konplexuagoak dira; eta hemen sartzen da kon-tuan aldakortasun dialektala, ponentzia honen gai nagusia. Alegia, gaur egungo euskalkiek ez dutela jokaera berdina erakusten aditz inergatibo bakunen kasu-markaketan.

## 7. Aldakortasun dialektala

Lehenengo inpresioan hartu nuen susmoa, hots, ekialdeko euskalkiek eta mendebaldekoek ez dutela berdin jokatzeko kasu-markaketari dagokionez, berretsi egin da azken urteotan egin dudan ikerketan. Esan beharra dago, dena den, zenbait zailtasun agertzen direla hemen ere, zeintzuek eragin handia baitute euskalkien arteko aldakortasuna analizatzeko orduan. Izan ere:

- batetik, aipatu dudanez, gutxi dira auzi honetan erabakigarriak diren aditz bakunak, eta hortaz kili-kolo geratzen da analisi orokorra hain aditz gutxitan oinarriturik egin behar bada;
- bestetik, euskalkiek daukaten aldea ez da aditz inergatibo bakunen kasu-markaketa motan (eta hortaz laguntzaile hautaketan) bakarrik islatzen; aditz inergatibo bat bakuna ala konposatua den ere euskalkien arabera aldatzen da.

Horrela, orokorrean, ekialdeko euskalkiek (batez ere zubererak) nahikoa aditz inergatibo bakun daukate; baina mendebaldeko euskalkiek, orokorrean (eta batez ere

<sup>1</sup> *Topo egin*, *behaftopa egin*, eta (*tx*)*irrist egin* bezalako aditzak izango liriteke *egin*-konposatu iragan-gaitzen artean inergatibo ez diren apurrak.

bizkaierak), oso aditz inergatibo gutxi erabiltzen dute. Hala eta guztiz ere, hipotesi nagusia (hots, euskalkien arteko aldakortasunarena) bere horretan mantentzen daitekeela ikusiko dugu. Horretarako, segidan aurkeztuko ditut aspaldion bildu ditudan datuak eta atera ditudan ondorioak.

## 8. Nire ikerketa

Nahiz eta gutxi izan (mendebaldean, batik bat), aditz inergatibo bakunak dira euskararen kasu-markaketa motaren auzia aska dezaketena. Beraz, dauden aditz inergatibo bakunak kontuan harturik, azterketa bat egin dut euskalkien arteko aldeak aurkitzeko asmoz. Egin dudana ikerketa ez nuke inola ere hartuko behin-betikotzat, lehenengo hurbilketatzat baizik. Hortaz, oraindik badaude gauza asko ikertzeko, bereziki dialektologoei azter ditzaketena. Batez ere, herriz herriko ikerketa litzateke beharrezkoena, nahiko herri gutxi ukitu bainuen nik.

Edozein kasutan, ondoko herrietan egon nintzen jendeak aditz inergatibo bakunak nola erabiltzen zituen ikertzen:

- (2) Bizkaian eta Gipuzkoan: behaketa orokor bat, herri zehatz batzuetara joan gabe
- |                    |  |
|--------------------|--|
| Nafarroan:         | Arizkun eta Erratzu (Baztan)   |
| Lapurdin:          | Biriatu (Hendaiako kantoia)<br>Azkaine (Donibane Lohitzuneko kantoia)<br>Sara (Ezpeletako kantoia) |
| Nafarroa Beherean: | Banka eta Urepele (Baigorriko kantoia)<br>Donibane Garazi eta Ezterenzubi (Garaziko kantoia)       |
| Zuberoan:          | Maule (Mauleko kantoia)<br>Atharratze eta Zunharreta (Atharratzeko kantoia)                        |

Herriak arbitrarioki aukeratu nituen, eremu nahikoa zabala besarkatu nahirik. Seguruena, Nafarroa da islatzerik txarrena daukan herrialdea. Beraz, ikerketa hau Nafarroan askoz gehiago sakon daiteke (baita beste herrialdeetan ere, jakina, Bizkaia eta Gipuzkoa barne).

Herri bakoitzean hiruzpalau pertsona elkarrizketatu nituen (normalean euren etxeetan), dagokigun gaia helburu izanik. Ez nion jarraitu oso hertsiki esku-liburuetan (esaterako, Schütze 1996) eskatzen den metodologiari; baina nik uste dut in-trospekzioak, idatzien arakatzek, edo aditu bati egindako kontsulta zuzenak eman ditzaketena emaitzak baino emaitza hobekoak lortu ditudala datu bilketa honekin. Hasieran, elkarrizketa bat egin (eta batzuetan grabatu) nuen pertsona bakoitzarekin, galdera zuzenik egin gabe, baina elkarrizketa nolabait interesatzen zitzaizkidan gai batzuetara bideratuz: adibidez, janarien orduak, (euskaraz) hitz egitea, eta abar. Horrela, saiatzen nintzen aditz inergatibo bakunak libreki nola erabiltzen zituzten ikusten. Geroago, zuzenean galdetzen nien aditz inergatibo bakun batzuekin esaldi bana egiteko. Azkenean, elkarrizketa amaitutzat jo eta gero (eta euren horixe esan eta gero) beti luzatzen zen solasaldia, egoera lasaiago batean edo, non (batzuetan) ikertutako aditzak berriro erabiltzen baitzituzten.

## 9. Aditz inergatibo bakunen zerrenda

Mailegu berriak, neurri batean, alde batera utzirik (ikus behereago), ondoko aditz inergatibo bakunak erabili ditut nire ikerketan.

(3) Euskal aditz inergatibo bakunen zerrenda bat:

- a) higidura moduak: *korritu* / *lasterkatu*, *hegatu* / *airatu*, *igerikatu*, *paseatu*, *sal-tatu* / *jauzi*;
- b) gizakien (edo bizidunen) ekintza agentiboak: *dantzatu*, *jostatu* / *jolastu*, *jokatu*, *borrokatu* / *gudukatu*, *iharduki* / *aharratu*, *bidaiatu* / *biajatu*, *arran-tzatu*, *laboratu* / *trabailatu*, *erreusitu*, *erauntsi* / *jardun*;
- c) gizakien (edo bizidunen) ekintza ez-agentiboak (iraupen luzeko aditzak barne): *barautu*, *deskantsatu* / *pausatu*, *beilatu*, *erreinatu*, *sufritu* / *padezitu*, *iraun*, *tardatu* / *luzatu* / *berandu*;
- d) mintzaira aditzak: *mintzatu*, *solastatu*, *elekatu*, *hizketatu*, *xarduki*;
- e) janari aditzak: *bazkaldu*, *afaldu*, *gosaldu*;
- f) aditz inergatibo bakun bizigabeak: *irakin* (*irakitu*, *herakitu*), *argitu* / *distiratu* / *dirdiratu* / *izarniatu*, *buhatu* / *jo leman* (haizeak), *jo* / *eman* (eguzkiak), *hartu* (landareak), *kurritu* (urak).

Aditz inergatibo bakunen eskasiaren arazoa garbi geratzen da aurreko zerrenda (ez luzea) ikustean. Are garbiago geratzen da aditz inergatibo bakunek mendebaldean daukaten egoera. Izan ere, goiko zerrenda oso luzea ez bada ere, are laburragoa litza-reke mendebaldeko euskara estandarrean arruntak diren aditzak bakarrik aukeratuko bagenitu. Gorago aipatu denez, mendebaldean *egin*-konposatuak dira ohikoena. Dena den eta edozein kasutan, ondoko zerrendako aditzak ezin dira arrarotzat hartu, ez eta mendebaldeko erabilera estandarrean ere:

(2) Ohiko aditz inergatibo bakunen zerrenda:

*korritu*, *paseatu*, (*saltatu* = salto egin), (*dantzatu* = dantza egin), *jolastu*, *jokatu*, (*borrokatu* = borrokan egin), *biajatu*, *jardun*, (*barautu* = barau egin), *deskan-tsatu*, *erreinatu*, *sufritu*, *iraun*, *tardatu*, (*mintzatu* = hitz egin), *bazkaldu*, *afaldu*, *gosaldu*, *irakin*, *argitu*, *distiratu*, *jo* (haizeak), *eman* (eguzkiak)

Beraz, zerrenda (txiki) bat badaukagu, baita mendebalderako ere, non iker baita-zakegu aditz inergatibo bakun batzuen jokaera.

Nik zera proposatuko nuke auzi hau, neurri batean, konpontzeko asmoz: esperi-mentu psikolinguistikoak egin daitezten, *dantzatu* bezalako aditz inergatibo bakunak (mendebaldeko hizkera arruntean gutxitan harrapatuko direnak) Bizkaiko eta Gipuz-koako hiztunen artean ikertzeko. Horrela, egoera experimental batean ikus daiteke:

a) aditz horiek zer neurritan onartzen diren (beste aditz batzuekin konparatuta); eta b) onartzen diren neurrian, ea hiztunek subjektu ABSa ala subjektu ERGa nahiago duten.

## 10. Janari aditzak

Beharbada interesgarrienak aurreko zerrendan (edo behintzat interesgarrieneta-koak) janari aditzak (*afaldu*, *bazkaldu*, *gosaldu*) suertatu zitzaizkidan. Izan ere, janari

aditzak euskalki guztietan izaten dira bakunak, eta beraz konparazio dialektala egiteko oso aproposak agertzen zaizkigu. Are gehiago, historikoki (ikus beherago) janari aditzak oso ondo daude dokumentatuta. Beraz, janari aditzak ikertzea beste aditz asko aztertzea baino zehatzagoa izan daiteke.

Euskaltzaindiak adierazten duenaren arabera (*Hiztegi Batua*; Euskaltzaindia 2000: 489, 513, 578), janari aditzek subjektu ERGa eramaten dute Hegoaldean (B, G, N), eta ABSa eramaten dute Iparraldean (L, NB, Z). Lafittek (1962: 189-190), aldiz, “verbes déponents” direlakoan artean sailkatzen ditu janari aditzak nafar-lapurtera literariorako (hots, subjektu ERGa hartzen duten aditz iragangaitzen artean), nahiz eta gero zera gehitzen duen: “*Afaldu, askaldu, bazkaldu, gosaldu, ... supportent très bien la conjugaison intransitive sans changer de sens: barda elgarrekin afaldu gira*” (1962: 190).

Nik bildu nituen datuen arabera, ordea, ez Nafarroan (Baztanen) bakarrik baina baita Lapurdin (Biriatuan, Azkainen, Saran) eta Nafarroa Behereko mendebaldean (Bankan, Urepelen), janari aditzek subjektu ERGa hartzen dute. Berritot diot: datu hauek konfirmatu beharra legoke; baina nahiko datu garbiak bildu nituen nik. Bali-teke Lapurdiko beste herri batzuetan, eta are aipatutako herrietan bertan, beste hitz-tun batzuek ABSa erabiltzea janari aditzekin. Alabaina, nik Lapurdin aurkitutakoa (nire lagin txikiarekin, jakina) subjektu ERGa da.

Nafarroa Beherean, aldiz, bai subjektu ERGa eta bai subjektu ABSa ere aurkitu nituen janari aditzekin. Aipatu bezala, mendebaldean (Bankan, Urepelen), subjektu ERGa topatu nuen, nahiz eta adineko gizon batek Bankan zalantzak erakutsi zituen berriro galdetu nionean (hasieran subjektu ERGa erabili zuen *afaldu* aditzarekin). Ekialdean (hots, Garazin), ostera, subjektu ABSa aurkitu nuen gehienbat. Esan beharra dago, dena den, hemen (Donibane Garazin) bai topatu nuela bariazio handia. Hitz-tun gehienek subjektu ABSa erabili zuten janari aditzekin, baina bazeuden hitz-tun batzuk zeintzuek, ERGa erabili ez ezik subjektu ABSaren aurka azaldu baitziren. Behin eztabaida txiki bat piztu zen subjektu ABSaren aldekoen eta subjektu ERGa-ren aldekoen artean.

Azkenez, Zuberoan (Maulen, Atharratzen, Zunharretan), beti jaso nuen subjektu ABSa janari aditzekin, eztabaidarik gabe.

## 11. Ondorioak

Aurreko atalean aztertutako janari aditzak, nik uste, oso baliagarriak dira euskalkien artean aditz inergatibo bakunek erakusten duten aldakortasuna bere osotasunean deskribatzeko. Bizkaian eta Gipuzkoan, janari aditzek, eta orokorrean aditz inergatibo bakun gehienek (ia guztiek, Bizkaian behintzat), subjektu ERGa darimate. Nafarroan eta Lapurdin (nire ikerketaren arabera bederen) janari aditzek subjektu ERGa eskatzen dute baita. Alabaina, ez da hau gertatzen aditz inergatibo bakun guztiekin, *mintzatu, borrokatu, saltatu, jolastu* eta beste askok subjektu ABSa eramaten dutelako. Azkenez, Nafarroa Beherean eta, batez ere, Zuberoan, janari aditzek eta orokorrean aditz inergatibo bakun gehienek subjektu ABSa hartzen dute.

Beste modu batera deskribatu liteke euskalkien arteko aldakortasun sinkroniko hau: Bizkaitik hasi eta Zuberoaraino aditz inergatibo bakunek gero eta subjektu ERG gutxiago erakusten dute eta, beraz, gero eta subjektu ABS gehiago hartzen. Neurri

batean esan daiteke aldakortasun hau nahiko graduala dela. Hau ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu lexikoari dagokion aldakortasunaz ari garela. Hots, sarrera lexikal asko (i.e. aditz asko) daudenez inplikaturik oposizio honetan, oso irudi konplexua ager dakiguke, eta izan ere agertu egiten zaigu.

Hala ere, hiztun bakoitza bere aldetik harturik, eta aditz inergatibo bakun tipikoenak kontsideraturik (*mintzatu*, *borrokatu*, *jolastu*, *saltatu*), nik esango nuke aurkitzen dugun aldakortasuna askoz diskretuagoa dela. Hau da, hiztun bakoitza ia-ia talde bitarik batean sar daiteke, nahiko joera homogenea erakusten duelarik. Hiztun asko, batez ere Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak, talde batean sar genitzake, non aditz inergatibo gehienek subjektu ERGa hartzen duten. Beste hiztun asko, batez ere Zuberoakoak eta Nafarroa Beherekoak, beste talde batean sartuko genituzke, non aditz inergatibo gehienek subjektu ABSa hartzen baitute. Azkenez, Nafarroako hiztun gehienak mendebaldearekin batera joango lirarteke, eta Lapurdiko hiztun gehienak ekialdearekin batera; baina nolabait trantsizioko eremuak osaturik (Egia esan, Baztango eta Lapurdiko hiztunen artean ez nuen aurkitu ezberdintasun handirik. Baina lehenago esan dudan bezala, Nafarroako hizkerak nahiko errepresentazio murrizta daukate nik hartutako laginean).

Ondorioz, mendebaldeko kasu-markaketak sistema semantikoa erakutsiko luke. Baina ekialdeko kasu-markaketa ergatibo(ago) izango litzateke.

## 12. Gazteen hizkera

Esan gabe doa nire ikerketan aurkitu nuen eta arestian deskribatu dudan ereduak salbuespen batzuk erakutsi zituela. Hauen artean, garrantzitsuena gazteek islatzen zutena izan daiteke.

Baztango, Lapurdiko eta are Nafarroa Behereko gazte batzuek subjektu ERGa erabiltzeko joera garbia erakusten zuten, baita euren nagusiek subjektu ABSa erabiltzen zuten aditz inergatibo bakun batzuekin ere.

Horrela, Saran elkarrizketatu nuen hamar urteko haur batek (bere amarekin batera elkarrizketatu nuen) subjektu ERGa erabili zuen *dantzatu* eta *mintzatu* aditzekin (baina ez *jostatu* aditzarekin: *divertirse?*). Aipagarria da haur honen amak komentatu zuena bere semearen erabilera desberdina entzun zuenean. Zera esan zuen amak: bere semearen erabilera, eskolan ikasitako euskara batutik etor zitekeela. Oso ohar garrantzitsua, amarena. Alabaina, kontuan har bedi, “euskara batua” Euskaltzaindiak finkatzen duena baldin bada, haur honen eragina ez datorrela “euskara batu ofizial” dei dezakegun horretatik (cf. Euskaltzaindia 2000: 532, 662). Aitzitik, mutil honen hizkerak jaso duen eragina “mendebaldeko euskara batu ez-ofiziala” edo dei genezakeen batetik letorke.

Sarako mutilarenak bezalako (edo antzeko) emaitzak lortu nituen Ezterenzubiko gazte adolezente birekin, eta Erratzuko 24 urteko gazte batekin. Egia esan, azken honena konplexuagoa izan zen. Baztango gazte honek nahiko joera homogenea erakutsi zuen elkarrizketa egin nionean, beti ere subjektu ABSa erabiliz aditz inergatibo bakunekin (*solastu*, *saltatu*, *jostatu*, *borrokatu*). Alabaina, elkarrizketa amaitutzat jo eta gero, hizketan jarraitu genuen biok minutu batzuetan. Minutu horietan gazte honek birritan erabili zuen *solastu* aditza (*hitz egin*) subjektu ERGekin. Erabilitako aldakortasuna aipatu nionean, esan zidan Elizondon ikasi zuela eta bertan, eskolan,

“euskara batuaren eragina” jaso zuela. Beraz, kontraesan batzuk ager zitezkeela bere hizkeran.

Ez zen, ordea, mutil hau Baztango hiztun bakarra subjektu ERGak zerabiltzana aditz inergatibo bakun batzuekin. Beste hiztun batek behintzat, eta adinekoa gainera, subjektu ERGak erabili zituen *dantzatu* eta *solastu* aditzekin, (nahiz zalantza batzuk zituen). Ez dakit nongo eragina izan zezakeen hiztun honek (baldin inongo eraginik bazuen). Beraz, ondoriozta dezakeguna zera da: oso gai konplexua dela ikertzen ari garena, baldin eta hiztun bakoitzaren hizkera zehatz-mehatz islatu nahi badugu. Aldakortasun xehe hori ikerketa soziolinguistikoko batean ikus liteke. Baina honek oso ikerketa sakona eskatuko luke. Nire azterketa honetan, aldakortasun horren berri orokorra nahi izan dut eman, soilik. Askoz sakonago iker daitekeen gaia da, hortaz, honako hau. Dena den, eta arestian aipatu dudan bezala, uste dut aldakortasun soziolinguistikoko honek ez gaituela itsutu behar. Hiztun gehienek nahiko gramatika homogeneoa daukate eta, beraz, bi gramatika nagusi desberdindu genitzake: bata, non aditz inergatibo bakun gehienek subjektu ERGa duten; eta bestea, zeinetan aditz inergatibo bakun gehienek subjektu ABSa eramaten baitute.

Hori bai. Goiko datuek erakusten dute aditz inergatiboen aldakortasun hau martxan dagoen aldaketa (berranalisi) batetik datorrela. Beraz, mendebaldeko hizkerak berritzaileak izan dira dagokigun ezaugarri honetan; eta ekialdeko hizkerak, berriz, kontserbadoreak. Badirudi martxan dagoen aldaketaren joera ekialdeko hizkeretan ere hedatzekoa dela, subjektu ERGa gehiago zabalduz.

### 13. Maileguak

Arestian emandako jeneralizazioek badaukate aipatzekoa den beste salbuespen bat: maileguen jokaera. Maileguen jokabidearena ere oso gai zaila da, eta hemen gaia gaintetik ukitu besterik ezin dut egin. Funtsean bi dira aditz inergatibo bakun mailegatuen berezitasunak. Batetik, euskal aditz inergatibo bakun mailegatu berriek oso joera berritzailea erakusten dute. Bestetik, aditz hauen jokabideak eragin zuzena erakutsi ohi du hizkuntza emaileetatik (gehienetan, gaztelaniatik edo frantsesetik). Bi faktore hauek elkarrekin lotuta azaltzen dira, egia esan.

Aditz inergatibo bakun mailegatu berriek joera berritzailea erakustean inplikatzan du subjektu ERGa eramango dutela, aditz inergatibo bakun zaharrek (jatorrizkoek) baino gehiagotan. Honen arrazoa ulertzea erraza ez den arren, ondokoa izan daiteke azalpenaren faktore bat: hizkuntza baten momentu sinkroniko batean, hitz berriek normalean erakutsiko dute hizkuntza horrek momentu horretan indarrean duen eredu gramatikalik berritzaileena; hain zuzen ere hitz berriak direlako, eta ez dutelako jaso behar inolako joera kontserbadorerik.

Bigarren faktorea honela deskriba liteke. Euskal aditz iragangaitz mailegatu askok (eta mailegu ez diren baina alboko hizkuntzenekin pareka edo erlaziona daitezkeen aditz iragangaitz zenbaitek ere) hizkuntza emaileen eredu berari jarraitzen diote, baina ez subjektuaren kasu-markaketan, jakina. Zehazki: baldin euskarak aditz iragangaitz bat mailegatzen badu, eta hizkuntza emaileak (gaztelaniak edo frantsesak) delako aditz iragangaitz hori era pronominallean (klitiko bihurkariekin edo) erabiltzen badu, gehienetan subjektu ABS batekin mailegatuko du euskarak. (Gauza bera esan daiteke frantsesez *être* laguntzailea daramaten aditz iragangaitz gehienei buruz).



Aldiz, baldin eta aditz irangangaitz bat hizkuntza emailean ez bada era pronominalen erabiltzen eta inergatiboa bada, euskarak joera handia edukiko du, aditz hori mailegatuz gero, subjektu ERG batekin mailegatzeko.

Bigarren faktore hau, zeharo independentea izanik ere, aurrekoarekin bat etortzen da gehienetan. Hain zuzen ere, aditz irangangaitz inergatibo bakunetan, subjektu ERGa gehiagotan erabiltzera eramaten dute faktore biek. Lehenengo faktoreak aditz inergatibo bakunen subjektu ERGra eramaten du, lehenago ikusi dugun bezala, horixe delako euskarak gaur egun indarrean duen eredu berritzailea (agerian, batez ere, mendebaldeko euskalkietan). Bigarren faktoreak, ordea, aditz inergatibo bakunen subjektu ERGra eramaten du, alboko hizkuntzetan era pronominalen erabiltzen diren aditz irangangaitz gehienak, azken batean, inakusatiboak direlako. Beraz, faktore biek daramate euskara aditz irangangaitzen arteko bereizketa semantikorantz. Hortaz, euskal aditz inergatibo bakun mailegatuek, gehienetan (ia-ia beti), subjektu ERGa hartuko dute mendebaldeko euskalkietan, eta askotan (gehienetan behar bada) ekialdeko euskalkietan. Adibidez: *flotatu*, *eboluzionatu*, (*botatu* = bote egin), *botatu* (= bo-toa eman), *eskiatu*, *erreinatu*, *errodatu*, *dimititu*, *funtzionatu*, eta abar. Datu hauen behaketak eraman omen zuen Sarasola (1977) proposatzera aditz irangangaitz mailegatu guztiak subjektu ERGa hartzen dutela. Subjektu ERGa gero eta gehiago ari dela hedatzen euskal maileguetan bai atzeman zuela ondo Sarasolak. Alabaina, aditz irangangaitz mailegatu *guztiak* subjektu ERGa hartzen dutela ez da deskripzio zuzena, aditz inakusatibo mailegatu tipikoei (erromantzeen aditz pronominalak barne) jarraituko dutelako subjektu ABSa hartzen.

Nik proposatu ditudan ondorio berdinetara heldu zen Alberdi (2003), nahiz eta honek ez duen desberdintzen mendebaldeko euskalkien jokabidea eta ekialdekoena. (Bestalde, Alberdiren aditz zerrendek, hiztegieta oinarrituta daudenez, badirudite euskara idatzian edo gramatiketako deskripzioetan dutela azkeneko iturburua, eta ez gaur egungo benetako erabileran).

#### 14. *Irten*, *igo* bezalako aditzak

Gorago (3. atalean) proposatu dudan aurkaritza semantikoak (paziente/ez-paziente aurkaritzak) salbuespen batzuk edo salbuespen diruditen batzuk erakusten ditu. Hauen artean bitxienetarikoa mendebaldeko *irten* eta *igo* bezalako aditzek aurkezten dute. Egia esan, *igo* ez da nahitaez subjektu paziente tipikoa daraman aditza, askotan atelikoa izaten baita (*gora egin* bezala); baina *irten* aditzak bai eraman ohi duela subjektu paziente tipiko bat, behintzat telizitateari dagokionez.

Mendebaldeko *irten* eta *igo* bezalako aditzen jokaera azaltzeko asmoz, behin-behineko hipotesi bat aurkeztu nuen Aldai (2009) lanean. Hipotesi honen arabera, *irten* eta *igo* bezalako aditzak modu berezi batean ulertuak badira, euren subjektuak ez daude proto-pazientetik hain hurbil. Proto-pazientetik aldentze hori jasankortasunari (*affectedness* delakoari) dagokio hain zuzen; hots, proto-pazientearen hirugarren ezauzgarriari (ikus 3. atala). Beste era batera esanda, *irten* eta *igo* bezalako aditzak ohiko moduan ulertuak direnean, aditz hauen subjektua nahiko paziente tipikoa izaten da, aldaketak direlako eta telikoak izaten direlako (batez ere, *irten*). Alabaina, interpretazio berezi bat hartzen badute, eta jasankortasunari gagozkiolarik, honelako aditzek ez dute inplikatzeko nahitaez beren subjektuek izaera jasankorra daukatetik. Zehatzago:

interpretazio berezi horren arabera, *irten* eta *igo* bezalako aditzak ez leudeke oso urrun emisio aditzetatik euren antolaketa kognitiboan.

Hirugarren atalean esan dudanez, jasankortasuna (*affectedness*) definitzea ez da batere erraza. Askotan, jasankortasuna korrelazioan egoten da telizitatearekin; baina kasu batzuetan telizitatea eta jasankortasuna ez datoz bat nahitaez. Honelako adibide garbi bat *lehertu* aditzak erakusten du. Modu grafiko batean adierazteko, aditz teliko baten ondorioa “barrurantz” badoa, subjektuari eragina eginez, eta aditz bihurkarietan antzera, orduan aditz teliko hori jasankorra ere bada. Haatik, aditz teliko baten ondorioa “kanporantz” doala interpretatzen bada, subjektuari eragina egin gabe, eta emisioen antzera, orduan aditz teliko hori ez da nahitaez jasankorra. Azken kasu honetan, “kanporantz” aditz telikoak aditz inergatiboetatik hurbil daudela uler daiteke.

Beraz, euskararen kasuan, eta inergatibitatearen hedapen baten ondorioz, “kanporantz” aditz teliko batzuek subjektu ERGa har lezakete, bereziki mendebaldeko euskalkietan. Holako kasuan leudeke, ez bakarrik *lehertu*, *leher egin* edo *eztanda egin* bezalako aditzak, baina baita *igo* eta *irten* bezalakoak. (Beharbada, espekulatiboki, uler liteke “gorantz” joatea “kanporantz” joatearekin erlazioantuta egon daitekeela kognitiboki; eta “beherantz” joatea “barrurantz” joatearekin. Cf. *barren* hitzak izan dituen esanahi biak). “Kanporantz” aditz telikoen multzo honetan, agian, *alde egin*, *ospa egin*, *ihes egin* eta holako beste batzuk sar genitzake. *Erresuzitadu* aditzak ere subjektu ERGa hartzen du mendebaldeko autore batzuen idatzietan. Azkenez (nahiz eta azken hau are espekulatiboagoa izan), beharbada “kanporantz” telizitatea eduki lezakete *amaitu* edo *bukatu* aditzek ere, *amaitu dut idazten* bezalako testuinguruetan (“idaztetik irten dut” izango balitz bezala); *hasi* aditzaren interpretazio kognitiboa “barrurantz” joango litzatekeen bitartean, *idazten hasi naiz* bezalako testuinguruetan (“idaztera sartu naiz” bailitzan).

## 15. Zeharkako objektua daukaten aditzak

Zeharkako objektua bakarrik daukaten aditzek ebidentzia gehiago eskaintzen dute hemen defendatzen den hipotesiaren alde. Hots, ekialdeko euskalkietan kasu-markaketa ergatibo(ago)a aurkitzen dugun bitartean, mendebaldeko euskalkietan markaketa semantikoa dagoela.

Euskaraz badaude zeharkako objektua eraman ohi duten edo eraman dezaketen argumentu-biko aditz batzuk: adibidez, *eutsi*, *deitu*, *itxaron*, *lagundu*, *begiratu*, *behatu*, *jarraitu*, *aditu*, eta abar. Markaketa honen azpian arrazoi semantikoren bat dagoenez ez dut ukituko lan honetan. Derrigorrez aztertu behar dena, ordea, da euskalki bakoitzak aditz hauekin izan ohi duen erregimena. Aldai (2008) lanean erakutsi nuenez, mendebaldeko euskalkietan honelako aditzek ondoko kasu-markaketak eraman ohi dituzte: ERG-ABS edo ERG-DAT (bizkaieraz, azkena, batik bat). Ekialdeko euskalkietan, ostera, ERG-DAT kasu-markaketa ez da oso ohikoa aipatutako aditzekin. Honen ordeaz, ERG-ABS edo ABS-DAT antolaketak dira gehien bat erabiltzen direnak.

Lafittek (1962: 190), adibidez, aditz hauei buruz (*transitifs indirects* deitzen ditu) zera aipatzen du nafar-lapurtera literarioarako: “Ces verbes sont généralement intransitifs de forme, et leur complément est presque toujours au datif”; hots, Lafitten us-tez, mota honetako aditzek, gehienetan, ABS-DAT erregimena daukate nafar-lapurtera literarioan. Hauen artean, *jarraiki* eta *jazarri* aipatzen ditu Lafittek. Alabaina, *behatu*

eta *ihardoki* aditzei buruz ERG-DAT erregimena daukatela dio (nahiz eta *behatu* aditzak ABS-DAT antolaketa ere har dezakeen; beste esanahi batekin, antza). Azkenez, *iguriki* eta *lagundu* aditzak aipatzen ditu, eta ERG-ABS erregimena eraman ohi dutela esaten du (ERG-DAT erregimena ere posible den/zen arren). Beraz, gaur egungo ikerketa dialektala egiteke badago ere, behin-behineko ondorio bezala zera aipa daiteke: erregimen aldakortasun handia ikusten dela aditz hauekin; baina nafar-lapurteraz ERG-ABS eta ABS-DAT erregimenek oso ohikoak dirudite, mendebalderago ERG-DAT ohikoagoa dirudien bitartean.

Batek esan lezake mendebaldean ere ABS-DAT erregimena askotan erabiltzen dela, hala nola *gustatu*, *etorri*, *heldu* edo *itsatsi* aditzekin. Alta, kontuan har bedi orain aipatu diren aditzak ez direla arestian aipatutakoen berdinak. *Gustatu* bezalako aditzek esperientzia-jasaile diren subjektuak izan ohi dituzte. Eta *etorri*, *heldu* edo *itsatsi* bezalako aditzek subjektu pazientea (jasailea) izaten dute. Hortaz, azken aditz hauek ez dira aditz inergatiboak bezalakoak, ez baitute subjektu ez-pazienterik eramaten. Lehenago kontsideratu ditudan aditzak, (esaterako, *eutsi*, *deitu*, *itxaron*, *iguriki*, *lagundu*, *begiratu*, *behatu*, *iharduki*, *jarraitu*, *eraso*, *jazarri*, *oldartu*, *aditu*), ordea, inergatiboen antzekoak dira, subjektu ez-pazientea (eta gehienetan agentea) hartu ohi dutelako.<sup>2</sup>

Euskara arkaikoan (XVI. mendean eta), azken multzo honetan aipatutako aditz gehienek ABS-DAT markaketa eramateko joera nagusia erakusten zuten. Gainera, ABS-DAT erregimena ez zen bakarrik ekialdeko euskalkietan agertzen, baina baita mendebaldeko euskalkietan ere, bizkaiera barne, *eutsi*, *oratu*, *itsatsi* (= *oratu*, *eutsi*), *jarraitu*, *eskatu*, *suplikadu*, *aditu*, *despedidu*, *lagundu* aditzen testigantzak frogatzen duenez. (Xehetasun gehiagorako, ikus Aldai 2008).

## 16. Dimentsio historikoa

Ponentzia hau ikuspegi sinkronikotik aurkeztu nahi izan dut. Hala ere, garbi dago ikuspegi sinkronikoan deskribatutako aldakortasunak dimentsio historiko bat inplikatzeko duela. Dimentsio historikoa Aldai (2008) lanean aztertu nuen, gehienbat, baina badaude gauza asko oraindik ikertzeko.

Nahiko segurtasun handiaz esan dezakeguna zera da: euskararen historian gertatzen ari den aldaketaren norabidea kasu-markaketa ergatibotik kasu-markaketa semantikorantz mugitzen dela. Are gehiago, aldaketa hau —berranalisi bat, azken batean— mendebaldean hasi zen lehenago (Bizkaian edo, beharbada, Gasteizen), eta ekialderantz hedatzen ari omen da aspaldion (gazteen hizkerak salatzen bide duenez).

Aldaketaren norabidea frogatzen duen ebidentzia *dantzatu*, *jokatu*, *bazkaldu*, *afaldu* eta antzeko aditz inergatiboek eskaintzen dute. Lehenengo aditz bien testigantza zaharrek subjektu ABSak erakusten dituzte, baita mendebaldean ere (adibidez, *dantzatu* aditza Tolosan 1619an jarritako bertso iraingarrietan agertzen da subjektu ABS batekin). Janari aditzen aldaketa, aldiz, Lapurdin dokumentatzen da hobekien.

<sup>2</sup> Ohar bedi zein mehea eta fina den paziente/ez-paziente aurkaritza, aditz batzuen subjektuak, aldaketa semantiko txiki baten bitartez, batetik bestera pasa baitaitezke. Adibidez, *heldu* edo *lotu* aditzak: *itsasotik heldu zaio aita* (subjektu pazientea) / *besotik heldu dio aitak* (subjektu ez-pazientea).

Lapurdiko autore arkaiko eta zahar guztiek subjektu ABSekin erabiltzen dituzte janari aditzak, antolaketa ergatiboak eskatuko lukeen bezala. Kontuan hartu ekialdeko euskalkietan janari aditzak iragangaitzak direla beti. Gaur egun, ostera, (nire ikerketaren arabera, behintzat), Lapurdiko hiztunek subjektu ERGa erabiltzen dute janari aditzekin, kasu-markaketa semantiko batek eskatuko lukeen bezala.

Benetako aditz inergatiboek baino testigantza hobea eskaintzen dute aurreko atalean ikusi ditugun zeharkako objektuko aditzek. Arestian aipatu dudana bezala, *eutsi, oratu, itsatsi, jarraitu, eskatu, suplikatu, aditu, despeditu, lagundu* eta antzeko aditzek mendebaldeko euskalkietan, baita *heldu, baliatu, behatu, otoiztu* edo antzekoek ekialdeko euskalkietan, ABS-DAT erregimena erakutsi ohi zuten testigantza zaharrenetan (antolaketa ergatibo hertsia batek eskatuko lukeen moduan). Testigantza berriagoetan, ostera, ERG-DAT erregimena —antolaketa semantikoa islatzen duena— da gehien agertzen dena mendebaldean (ERG-ABS erregimenarekin batera); baina ekialdean ERG-ABS eta beharbada oraindik ABS-DAT (Zuberoan?) dira gehien erabiltzen diren erregimenak.

## 17. Euskararen kasu-markaketaren etiketaz

Bigarren atalean esan dudanez, hizkuntza zehatz bati etiketa tipologikoak ezartzea ez da batzuetan lan erraza. Horrela, euskararen kasu-markaketari etiketa bat jarri nahi diogunean, zailtasun handiak aurkitzen ditugu. Zailtasun horien artean, *egin*-konposatuena aipatu dut, aditz hauek iragangaitzen eta iragankorren bitartean aurkitzen baitira. Beste zailtasun bat semantikaren aldetik datorkigu, ez baita kontu sinplea asmatzea zer aurkaritza semantiko dagoen euskal aditz iragangaitzen artean (baldin eta aurkaritza semantikorik badago).

Lan honetan gehien bat ukitu dudana zailtasuna, ordea, aldakortasun dialektalari dagokio. Ikusi dugun bezala, aditz inergatibo bakunen artean aldakortasun handia aurki daiteke euskalki batetik bestera. Oso gutxi gorabehera, mendebaldeko euskalkietan aditz inergatibo bakunek subjektu ERGak hartzen dituzte, ekialdean subjektu ABSak erakutsi ohi dituzten bitartean. Aldakortasun hau azaltzeko, berranalisi bat proposatu dut, zeinaren bitartez euskararen kasu-markaketa ergatibo izatetik antolaketa semantikoa izatera pasatzen ari den. Berranalisi hau mendebaldean hasi zen lehenago, eta horregatik aurkitzen ditugu bertan subjektu ERGak aditz inergatibo bakunekin. Aspaldion, delako berranalisia ekialderantz hedatzen ari dela dirudi. Baina ekialdean, batez ere Zuberoan, oraindik agertzen dira aditz inergatibo asko subjektu ABSekin. Dena den, kontuan hartu behar dugu aditz inergatibo bakunak, guztira harturik ere, nahiko aditz gutxi direla, eta, beraz, aditz apur hauetan oinarriturik erabaki bat hartzeak nahiko kontu labainkorra dirudiela.

Ondorioz, halabeharrez etiketa bat ezarri behar badiogu euskararen kasu-markaketari, zera esan dezakegu: mendebaldeko euskalkiek (bizkaierak, batez ere) antolaketa semantikoa erakusten dutela; baina ekialdeko euskalkiak (zuberera, bereziki) ergatibo(ago) direla. Bestela, ondokoa ere esan genezake: euskara, bere osotasunean, kasu-markaketa ergatiboaren eta kasu-markaketa semantikoaren bitartean datzala, mendebaldeko euskalkiak azken honetatik hurbilago daudelarik.

**Aipamen bibliografikoak**

- Alberdi, X., 2003, «Euskal aditz mailegatuen erregimena: hurbilketa». In J. M. Makatzaga & B. Oyharçabal (arg.), *P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra. Gramatika gaiak. Iker 14 (I)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 37-60.
- Aldai, G., 2002, *The grammaticalization of present and past in Basque*. Doctoral dissertation. University of Southern California.
- , 2006, «The semantic (i.e. split-intransitive) case-marking system of Western Basque». In B. Fernandez & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan: Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: University of the Basque Country, 117-138.
- , 2008, «From ergative case marking to semantic case marking: the case of historical Basque». In M. Donohue & S. Wichmann (arg.), *The typology of semantic alignment*. Oxford: Oxford U. P., 197-218.
- , 2009, «Is Basque morphologically ergative?: Western Basque vs. Eastern Basque» *Studies in Language* 33 (4), 783-831.
- Comrie, B., 1978, «Ergativity». In W. P. Lehmann (arg.), *Syntactic typology: Studies in the phenomenology of language*. Austin: University of Texas Press, 329-394.
- Dixon, R. M. W., 1994, *Ergativity*. Cambridge: Cambridge U. P.
- Dowty, D., 1991, «Thematic proto-roles and argument selection», *Lg* 67 (3), 547-619.
- Euskaltzaindia, 2000, *Hiztegi batua*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Lafitte, P., 1962 [1944], *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*. Berrinprimatua: Baiona/Donostia: Ikas/Elkar, 1979.
- Levin, B., 1983, *On the nature of ergativity*. PhD dissertation, MIT.
- , 1989, «The Basque verbal inventory and configurationality». In L. Marácz & P. Muysken (arg.), *Configurationality: The typology of asymmetries*. Dordrecht: Foris Publications. 39-62.
- & M. Rappaport-Hovav, 1995, *Unaccusativity*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Sarasola, I., 1977, «Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes», *ASJU* 11, 51-90.
- Schütze, C. T., 1996, *The empirical base of linguistics: Grammaticality judgments and linguistic methodology*. Chicago/London: University of Chicago Press.
- Trask, R. L., 1997, *The history of Basque*. London/New York: Routledge.
- , 2002, «Ergativity and accusativity in Basque». In K. Davidse & B. Lamiroy (arg.), *The nominative & accusative and their counterparts*. Amsterdam: John Benjamins, 265-284.



# NZ-IN SITU EUSKARAZ: GAZTEEN NAFAR-LAPURTERAZKO GALDERA-ESTRATEGIA BERRI BAT

Maia Duguine

(Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea, U. Nantes, IKER & HiTT)

Aritz Irurtzun

(Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea & HiTT)

## Abstract<sup>1</sup>

*In this article we analyze some new Wh-question constructions that are found in the speech of navarro-labourdin young speakers. After reviewing the structure of the standard Wh-question formation strategy and that of the reinforced strategy which is specific to navarro-labourdin, we analyze the data of the new Wh-question strategy. We show that unlike the previous ones, this new strategy does not show any Wh-movement, and rather, it is better analyzed as a Wh-in situ construction. Furthermore, we suggest a hypothesis regarding the origin of this new construction as a reanalysis of the existing patterns which could be facilitated by a contact situation with a language which, besides the Wh-movement construction, also shows Wh-in situ, i.e. French.*

## 1. Sarrera: galdera-estrategiak euskaraz

Artikulu honetan gazteen nafar-lapurteran (hemendik aurrera GNL) aurkitzen den galdera-estrategia berri bat aztertuko dugu. Galdera-estrategia hori beste hizkuntza batzuetako Nz-*in situ* galderen gisakoa dela erakutsiko dugu eta estrategia berri honen agerrererako hipotesi bat aurkeztuko dugu, frantsesaren eraginak ahalbidetu duen aldaketa-patroi bat izan daitekeela iradokiz. Lehen atal honetan, euskararen galdera-estrategia orotarikoen izaera aurkeztuko dugu, Nz-mugimenduak eta flexio burutik konplementatzaile eremurako mugimenduak (hots, buruz buruko T-C mugimenduak) aurkeztuz. Bigarren atalean, nafar-lapurteran galdera-estrategia orotarikoekin batera aurkitzen diren galdera-estrategia indartuen izaera aurkeztuko dugu Duguine & Irurtzun (2008) lanaren ildotik. Hirugarren atalean, GNLaren ezaugarria den galdera-estrategia berria zertan den erakutsiko dugu eta laugarren atalean haren sorreraren analisi bat eskainiko dugu.

Hasteko, ezaguna da, Kiss (1995)-en hitzak erabiltzearen, euskara, oinarrian S(ubjektu)-O(sagarri)-A(ditza) hurrenkera izanagatik, “berbaldiaren araberako konfigurazionalitatea” duen hizkuntza ere badela; ikus, beste askoren artean, Azkue

---

<sup>1</sup> Lan hau Espainiako Ikerketa eta Berrikuntza Ministerioaren FFI2008-04789/FILO ikerketa proiektua, Eusko Jaurlaritzaren GIC07/144-IT-210-07 proiektua eta ANR-ren *Towards a Syntactic Atlas of the Basque Language* (ANR-07-CORP-033) proiektuaren diru-laguntzaz egin da. Bestalde, Beatriz Fernández eta Ricardo Etxepare eskertu nahi ditugu, ekarri diguten laguntzagatik.

(1923), Altube (1929), Mitxelena (1981), Ortiz de Urbina (1989), Osa (1990) eta Etxepare & Ortiz de Urbina (2003). Azken ezaugarri honen arabera, perpausaren hitz-hurrenkera neutroa (informazio-egituraren eragin berezirik ez duena) aldatu egiten da perpausaren partiketa informatiboaren arabera. Honela bada, (1)ekoa da euskararen hurrenkera neutroa, hots S-O-A:

(1) Jonek Miren ikusi du.

Aldiz, galdera-erantzun inguruneetan ezin da beti (1)eko hurrenkera mantendu. Adibidez, subjektuaren inguruko galdera edota erantzun bat egiteko ezin da (1)eko S-O-A hurrenkera izan, (2a)ko eta (3a)ko perpausen ezgramatikaltasunak erakusten duen bezala. Halaber, subjektuaren ostean aditz multzoa agertu behar da; ikus (2b) eta (3b):

(2) a. \*Nork Miren ikusi du?      b. Nork ikusi du Miren?


(3) a. \*[Jonek]<sub>F</sub> Miren ikusi du      b. [Jonek]<sub>F</sub> ikusi du Miren

Modu bertsuan, osagarri zuzenaren inguruko galdera- edo galdegai-egitura bat egin nahi izanez gero, derrigor Nz- edota galdegai-sintagmaren ostean aditz multzoa agertu behar da (ikus (4b) eta (5b)). Hala gertatzen ez bada, emaitza ezgramatikala da, (4a)ko eta (5a)ko adibideek erakusten duten bezala:

(4) a. \*Nor Jonek ikusi du?      b. Nor ikusi du Jonek?

(5) a. \*[Miren]<sub>F</sub> Jonek ikusi du      b. [Miren]<sub>F</sub> ikusi du Jonek

Honela bada, galdera- edota galdegai-egituren analisi zabalduenak A' gisako ezkerretaratze-mugimendu bat proposatzen du agertzen zaigun hurrenkera sintaktikoaz kontu emateko; ikus, besteren artean, Ortiz de Urbina (1989) *et seq.*, Irurtzun (2007).<sup>2</sup> Analisi “kartografiko” honen arabera, delako elementuaren ezker periferiako *Foku* sintagmarako mugimendua gertatzen da, bertan T-C mugimendua egin duen aditzarekin tasun-erkaketa bat eraginez espezifikatzaile-buru konfigurazioan. Hau (6)ko deribazio abstraktuan irudikatu dugu (ik. Ortiz de Urbina 1989 *et seq.*).<sup>3</sup>




Honela, hemen (7a) gisara errepikatzen dugun (2b)ko subjektu-galderaren oinarrian (7b) moduko egitura bat genuke: *nork* subjektua Foku Sintagmaren espezifi-

<sup>2</sup> Era berean, ikus analisi kartografikoa eta Azentu Nuklearraren Araua (*Nuclear Stress Rule, NSR*) uztartzen dituen Elordietaren (2001) proposamena.

<sup>3</sup> Teoria kartografikoaren azken garapenei jarraiki, Konplementatzaile Sintagma hainbat proiektzioan banatua dagoela aintzat hartuko dugu: IndarS - TopS - FokS - JokS; ik. Rizzi (1997) eta euskararen azterketetarako Ortiz de Urbina (1999) eta Irurtzun (2007). Dena dela, eta argitasunaren mesedetan, aditzak Foku<sup>9</sup> burura egiten duen mugimendua adierazteko T-C akronimoa erabiltzen jarraituko dugu.



katzailera mugitzen da eta aditza (buruz buruko mugimenduaren ondoren sortutako *ikusi du* aditz multzoa zehazkiago) Foku Sintagmaren burura, honela Nz-sintagma eta aditz multzoa espezifikatzaile-buru “eraikuntzan” kokatuz:



Hau da, Nz- edota galdegai-sintagmak Foku Sintagmaren espezifikatzaile-rako mugimendua egiten du, eta honen ondorioz aditz multzoak (A aditz lexikoak *a*-ra eta gero biek T-rako mugimendua egin izanaren emaitzak) Fok<sup>o</sup>-rako mugimendua egiten du; honela, delako Nz- edo galdegai-sintagmarekin espezifikatzaile-buru konfigurazioan gelditzen da (esan bezala, honi “eraikuntzan egotea” edota “irizpidea asebetetzea” deritzo).

Aipatu beharrekoa da bi ezaugarri tipologiko hauen batura (oinarrian hizkuntza buru-azkena izatea (hots, SOA izatea) eta galdera-sintagmen ezkerretaratzea izatea) printzipioz Bachen orokorpen ezagunaren aurka doala:

- (8) *Bachen orokorpena* (Bach 1971: 161):  
 “Hizkuntza bat OA bada, orduan NZ *in situ* dauka.”<sup>4,5</sup>

Esan bezala, lan honetan Bachen orokorpenarekin adosago datorkeen nafar-lapurterazko galdera-estrategia berri bat aurkeztuko dugu (ik. 3. atala). Baina horretan

<sup>4</sup> Orokorpena izen honekin ezaguna bada ere beste ikertzaile askok lehenagotik aipatua zuten, haien artean nabarmen Greenberg izanik (ik. Greenberg 1963 laneko 12. “unibertzala”). Aitortu beharrekoa da, hala ere, orokorpen hau zalantzarria dela, izan ere *The World Atlas of Language Structures*-en (Haspelmath et al. 2005) honako datuak agertzen dira Aditza-Osagarria hurrenkera (WALSeko 83. ezaugarria) eta Nz-sintagmen posizioaren (WALSeko 93. ezaugarriaren) korrelazioari dagokionez:

(i)	A-O (640)	O-A (640)	HURRENKERA NAGUSIRIK EZ (90)
Perpauk hasierako NZ (261)	69	143	28
NZ perpauk hasieran ez (542)	280	220	23
Nahastuta (20)	4	14	2

<sup>5</sup> Honen azterketarako, ikus Kayne (1994) eta, bereziki, Ormazabal, Uriagereka & Uribe-Etxebarria (1994 [2008]).

sartu aurretik, nafar-lapurteraz peto-petoak diren beste galdera- eta galdegai-estrategia indartuak aurkeztuko ditugu 2. atalean; ik. Duguine & Irurtzun (2008) ikuspegi sakonago baterako.


## 2. Nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuak

Aurreko atalean ikusi dugunez, euskarazko galdera- eta galdegai-estrategia hedatuena delako galdera- edota galdegai-sintagma Foku Sintagmaren espezifikatzailean eta aditz multzoa sintagma beraren buruan kokatzen duena da. Baina badira aurreko egitura estandarrez gain nafar-lapurterak bere-bereak dituen galdera-estrategia ‘indartuak’ ere; ik. Lafitte (1944), Rebuschi (1997), Oyharçabal (1985), Osa (1990), Etxepare & Ortiz de Urbina (2003), Duguine & Irurtzun (2008). Egiturotan ez dugu aditz multzo osoa Nz-aren edo galdegaiaren eskuineko posizioan; aditz laguntzailea besterik ez zaigu agertzen posizio honetan, aditz nagusia *in situ* utzita.<sup>6</sup> Begiratu (9)ko eta (10)eko datuei:

(9) a. Nork du Miren ikusi? ( $\approx$ (2b))      b. [Jonek]<sub>F</sub> du Miren ikusi. ( $\approx$ (3b))

(10) a. Nor du Jonek ikusi? ( $\approx$ (4b))      b. [Miren]<sub>F</sub> du Jonek ikusi. ( $\approx$ (5b))

Egiturotan ikusten denez, ez dugu aditz multzo osoa ezkerretaritzen, besterik gabe aditz-laguntzailea da aurreratzen dena (hots, T<sup>o</sup> inflexio-burua), aditz lexikala bere kokagunean gelditu daitekeelarik (A-tik *a*-rako mugimenduaren ostean). Adibidez, (9a)ko perpausari (11)ko egitura legokioke:



<sup>6</sup> Egitura indartu hauetan badira aditz nagusia aurreratzean ANAG-ALAG hurrenkera izan beharrean ALAG-ANAG hurrenkera dutenak ere, adibidez (8a-b)ren parekoak diren (i) eta (ii)koak:

(i) Nork du ikusi Miren?      (ii) Jonek du ikusi Miren.

Egiturok hemen alde batera utziko ditugu, etorkizunerako langai.

Azpitarratu behar dugu nafar-lapurteraz egitura hauek egitura “estandarrekin” batera erabiltzen direla, esanahi-ñabardura desberdinak dituztelarik. Bi egituren arteko desberdintasun semantikoak hauek dira; ik. Duguine & Irurtzun (2008) honen inguruko argudio eta zehaztapenatarako:

- (i) Egitura indartu hauek proposizioak adierazten duen gertakariaren gaineko auresuposizio bat ekartzen dute.
- (ii) Egitura indartuok exhaustibotasun-murritzapen gogor bat dute.

Semantikoki, funtsean, perpaus erdibituak bailiran erabiltzen dira egitura indartuak (*Nor da Miren ikusi duena?* perpausaren gisakoak).

Hurrengo atalean, gazteen nafar-lapurteran aurkitzen den hirugarren galdera-estrategia bat aztertuko dugu, Nz-sintagmak *in situ* uzten dituen.

### 3. Gazteen estrategia berri bat: Nz-*in situ*

Galderetarako estrategia berri bat garatzen ari da nafar-lapurteraz mintzo diren gazte batzuegan. Egitura hauetan, egitura estandarretan eta egitura indartuetan sendoa den galde-sintagmaren eta aditzaren artean dagoen nolabaiteko ondokotasuna hausten da. Hau da, elementu bat (edo batzuetan bat baino gehiago) agertzen da Nz-sintagmaren eta aditzaren artean. (12)ko adibideak itxuratzen du estrategia hau:

(12) (?)Nork gereziak jan ditu?

Adibide honetan, *gereziak* osagarri zuzena *nork* Nz-sintagmaren eta *jan ditu* aditz multzoaren artean agertzen da. Argumentuekin ez ezik, adjunktuekin ere ikus daiteke egitura hori:<sup>7</sup>

(13) (?)Noiz gereziak jan dituzu?

Baina segitu aurretik, parentesi bat ireki dezagun. Datu hauek direla eta, gauza batzuk argi utzi nahi ditugu. Lehenik, azpitarratu nahi dugu ez dugula aurkitu egitura hauek ontzat edo gutxienez onargarrizat ematen dituen 40 urte baino gehiagoko hiztunik; honenbestez, hiztun gazteenetara mugatua dela dirudi, hots, fenomeno berria dela. Bigarrenik, hiztun gazte hauen artean aldakortasuna dago, ez baitute denek (12) ontzat ematen, baina ez dugu haatik aldakortasun diatopikorik aurkitu. Horrek ez du esan nahi horrelakorik ez dagoenik, baina lan honetarako egin duguna baino landa-lan sakonago eta zabalagoa beharko litzateke estrategia hau darabilten hiztunen

<sup>7</sup> Laka & Uriagerekaren (1987) eta Uriagerekaren (1992, 1999) arabera, Hegoaldeko euskaldunen-tzat, hauen antzeko galderak onargariak dira, baina beti ere mota jakin bateko adjunktuen tarteko dituztela (kausazkoak):

- (i) Zergatik zaldunak herensugea hil zuen?                      (iii) ?Nor horregatik etorriko litzateke?
- (ii) \*Noiz zaldunak hil zuen herensugea?                      (iv) \*Nor orduan etorriko litzateke?

Datu hauek zalantzarriak egiten zaizkie galdekatu ditugun Hegoaldeko hiztun guztiei. Bestela ere, argi dago beste mota bateko egiturez ari garela; izan ere, GNLGetan ez dira soilik adjunktuen inguruko galderak onargariak, argumentuen ingurukoak ere hala baitira.

profila zehazteko. Hirugarrenik, hiztun anitzentzat, estrategia hau ez da estrategia estandarra bezain 'ona' edo 'egokia'; horregatik, parentesi artean galdera ikur bat ezarri dugu (12) eta (13)n. Hemendik goiti, hala ere, galdera ikur hori ez dugu adieraziko. Azkenik, zera azpimarratu nahi dugu: orain artean aipatu dugu hiztun batzuek egitura mota hau aski desegokitzat jotzen dutela. Hala ere, hori diotenen artean askok anitz erabiltzen dituzte egitura hauek. Badirudi, beraz, ikuspegi arauemaileak alde batera utzita, GNLko hiztunen oharkabeko gramatikaren parte dela. Honenbestez, Ipar Euskal Herriko hizkerak norantz doazen jakin nahi dugun heinean, egitura honen gramatika aztertzea funtsezkoa iruditzen zaigu.<sup>8</sup>

Egitura hau *gazte nafar-lapurterazko galdera* (GNLG) izendatuko dugu. Bistan da, izendapen hau kontu handiarekin hartu beharrekoa da, aitzineko paragrafoan zerrendatu arrazoiengatik. Atal honetan, GNLGen gramatika jarriko dugu arreta. Berreziki, egitura hauek *in-situ* galderak direla iradokitzen duten hainbat datu daudela ikusiko dugu.

(12)ko perpausaren aurrean, eta 1. atalean aurkeztu dugun euskarazko galdera-egitura estandarren sintaxia gogoan atxikirik, hitz hurrenkera hau deribatze hiru modu posible daudela esan daiteke. Hiru analisi hauen ezaugarriak (14)n zehazten ditugu:

- (14) *A analisisia*: Nz-sintagma *in situ* dago eta ez dago T-C mugimendurik.  
*B analisisia*: Nz-sintagmak Nz-mugimendua izan du eta ez dago T-C mugimendurik.  
*C analisisia*: Nz-sintagmak Nz-mugimendua izan du, T-C mugimendua dago eta bien arteko sintagmak foku mugimendua izan du bi osagaion arteko proiektioen batera.

Hemen ikusiko dugunez, datuek A analisisia zuzena dela iradokitzen dute.

Has gaitezen hitz hurrenkerarekin. Frantsesak, jakina da, galderetarako hainbat estrategia ditu; ik. Duguine & Irurtzun (2008) eta bertan eman erreferentziak. Horietatik bat *in situ* estrategia da; beste hizkuntza batzuetan estrategia bakarra da hau, txineran kasu (ik. Cheng 1991, besteak beste). *In situ* egituretan, Nz-sintagma bere argumentu (edo adjunkt) gunean gelditzen da; hots, ez da konplementatzaile gunera mugitzen. Estrategia hau ondoko adibideetan itxuratzen dugu. (15)eko adibideetan, baiezko perpausetan osagarri zuzena zehar osagarriaren eskuinean kokatzen dela erakusten da. (16)-(17)ko adibideek, berriz, zera erakusten dute, bietako bat Nz-sintagma delarik eta ez delarik konplementatzaile gunera mugitua, bi osagarrien arteko hurrenkera bera mantentzen dela:

- (15) a. Tu as donné les fleurs à Jean  
 zu LAG eman ART lore DAT Jean  
 'Jeani loreak eman dizkiozu'      b. \*Tu as donné à Jean les fleurs  
 zu LAG eman DAT Jean ART lore  
 'Jeani loreak eman dizkiozu'
- (16) a. Tu as donné les fleurs à qui?  
 zu LAG eman ART lore DAT nor  
 'Nori eman dizkiozu loreak?'      b. \*Tu as donné à qui les fleurs?  
 zu LAG eman DAT nor ART lore  
 'Nori eman dizkiozu loreak?'

<sup>8</sup> Eta horretan gure interesak Baionako IKER laborategian daramaten NORANTZ egitasmoarekin bat egiten du. Irantzu Epeldek (k.p.) dioskunez, GNLG anitz aurkitzen dira gazteen eguneroko hizkeran.

- (17) a. Tu as donné quoi à Jean?      b. \*Tu as donné à Jean quoi?  
       zu LAG eman zer DAT Jean        zu LAG eman DAT Jean zer  
       ‘Jeani zer eman diozu?’        ‘Jeani zer eman diozu?’

Har dezagun orain berriz gure (12)ko adibidea:

- (12) Nork gereziak jan ditu?

Adibide honek ez digu deus erakusten Nz-sintagmaren kokaguneaz: mugitua edo jatorrizko subjektu-gunean egon liteke berdin-berdin. Begira dezagun, beraz, zer gertatzen den Nz-sintagma osagarria delarik:

- (18) \*Zer Jonek jan du?

Egitura honetan, osagarri Nz-sintagma, argiki, ez dago *in situ*, subjektuaren ezkerrean agertzen baita. Haatik, (12) ontzat ematen duten hiztun guztiek (18) txartzat ematen dute. Horrek Nz-sintagma Nz-mugimendurik jasan gabe egoten dela erakutsiko luke, hots, A analisia B eta C analisiak baino egokiagoa dela.

Begira dezagun orain zer daukagun (16)-(17)ko adibideekin parekarriak diren GNLGekiko adibideetan:

- (19) Nori gereziak eman dazkozu?  
 (20) ??Zer Peiori eman dakozu?

Gauza bat argitu behar da hemen: frantsesez ez-bezala, osagarrien arteko hurrenkera neutroa, euskaraz, zehar osagarri-osagarri zuzen da (ikus, besteren artean, Elordieta 2001). Honela bada, (19)ren eta (20)ren arteko aldea espero izatekoa da *in situ* egitura batzuen aurrean baldin bagaude: galderetarako hobesten den ordena perpaus neutroetakoa da.

Beste datu multzo batek, euskalki berean baldin bagaude ere, 2. atalean aurkeztu ditugun egitura indartuetatik aparteko fenomeno baten aurrean gaudela erakusten du. Oroit galdera indartuen berezko ezaugarri semantikoak direla (i) auresuposizionalak eta (ii) exhaustiboak direla. GNLGetan ez dira ezaugarri semantiko berak aurkitzen: frantsesezko *in situ* egiturak bezala, GNLGak ez dira ez auresuposizionalak —ukapen erantzuna onartzen dute; ikus (21)-(22)—, ez eta exhaustiboak ere: gertakariaren aniztasuna onartzen dute; ikus (23)-(24).<sup>9</sup>

- (21) — Qui a mangé les cerises?      — Personne  
 (22) — Nork gereziak jan ditu?      — Nehork (ez)  
 (23) Qui d’autre a mangé les cerises?  
 (24) Nork besterik gereziak jan ditu?

Hau da, auresuposizionalitate eta exhaustibotasun irakurketa sendorik gabe, galdera-estrategia hau galdera estandarren eta frantsesezko *in situ* galderen parekoa da interpretazio semantikoaren aldetik.

<sup>9</sup> Frantsesezko (21)en kontrako juzku batzuetarako, ikus Boeckx (1999).

Orain arte lortu ditugun emaitzak laburbilduz, esan genezake litekeena dela GNLGak sintaktikoki *in situ* galderak izatea eta gainera hauen interpretazioa bat datorrela frantsesezko *in situ* galderen interpretazioarekin. Bada, hala ere, GNLGen interpretazioari buruzko beste berezitasun bat: (25)-(26) bezalako perpaus batean, Nz-sintagmaren eta aditzaren arteko *Mikel* sintagmaren irakurketa ez da neutroa diskurso mailan, galdegai irakurketa bat eduki behar baitu halabeharrez.

(25) Nork Mikel ikusi du?

(26) Nork nire anaia ikusi du?

*In situ* analisiak, berez, hori ez du aurreikusten; alderantziz, Nz-sintagma *in situ* baldin bada, *Mikel* eta *nire anaia* osagarriak ere hala dira, eta honenbestez, ezin direnez Foku gune batean egon, galdegai irakurketa ezinezkoa izatea esperoko genuke. Hala ere, tarteko sintagmaren interpretazio kontuak hori baino konplexuagoak dira. Jakin behar da galdegai irakurketa ez dela halabeharrezkoa, testuinguruak eta sintagma motak aukera ematen dutelarik, GNLGetako tarteko osagaiak ez direlako automatikoki galdegaiak. *Mikel* sintagmak (25)ean halabeharrez galdegai irakurketa duelarik, sintagma zehaztugabe batek irakurketa neutroa mantendu dezake. Hau (27)ko eta (28)ko adibideetan ikus daiteke:

(27) Nork igel izterrak dastatu ditu noizbait?

(28) Nork gerezi batzuk jan ditu?

Orokorpena hau da: GNLGetan tarteko sintagmaren irakurketa zehaztua ezinezkoa da ez baldin badu galdegai irakurketarik. Horrela, hasieratik darabilgun *nork gereziak jan ditu* perpausuan *gereziak* sintagmak hiru irakurketa posible izango ditu: (i) galdegai definitua, (ii) galdegai indefinitua eta (iii) indefinitu hutsa. Interesgarri iruditzen zaigun ondorio batera eramaten gaituzte datu hauek: egitura indartuekin gertatu bezala (ik. Duguine & Irurtzun 2008), *in situ* estrategia interpretazio zehatz batzuekin lotua izateak erakusten du ez dela egitura estandarrarekin libreki aldizkatzen den estrategia bat. Hau da, GNLGak ez dira 'gaizki eraturako galderak', baizik eta informazio egitura berezia duten galderak. Eta hurrengo atalean argudiatuko dugunez, posible da irakurketa indefiniturako joera galdera-estrategia berri honen sorburutik etortzea (esan nahi baita, 'IZENA + *egin*' predikatuen berranalisi batetik). Interpretazioaren azterketa xeheagoa etorkizunerako langai utziko dugu.<sup>10</sup>

Azken ohar bat. Euskararen historian, azalean GNLGen antza duten egiturak aurki daitezke, Leizarragarenetik beretik hasita eta autore askoren lanetan (ez soilik Iparraldekoak).<sup>11</sup> Adibidez:

<sup>10</sup> Datu interesgarri bat azpimarratu nahi genuke, hala ere: gorago aipatu ditugun bi osagarriak lekualdatzen dira, zehar osagarria (osagarri zuzena ez-bezala) indefinitua delarik. Hau da, hiztunek, nahiz eta bi perpausak 'pisutsuak' direla aitortu, (i) hobesten dute (ii)rekiko.

(i) ?Nork katedrala turista bati erakutsi dako?      (ii) ??Nork turista bati katedrala erakutsi dako?

<sup>11</sup> Hau, besteren artean, Mitxelena (1981) eta Ortiz de Urbina (1989) lanetan aipatzen da.

- (29) Eta hura eridenik itsasoaren berze aldean, erran ziezoten, Majjstrua, noiz huna ethorri aiz? (Leizarraga 1571)
- (30) Zer autoritatez gauza horiak egiten dituk? eta nork hiri eman drauk autoritate hori? (Leizarraga 1571)
- (31) Ezarraiaela heure ahalaz heure bihotzaren gutiziei eta ezterrela: zenbat ahal dudan, edo nork ni punituko nau neure obren gatik. (Ziburuko Etxeberri 1665)
- (32) eta nor gurlara prestatuko lizateke? (Sarako Etxeberri 1718)
- (33) Zergatik haiñ gauza xumeak min egiten darotzu bihotzean? (Xurio 1720)
- (34) Nola mando gainerat igan nausia ohartu gabetarik? (Duvoisin 1884-5)
- (35) Nork egiaz, onek bezela, sei gizaldi ta erdian Elizaren alde lan egin du? (Beobide 1885)

Hala ere badira azpimarratu beharreko desberdintasunak literatur tradizioko egituren eta hemen aztergai ditugun GNLko egitura berrien artean:

- (i) Literatur tradizioko erabileretan Nz-sintagmak batez ere *zergatik*, *noiz* eta abarren motako adjuntuak dira (ik. Ortiz de Urbina 1989 ere).
- (ii) Egitura klasikoetan, dirudienez, Nz-mugimendua badago; T-C mugimendua da falta dena, izan ere, Nz-sintagmak beti ezkerretan agertzen zaizkigu, baita Nz-sintagma osagarri zuzena (subjektuaren aurretik agertzen dena) denean ere. Leizarragarenean aurkitzen diren adibide batzuk aipatzearren:
  - (36) Ala hi gure aita Abraham baino handiago aiz, zein hil izan baita? Profetak ere hil izan dituk: nor hik eure burua egiten duk? (Leizarraga 1571, “Testamentu Berria”)
  - (37) Gure hurkoekin nola bizi behar dugun, eta zer haek zor drauegun. (Leizarraga 1571, “Katexismea”)
  - (38) Zer adoratione mota hemen kondemnatzen da? (Leizarraga 1571, “Katexismea”)
  - (39) Eta egun hartan zer politia nehork eduki behar du? (Leizarraga 1571, “Katexismea”)
  - (40) Guziak bi punktutara itzul ahal daitezke. Ezen lehen Taulako laur manamenduetan, Iainkoak erakusten drauku, hura egiazki ohoratzekotz zer gureganik plazer duen: eta bigarren Taulako sei manamenduetan, deklaratzan drauku gure hurkoetara egin behar duguna egitekotz, zertarik begiratu behar garen. (Leizarraga 1571, “ABC”)
  - (41) Zena egiten den egunean Ministreak predikuaren finean harzaz mentione egiten du, edo hala behar dela badakusa, prediku guzia ere harzaz egiten du, populua irakats dezanat, zer Iaunak misterio hunez signifikatzen eta aditzera emaiten draukun, eta zer moldez batbederak hura rezebitu behar duen. (Leizarraga 1571, “Othoitza”)

- (iii) Gorago azpimarratu bezala, gaur egungo nafar-lapurteran soilik gazteen-  
gan aurkitzen ditugu (12)ren gisako perpausak. Honenbestez, badira arra-  
zoiak pentsatzeko hauek osoki berritasuna direla (eta ez tradizio baten on-  
dokoak).

Hurrengo atalean, egitura hauen sorreraren inguruko hipotesi bat aurkeztuko  
dugu.

#### 4. Hizkuntza-aldaketa eta “*in situ*” estrategien agerrera

Atal honetan GNLGen sorburua aztertuko dugu iradokiz GNL hitzunik I-hiz-  
kuntza (‘barne-hizkuntza’) berri bat postulatu dutela inguruko E-hizkuntza (‘kan-  
po-hizkuntza’) berberaren aurrean, eta honen arrazoiak bi izan diratekeela: (i) nafar-la-  
purteran *in situ* estrategia baztertzeko jarraibideak —Lightfoot (2002, 2006)-ren *cue*,  
edota Fodor (1998)-ren *trigger* direlakoak— ahulak izatea, eta (2) GNL hitzunik  
frantsesaren eragina izatea, non *in situ* estrategia mugimenduzkoarekin batera erabil-  
tzen den.<sup>12</sup>

Gure ustez, hipotesi honek badu sinesgarritasunik, izan ere, GNL hitzunik in-  
guruan dituzten Oinarriko Hizkuntza-Datuetako (ingelesezko *Primary Linguistic  
Data*) Nz-galderen zati handi bat *in situ* azterbide bat postulatuza eraiki daiteke, eta  
hipotesi horren aurkako jarrera hartzera behartuko lituzketen jarraibideak aski mu-  
gatuak direla iruditzen zaigu. Areago, kontuan hartuta bi estrategiek ez diotela elka-  
rri aurkaritzarik egiten eta beti posible dela aldi berean *in situ* eta mugimenduzko  
Nz-galderak dituzten sistemak izatea (gaur egungo frantsesa kasu). Honela, irado-  
kiko dugu posible dela GNLz jabetzen ari diren ikastunek hainbat eta hainbat egoe-  
ratan *in situ* galdera-estrategia bat postulatuza, mugimenduzko estrategia ere gai-  
nontzeko kasuetarako utzita. Azken finean GNLak frantsesarekiko diglosia egoera  
bat pairatzen du eta ez litzateke harriztekoa ikastunek, Gramatika Unibertsalaren  
lan-tresnak baliatuz, hizkuntza menderatzailean posible diren egituretako batzuk  
euskararako ere postulatuza beren datuekin bateragarriak diren neurrian. Eta hemen  
gakoa da gogoratzea frantseseko Nz-mugimenduaren estrategia erabat hautazkoa  
dela, hots, *in situ* estrategia ere badela frantsesez.

Euskararen datuetan zentratuz, esan bezala, badira hainbat datu Nz-galderak *in  
situ* egin daitezkeela pentsatzera eraman dezaketena. Euskara SOA hitz-hurrenke-  
rako hizkuntza izaki, argi dago (42) bezalako osagai zuzenaren gaineko Nz-galderetan  
azaleko hitz hurrenkerak *in situ* eta mugimendu bidezko azterbideen arteko anbiguo-  
tasuna erakuts dezakeela; izan ere, bi azterbideetako emaitza OA hurrenkerakoa da:


- (42) Mirenek zer ekarri du?

Besterik gabe, azterbideetako batean, (43a), subjektua *in situ* legoke (baita Nz-sin-  
tagma ere), eta bestean, (43b), galdegai posizioaz gaindiko topiko posizio batean:


<sup>12</sup> E-hizkuntza eta I-hizkuntza nozioen azalpenerako, ikus Chomsky (1986).



(43) a. In situ direlako hipotesia



b. Ezkerreeratzearen hipotesia



Ikusten denez, bi hipotesien emaitza berbera da hitz hurrenkerari dagokionez, alegia, #^Mirenek^zer^ekarri^du#; posible litzateke, beraz, nafar-lapurtera hiztun diren gazteek egiturontzako *in situ* azterbide bat esleitzea, azaleko datu hauekin erabat bateragarria baita.

Bestalde, gogoan hartu beharrekoa da euskara komuntadura aberatseko eta *pro-drop* anitzeko hizkuntza dela (ik. Oyharçabal 1991, Duguine 2008). Ezaugarri honen ondorioa da informazio-egituran zeregin berezirik ez duten osagaiak ez ahoskatzeko joera. Honela, erreferente emana duten izen-sintagmak normalean ez dira izenordainez ordezkatzen eta zuzenean haien elipsira jotzen da. Hots, galde-erantzunetan ez da ohikoa (44)koa bezalako pareak aurkitzea. Aitzitik, aise ohikoagoak

dira (45)eko motakoak, non galde- edota galdegai-sintagma eta aditza ditugun soilik:<sup>13</sup>

(44) — Noiz jinen zira zu? — Ni bihar jinen niz.

(45) — Noiz jinen zira? — Bihar jinen niz.

(42)ko perpausetako azaleko hitz hurrenkerari so eginik, argi da Nz- edota galdegai-sintagmok *in situ* daudekeela postulatzeko duen hipotesi batek sinesgarritasuna bada; izan ere, mota honetako galderekin erabat bateragarria den hipotesia da. Egitura ‘zuzena’ zein den erabakitzeke jarraibideak izan litezkeenak ez zaizkigu agertzen eta datu hauei begira, bi hipotesiek azaleko forma zuzena deribatzen dute. Dena dela, eztabaidatu berri ditugun ezaugarriak Hegoaldeko euskalkietan ere aurkitzen ditugu. Jakina, Hegoaldeko hiztunek ez dute oro har frantsesa bezala NZ *in situ* duen hizkuntzarik hitz egiten, eta baliteke, lehenago esan bezala, frantsesaren eraginak lagundu izana GNLko *in situ* estrategia honen agerreran (azken batean frantsesak bi strategiak ahalbidetzen dituelako).

Hala ere, badira nafar-lapurterak bere-bereak dituen beste egitura batzuk *in situ* strategiaren agerpenean eragina izan lezaketenak: ‘IZENA + *egin*’ gisako aditz iragan-gaitzen jokamoldea (aditz hauen analisi baterako, ikus Rodríguez & García Murga 2003). Berrito ere, argi dago morfologikoki sinpleagoak diren aditz ezergatiboen ere azterbideen anbiguetatea agertzen zaigula; izan ere, (46)ko eta (47)ko datuak ezkerretaratze nahiz *in situ* moduan azter daitezke:<sup>14</sup>

(46) Nork dantzatu du?

(47) Nork dibortziatu du?

‘IZENA + *egin*’ motakoei dagokienez, Iparraldeko euskalkien berezitasuna da bi osagaiok osagai konplexu bat bailiran aztertzearena. Honela, bada ‘IZENA + *egin*’ motako aditz multzo bat Hegoaldeko hiztunentzat oro har bertan bi osagai baleude bezala jokatzeko duena baina Iparraldeko euskaldunentzat aditz konplexua dena. Adibidez, hau argi ikusten da Nz-galderetan, non Hegoaldekoek *egin* aditza ezkerretaratzen duten Nz-sintagmarekin espezifikatzaile-buru konfigurazioan kokatzeko ((48a), (49a), (50a)). Nafar-lapurteran, aldiz, aditz konplexu osoa da ezkerretaratzen dena ((48b), (49b), (50b)):

(48) a. Nork egin du barre? b. Nork irri egin du?

(49) a. Zein haurrek egin du negar? b. Zoin haurrek nigar egin du?


(50) a. Noiz egingo duzu lan? b. Noiz lan egingen duzu?

Berrito ere, (48b), (49b) eta (50b) gisako datuen aurrean *in situ* strategiaren hipotesia egitea zilegi da, datuekin erabat bateragarria delako. Pentsatzekoa da GNLGak ez dituzten nafar-lapurtera hiztunek (51)ko eskema dutela honelako galde-


<sup>13</sup> Areago, (45)eko erantzunaren ordean (i)en gisakoak erabiltzen dira usuago (baita galderetan ere, gertakaria ezaguna bada): (i) Bihar

<sup>14</sup> *Dibortziatu* aditz iragan-gaitzak Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien arteko aldakortasuna erakusten du; Iparraldeko euskalkietan ezergatiboa da eta Hegoaldekoetan ezakusatiboa.

ren oinarrian. Egitura honetan Nz-sintagma ezker periferiako Foku Sintagmaren espezifikatzailean kokatzen da, eta [IZENA+egin] aditz konplexua proiektio berberaren buruan:



Haatik, Nz-sintagma *in situ*ko (hots, TSaren espezifikatzaileko) eta T-C mugimendurik gabeko azterbide batekin ere bateragarriak dira datu hauek. Azterbide horretan, aditza ‘egin’ da eta erabat iragankorra, delako izena osagarri zuzentzat hartuz:



Honela bada, gure hipotesia da ‘IZENA + egin’ egituren berranalisia GLNGen sorburuan dela. Berrito ere, argi denez, GNLko hiztunek galdera mota honetan ere *in situ* estrategia postulatatu ahal izan dute. Areago, 3. atalean esan dugunez, GNLGetako tarteko sintagmek dituzten bi irakurketetako bat indefinituarena da; irakurketa hau bat dator ‘IZENA + egin’ egituretan topatzen dugun izenaren interpretazioarekin. *Irri, lan, negar* bezalako izenek masa irakurketa izan ohi dute egitura hauetan; ik. Euskaltzaindia (1991), Rodriguez & García Murga (2003). Honela bada, gure hipotesia da ‘IZENA + egin’ egituren berranalisia GLNGen sorburuan dela.

Laburbilduz, ikusi dugu hainbat eta hainbat egituratan —jabekuntzan pisu estatistiko handia dutenetan, gainera— *in situ* azterbide bat posible dela. Honi frantsesaren eragina gehitzen badiogu, non *in situ* eta mugimenduzko egiturak gramatikalak diren, *in situ* azterbidearen aukerak biderkatzen dira. Beraz, gure hipotesia da berriki GNLko hiztunak beren ingurukoek mugimenduzko egiturak postulatzen zituzten tokian *in situ* hipotesia egiten hasi direla, eta eguneroko hizkeran honek ez dakarrela gatazka handirik azaleko forma berberera iristen garelako *in situ* nahiz ezkerretarazte bidezko egiturekin. Beraz, inor ez da ohartzen E-hizkuntza berberarako I-hizkuntza desberdinak postulatatu direla. Soilik artikulua honetan gure interesekoak izan diren

egiturei erreparatuz gero nabarmentzen da hizkuntza-aldaketa, hots, subjektua deanean Nz-sintagma.

Honela bada, baliteke nafar-lapurtera aldaketa prozesuan egotea eta Nz-mugimenduzko galdera-estrategia hutsa izatetik Nz-in situ estrategia ere izatera pasatzea Japoniera zaharrean gertatu bezala (ik. Watanabe 2002), eta berrikiago Brasilgo portugesean (Lopes-Rossi 1993) eta frantsesean (Foulet 1921).

## 5. Ondorioak

Artikulu honetan gazteen nafar-lapurteran aurkitzen den galdera-estrategia berri bat aurkeztu dugu. Erakutsi dugunez, galdera-estrategia mota hau ez da galdera-estrategia orotarikoen ez eta nafar-lapurteraz propio diren galdera indartuen parekoa. Azken bi estrategia hauetan Nz-sintagmaren mugimendua gertatzen bada ere, erakutsi dugu gazteen nafar-lapurteran aurkitzen den estrategia berrian Nz-sintagmak *in situ* daudela. Interpretazioaren aldetik ere, ikusi dugu badirela berezitasunak estrategia berri honetan; izan ere, *in situ* galderetan Nz-sintagma eta aditzaren artean dauden osagaiek interpretazio bereziak jasotzen dituzte (fokalak edo/eta indefinituak). Ezin dituzte irakurketa definitu ez-fokalak jaso.

Azkenik, galdera-estrategia berri hauen sorreraren inguruko hipotesi bat aurkeztu dugu. Gazteek egiten dituzten galdera mota hauek bi arrazoiengatik garatu dirateke. Alde batetik, frantsesaren eragina genuke, non mugimendu bidezko galderak eta *in situ* galderak egiten diren. Beste aldetik, nafar-lapurteraren datuak berak genituzke, non hainbat eta hainbat galdera mota *in situ* estrategia batekin azter ditzaketen hizkuntza-ikastunek. Honela bada, entzuten dituzten ekoizpenen berranalisi bat gertatu dela iradoki dugu, gramatika-arau desberdinak postulatuz baina azaleko forma parekoak eginez kasurik gehienetan.

## Aipamen bibliografikoak

- Altube, S., 1929, *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bermeo.
- Arteax, I., X. Artiagoitia & A. Elordieta (arg.), 2008, *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskarako oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian*. Bilbo.
- Azkue, R. M., 1923-5, *Morfología Vasca* [2. arg., 1969, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca].
- Bach, E., 1971, «Questions», *LI* 2: 153-166.
- Boeckx, C., 1999, «Decomposing French Questions», *UPenn Working Papers in Linguistics* 6-1, 69-80.
- Cheng, L., 1991, *On the Typology of Wh-Questions*, doktorego tesia, MIT.
- Chomsky, N., 1986, *Knowledge of Language*, Praeger, New York.
- Duguine, M., 2008, *Argumentu isilak eta hizkuntz aldakortasuna*, eskuizkribua, UPV/EHU & U. Nantes.
- & A. Irurtzun, 2008, «Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez», in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan: Patxi Goenagaren Omenez*, ASJUren Gehigarriak LI, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, Donostia, 195-208.
- Elordieta, A., 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, LOT Dissertation Series, Leiden University.

- Etxepare, R. & J. Ortiz de Urbina, 2003, «Focalization», in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin, 459-515.
- Euskaltzaindia, 1991, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I* (Berrargitalpen gaurkotua), Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fodor, J. D., 1998, «Unambiguous triggers», *LI* 29: 1-36.
- Foulet, L., 1921, «Comment ont évolué les formes de l'interrogation?», *Romania* 47, 243-348.
- Greenberg, J. H., 1963, «Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements», in J. H. Greenberg (arg.), *Universals of Language*, MIT Press, Londres, 92-96.
- Haspelmath, M., M. Dryer, D. Gil eta B. Comrie (arg.), 2005, *The World Atlas of Language Structures*, Oxford U. P., Oxford.
- Irurtzun, A., 2007, *The Grammar of Focus at the Interfaces*, doktorego tesia, UPV/EHU.
- Kayne, R., 1994, *The Antisymmetry of Syntax*, MIT Press, Cambridge.
- Kiss, K. É., 1995, «Introduction», in K. É. Kiss (arg.), *Discourse Configurational Languages*, Oxford U. P., New York, 3-27.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, Berrikusitako eta zuzendutako edizioa, Editions des «Amis du Musée Basque» eta Ikas, Baiona.
- Laka, I. & J. Uriagereka, 1987, «Barriers for Basque and vice-versa», in J. McDonough & B. Plunkett (arg.), *Proceedings of NELS 17*, University of Massachusetts, Amherst, 394-408.
- Lightfoot, D., 2002, «Introduction», in D. Lightfoot (arg.), *Syntactic effects on morphological change*, Oxford U. P., Oxford, 1-19.
- , 2006, *How new languages emerge*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Lopes-Rossi, M. A., 1993, «Estudo diacrônico sobre as interrogativas do português do Brasil», in I. Roberts & M. Kato (arg.), *Viagem Diacrônica pelas Fases do Português Brasileiro: Homenagem a Fernando Tarallo*, Unicamp, Campinas, 307-342.
- Mitxelena, K., 1981, «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», in *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 57-81.
- Ormazabal, J., J. Uriagereka & M. Uribe-Etxebarria, 1994, «Word Order and Wh-movement: Towards a Parametric Account», eskuizkribua, UConn, UPV/EHU, U. Maryland & MIT [eusk. itzul., 2008, «Hitz hurrenkera eta Nz-mugida: azalpen parametrikoko baten bila», in Arateax, Artiagoitia & Elordieta (arg.), 25-50].
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- , 1999, «Force Phrases, Focus Phrases, and Left Heads in Basque», in J. Franco & A. Landa (arg.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque*, John Benjamins, Amsterdam, 179-194 [eusk. itzul., 2008, «Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezker aldeko buruak euskaraz», in I. Arateax, X. Artiagoitia & A. Elordieta (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*, UPV/EHU, Bilbao, 51-68].
- Osa, E., 1990, *Euskararen hitzordena. Komunikazioa zereginaren arauera*, UPV/EHU, Leioa.
- Oyharçabal, B., 1985, «Behako bat ezezko esaldieri», *Euskera* XXX (2. aldia), 103-115.
- , 1991, «Théorie des pronoms nuls et diversité linguistique: Bilan», *Memoriae Mitxelena Magistri Sacrum, ASJUren Gehigarriak XIV*, J. Lakarra (arg.), UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 867-898.

- Rebuschi, G., 1997, «A Note on Focalization in Basque», in G. Rebuschi, *Essais de linguistique basque*, *ASJUren Gehigarriak XXXV*, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 31-41.
- Rizzi, L., 1997, «The Fine Structure of the Left Periphery», in L. Haegeman (arg.), *Elements of grammar*, Kluwer, Dordrecht, 281-337.
- Rodriguez, S. & F. García Murga, 2003, «“IZEN + *egin*” predikatuak euskaraz», *IKER 14-II*, Euskaltzaindia, Bilbo, 417-436.
- Uriagereka, J., 1992, «The syntax of movement in Basque», in J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic theory and Basque syntax*, *ASJUren Gehigarriak XXVIII*, UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 417-445.
- , 1999, «Minimal restrictions on Basque movements», *NLLT 17*, 403-444.
- Watanabe, A., 2002, «Loss of Overt Wh-movement in Old Japanese», in D. Lightfoot (arg.), *Syntactic Effects of Morphological Change*, Oxford U. P., Oxford, 179-195.

# ADITZAREN BIKOIZKETA FOKU-TOPIKOA DENEAN

Arantzazu Elordieta

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea)

## Abstract

*In this article I discuss two instances of V-doubling in Basque which display a dialectal distribution: (1) synthetic V-doubling in V-focalization contexts and (2) generalised V-doubling in V-topicalization contexts. The former is found in the western dialect, whereas the latter is used across dialects. Drawing from the fact that V-focalization induces all sorts of island effects, whereas V-topicalization is only sensitive to adjunct islands, I propose that movement is only involved in V-focalization, but not in V-topicalization. In addition, a parametric approach to doubling is presented, in terms of the option of splitting features to be checked on different copies, which seeks to shed some light on the reasons for the dialectal distribution of V-doubling in Basque.*

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Lan honetan aditzaren bikoizketaz jardungo dugu, euskal hizkeretan aurkitzen dugun aldakortasun sintaktikoaren adibide ohargarria baita, eta, hargatik, aztertzea merezi duen gertakari interesgarria iruditu zaigulako. Hain zuzen ere, euskararen maila deskriptiboan izan dezakeen balioaz gain, fenomeno bera euskararekin zerikusi gutxi duten hizkuntzetan agertzeak balio erantsia ematen dio ikerketari, alde batetik, aditzaren bikoizketaren gaia gertakari isolatua ez dela erakusten duelako, eta bestetik, gaia hizkuntza teoriak eskaintzen dituen hipotesi eta tresneriaz baliatuz aztertzeko bidea irekitzen duelako. Izan ere, oro har bikoizketa egiturek galdera asko sorrarazten dizkiote giza hizkuntzen barneko egitura azaldu nahi duen hizkuntza teoriari.

Euskarari gagozkiolarik, bi testuinguru sintaktikotan aurkitzen dugu aditza bikoiztuta: aditz trinkoak adierazten duen ekintza edo gertaera fokalizatu nahi dugunean:

- (1) Gau guztian, nundik nora eztakidala ta neure gerizea baino beste lagun bage, *ibili nabil*

(Azkie 1893: 91)

---

<sup>1</sup> Lan hau *Euskaren Sintaxia: Aldakortasun Sintaktikoa Euskal Hizkeretan* izeneko EHUko Udako Ikastaroan aurkeztu nuen. Eskerrak eman nahi dizkiot Ikastaroko entzuleriari egin zizkidaten oharren-gatik. Nire eskerronak baita Gorka Elordietari, Xabier Artiagoitiari eta Beatriz Fernandezi ere lan honen aurreko bertsioen gainean egin dizkidaten iruzkinengatik. Ikerketa-lan hau Espainiako Zientzia eta Berrikuntzako Ministeritzaren FFI2008-05135/FILO ikerketa proiektuaren babesean burutu da, bai eta Eusko Jaurlaritzak GIC07/144-IT-210-07 ikerketa taldeari eta HM-2008-1-10 eta HM-2009-1-25 ikerketa sareei emandako laguntzari esker ere.

eta aditza (trinkoa zein perifrastikoa) topikalizatzen dugunean:

- (2) a. *Jakin*, ondotxo *daki* horrek zer egiten duen  
 b. *Entzun*, horrek ez dau *entzuten* interesaten ez jakona (Lekeitio, Bizkaia)

Kontua da euskalkien banaketari begiratzen badiogu, bikoizketak ez duela erabilpen ez hedadura bera bi egituretan: aditza topikalizatzen denean euskalki guztiek erabiltzen dute aditza bikoizteko estrategia (*egin* aditz arina erabiltzeko aukera ere bade-larik); aldiz, mendebaleko zenbait hizkeretan bakarrik bikoizten dute aditz trinkoa fokua denean.

Artikuluua modu honetan dago antolatuta. Bigarren atalean (§2) egitura hauen banaketa dialektala zein den aurkeztuko dut, euskal hizkuntzalariek egindako oharrei jarraituz. Hirugarrenean (§3) aditzaren fokalizazioa aztertu duten proposamenak aipatuko ditut, eta azken batean *egin* egiturak aditz bikoizketa egiturak direla proposatuko dut. Laugarren atalean (§4) aditz trinkoaren bikoizketa aditz perifrastikoetarako proposatu dugunaren ildotik azalduko dut. Bosgarren atalean (§5) gertakariak fokalizazioetan eta topikalizazioetan erakusten duen banaketa dialektala azaltzen saiatuko naiz, eta azken atalean (§6) beste hizkuntza batzuetako bikoizketa egiturak aztertze-ko proposatu diren hiru azterbide aurkeztuko ditut, gertakari horrek sortu duen interesaren erakusgarri.

## 2. Aditzaren bikoizketa euskal hizkeretan

Arestian esan bezala, bi testuingurutan gerta daiteke aditzaren errepikapena edo bikoizketa euskal hizkeretan: aditz trinko baten bidez adierazten den ekintza edo gertaera perpauseko beste elementuen gainetik nabarmendu nahi dugunean (1), eta aditza mintzagai hanpatua denean (2).

Aditza mintzagai denean errepikatzeko adierazpidea euskalki guztietan erabiltzen bada ere, ez da hala gertatzen aditz trinkoak foku direnean. Izan ere, Zuazoren (1998, 2003, 2008) terminologia erabiliz, (1)eko perpausak mendebaleko euskararen ezaugarritzat jo ohi dira: ikus Altube (1929), Mitxelena (1981), Arejita (1984), Euskaltzaindia (1985), Etxepare & Ortiz de Urbina (2003), Zuazo (1998, 2008). Hala ere, eremu horretan bertan ere egiturek ez dira erabiltzen maiztasun eta hedadura berean hizkera guztietan. Zuazok (1998: 207, 2008: 81-82) Mallabiako eta Urdulizeko lekukotasunak dakartza, baina Osak (1990: 168) zioen Bizkaiaz kanpo aditz itzuli hauek aruntak direla Deba arroan, Legazpiraino iristen direlarik. Bestalde, aipatzekoa da hizkera mintzatuan ohikoagoak direla, oso testuinguru zehatzetan erabiltzen direla, eta horrenbestez, testu idatzietan adibide gutxi aurkitzen dira.<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Adizki trinkoak bikoizteko estrategia erabiltzen ez duten hizkeretan, polaritate-fokuaren eta ekintza-fokuaren arteko bereizketa galdu egiten da aditz trinkoekin. Badirudi horrelakoetan polaritate-fokua edo baiezkotasuna nabarmentzeko erabiltzen den *ba*- partikula eransten zaiola adizki trinkoari (Euskaltzaindia 1985: 47, Etxepare & Ortiz de Urbina 2003: 355). Mitxelenak (1981: 76), bestalde, *egonean nago*, *ibilian nabil* tankerako egiturak ere aipatzen ditu aditzaren ekintza fokalizatzeko estrategia gisa. Nolanahi ere, XIX. mendera arte ez da *joan doa* egituren lekukotasunik aurkitzen, eta hauek bizkaieraz idatzita daude (ikus *OEH*, Arejita 1980).



Azpimarragarria deritzogu bikoizketen gaineko lanetan maiz ohartarazten dela mota bateko edo besteko bikoizketa erakusten duten hizkuntza askotan erabilera dialektala duela gertakariak; hau da, bikoizketa askok ez dute lekuriak dialekto edo aldaera estandarrean; ikus, besteak beste, Barbiers et al. (2008). Bereizketa hau zergatik gertatzen den aztertzea interesgarria da; gutxienez hizkuntza barneko ‘mikrobariazio sintaktikoa’ edo mikroaldakortasun sintaktikoa existitzen dela erakusten du, eta aldakortasun hori azaltzeko bidea erakutsi behar luke. Izan ere, Chomskyk (1995) abiatu duen eta Kaynek (2000) eta bestek hizkuntzalaritza konparatiboa egiteko jarraitu duten ibilbidearen ildotik, hizkuntzen arteko aldakortasun sintaktikoa esplikatzen on-dorioztatu diren hainbat korrelazio (hala nola hitz hurrenkerarekin lotuak) zuzen dauden ala ez aztertzeko berebiziko garrantzia du hizkuntza bereko hizkeren sintaxiari behatzea, aldaera batean aurkitzen dugun berezko ezaugarri txiki batek beste-lako bereizketa sintaktiko bat edo batzuk izatera eramanez baitezake, batzuetan unean bertan antzeman daitezkeenak eta beste batzuetan denborarekin gauzatuko direnak. Eta alderantziz, hizkuntza batzuen barneko bariazioetik abiatuz, hizkuntza naturalen sintaxia hobeto ulertu ahalgo dugu.

Aditzaren bikoizketa gertatzen den beste ingurunea aditza mintzagaia denean dugu (ikus (2), goian). Euskararen hizkeren berezitasunen ikuspuntutik, testuinguru honek ez du ezer adierazgarriak erakusten, hizkera guztietan aurkitzen baitugu bikoizketa, eredu estandarrean barne. Hala ere, bikoizketa mota hau nola azaltzen den ikustea interesgarria da, batik bat aditzaren fokalizazioan aurkitzen dugun ereduarekin eta beste hizkuntzetan gertatzen diren bikoizketa kasuekin konparatzen badugu. Hartara, ondoko ataletan azalduko dena aurreratuz, aditz trinkoen fokalizazioan dakusagun aditzaren bikoizketak eta aditzaren topikalizazioan ikusten dugunak analisi desberdina dutela proposatuko dut: lehen kasuan aditza foku gunea mugitu dela defendituko dut, baina topikoa denean aditza ez dela mugitu proposatuko dut.

### 3. Aditzaren fokalizazioa eta *egin* egiturak

*Etorri zatoz* gisako aditz trinkoen foku-egiturak badu antzik hedadura zabalagoa duen beste foku-egitura batekin, *egin* aditz betegarri edo arinaren erabilerarekin, hain zuzen:

- (3) ...mapa berria eman zuen argitara, garaiak aldatuta hizkuntza ere *aldatu egiten*  
baita, eta harekin, baita mapa bera ere [*Berria*, 09-06-25] (fokua=ekintza)

Parekotasuna bi alderditan islatzen da, gutxienez:

- (i) batetik, bi egituretan aditzak adierazten duen ekintza nabarmentzen (fokalizatzen) delako,
- (ii) eta bestetik, bietan erabiltzen direlako aditz forma bi: aditz trinkoetan aditza errepikatzen da, eta perifrastikoen kasuan aditzaren bigarren agerpena makulu-aditz edo aditz arin baten bidez gauzatzen da.

Hala ere, aditza fokalizatzen bi egitura hauek ez dute erabilpen ez hedadura bera: Zuazoren (2003: 186) hitzak hona ekarri, *egin* aditzaren indargarri gisa erabiltzeko ezaugarria “mendebala eta erdialdea alde batera, eta ekialdea bestera jartzen dituen

bereizgarri bat” da.<sup>3</sup> *Joan doa* tankerako egiturak, berriz, mendebaleko zenbait hizkeratarako ezaugarria da.<sup>4</sup>

Ondoren *egin* egituretarako egin diren proposamenak aipatuko ditugu, aditz trinko bikoiztuen egiturak ulertzen lagunduko dutelakoan.

### 3.1. Aurreko proposamenak

#### 3.1.1. *Rebuschi (1983)*

Aditz partizipioa FokS-ra igo ondoren aditzaren gunean *egin* kopiatzen da, aspektu-tasunen euskarri gisa:

- (4) [<sub>FokS</sub> A... [<sub>InflS</sub> [<sub>AS</sub> EGIN-Asp ] Infl]]

(ikus baita Ortiz de Urbina 1995, Haddican 2005, 2007)

Analisi honen aurrean hainbat galdera bururatzen zaizkigu: batetik, zergatik ez da aditza aurreratzen aspektu-tasun eta guzti?; bigarrenik, zergatik ez dira bi kopiak erabat berdinak morfologikoki? (hau da, zergatik ez da esaten *\*hizkuntza ere ALDATU ALDATZEN baita* (ikus (3) goian), eta hirugarrenik, zergatik ahoskatzen dira elementu beraren bi kopiak, eta ez bakarra, ohikoa denez mugimendua gertatzen denean?

Hain zuzen ere, galdera hauei erantzuten saiatuko da ondoren aurkeztuko dugun Haddicanen proposamena.

#### 3.1.2. *Haddican (2005, 2007)*

Horrela laburbil daitezke bere proposamenaren puntu nagusiak:


- (5) a. Osagai fokalizatu guztiak [+izen] izan behar dira<sup>5</sup>  
 b. Ondorioak:  
 b1) *-i/-tu/-n* ez da aspektu marka, nominalizatzailea baizik, (6)ko irudikapenean Inflin<sup>o</sup> (Infinitibo buru) gisa agertzen dena.  
 b2)  $A_{[+foc]} + -i/-tu/-n = \text{izena}$   
 b3) aditzak ezin ditu aspektu-markak zilegiztatu, hortaz, *egin* aditz arina txertatzen da.

<sup>3</sup> Zuazoren proposamenean ‘mendebaleko’ euskararen eremua Bizkaia, Gipuzkoako Deba ibarra eta Arabako Aramaio eta Legutio da, eta ‘erdialdeko’ hizkerak Gipuzkoako gehienak eta Nafarroako sartaldekoak, hots, Basaburuko haranekoak (salbu Goizueta eta Beintza-Labaien), Araitz, Imotz (Muskitz izan ezik) eta Larraunekoak (Zuazo 1998: 218, 2008: 61).

<sup>4</sup> *Egin* erabiltzen ez duten euskalkietan badirudi bereizketa ez dela markatzen, morfosintaktikoki, behintzat. Aldiz, polaritate-fokua adierazten duen egiturak adieraziko lituzke bi adierak, fokua ekintzaren baieztapena bera ala ekintza den, alegia (Rebuschi 1983, Oyharçabal 1984, besteak beste).

<sup>5</sup> Fokuak izenak edo izenkiak izan behar direla dioen orokorpena Manfreditik (1993) hartzen du, hura haitiera kreolera eta Kru hizkuntzetan horrelako foku egiturak aztertzen ibili ondoren ondorio horretara heldu baitzen. Izan ere, hizkuntza hauetan nominalizaziorik onartzen ez duten sintagmak ezin dira fokalizatu. Vatà eta haitieran, adibidez, foku egituretako aditzaren lehen agerpenak galdu egiten ditu aditz-kategoriaren ezaugarriak, hala nola aditzek eraman ohi duten tonu lexikala eta argumentuekin agertzeko aukera. Euskaraz, al-diz, ez dago izenkia ez den osagaia fokalizatzeko debekurik, adberbioak eta PostS-ak foku izan baitaitezke.

Haddicanek ere, Rebuschik bezala, egitura hauetan foku mugimendua dagoela proposatuko du, baina Infinitibo Sintagma (InfinS) osoa mugitzen dela proposatuta, (6)ko irudikapen sintaktikoan ikus daitekeenez.



Azterbide hau aurrekoa baino garatuagoa bada ere, are beste galdera batzuk irekitzen ditu:

- (a) Foku gunera AS-ren goiko sintagma osoa mugitzen bada, nola azaltzen da aditzaren eta *eginen* arteko albokotasuna? Izan ere, aditzaz beste osagaiak InfinS-tik atera behar dira FokuS-ra igo aurretik (DetS zein bestelakoak). Baina mugimendu horien arrazoiak eta jomugak ez dira argiak:

  - (7) a. Umeek JOLASTU egiten dute parkean
  - b. \*Umeek JOLASTU parkean egiten dute (fokua aditza den zentzuan)


- (b) Bestetik, fokua izenkia izan behar bada (cf. (5a)), nola aztertu beharko lirateke [+izen] ez diren baina fokaliza daitezkeen adberbio eta PostS fokalizatuak?<sup>7</sup>
- (c) Hirugarrenik, aintzat hartzen badugu *egin* topikalizazio testuinguruetan ere azaltzen dela, batek esperoko luke Haddicanen analisisa topikalizazioetara ere hedatzea. Baina horrek berarekin ekarriko luke proposatzea [+izen] diren kategoriako elementuak soilik topikaliza zitezkeela, datuek erakusten dutenaren aurka, hain zuzen.

<sup>6</sup> Haddicanek azterbide antisimetrikoa jarraitzen du euskararen perpaus egiturarako. Horrela, buru guztiak dira lehen (6)ko irudikapen sintaktikoan.

<sup>7</sup> Arazo honetaz Haddicanek berak ohartarazten du (Haddican 2007: 28. oharra). Izan ere, hemen bere proposamenaren aurkezpen sinplifikatua baino ez dugu egin; zehazki, Haddicanek fokalizatzen du InfinS buru hutsa duen NZ-DetS baten osagarria dela, eta sintagma osoa mugitzen dela FokS-ra. Hemen zehaztasunetan sartu ezin dugunez, irakurle interesatuak jo beza jatorrizko lanera xehetasun gehiagoren bila.

### 3.2. Proposamena: hasierako analisisira itzuliz: buru-mugimendua

Rebuschiren hasierako analisiak sintagma-mugimendua sortzen dituen arazoak saihesten ditu; hortaz, buru-mugimenduaren azterbidea hobetsiko dut foku egitura hauek azaltzeko. Beraz, aditza [Espez, Fok] gunera mugitzen dela onartuko dut, [foku] tasuna balioztatzeko. Daraman *-i/-tu/-n* markak ez du aspektu burutua adierazten, baizik eta partizipioaren esanahia galdu duen aditzaren aipamen forma ihar-tua da (cf. Mounole 2008).<sup>8</sup> *Egin* aditz betegarria Asp buruan txertatzen da, aditzaren *ordain* edo *proforma* gisa, [aspektu] tasunak gauzatzeko. Ondoren, *egin* aditz laguntzailera mugituko da, honen klitiko izaera zilegiztatzeko (ikus Ortiz de Urbina 1994, 1995), eta [*egin* + laguntzailera] buru konplexua Fok<sup>o</sup> burura mugituko da buru hau lexikalizatzeke:<sup>9</sup>



Ohar bedi X<sup>o</sup> kategoriako elementu bat espezifikatzaile gunera mugitzen delako proposamenak ez duela Kateen Uniformitatearen Baldintza (*Uniformity Condition on Chains*, cf. Chomsky 1995a: 253) urratzen ezinbestean. Izan ere, Chomskyren (1995b) *Bare Phrase Structure* lanaren ondotik, buru-mugimendua eta sintagma-mugimendua bereizteko justifikazioa estipulazio hutsean geratzen da, azken batean buruaren eta sintagmaren arteko bereizketa bakarra sintaxiak sortzen dituen egiturak adarreztatu egiten diren ala ez izango bailitzateke. Mugimendu mota bakarra dagoela onartuz gero (hots,

<sup>8</sup> Izan ere, Mounolek (2008) erakusten duenez euskarazko perifrasi zaharren garapen historikoari buruz egiten duen proposamenean, mendebaleko (bizkaierazko) *egin* aditz laguntzailearen lehen lekukotasunetatik aditz nagusia *-i/-tu/-n* markarekin agertzen da ia beti, garai berean gainerako euskalkietan *\*ezan* laguntzailera aditz erroarekin erabiltzen zen bitartean. Mounolek proposatzen du *egin* laguntzailera aditza fokalizatzeke erabiltzen zela hasieran, aditz nagusia *-i/-tu/-n* markarekin agertzen zelarik beti, partizipio perfektuaren adiera galduta zuen arren, eta litekeena dela gero, erabilera fokalizatzailea ahulduz joan zelarik, aditz laguntzaile gisa erabiltzen hasi izana, eredu hori beste euskalkien paradigmatar he-datuz zen arte.

<sup>9</sup> Mugimendu honek bestelako fokalizazioetan osagai fokalizatuaren eta aditz jokatuaren artean aurkitzen dugun A2 (Aditza Bigarren) efektua dakarkigu gogora; cf. batez ere Ortiz de Urbina (1989) eta ondorengo lanak. A2 gertakaria azaltzeko bide bat izan daiteke esatea Fok<sup>o</sup> buru funtzionalaren tasunek buru horrek eduki fonologikoa izatea, hau da, Forma Fonetikoan (FFn) ikusgarri izatea ('PF visibility') eskatzen dutela; ikus Martins (2006) antzeko proposamen baterako europar portugeseke datuez baliatuz. Costa eta Martinsek (2004) proposatzen dutenaren ildotik, buru funtzional 'sendo' batek lexikalizatu egon behar du, dela zerbait txertatzen delako bertan, dela mugimenduaren ondorioz. Gure kasuan, proposa genezake [aditza + lag] buru konplexua Fok<sup>o</sup>-era mugitu ondoren lexikalizatzen dela.

tasun-balioztatzea gehi bat egitea) —ikus batez ere Matushansky (2006)—, A-ren [Espez, Fok]-rako mugimenduak ez du arazorik sortzen; ikus Vicente (2007), aditzak gaztelaniaz [Espez, Top] gunera mugitzen direla defendatzen duen proposamen baterako.

#### 4. Aditz trinkoen bikoizketa egiturak

*Egin* egituretarako proposatu dugunaren ildotik, aditz trinkoekin aurkitzen dugun bikoizketa egituren berri emateko, aditz hauek, foku ezaugarriez gain, adierazten duten aspektu puntukariaren balioztatzearekin lotuko dugu. Hots, aditza foku gunera mugitzen denean, zilegiztatu behar duen [foku] tasuna bakarrik eramaten du, eta aspektu [+puntukaria] aditzaren kopia jokatuak balioztatzen du. (8)ko egituren proposatu bezala, kopia hau Fok<sup>o</sup> burura mugitzen da ondoren, bi aditzek gorde behar duten albokotasunari erantzuna emanez:

(9) [<sub>FokS</sub> A<sub>i</sub> A<sub>jok</sub> [<sub>InflS</sub> [<sub>ASpS</sub> [<sub>AS</sub> t<sub>i</sub>] t<sub>jok</sub>] Infl<sub>jok</sub>]]

(10) Euri sein aterri, yon gos [*joan goaz*] (Urduliz, Bizkaia. Zuazo 2008: 81)

Bikoizketaren azterbide honek Belletik (1995) eta Polettok (2006, 2008) italiarren dialektoetarako proposatu eta tasun-balioztatze banatuaren ondoriozko bikoizketa (“doubling as split feature-checking”) zeritzoten formulazioan aurki dezake azalpena. Hau da, labur esateko, beren proposamena: elementu batek tasun bat baino gehiago balioztatu behar baldin badu, bi aukera daude gramatikan: (a) elementu bera islapen funtzional desberdinetara mugitzen da, modu ziklikoan, edo (b) elementu hori bi zatitan (edo gehiagotan) bana daiteke, zati edo kopia bakoitzak tasun bat balioztatzen duelarik. (10)eko adibidean, esaterako, mugitzen den *joan* kopiak (katearen buruak) [foku] tasuna zilegiztatzen duen bitartean, *goaz* kopiak [aspektu] tasuna zilegiztatzen du.

Baina azalpide honek ez du aditzera ematen nola azal daitekeen euskararen hizkeren artean aditz bikoizketan ikusten dugun aldakortasuna. Polettok berak proposatzen du irtenbide bat hizkuntza barneko bariazioa azaltzeko. Bere ustez, bi parametrotoren arabera esplika daiteke:

- (11) a. delako gramatikak XP elementu baten tasun-zatiketa (*splitting*) onartzen duen,  
 b. elementu batek, mugitzerakoan, zenbat tasun ‘garraiatu’ (pied-piping) behar dituen nahitaez.

Hartara, mendebaleko hizkeretan aditza foku gunera mugitzen denean, ez du [aspektu] tasuna berarekin mugitu behar, beraz, atzean uzten du, eta beste kopia batek balioztatzen du tasun hori. Aitzitik, gainerako hizkeretan, aditz trinkoak nahitaez eramaten behar ditu berarekin batera [aspektu] tasunak goranzko mugidan; ezin ditu tasun horiek zatikatu. Baliteke A-k eta Asp-k gune diferenteetan bat egiten dutela baita eta besteetan, eta horretan datzala diferentzia: bat egitea sintaxian gertatzen da mendebaleko hizkeretan, eta morfologian beste euskaretan.<sup>10</sup>

<sup>10</sup> Eskerrik asko X. Artiagoitiari honetaz ohartzeagatik. Ideia hau azalpen baterako hurbilketa bat besterik ez da, eta zalantzarik gabe azterketa gehiago eskatzen du.

Hala ere, azterketa sakonagoa eskatzen duen diferentziarik bada *egin* egituren eta *egon dago* egituren artean: *egin* egituretako foku mugimendu luzeak perpaus bat zeharka dezakeen bitartean, badirudi bikoizketa egiturakoa ez dela bere perpausetik erraz ateratzen, datuak zalantzazkoak badira ere:<sup>11</sup>

- (12) a. [Saldu<sub>i</sub> esan didate [egingo<sub>i</sub> dutela baserria] ]  
 b. ?/??[Joan<sub>i</sub> esaten dute [doala<sub>i</sub> ] ]

Ohar bedi murriztapenak ez duela loturarik bikoizketa egitura mendeko perpaus batean agertzen delako, ez baitago debekurik mendeko perpausetan agertzeko:

- (13) a. Egon bazagoz, ez dozu ezer bere egiten (Altube 1975) [baldintzazkoan]  
 b. Eztakitt joan sixoian ala etorri etorren (Osa 1990) [zehargalderetan]

Badirudi *egin* egiturek Nz-mugimenduaren ezaugarriak erakusten dituztela: mugimendua ziklikoki gertatzen da, baina adjuntu-perpausek eta erlatibozko perpaus-ek mugimendua eragozten dute:

- (14) a. Saldu<sub>i</sub> esan didate [egingo<sub>i</sub> dutela baserria]  
 b. \*Saldu<sub>i</sub> dago triste [egingo<sub>i</sub> dutelako baserria]  
 c. \*Erre<sub>i</sub> konpontzen ari dira [egin<sub>i</sub> zen etxea]

Aldiz, aditz trinkoen bikoizketa egiturek murriztapen gehiago erakusten dituzte, (12b)ko adibideak aditzera ematen duenez. Honek agerian uzten du ateratze-datuak xeheago eta hiztun gehiagorekin aztertu behar direla bi egiturek azterbide beraren bi-dez azal daitezkeen zehazteko.

## 5. Bikoizketa topikalizazio inguruneetan. Aldakortasun (ez)aren berri eman nahian

### 5.1. Aditzaren topikalizazioa eta errepikapena

Bigarren atalean aipatu dugun bezala, aditza topikalizatzen denean ere bikoizketa aurkitzen dugu euskaraz:

- (15) a. AHTari buruzko ikerketa egin, egingo dela esan du Frantziako lehen ministroak  
 (*Berria* 09/06/23)  
 b. Jakin, ondo daki horrek zer egiten duen

Fokalizazio testuinguruetan gertatzen denaren kontra, hemen ez dugu aurkitzen erabilera honi dagokionez aldakortasunik euskalkietan zehar. Aldiz, testuinguru fokalizatuetan *joan doa* errepikapena erabiltzen ez duten hizkeretan ere aditza bikoiztu egiten da aditza topikoa denean. Bestalde, aditz-topikalizazioan nahiz AS-topikalizazioan *egin* darabilte aditz-fokalizazioetan *egin* erabiltzen ez duten hizkera gehienetan ere. Nola azaldu jokabide desberdin hau?

Topikalizazioetan aditza ez dela mugitzen proposatu nahi dut; aldiz, hizkuntza erromantzeetarako proposatu diren klitikodun ezkeralderako destokitze egiture-

<sup>11</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot X. Artiagoitiari honetaz ohartarazteagatik.

tan bezalaxe (ik. batez ere Cinque 1990), topikalizatutako aditza ezkerrean sartzen dela proposatuko dut, eta perpaus barruko egonguneari lotzen zaiola aditzaren bigarren kopiaren bitartez. Topikoaren eta kopiaren arteko harremana irudikapenezkoa izango litzateke, Cablek (2004) yiddisheraren aditz bikoizketarako proposatzen duen moduan. Honek azalduko luke zergatik ageri den aditza errepikatuta aditz-topikalizazioetan hizkera guztietan eta bestetik, zergatik aurkitzen dugun barietarioa aditzaren fokalizazioan. Ikuspegi honetatik, aditz bikoiztuaren ordeztasun *egin* aditz arina ager daiteke bigarren agerpenean azken hau *proforma* bat delako, posizio kanonikoan aditz lexikoa falta denean egituraren agertzen dena aspektu-tasunak balioztatzeko. Beste hitzez esanda, aditza topikalizatzen dugunean hiztunak aukeratu dauka “beheko guneko” aditza kopiaren bidez adieraztea edo *egin* aditz arinaren bidez.

Aditzaren topikalizazioan mugimendurik ez dela gertatzen frogatzen duten bi argudio aurkez daitezke: (i) aditzaren topikalizazioak irla-efekturik ez duela erakusten (16a), eta (ii) aditz laguntzaileak topikalizatu den AS-ren objektuarekin ez duela objektu-komuntadurarik erakusten (16b):<sup>12</sup>

- (16) a. ?Lan egin, zure gurasoek [gurekin egingo duzun uste/pentsamendu osoa] dute  
 b. Kotxeak saldu, nik dakidala, gutxiegi egin {da/\*dira} hilabete honetan

Nolanahi ere, mugimendu-ezaren ideia sendotzeko, irla-egitura gehiagoren aurrean aditzaren topikalizazioak erakusten duen jokabide sintaktikoa aztertuko dugu hurrengo atalean.

## 5.2. Irla-efektuak topikalizazioetan

Atal honetan aditzaren topikalizazioak ez duela irla-efekturik azaltzen erakutsiko dugu. Beste hitzetan esateko, aditzaren “aurreratzea” mugimenduaren bidez azaldu beharko balitz, irla sintaktikoetatik ateratzeko debekua errespetatuko lukeela espero genuke, gutxienez irla gogorren kasuan. Izan ere, ikusiko dugunez, mugimendu luzea jasan duen aditzaren fokalizazioak emaitza txarrak ematen ditu. Ostera, datuak ez dira horren txarrak aditza topikalizatzen dugunean. Datuetan aurkitzen dugun kontrasteaz baliatuko naiz bi egiturak mugimendu mota berberaren bidez ezin daitezkeela azaldu frogatzeko.

### 5.2.1. IS Konplexuaren Irla

- (17) a. ?Erosi, Jonek [Larssonen azken liburua erosi duen zurrumurrua] entzun dut  
 b. ?Lan egin, zure gurasoek [gurekin egingo duzun pentsamendua] dute (=16a)

<sup>12</sup> Izan ere, gaztelaniaz antzeko datuak aurkitzen ditugu, *lo* klitikoak singularrean komuntzatzen baitu, ez pluralean:

(i) Leer libros, no lo/\*los hacen muy a menudo, la verdad

Datu hauek azalpen bat baino gehiago izan badezakete ere, gutxienez gure hipotesiarekin bat egiten dute: AS ezkerrean bertan sortua bada, eta ez mugimenduaren ondorioz, espero izatekoa da aditz laguntzaileak besterik ez ezartzen den komuntadura agertzea, alegia, singularrari dagokiona.

Goiko perpausak ez dira guztiz onak, baina ez dira IS konplexuaren irla baldintzaren efektua erakutsi beharko balute espero bezainbesteko txarrak. Konparatu, esaterako, gaztelaniarekin:<sup>13</sup>

- (18) a. \*Comprar, he oído el rumor de que Jon ha comprado el último libro de Larsson  
b. \*Venir, he oído el rumor de que ya no vienes

Interesgarria da aditzaren fokalizazioak irla-efektuak erakusten dituela:

- (19) \*Ekarri<sub>i</sub> entzun dut [Jonek Larssonen azken liburua egin<sub>i</sub> duen zurrumurrua]

(17) eta (19) adibideen arteko kontrastea esanguratsua da erakusten duten jokabide sintaktiko desberdinak analisi sintaktiko desberdina eskatzen dutela isla dezakeelako. Halarik ere, ezer ondorioztatu aurretik, ikus dezagun antzeko asimetriarik aurkitzen dugun beste irla sintaktikoetan.

### 5.2.2. *Subjektu-irla*

- (20) ?Irabazi, [etxeko taldeak sari nagusia irabazteak] izugarrizko poza emango liguke  
Konparatu gaztelaniarekin:

- (21) \*Ganar, [que el equipo local ganara el primer premio] nos alegraría mucho

eta aditzaren fokalizazioarekin:

- (22) \*Irabazi<sub>i</sub> emango liguke izugarrizko poza [etxeko taldeak sari nagusia egiteak<sub>i</sub>]

Dena den, (20)-(22)ko subjektu-perpausak nominalizazioak dira euskaraz, beraz, nominalizazioak DetS-ak baldin badira —ik. Artiagoitia (1995), Zabala & Odriozola (1996)—, egitura hauek IS Konplexuaren Irlen adibide lirerateke, eta hortaz, irla mota honetatik ateratzeak sortzen dituen emaitza txar berak erakustea iragarriko genuke, (20)-(22)ko datuek baieztatzen dutenez.

### 5.2.3. *Adjunkt-irla*

Adjunkt-perpausak irlak izan ohi dira mugimendurako. Hartara, perpaus horretako aditza fokalizatu nahi badugu perpaus nagusiaren aurrera eramanez, eta onartzen badugu horrelakoetan aditza mugitu egiten dela, (8)ko egituran adierazi bezala, emaitza txarra izatea espero dugu. Eta hala da, (23)ko adibideak erakusten duenez:

- (23) \*[Etorri<sub>i</sub> joan naiz zinera [zeu eginda, gero]]

Nolanahi ere, badirudi (23)ko adibidearen arazoa ez dagoela nahitaez mugimendurekin lotuta; izan ere, ez da zilegi adjunkt-perpausaren aditzaren ekintza fokalizatzea (*eginen* bidez) mendeko perpausaren barruan geratu arren (alegia, ageriko mugimendurik ez dagoenean):

- (24) \*[[Zeu etorri egin eta gero] joan naiz zinera]

<sup>13</sup> Ikus Vicente (2007: 2. kapitulua) antzeko datuetarako.



Testuinguru honetan, nahiz eta adjinktu-perpauus bateko aditza topikalizatzen dugunean emaitzak ez diren onak (ikus (25) behean), hortik ez dugu berehala ondorioztatu behar gramatikaren urraketa aditza adjinktu-irlatik ateratzeak eragin duela; izan ere, ikusi dugu mendeko perpauusetik atera gabe ere ezin dela aditza fokalizatu *eginen* bidez.<sup>14</sup> Beraz, badirudi mugimenduarekin zerikusia ez duen murriztapen batek eragozten duela adjinktu-perpauusetako aditza tematizatzea eta fokalizatzea.

- (25) a. ??Ekarri, liburuak ekarri eta gero joan naiz zinera<sup>15</sup>  
 b. ??Etorri, zeu etorri eta gero joan naiz zinera

Murriztapen honen izaera eta hedadura xehetasun gehiagoz aztertu beharreko kontua da, baina hurrengo lan baterako utziko dugu. Edozein kasutan, deigarria da perpauus mota hauek direla, hain zuzen, foku-azentua zenbait mendeko perpauusaren elementu bati esleitzea eragozten dutenak bizkaieraren iparraldeko doinu-hizkeretan; ikus Elordieta (2002), Arregi (2006).<sup>16</sup>

#### 5.2.4. *Erlatibozko perpauusak*

Erlatibozko perpauusak ere irlak dira mugimendurako hainbat hizkuntzatan. Euskaraz ere emaitza txarrak sortzen ditu erlatibozko perpauusetik mugitzeak:

- (26) \*Zer<sub>i</sub> ailaga da [Op<sub>k</sub> [t<sub>i</sub> jan duen]] gizona<sub>k</sub>?

Perpauus erlatiboen analisi tradizionalaren ikuspuntutik, (26)ko adibidea txarra da Hurkotasunaren Baldintza urratzen duelako, hots, Nz-hitzaren azterna zilegiztatu gabe dagoelako, erlatibozko operatzailea tartean ageri baita (ikus, besteak beste, Rizzi 1997). Era berean, erlatibozko perpauusaren aditza fokalizatu nahi badugu, ezin dugu perpauusetik atera:

- (27) \*Etorri<sub>i</sub> ezagutu dut [[zure etxera egin<sub>i</sub> den] gizona]

(27)ko adibideak IS Konplexuaren Irla urratzen du. Bestalde, Ezkerreko Adarren Murrizketa (*Left Branch Condition*) urratzen du; hortaz, badira arrazoiak per-

<sup>14</sup> Hala ere, posible da aditzaz beste elementu bat fokalizatzea egitura hauetan, apur bat bortxatuak diren arren:

- (i) [Liburuak Jonek<sub>[F]</sub> ekarri eta gero] joan naiz zinera

Beraz, badirudi perpauus hauetan badagoela elementu fokalizatuak eta topikalizatuak biltzeko egitura nahikorik, eta, hortaz, beste arrazoi batek eragozten duela aditzaren fokalizazio eta topikalizazioa.

- <sup>15</sup> Espero bezala, gaztelaniz ere perpauus okerrak dira:

- (i) \*Comprar, he ido al cine después de comprar un libro

<sup>16</sup> Bizkaieraren iparraldeko doinu-hizkeretan aditzaren aurretik agertzen den hitzak eraman ohi du foku-azentua, azentugabea baldin bada; ikus Hualde, Elordieta & Elordieta (1994), G. Elordieta (1997), Hualde (1997). Aldiz, elementu fokala adjinktu-perpauus baten barruan ageri bada, ezin du foku-azentua jaso:

- (i) \*[Baloi barrià galdu dozulako] hasarretu da zure ama

Onargarratasuna berreskuratzeko modu bakarra foku-azentua aditzari esleitzea da:

- (ii) [Baloi barria galdu dozulakô] hasarretu da zure ama

paus onargaitza egiteko. Izan ere, zenbait hiztunentzat zilegi da erlatibozko perpausaren aditza *eginen* bidez fokalizatzea beheko perpausaren geratzen bada, mugitu gabe (Oyharçabal 1985):

(28) */?/?*Zure etxera etorri egin den gizona ikusi dut<sup>17</sup>

Hiztun horientzat, beraz, (27) baztergarria egiten duena aditzaren mugimendua izango litzateke. Hala ere, beste hiztun askorentzat erlatibozko perpausaren barruan aditza fokalizatzeko aukera ez da existitzen. Horrek aditzera ematen du beste arrazoi batek eragozten duela mendeko erlatibozko perpausaren barruko aditza *eginen* bidez fokalizatzea. Era berean, perpaus erlatibo bateko aditza topikalizatu nahi badugu, emaitza txarrekin egingo dugu topo, (29)ko adibideak erakusten duenez:

(29) \*Irakurri, Larssonen liburu guztiak irakurri dituen gizona ikusi dut

Datu hauek gorago adjuntu-perpausetan ikusi duguna ekartzen digute gogora. (23)-(25) bitarteko adibideen bidez ohartu gara adjuntu-perpaus bateko aditza ezin dela fokalizatu ez topikalizatu (murrizketa honen zergatia zein den oraindik ez dakigun arren). Kontuan izanik erlatibozko perpausak sintaktikoki adjunktuen funtzioa dutela, ez da harrizketa erlatibozko perpausetako aditza ezin topikalizatzea.

Laburtzeko, hortaz, aditzaren fokalizazioak eragiten dituen irla-efektuak aditzaren topikalizazioak eragiten dituenarekin konparatzen baldin baditugu, kontraste bat ageri zaigu: fokalizazioak A'-mugimenduaren ezaugarri guztiak erakusten ditu (aztertutako kasu guztietan erakusten ditu irla-efektuak), baina aditzaren topikalizazioak adjuntu-irlen efektuak baizik ez ditu erakusten. Kontraste honetatik abiatuz, lehen kasuan A'-mugimendua gertatu dela proposatuko dut, baina bigarrenean aditza ez dela mugitu proposatuko dut (Elordieta 2008, agertzeko). Aldiz, hizkuntza erromantzeetarako proposatu diren klitikodun ezkerreko destokitze egituretan bezalaxe, topikalizatutako aditza ezkerrean sortzen dela proposatuko dut, eta perpaus barruko egonguneari lotzen zaiola aditzaren bigarren kopiaren bitartez.

Hurrengo atalean aditzaren fokalizazio eta topikalizazioetan aurkitzen ditugun antzeko bikoizketa egiturek hizkuntza teoriaran sortu duten hausnarketa eta azalpen orokor bat eskainiko dut.

## 6. Bikoizketa sintaktikoaren auziaz

Orokorki, Ekonomia Hatsarrearen irizpideen arabera, bikoizketaren fenomenoak hizkuntzetan (edo estandarrez haratagoko hizkeretan) existitzeak galdera interesgarriak sorrarazten ditu, hatsarre horren arabera eratorpen sintaktikoan ez bailegoke ez behar ez den mugimendurik, ezta esanahia gehitzen ez duen elementurik ere. Esparru teoriko horretan, bikoizketa-egitura bakoitzak errepikapen morfosintaktiko hutsa dirudien arren bestelako eragin semantikorik (txikiena izanda ere) duen aztertu behar

<sup>17</sup> Hiztun batzuek ez dute erraz onartzen erlatibozko perpausaren barruko *eginen* bidezko aditzaren fokalizazioa, de Rijk (1972) zioenez, baina beste hiztun batzuek ontzat jotzen dituzte (i)-(ii) gisako perpausak, Oyharçabalek (1985) bildutako datuen arabera:

- (i) Jo egin dedan gizona, hil egin da
- (ii) Ikusi egin dauenak esan daust

da, edo, zehazkiago esanda, lotuta dagoen berbaldiaren funtzioekin, hau da, topiko-foku ezaugarriekin.

Ildo horretatik, ohartzen gara aditzaren bikoizketa erakusten duten hizkuntza askotan batik bat fokalizazio testuinguruetan gertatzen dela, hala nola, kwa eta bantu hizkuntza familietan (Aboh 2007), errusieraz (Abels 2001), Haitiko kreoleraz (Koopman 1984, Manfredi 1993, Harbour 2008) edo koreeraz (Jo 2003), beste egitura batzuetan ere agertzen den arren. Aldiz, beste zenbait hizkuntzatan, aditza topikalizatzen denean agertzen dira bikoizketak, adibidez, yiddisheraz (Davis & Prince 1986) edo hebraieraz (Landau 2006, 2007). Euskaraz, ikusi dugunez, bi testuinguruetan aurkitzen ditugu. Era berean, italieraren Milaneko dialektoetan aurkitzen den izenordainaren bikoizketa enfasi-testuinguruetan erabiltzen da (Poletto 2008).

Hortaz, teoriarako garrantzizkoa da ulertzea zein egituratan espero daitezkeen bikoizketak agertzea (eta zeinetan ez), bai eta zerk baldintzatzen duen bikoizten den elementuaren ‘kopia’ bat bakarrik ala biak ahoskatzea. Auzi honen gainean plazaratu diren hiru ikuspegi nagusi aipatuko ditut ondoren.

### 6.1. Kopia + FF-ezabaketa

Kopia-teoriaren arabera, elementu bat mugitzen denean kopia uzten du sortzen den tokian eta, mugimendua ziklikoa bada, baita tarteko guneetan ere. Oro har, ekonomia hatsarre orokorrekin elementu beraren kopia bakarra ahoskatzea baldintzatuko dute, baina bestelako arrazoiek (morfologikoek, esaterako) behartzen badute, kopia bat baino gehiago gauzatuko dira fonologikoki. Abelsek (2001) eta Landauk (2006), esaterako, errusierazko eta hebraierazko bikoizketak urraketa morfologikoa saihesteko estrategia bat dela proposatzen dute, bestela inflexio-atzizkiak “zintzilik” geratuko bailirateke. [Rebuschiren analisisia ildo beretik doake]. Zentzu honetan, bikoizketa kasu garbiak kopia-teoriaren frogatzat har daitezke:

- (30) CITAT, Ivan ee CITAET  
 irakurri.INF Ivan hura irakurri.orain.3s  
 ‘Irakurri, Ivanek irakurtzen du’ (Abels 2001)

Portugesez bikoizketa erabatekoa da (Martins 2006):

- (31) a. O Joao não comprou o carro  
 ‘Joak ez zuen kotxea erosi’  
 b. O Joao COMPROU o carro, COMPROU  
 ‘Joak erosi zuen kotxea’ (polaritate fokua)

Baina kasu askotan bikoizketa ez da erabat berdina morfologikoki; euskarazko *joan doa* kasuak horren adibide dira, bai eta Polettoren (2006, 2008) italierazko, Barbiers et al.en (2008) neerlandierazko, edo Nunesen (2004) portugesezko datuak:

- (32) TE ghe de vegni anche TI  
 zu behar infin etorri ere zu  
 ‘Zu ere etorri behar zara’ (izenordain subjektuaren bikoizketa, Poletto 2008)

Kopiaketa “partzial” hauetan badirudi orokorpena hauxe dela: mugitzen den kopia ezin da izan jatorrizko guneko kopia baino espezifikagoa tasun morfosintakti-

koei dagokienez. Adibidez, (32)ko adibidean *te* izenordain azentugabea ahulagoa da *ti* azentuduna baino, eta euskaraz perpauk hasieran agertzen den aditzaren kopiak ez du aspektu-tasunik (bai, ordea, “beheko” kopiak).

Azterbide honek zenbait galdera uzten ditu irekita, hala nola, zergatik ez diren hitz bi edo gehiagor osatutako sintagmak bikoizten (eta bai, aldiz, hitz bakarrekoak), edota zerk baldintzatzen duen mugimendu luze bateko katearen kopia guztiak ala bi bakarrik ahoskatzea.

## 6.2. Bikoizketa tasun-balioztatze banatuaren ondorioa da

Beste azterbide baten arabera, elementu beraren bi kopiatzat hartzen ditugun egituretan benetan osagai konplexu bat dugu eratorpenaren hasieran, bi elementuz osatua, eta gero tasunen balioztatze-prozesuan, osagai bakoitzak buru funtzional desberdinek zundatutako tasunak balioztatzen ditu; ikus Belletti (2005), Poletto (2006), (2008), Valmala (2008). Horrek azalduko luke zergatik agertzen den ustez osagai bera dena gune batean baino gehiagotan perpausuan. Azterbide honetan, bikoizketari dagokion hizkuntzen arteko aldea bi ezaugarritan legoke: batetik, osagai baten zatiketa-maila eta, bestetik, mugitzaerakoan *garraiatu* behar duen egitura-kopurua (ikus bedi 4. atalean iradoki duguna aditzaren fokalizazioan dakusagun aldakortasuna azaltzeko).

Barbiersek (2008) argudiatzen duenez, azterbide honek bikoizten duten hizkurretan aurkitzen ez den iragarpen bat egiten du: zenbait bikoizketa egituretan, esaterako Nz-hitzak bikoizten dituzten hizkurretan, batek esperoko luke *nork nori eman dio agindua?* bezalako Nz anitzeko egituretan, Nz-hitz bat mugitzen bada eta bestea in-situ gelditu, in-situ gelditzen den balizko osagai konplexu horren zati (bikoiztu) biak bere osotasunean azaltzea jatorrizko gunean, baina gehienetan ez da horrelakorik aurkitzen.<sup>18</sup>

## 6.3. Kate paraleloak

Aboh-k eta Dyakonovak (2009), beren aldetik, errusierazko eta gungberako datuetan oinarrituta, proposatzen dute predikatuen bikoizketa egiturak ez direla mugimendu-kate bakarraren bi kopia ahoskatzearen ondorio, baizik eta oin bera duten *bi kate paraleloen* bi begiak edo buruak direla. Izan ere, argudiatzen dutenez, ez da kasualitatea bikoizketa gehienak foku-topiko testuinguruetan gertatzea hizkuntzetan zehar; horregatik, beren proposamenean egitura hauetan helburu bera duten eta aldi berean gertatzen diren *bi* mugimendu (eta, beraz, bi kate) daude: aditz bikoizketaren kasuan, kate batean aditza (edo honen kopia, partziala edo osoa) Aspektu edo Denboraren eremura mugitzen da, aspektu-denbora-komuntadura tasunak balioztatzeko, eta beste katean aditza Foku/Topikoen eremura mugitzen da, “muga” tasunak

<sup>18</sup> Hala ere, aipatu behar da aditz bikoizketa duen haitieraz aditz kopia biak ager daitezkeela elkarren ondoan, “beheko” edo “jatorrizko” egongunean zenbait (Harbour 2008):

(i) Ou me`t EKRI EKRI poe`m wi  
Zu ipini idatzi idatzi poema bai  
{Jarrai dezakezu poemak idazten (eta idazten)}

balioztatzeo.<sup>19</sup> Zentzu batean, tasun-balioztatze banatuaren azterbidearen intuizio bera darabilte, elementu batek buru funtzional ezberdinek zilegiztatu behar duten tasun bat baino gehiago baliozta dezakeela onartzen baitute. Balioztatze hori bi mugimendu bereiziren bidez ala jatorrian osagai konplexuagoa dena zatitzearen bidez egiten den, hor legoke bien arteko alderik nabarmenena.

## 7. Laburbilduz

Lan honetan aditzaren bikoizketa izan dugu aztergai, euskal hizkeretan aurkitzen dugun aldakortasun sintaktikoaren adibide interesgarria delako, are gehiago beste hizkuntza askotan aurkitzen dugun gertakaria dela kontuan hartuta. Izan ere, gaiak oro har bikoizketa sintaktikoa nola aztertu behar den azaltzeko bidea ematen du. Bi testuinguru sintaktikotan aurkitzen dugu aditza bikoiztuta euskararen hizkeretan: aditz trinkoak adierazten duen ekintza edo gertaera fokalizatu nahi dugunean eta aditza (trinkoa zein perifrastikoa) topikalizatzen dugunean. Egituron erabilera eta banaketa dialektala ez da, halere, berbera: aditza topikalizatzen denean euskalki guztiak erabiltzen dute aditza bikoizteko estrategia; aitzitik, mendebaleko hizkeretan bakarrik bikoizten dute aditz trinkoa fokua denean.

Banaketa honen berri eman nahian, inguru fokalizatzaileetan aditza foku gunera mugitzen dela proposatu dut, eta topikalizazioan, aldiz, mugimendurik ez dela gertatu. Bikoizketa zergatik gertatzen den euskalki batean eta ez besteetan azaltzeko, beste hizkuntza batzuetarako proposatu denaren ildotik, hizkerak egin ditzaketen aukera parametrikoen mende dagoela iradoki dut: hau da, elementu batek tasun bat baino gehiago zilegiztatu behar duenean, sistemak printzipioz aukera ematen die gramatikei tasun horiek elementu horren kopia oso edo partzial bereizietan banatzeko. Horrela, kopia bakoitzak tasun bat balioztatuko du. Hemen egiten den proposamena da hori izan daitekeela aditz trinkoen fokalizazioan aurkitzen dugun bariazioa azaltzeko bidea. Mendebaleko hizkeretan aditzaren kopia batek foku-tasunak bakarrik zilegiztatzen dituen bitartean (eta besteak aspektu-tasunak), gainerako euskalkietan ez legoke tasunak zatikatzeko aukera, eta beraz, aditzak berak balioztatu behar ditu bi tasunak.

## Aipamen bibliografikoak

- Abels, K., 2001, «The predicate cleft construction in Russian». *Formal Approaches to Slavic Linguistics* (FASL) 9:1-18. Ann Arbor: Michigan Slavic Publications.
- Aboh, E. O., 2007, «Leftward Focus versus Rightward Focus: the Kwa-Bantu Conspiracy», *SOAS WPiL* 15: 81-104.
- & M. Dyakonova, 2009, «Predicate doubling and parallel chains», *Lingua* 119:7, 1035-1065.
- Altube, S., 1929, *Erderismos*. Bermeo [2. argitaraldia, Bilbo, 1975].
- Arejita, A., 1984, *Euskal Joskera*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- , 1980, «Aditzaren galdegai funtzinoaz», *Euskera* XXV, 355-369. Bilbo: Euskaltzaindia.

<sup>19</sup> Ingeleseko terminologian, “edge features” deritze foku/topiko ezaugarriak edota Nz-galderen ezaugarriak dituzten tasun motei (Chomsky 2008 eta beste hainbat lan).

- Arregi, K., 2006, «Stress and Islands in Northern Bizkaian Basque». In Lakarra, J. A. & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask. ASJU* 40: 1-2, 81-106.
- Artiagoitia, X., 1995, *Verbal projections in Basque and Minimal Structure. ASJU-ren Gehigarriak* 36, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Azkue, R. M., 1893, *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko*. Imprenta de la Casa de Misericordia.
- Barbiers, S., O. Koenenman, M. Lekakou & M. van der Ham (arg.), 2008, *Microvariation in syntactic doubling*. Syntax and Semantics vol 36, Cornwall: Emerald.
- Belletti, A., 2005, «Extending doubling and the VP-periphery», *Probus* 17, 1-36.
- Cable, S., 2004, «The Yiddish predicate cleft construction: a base generation analysis», MITeko eskuizkribua.
- Chomsky, N., 1995a, *The Minimalist Program*. Cambridge: MIT Press.
- , 1995b, «Bare Phrase Structure». In Webelhuth (arg.), *Government and binding theory and the minimalist program*, Blackwell, Oxford.
- , 2008, «On Phases». Otero, C. P. et al. (arg.), *Foundational Issues in Linguistic Theory*, Cambridge, MA: MIT Press, 133-166.
- Cinque, G., 1990, *Types of A-bar Dependencies*. LI Monograph 17. Cambridge: MIT Press.
- Costa, J. & A. M. Martins, 2004, «What is a strong functional head?», Paper delivered at *Lisbon Workshop on Alternative Views on the Functional Domain*. Lisboa.
- Davis, L. J. & E. F. Prince, 1986, «Yiddish verb-topicalization and the notion “lexical integrity”», *CLS* 22: 90-97. Chicago: University of Chicago.
- Elordieta, A., 2002, «On the (im)possibility of prosodic focus marking in embedded contexts in Northern Bizkaian Basque». In Artiagoitia, X., P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia, 153-177.
- , 2008, «Aldaera sintaktikoak aditzaren fokalizazioan». *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskaran eta euskal testugintzan Nazioarteko Mintegian* aurkeztutako komunikazioa. Baiona, 2008/12/12-13.
- (agertzeko), «Foku-mintzagaien gainean ohar batzuk: azentu nagusia aditzak daramanean». Gorrotxategi, J., J. A. Lakarra eta B. Urgell (arg.) *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarraren agiriak*.
- Elordieta, G., 1997, «Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque». In F. Martínez-Gil & A. Morales-Front (arg.), *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages*. Washington, D. C.: Georgetown U. P., 3-78.
- Etxepare, R. eta J. Ortiz de Urbina, 2003, «Focalization». J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter, 460-516.
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Haddican, B., 2004, «Sentence polarity and word order in Basque», *The Linguistic Review* 21, 87-124.
- , 2007, «On *egin*: do-support and verbal focus in Central and Western Basque», *NLLT* 25:4, 735-764.
- Harbour, D., 2008, «Klivaj predika, or predicate clefts in Haitian», *Lingua* 118, 853-871.
- Hualde, J. I., 1997, *Euskararen Azentuerak. ASJU-ren Gehigarriak* 42, Donostia-Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- , G. Elordieta & A. Elordieta, 1994, *The Basque Dialect of Lekeitio. ASJU-ren Gehigarriak* 34, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Jo, J.-M., 2003, «Variations in predicate cleft constructions in Korean: Epiphenomena at the Syntax-PF interface». Paper presented at the 10th Harvard International Symposium on Korean Linguistics, Harvard University.
- Kayne, R., 2000, *Parameters and Universals*. New York: Oxford U. P.
- Koopman, H., 1984, *The syntax of verbs: From verb movement rules in the Kru languages to Universal Grammar*. Dordrecht: Foris.
- Landau, I., 2006, «Chain resolution in Hebrew VP-fronting», *Syntax* 9:1, 32-66.
- , 2007, «Constraints on partial VP-fronting», *Syntax* 10:2, 127-164.
- Manfredi, V., 1993, «Verb focus in the typology of Kwa/Kru and Haitian». In F. Byrne & D. Winford (arg.), *Focus and grammatical relations in Creole languages*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 3-51.
- Martins, A. M., 2006, «Emphatic verb reduplication in European Portuguese». In S. O. Barbiers et al., *Syntactic Doubling in European Dialects*. Electronic publication of the papers presented at *Syntactic Doubling in European Dialects*, Amsterdam, March 2006.
- Matushansky, O., 2006, «Head movement in linguistic theory», *LI* 37:1, 69-109.
- Mitxelena, K., 1981, «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz». In ZZEE, *Euskal Linguistika eta Literatura*, Deustuko Unibertsitatea: Bilbo, 57-81.
- & I. Sarasola, 1984-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao: Mensajero & Desclée de Brouwer.
- Mounole, C., 2008, «Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko hizkeretan: aldaerak eta aldaketak diakronian». *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskaraz eta euskal testugintzan Nazioarteko Mintegian aurkeztutako komunikazioa*. Baiona, 2008/12/12-13.
- Nunes, J., 2004, *Sideward Movement and Linearisation of Chains*. MIT Press, Cambridge.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht: Foris.
- , 1994, «Verb initial patterns in Basque and Breton», *Lingua*, 125-153.
- , 1995, «Residual Verb Second and Verb First in Basque». In K. Kiss (arg.), *Discourse configurational languages*, 99-121.
- Osa, E., 1990, *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Doktorego tesia, UPV/EHU. Leioa: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Oyharçabal, B., 1984, «Ba- baiezo aurritzia», *Euskera* 21, 251-271.
- , 1985, *Les relatives en basque*. Université de Paris.
- Poletto, C., 2006, «Doubling as economy». In S. O. Barbiers et al., *Syntactic Doubling in European Dialects*. Electronic publication of the papers presented at *Syntactic Doubling in European Dialects*, Amsterdam, March 2006.
- , 2008, «Doubling as Splitting». In S. O. Barbiers et al., 37-68.
- Rebuschi, G., 1983a, «Anglais *do* et basque *egin*: analyse contrastive». 23rd Meeting of the Société des Anglicistes de l'Enseignement Supérieur (Rheims)-en aurkeztutako komunikazioa.
- , 1983b, «A Note on Focalization in Basque». *ASJU* 4:2, 29-42. [Berrarg. in Rebuschi, G. (1997), *Essais de linguistique basque*, ASJU-ren Gehigarriak XXXV, UPV/EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia, 31-41.]
- de Rijk, R. P., 1972, *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*. Doktorego tesia, MIT.
- Rizzi, L., 1997, «The Fine Structure of the Left Periphery». In L. Haegemann (arg.), *Elements of Grammar*. Dordrecht: Kluwer Academic Publishers, 281-337.
- Valmala, V., 2008, «Topic, focus and quantifier float». In Artiagoitia, X. & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. ASJU-ren Gehigarriak 51, UPV/EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia, 837-857.

- Vicente, L., 2007, *The Syntax of Heads and Phrases. A Study of Verb (Phrase) Fronting*. Doktorego tesia, LOT Diss series 154, Utrecht.
- Zabala, I. & J. C. Odriozola, 1996, «On the relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals», *Catalan Working Papers in Linguistics* 5.2, 231-281.
- Zuazo, K., 1998, «Euskalkiak gaur», *FLV* 30, 191-233.
- , 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- , 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.



# PERPAUS BARNEKO HIZKUNTZA LERRATZEAK (HL) EKIALDEKO EUSKAL ELEBIDUNETAN

Irantzu Epelde eta Beñat Oyharçabal  
(IKER, UMR5478)

## Abstract<sup>1</sup>

*This paper presents the results of a study on Basque-French intrasentential code-switching. More specifically, the paper studies the case of prepositional phrase (PP) insertion among Basque-French bilinguals in the Northern Basque Country. The data show a clear tendency to insert PPs that function as syntactic islands, in contrast with so-called lexical insertions (N). This tendency is dominant when Basque is the base or matrix language. Nevertheless, when French is the matrix language, the opposite happens, and the 'classic' code-switching becomes dominant. As a conclusion, this crossing is proposed to be the result of some phonological constraints.*

## 1. Sarrera

Elebidunen solasetan gerta daitezkeen hizkuntza aldaketez mintzo garenean erabiltzen dugu *hizkuntza lerratze* (HL) izendapena. Egiazki, lerratzea hiztun batek mintzo dituen bi dialektoren artean ere gerta daiteke, Gardner-Chlorosek (2009: 4) zehazten duen moduan: “[HL] the use of several languages or dialects in the same conversation or sentence by bilingual people”. Hizkuntza mintzatuan guztiz arruntak dira perpausen artean edo “in the same conversation” gertatzen diren lerratzeak. El-karrizketa zati hau, adibidez, Donibane Lohizuneko bi emakume adintsuren artekoa da:

MG [AN adiskidea sartzen da etxera, bisitan]: — Addio! Ongi? *Tu vas bien?*

AN [musuak]: — Ba, zinturreko minarekin heldu naiz, *mal à la gorge. Je viens de prendre de la menthe.*

MG: — *Non!* Zinturreko minarentzat hartazu... prestatuko zaitu Élisabethek... baso handi bat glazonez bete, zitroin erdi bat prezatu, eta azukre kokkor bat! [azalpenak entzun bitartean atea ixtera doa AN]. *Ferme, ferme toi, zerrazu atea, ba, hetsazu.*

---

<sup>1</sup> MECeko diru laguntzari esker gauzatu da lan hau (FFI2008-00240/FILO). Artikuluaren lehenbiko idatzaldiari egin dizkieten ohar aberasgarriengatik, eskerrik asko Bangor-eko Unibertsitateko Margaret Deuchar eta Carmen Parafita Couto hizkuntzalari espezialistei, eta bereziki Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare, Jasone Salaberria eta Lourdes Oñederra lankideei.

Lan honetan ez gara horrelako —perpausen arteko— lerratzeez ariko, baizik eta perpausaren barnean gertatzen direnez. HLak hizkuntzaren erabilera naturalaren ekoizpenak diren aldetik, uste dugu haien ikerketak gramatikaren antolamenduaz zerbait erakuts dezakeela. Hori dela eta, gramatikaren ikuspuntutik egin dugu perpaus barneko lerratzeen azterketa hau.

Fenomeno hau guztiz hedatua da mundu zabalean, eta Euskal Herrian ere adin guztietako elebidunen artean aurkitzen da. Hego Euskal Herrian egin izan da hizkuntza lerratzeen gaineko zenbait ikerketa lan euskara-gaztelaniadun elebidun helduekin —Rotaetxe (1991, 1994), Muñoa (1997), Etxebarria (1998, 2004), Ibarra (2008)— eta haurrekin: Barreña & Ezeizabarrena (1999, 2000), Ezeizabarrena & Manterola (2004), Barreña, Ezeizabarrena & García (2008). Horrez gain, badira laurogeita hamarrekota bildutako zenbait gaztelania-euskara corpus ere, argitaratu gabeak —(Etxabe 1992, Fernández 1992, Sarrionandia 1992)—, bat izan ezik (Esnaola 1999). Ipar Euskal Herrian, oro har, frantsesarekiko ukipen egoerak eragindako gertakariak ez dira aztertuak izan, eta, horregatik, HLen gaineko lan zehatzak ere eskas ditugu.

Poplacken arabera (1980), HLak ez dira hiztunaren gramatika gaitasun faltaren ondorioak, ezta hizkuntza horien egituretan izan litezkeen hutsuneen ondorioak ere. Alderantziz, lerratzeak elebidun osoek duten erabateko gramatika gaitasunaren erakusgarri ezin hobeak izaten dira. Hain zuzen, joera hori duten hiztunen ezaugarri bat izaten da elebidun osoak izatea, bi hizkuntzetan erabateko erraztasun eta gaitasunaz mintzatzeko eragozpenik ez dutenak (Poplack 1980, Nortier 1990). Gure corpusean datu-iturri izan ditugun berriemaileak halakoak dira (ik. 2. atala). Areago, aditu batzuek diote zenbait hiztunentzat hori izan daitekeela mintzatzeko kode ez-markatua edo ohikoena (Mondada 2007).

Berriki kaleratu diren zenbait lanetan, HLen *perpaus barneko* sintaxi ezaugarriak izan dira aztergai. Perpaus barneko lerratzeek ezinbestean eskatzen dute bi hizkuntzen gramatikak ongi ezagutzea, lerratzeak ez baitira edozein moduz eta edozein ingurunetan gertatzen. Gainera, bi hizkuntzetan konpetenteen diren hiztunek HLak maizago egiten omen dituzte —(Berk-Seligson 1986, Poplack 1988, Poplack et al. 1988, Treffers-Daller 1994)—, eta ez elkarrizketa mailan bakarrik, baita perpaus barnean ere.

Oraingoan, Iparraldeko euskaldun-frantses elebidunak hartuta, ikusi nahiko genuke zein testuingurutan den posible —edo ezinezko— gertakari hau aurkitzea, edo, bestela esan, zein gramatika murriztapenek arautzen dituzten HLak erkidego honetako hiztun elebidunetan. Oraintsuko zenbait eskola edo teoriaren arabera, murriztapen bereziek arautzen dituzte HLak, eta murriztapen horiek gramatika aldaketak gidatzen dituzten hatsarre berezi batzuei dagozkie: Myers-Scotton (1993), (2002), (2004), Bhatt (1997), Muysken (2000). Ikuspegi honen araberako teoria nagusietako bat da Carol Myers-Scotton-en *The Matrix Language Frame Model* (1993, 2002, etab.). Teoria honek HLak bideratzen dituen murrizketa orokor batzuk biltzen ditu, eta bereziki adierazten du nola antolatzen dituzten hiztun elebidunek darabiltzaten bi hizkuntzen gramatikak, matrize hizkuntza eta txerto hizkuntza bereiziz.<sup>2</sup>

<sup>2</sup> HLetako datuak deskribatzeko orduan oso egoki gertatzen da eredu hau. Gure azterketarako ere lagungarria iruditu zaigu kontzeptu horiek erabiltzea. Matrize hizkuntzaren hainbat definizio aurki daiteke literaturan, baina Myers-Scottonen erabili zuen batekin geldituko gara: aditz nagusia beretua duen hizkuntza hartuko dugu aurrerantzean matrize hizkuntzatzat.

Literaturan, alabaina, ikuspegi kontrajarriak izan dira murrizketen gainean. Minimalismotik hurbil diren adituentzat, esate baterako, ez da HLari dagokion gramatika berezirik —(*The Null Theory*; Mahootian 1993, MacSwan 1999, 2000, 2005, Chan 2003)—, ezta murriztapen berezirik ere. HLetako gramatika, hizkuntza soiletan ere berdin aurkitzen diren gramatika unibertsalaren hatsarre eta murriztapen orokorren bidez aztertzea da, ikusmolde honen arabera.

Hizkuntza desberdinetako gramatika azpiegiturak elkarren artean nola josten diren aztertzeo, hainbat ingurune sintaktikori so egin diezaiokegu. Lan honetan lehen urratsak egingo ditugu: preposizio sintagmetan gertatzen diren HLak bakarrik izango ditugu aztergai, lapurtar hiztunetatik bildu dugun corpusean oinarrituta (ik. 3. atala). Hautu hori, corpuseko adibideei begiratu sakon bat eman ondotik egin dugu. Izan ere, oro har (ez euskararen kasuan bakarrik), testuinguru edo ingurune sintaktiko jakin batzuetan errazago gertatzen da HLa. Eta badira munduko hizkuntza pare diferentetan erregulartasunez gertatzen diren lerratze fenomeno batzuk. Fenomeno horietako bat da guk *uharte* izendatu duguna,<sup>3</sup> Myers-Scottonen (2002: 139-153) terminologian oinarrituta. Preposizio sintagmak uharte kasu tipikoak dira. Horregatik hautatu ditugu lehen urrats honetarako.

Orain arteko hainbat ikerlanek erakutsi dute lerratzea preposizio sintagman (PS) gertatzen denean, askotan sintagma osoari eragiten diola: PS osoa L2n izaten da. Ikus (1) adibidea:

- (1) Wat gaat ge doen *chez ces pauvres vieux*?  
 zer joan zu egin  
 ‘Zer egingo duzu xahar horien etxean?’

(Bruselako nederlandera-frantsesa; Treffers-Daller 1994: 208,  
 Myers-Scotton 2002: 139)

Bada beste lerratze mota bat ere: izenaren mailako txertatzea. Muysken-en arabera (2000: 76), hizkuntza eranskarietan ohikoa izaten da lerratze mota hau:

- (2) ...ondan sonra *lauw water*’nan yIkayInca  
 ...gero goiz epel ura-rekin garbitu  
 ‘Nik ur epelarekin garbitu aurretik’

(Turkiera-nederlandera; Backus 1992: 112, Myers-Scotton 2002: 152)

Hitzez hitz dio (Muysken 2000: 76): honelako adibideak, zeinetan “a case affix from one language is attached to the nominal constituent from another one, are typical of code-mixing involving agglutinative languages such as Basque, Quechua, Finnish, Tamil, Maori and Turkish”. Euskara hizkuntza eranskaria denez, ematen du joera nagusiak norabide honetakoa behar lukeela.

Artikulu honetan bi txertatze mota hauen berri emango dugu —gure corpusetik ateratako adibideak erabiliz—, eta emaitzen analisi bat eskainiko. Emaitzek erakutsiko digute uharte kopurua —*Embedded Language islands*, Myers-Scottonen (2002:

<sup>3</sup> Matrize hizkuntzako egituren barnean txerto hizkuntzako osagaiak sartzen dira askotan. Txertatzen diren osagai horiek funtzio-osagaiak badira, eta ez lexikoi osagai hutsak, esaten da *uharteak* dirrela.

139) terminologian— handiagoa dela kasu *klasikoena*<sup>4</sup> baino, HLak gertatzen direneko PS kasuei dagokienez behintzat. Uste dugu matrize hizkuntza erabakigarria dela uhartean (edo bestelako HLen) eratzean. Deigarria da frantseseko uharte kopuru handia matrize hizkuntza euskara denean. Hautu honen azpian zer arrazoi egon daitekeen ez dakigu ziur, baina hipotesi bat izan liteke bi hizkuntzen arteko distantzia fonologikoaren nolakotasunak eragina duela honetan, eta uharteak eratzea distantzia horren nolakotasunak sortu zailtasunak saihesteko bide bat dela hiztunarentzat. Alegia, frantsesaren eta euskararen fonologia sistemak berdintsuagoak balira, beharbada, uharte kopurua ez zela den bezain handia izango. Utz dezagun, baina, gogoeta hau azken atalerako (ikus (4)).

## 2. Ipar Euskal Herrian egindako ikerlan bat

Euskal Herriko hizkuntza egoera den bezalakoa delako, gaur egun euskal hiztun erkidegoak oso egokiak dira kontaktuak eragindako gertakariak aztertzeko. Laburki bada ere, lan honetan HL fenomeno jakin bat —PSak frantsesa-euskara elebidun osoen ahozko jardunetan nola txertatzen diren— aztertuko dugu Iparraldeko hizkera batean: lapurteran.

Corpusa honako berriemaile hauen laguntzari esker bildu dugu: 4 hiztun (bi gizoneko eta bi emakumezko), 60-65 urte artekoak gizonak eta 80-90 urte artekoak emakumeak. Laurek pareko maila sozio-ekonomikoa dute (erdi mailakoa), eta kaltetarrak dira (ez laborariak). Denak dira elebidun osoak, hots, erabateko gaitasuna dute bi hizkuntzetan. HLak naturalki eta erregulariki egiten dituzte beren eguneroko ahozko jardunetan.

Aztertu dugun materialak hamabi bat orduko iraupena du, eta giro informalean grabatua izan da erabat. Inkestagileok hizpidea emateko moduko galderak egiten genizkien lekukoei, euskaraz,<sup>5</sup> elkarrizketa tankerako solasaldiak sortzeko. Elkarrizketak guztiz irekiak izan dira, eta gaiak eguneroko bizitzako gai arruntak: familia, aisialdia, lana, haurtzaroko oroitzapenak, lagunak... Senperen eta Ziburun egin ditugu saioak, lekukoen etxean, eta bina berriemaile (gizon bat eta emazte bat) izan ditugu herriko. Saio batzuetan lekukoa bakarrik elkarrizketatzen genuen, eta beste batzuetan binaka. Talde handiagoko saiorik ez dugu egin mementoan adineko jendearekin. Berriemaileek bazekiten une oro solasaldiak grabatzen ari ginela, baina ez zaigu iruditzen horregatik berbaldi arruntean lerratzeak egiteko duten joera naturala gutxitu denik (are gutxiago beroaldietan esandakoetan).

<sup>4</sup> *Hizkuntza lerratze* (HL) izendapenez bi motatako txertatzeak hartzen ditugu kontuan: hitzaren mailan gertatzen direnak eta osagai gehiago biltzen dituztenak (hemen ikergai dugun kasua). Bien arteko kontrastea zehaztu behar denerako gorde dugu termino hau (*classic* CS; Myers-Scotton 2002). Izendapen horrekin izenaren mailako txertatzei bakarrik egiten diegu erreferentzia (19)-(22) adibideak, alegia.

<sup>5</sup> Ohartzen gara elkarrizketa gehienetan matrize hizkuntza euskara izatea zuzenean lotuta dagoela honekin: hizpidea sortzeko moduko galderak euskaraz egiten genizkien, beraz guk geuk eragiten genuen hiztuna euskaraz hastea. Halere, azalpenetan aurrera zihoazen bezala kontakizunaren pasarte batzuetan frantsesera lerratzen ziren aise, matrize hizkuntza frantsesa bihurtzerainoko erraztasunarekin (guk horretan inolako eraginik izan gabe).

### 3. Emaitzak

Gorago aipatu bezala, matrize hizkuntza euskara da nagusiki gure corpusean, nahiz eta frantsesa ere halakotzat erabilia den batzuetan. Lan honetan bi kasuak hartuko ditugu kontuan, beraz adibideak [P[D[N]]] edo [[[N]D]P] motatakoak izan daitezke, perpaus horiek frantsesez eta euskaraz duten hurrenkeraren arabera. Bi txertatze mota aurkitu ditugu corpusean: batetik, PSak osorik L2an txertatzen diren kasuak eta, bestetik, izenaren mailako txertatzeak.<sup>6</sup>

#### 3.1. PSak osorik L2an txertatzen diren kasuak

Euskarazko jardunetan frantsesezko 28 PS zenbatu ditugu bederatzi preposizioekin (*à, avec, chez, dans, de, en, pour, sans, sur*), eta euskarazko 3 PS frantsesezko jardunetan. Sintagma hauek, preposizioa buru dutela, leku jakina hartzen dute frantsesez: sistematikoki aditzaren eskuinean agertzen dira. Horien euskarazko baliokideek, aldiz, ordena askeagoa dute, eta aditzaren aurretik nahiz atzetik ager daitezke. Adibidez:

- (3) a. Gizonak oilaskoa *labean* sartu zuen  
gizon.MUG.ERG oilasko.MUG.ABS *labe*. MUG.IN sartu LAG  
b. Gizonak oilaskoa sartu zuen *labean*  
gizon.MUG.ERG oilasko.MUG.ABS sartu LAG *labe*.MUG.IN

Gure corpusean, gehien-gehienetan, PSa aditzaren eskuinean agertzen da, perpau-saren azkenean (bestelakoetarako, ikus (13), (14) eta (16) adibideak):

- (4) Uai jakindu dut berriki oñez etorri zela *de Verdun*  
'Berriki jakin dut orain oinez etorri zela *Verdun-etik*'
- (5) Maritxuk izatu zuen problema bat *avec la clavicule*  
'Maritxuk arazo bat izan zuen *klabikularekin*'
- (6) Liburuak eman alkitan *pour les invités*  
'[Eztei-elizkizunetan] liburuak aulkien gainean jarri behar izaten genituen *gonbi-datuentzat*'
- (7) Oial bat ematen zen *sur les mariés*  
'Oihal bat jartzen zen *ezkongaien [sorbalda] gainean*'
- (8) Gaxinto ateratzen da *au balcon de la mairie*  
'Gaxinto atera zen *udaletxeko balkoira*'

Behin baino gehiagotan aposizioan aurkitu ditugu PSak, eta horietan perpaus alboratuen artean gertatzen dira HLak. Zenbaitetan erredundanteak dira aposizioak, ondorengo adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

- (9) Gero eman ninduten saltegia, *au magasin*  
'Gero saltegia jarri ninduten, *dendan*'

<sup>6</sup> Gehienetan, txertatzen den elementua izen soil bat izaten da. Dena dela, zenbaitetan konplexua-goa da txertagaia, datak edo kale izenak-eta biltzen dituzten adibideetan ikus daitekeen bezala. Ikus (21) eta (22) adibideak ere (euskarazko izen txertatuek *-a* daramate).

- (10) Pagatzen zuen mila bortz ehun libera, *quinze cents francs*  
 ‘Mila eta bostehun libera pagatzen zuen (lit. *hamabost ehun libera*)’

Beste batzuetan, berriz, aurretik esan den zerbait zehaztera dator perpaus alboratua:

- (11) Ez dakit zenbat egun eman zituen etortzen zerekin... *avec la boussole*  
 ‘Ez dakit zenbat egun eman zituen etortzen zerarekin... *iparrorratzarekin*’
- (12) Aukek izatu die *avec le groupe*, dantzariekin ta ola  
 ‘Hauek ibili dira *taldearekin*, dantzariekin eta horrela’

(11) adibidean, PSaren aurre-aurrean azaltzen den sintagmak sozietiboko hondarkia dauka, PSak daraman kasu bera. Uste dugu memento hartan berriemaileari ez zetorkiola gogora bila zebilen hitza, eta horrek esplika dezakeela etena eta lerratzea kasu honetan. Behar den hitza gogora ez datorrelako gertatzen diren lerratzeak guztiz normalak izaten dira oro har. Gure corpusean ere oso baliabide erabilia da.

Nabarmentzekoa da frantsesera lerratzeko joera bereziki dela markatua data adierazten duten PSetan:

- (13) *En deux mil trois* orroitzen naiz bortitza izatu zela [uda]  
 ‘*Bi mila eta hiruan* oroitzen naiz [uda] oso beroa izan zela’
- (14) *En soixante-dix-sept* ortxe operatzera eramaki naute *de la vésicule*  
 ‘*Hirurogeita hamazazpian* justu behazunetik operatzera eraman ninduten’

Bestalde, badira kulturalki markatuak diren elementu batzuk, hala nola kale izenak, saltegi izenak, etab. Hauek (13)koaren eta (14)koaren antzeko adibideak dira:

- (15) ...iten zuten *à la rue Gambetta*  
 ‘*Gambetta* kalean egiten zuten’
- (16) *Chez Rémy* aitu zen lanian  
 ‘*Rémy-renean* aritu zen lanean’

Bigarren atalean azaldu dugun bezala, matrize hizkuntza gehienbat euskara izan da egin ditugun elkarrizketetan. Halere, zenbait pasartetan frantsesera lerratu izan da solasa, guk hartarako inongo arrazoirik eman gabe, zer den berririk gabe. Gure lau berriemaileek ongi dakite frantsesa. Lerratzeak usu eta aise gertatzen dira haien ezpainenetan. Zenbait elkarrizketa pasartetan frantsesa bilakatzen da matrize hizkuntza, eta orduan alderantzizko fenomeno gertatzen da: matrize hizkuntza frantsesa izanik, frantseseko PSari dagokion euskarazko postposizio sintagma euskaraz txertatzen da:

- (17) Souvent, je reconnais, j’étais punie, assise *aren ondoan*  
 ‘Sarritan, onartzen dut, zigortua nintzen, *haren* [irakaslearen] *ondoa* eseria’
- (18) Ils avaient fait un appartement *kaperan, or*  
 ‘Apartamentu bat eraiki zuten *kaperan, hor*’

### 3.2. Izenaren mailako txertatzeak

Izenaren mailako txertatzeak bi hizkuntzetan gerta daitezke —cf. (19) eta (21) adibideak—. Euskarazko txertatzeetan ez da beti argi formak HLak edo maileguak ote diren.<sup>7</sup> Ondorengo hauek HL kasu argizat jo ditzakegu:

- (19) *Ouvroir*-ian [uVRwarʒan]-ta ibilli nitzen  
‘*Jostun eskolan*-eta ibili nintzen [ikasi nuen]’
- (20) Eta *soixante-seiz(e)*-ian [swasätsezʒan] *hola* egina nuen  
‘*Hirurogeita hamaseian* horrela egina nuen’

Lehenengo adibidean izen bat txertatu da (*ouvroir*) eta zenbatzaile bat bigarrean (*soixante-seize*). Bi elementuak frantsesez daude eta kasu atzizki bat hartzen dute (*-ean > -ian*), euskarazko *-a* determinatzaile singularra tartean dela.

Esan behar da frantseseko txertatze hauek frantsesaren fonologiaren arabera ahoskatzen direla. Gertatzen dena da horko segmentu batzuk ez datozela bat euskarazko fonologiarekin. Adibidez, frikari ezpain-horzkari ozenik ez da euskaraz maileguetatik kanpo, baina hiztunak halaxe ahoskatzen du *ouvroir* hitza. Gauza bera gertatzen da (20)ko txistukariarekin: frantseseko zenbatzailearen azken txistukaria ozena ahoskatzen da, nahiz eta hots hori ez dagokion lapurteraren hots inbentarioari.

Beste kasu hauetan, berriz, frantsesa da matrize hizkuntza eta HLak euskaraz gertatzen dira, ondorengo adibide hauetan bezala:

- (21) Quand elle préparait pour les *taloa*(s) et puis les trucs...  
‘Berak *taloentzat*-eta gauzak prestatzen zituenean...’
- (22) Je sais pas s’y avait une petite marche pour aller à ce *sotoa* là  
‘Ez dakit ez ote zegoen eskailera maila bat hango *soto* hartara joateko’

Nabarmendu behar da euskarazko izena determinatzailearekin (*-a*)<sup>8</sup> agertzen dela, nahiz eta frantseseko PSek dagoeneko *les* eta *ce* determinatzaileak barnean izan. Gertakari hau gure corpuseko lau adibidetan agertzen da (denak informatzaile beretik datoz). Ez da dudarik honelako txertatzeak posible direla; dena dela, datu gehiagorekin berretsi beharko genukeena da determinatzailea sistematikoki eransten den edo ez.<sup>9</sup> Aurreragoko lanetarako utziko dugu puntu hau.

### 4. Azterketa eta ondorioak

Gure corpusean 35 PS zenbatu ditugu guztira. Horietako 7 kasutan HLa izenaren mailan gertatzen da, eta gainerako 28 kasuetan sintagmaren mailan. Aztergai ditu-

<sup>7</sup> Mailegu vs HL kontrasteaz, ik. *International Journal of Bilingualism* aldizkariak gai jakin honi eskaini zion ale berezia (Poplack eta Meechan 1998), eta Treffers-Daller (2009).

<sup>8</sup> *-a* artikulu gisa definitu izan da, baina hizkuntzalari batzuek numero markatzen hartzen dute (Artiagoitia 2002).

<sup>9</sup> Gaztelaniaz, arabiera klasikotikako mailegu lexiko ugariak determinatzaile eta guzti sartu ziren: *alférez*, *aduaná*, *aljibe*, *almíbar*, *almohada* eta beste hainbat. Ez du burugabekeria ematen euskararen kasuan ere beste horrenbeste izan litekeela proposatzea. Groningen-eko Unibertsitateko Bob de Jonge irakasleari zor diogu ohar estimagarri hau.

gun HL kasuen %80 uharteak dira. HL klasikoan kopurua, berriz, %20koa da. Horrenbestez, gure corpusean bada joera argi bat sintagmak osorik txertatzeko, eta joera hori ez dator bat Pieter Muyskenek (2000: 76) adierazitakoarekin: euskara hizkuntza eranskaria da, eta hizkuntza eranskarietan erraz egiten dira izenaren mailako txertatzeak. Haatik, gure corpuseko adibideek kontrakoa erakusten dute.

Horrez gain, gure datuek erakusten dute emaitzak txerto hizkuntzaren arabera-koak direla: frantsesezko osagai bat txertatzen denean euskarazko perpaus batean, uharteak %89,3 dira (25/28). Ondorioz, egoera honetan HL klasikoak %10,7 dira. Ordea, matrize hizkuntza frantsesa denean eta euskarazko osagai bat txertatzen denean —gure corpusean askoz ere gutxiago ditugu honelakoak—, kasuen ehuneko 66 (4/6) HL klasikoak dira.

Hainbat eragile egon daitezke txertatze mota (PSa, HL klasikoa...) hautatzera-koan. Adibidez, Finlayson, Calteaux eta Myers-Scottonek (1998) Hego Afrikako bi hizkuntza pare (zulu-ingelesa eta sotho-ingelesa) aztertu ondoren, erakutsi zuten hiztunek zenbat eta gaitasun osoagoa izan, orduan eta ingelesezko uharte gehiago egiten zituztela. Lehen ((13)-(16) adibideetan) aipatu ditugun sintagma *markatuek* ere —Myers-Scottonek (2002) *conceptual units* deitzen dituenak— eragina izan dezakete honetan.

Nolanahi ere, txerto hizkuntza euskara izan edo frantsesa izan, erabakigarria da gure corpusean: joeren arteko aldea aski nabarmena da. Gure ustez, honek interes handiko arazo bat jartzen du mahai gainean, eta segur aski hainbat alderditatik aurki dakioke azalpenen bat alde handi horri. Guk, hipotesi gisa, honako gogoeta hau ekarri nahiko genuke: lapurtar hiztun gehienak (gaur egun baita adin handienekoak ere) haurtzaroan jabetu dira bi hizkuntzen fonologia sistemaz. Hots arrotzen jabetze goiztiar horren ondorioz, hiztuna aldaketa edo egokitze fonologiko gutxirekin moldatzen da HLak egiterakoan, zeren hots arrotz horiek modu naturalean bereganatuak ditu aspalditik, txikitatik dituelako bere fonema sisteman (Oñederra, inprim.). Esate baterako, hots biribilduak [y, ø, œ], bokal sudurkariak [ã, ě, œ, õ] eta frikari ahostunak [ʒ, v, z] hots inbentario horren barnean dira, nahiz berez ez dagozkion lapurteraren hots sistemari. Gure berriemailek ez dute inolako arazorik hots hauek ahoskatzeko, hiztun elebidun osoak baitira. Matrize hizkuntza euskara duten adibide batzuetan ikusi ahal izan dugunez (ik. (19)-(20) adibideak), frantsesezko hitzek euskal kasu atzizki bat hartzen dute zenbaitetan. Hala, sistema fonologiko diferenteei dagozkien bi unitatek topo egiten dute hitz berean —(19)ko ezpain-horzkari ozena eta (20)ko txistukari ozena frantses ahoskeraren arabera ekoi-tzi dituzte lekukoek—. Beharbada horregatik egingo dute fonetikoki elebakarrak diren sintagma osoen aldeko aukera. Matrize hizkuntza frantsesa denean, berriz, besterik gertatzen da: kasu horretan preposizioak eta determinatzaileak morfema askeak dira, eta ia ez dago zailtasunik euskal izenak barneratzeko —(21)-(22) adibideak—. Aurreragoko lanetarako utziko ditugu bigarren puntu honen gaineko azalpen zehatzagoak.

### Aipamen bibliografikoak

Artiagoitia, X., 2002, «The functional structure of the Basque noun phrase». *ASJU* 44: 73-90.



- Backus, A., 1992, *Patterns of Language Mixing: A Study of Turkish-Dutch Bilingualism*. Wiesbaden: Harrassowitz.
- Barreña, A. & M. J. Ezeizabarrena, 1999, «Acquisition bilingue: séparation ou fusion des codes linguistiques». *Le Bilinguisme précoce en Bretagne, en Pays Celtiques et en Europe Atlantique*. F. Favereau (arg.), 225-246. Rennes: Klask.
- & M. J. Ezeizabarrena, 2000, *Kode bereizketa eta bateraketa eremu urriko hizkuntzarekiko elebitasun goiztiarrean-Code Separation and Code Mixing in early Bilingualism with Minority Languages*. Donostia: Ikastaria (12).
- , — & I. García, 2008, «Entzundako hizkuntzaren eragina haur euskaldun txikien gramatika-garapenean». *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. X. Artiagoitia eta J. A. Lakarra (arg.), ASJU-ren Gehigarriak, LI. Donostia-Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU: 107-127.
- Berk-Seligson, S., 1986, «Linguistic constraints on intrasentential code-switching», *Language in Society* 15. 313-348.
- Bhatt, R. M., 1997, «Code-switching, constraints and optimal grammars», *Lingua* 102. 223-251.
- Chan, B. H-S., 2003, *Aspects of the Syntax. Pragmatics and Production of Code-switching. Cantonese and English*. New York: Peter Lang.
- Eснаоla, I., 1999, *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*. Bilbao: UEU.
- Etxabe, M. A., 1992, *Hizkuntza aukeraketa edo 'code switching'a euskaldunen artean*. Corpus argitaragabea (euskara-gaztelania).
- Etxebarria, M., 1998, «Bilingüismo y code-switching en el País Vasco». *Las lenguas en la Europa Comunitaria II*, 55-66. Amsterdam & Atlanta: Rodopi.
- , 2004, «Español y euskera en contacto: resultados lingüísticos», *Revista Internacional de Lingüística Iberoamericana II*, 2 (4), 131-145.
- Ezeizabarrena, M. J. & J. Manterola, 2004, «La mezcla de códigos (euskera/castellano) en el habla infantil». EUROSLA 2004-n aurkeztutako posterra.
- Fernández, I., 1992, *Kode aldaketa Durangoko gazteen hizkeran*. Corpus argitaragabea (euskara-gaztelania).
- Finlayson, R., K. Calteaux & C. Myers-Scotton, 1998, «Orderly Mixing and Accommodation in South African Codeswitching», *Journal of Sociolinguistics* 2. 395-420.
- Gardner-Chloros, P., 2009, *Code-switching*. Cambridge: Cambridge U. P.
- Ibarra, O., 2008, «Alternancia lingüística en el euskera coloquial de los jóvenes vascoparlantes navarros: algunas razones para su uso». *I Congreso Internacional de Interacción Comunicativa y Enseñanza de Lenguas* biltzarrean aurkeztutako komunikazioa. Valentzia, 2008ko irailaren 18-20.
- MacSwan, J., 1999, *A Minimalist Approach to Intra-sentential Code-switching*. New York: Garland.
- , 2000, «The architecture of the bilingual language faculty: evidence from code-switching», *Bilingualism: Language and Cognition* 3 (1). 37-54.
- , 2005, «Code-switching and generative grammar: a critique of the MLF Model and some remarks on "modified minimalism"», *Bilingualism: Language and Cognition* 8 (1). 1-22.
- Mahootian, S., 1993, *A Null Theory of Code-switching*. Doktore tesia, Northwestern University.
- Mondada, L., 2007, «Le code-switching comme ressource pour l'organisation de la parole en interaction», *Journal of Language Contact*, <<http://www.jlcljournal.org>> Thema Series 1. 168-197.

- Muñoa, I., 1997, «Pragmatic Functions of Code-Switching among Basque-Spanish Bilinguals». *First University of Vigo (Spain) International Symposium on Bilingualism*, SIB 1997 Aktak <<http://webs.uvigo.es/ssllsib2002/>> Vigo-ko Unibertsitatea. 528-541.
- Muysken, P., 2000, *Bilingual Speech: A Typology of Code-mixing*. Cambridge: Cambridge U. P.
- Myers-Scotton, C., 1993, *Duelling Languages: Grammatical Structure in Codeswitching*. Oxford: Clarendon Press.
- , 2002, *Contact Linguistics: Bilingual Encounters and Grammatical Outcomes*. Oxford: Oxford U. P.
- , 2004, «Precision Tuning of the Matrix Language Frame (MLF) model of Codeswitching», *Sociolingüística* 18. 106-117.
- Nortier, J., 1990, *Dutch-Moroccan Arabic Code-switching among Moroccans in the Netherlands*. Dordrecht: Foris.
- Poplack, S. & M. Meechan (arg.), 1998, «Instant Loans, Easy Conditions: The Productivity of Bilingual Borrowing», *International Journal of Bilingualism* (ale berezia).
- , 1980, «Sometimes I'll start a sentence in Spanish Y TERMINO EN ESPAÑOL: Toward a typology of code-switching», *Linguistics* 18 (7-8), 581-618.
- , 1988, «Contrasting patterns of codeswitching in two communities», *Codeswitching* (arg.), M. Heller, 215-244. Berlin: Mouton.
- , D. Sankoff & C. Miller, 1988, «The social correlates and linguistic processes of lexical borrowing and assimilation», *Linguistics* 26. 47-104.
- Rotaeixe, K., 1991, «Descriptions et valeurs pragmatiques de l'alternance basque et espagnol». *European Science Foundation-Scientific Networks-Papers on Code-Switching and Language Contact*, 227-250.
- , 1994, «Alternance codique et langue minoritaire». *Mélanges offerts à J. C Corbeil: Langues et Sociétés en Contact*, P. Martel & J. Maurais (arg.), 395-408. Tübingen: Max Niemeyer Verlag.
- Sarrionandia, B., 1992, *Kode alternantzia edo «Code-switching»: hiztun euskaldunduen arteko komunikazio estrategien tipologia baterantz*. Corpus argitaragabea (euskara-gaztelania).
- Treffers-Daller, J., 1994, «Variability in code-switching styles: Turkish-German code-switching patterns». *Code-switching World-Wide*, R. Jacobson (arg.), 177-200. Berlin: Mouton.
- , 2009, «Code-switching and transfer: an exploration of similarities and differences». *The Cambridge Handbook of Linguistic Code-switching*, B. E. Bullock & A. J. Toribio (arg.), 58-74. New York: Cambridge U. P.

# -A, -AKETA -(R)IKEUSKAL HIZKERETAN ZEHAR

Urtzi Etxeberria  
(IKER, UMR5478)

## Abstract<sup>1</sup>

*The aim of this paper is to make an as thorough as possible a description of both the Basque so-called definite article and the partitive particle -rik across its various dialects. The reason why I concentrate on these two elements is because they are related to each other; the partitive -(r)ik is taken to be the morpheme that is used in polarity contexts instead of the existential interpretation of the definite article -a(k). The paper does not aim at giving neither a syntactic nor a semantic analysis of these two morphemes, and it should only be taken as an initial approximation to the topic. Thus, this paper (together with some other papers that have recently appeared, cf. Manterola (2008), Santazilia (2009), Etxeberria and Etxepare (2009), Etxeberria in prep., as well as some older ones, cf. Txillardegi 1977, Irigoien 1985 among many others) will hopefully be the spearhead to the analysis of the functional structure of the Basque noun phrase.*

## 1. Sarrera

Lan honek helburu xumea du: izenburuak berak dioen bezala, euskal hizkeretan, batetik, euskarazko *artikulu definitu* deituak (forma singularrean zein plurallean) eta, bestetik, forma partitiboak izan ditzaketen erabileren eta beren arteko harremanaren berri ematea (edo ematen saiatzea) da, azken batean, elementu hauen portaera deskribatzea. Nahiz eta momentuz analisi sintaktiko zein semantiko zehatzik eskaini ez zaion kontu honi, jakina da euskal hizkeretan zehar ez direla berdin portatzen elementu hauek. Aldakortasun nabariena mendebalde/erdialdeko euskararen eta ekialdekoaren artean gertatzen delarik, lan honen ardatza berdintasun eta desberdintasun horiek zein diren azaltzea izango da, ahal den neurrian behintzat. Lan honen helburua, esan dezadan hasieratik, ez da hainbeste elementu hauen eta beraiek bultzatzen sintaxiaz arduratzea (nahiz eta zerbait aipatuko den horretaz ere); halere, etor-

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi nizkieke Beatriz Fernández, Pablo Albizu eta Ricardo Etxepareri bilduma honetarako artikulu hau idazteko gonbidapena luzatu izanagatik. Eskerrak baita iparraldeko euskararen datuekin lagundu didaten Beñat Oihartzabal, Aurelia Arcocha, Xarles Bidegain, Battittu Coyos, Maia Duguine, Maider Bedaxagar eta Isabelle Duguineri. Eskerrak baita Beñat Oihartzabal, Jasone Salaberri eta Irantzu Epelderi *Norantz* proiekturako bildutako datuak nirekin partekatzeagatik. Ikerketa hau ondorengo proiektuen laguntzari esker burutu ahal izan da: Eusko Jaurlaritzako GIC07/144-IT-210-07; Eusko Jaurlaritzako Hm-2008-1-10; CNRSko Fédération Typologie et Universaux Linguistiques-eko FR2559 proiektua; ANRko TSABL (ANR-07-CORP-033) proiektua eta MCEko FFI2008-00240 proiektua.

kizun ez oso luzean horretarako bidea emango duela espero dut. Beraz, har dezagun lan hau azkenaldian argia ikusten ari diren (ikus, besteak beste, Manterola 2008, Santazilia 2009, Etxeberria eta Etxepare 2009, Etxeberria prestatzen) eta aurretik argitaratu izan diren beste lan batzuekin batera (Txillardeggi 1977, Irigoien 1985, beste askoren artean), euskararen izen sintagma eta honen egitura funtzionala euskal hizkeretan xehetzen eta argitzen saiatuko diren lanen abiapuntutzat.

Nire bizkarrak zaintze aldera, mendebalde/erdialde zein ekialde diodanean modu zehazgabeen ari naiz hitz egiten, muga geografiko zehatzak non egon daitezkeen ez dakidala aitortu beharrean naizelarik. Hau esanda, lan honetan bi banaketa eremu bereziko ditugu.

(i) *-a(k)* artikulua ari garenean, alde batetik, bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera izango ditugu (eta modu orokorrean hitz egingo dut euskara hauetaz ari naizenean, denak poltsa berean sartuz, nahiz eta beren artean derberdintasunak ere badiren) eta bestetik, zuberera eta erronkaria izango ditugu. Bizkaiera gipuzkera bezala portatzen dela asumitzen dut lan honetan; nik dakidala ez dago desberdintasunik artikularen eta partitiboaren erabilerari dagokionez behintzat (bizkaieraz erakuslea eta artikulua sintagma berean erabiltzeko aukeraz gain: *a gizon-a*), baina akaso azterketa sakonago eta zehatzago batek besterik esango liguke, ezetz espero eta uste dudan arren. Behe-nafarrera alde batera utziko dut, nahiz eta artikularen erabileran (nik dakidanez behintzat) zubererarekiko erakusten duen desberdintasuna predikatu posizioko artikularen erabileran agertzen baizaigu (*jestu hori ez da polit* behe nafarraz vs. *ume hori ez da polit\*(a)* zubereraz), eta erabilera hori ez baitut lan honetan landuko (cf. Manterola 2008 datuen aurkezpen eta analisi posible baterako); ikus baita Santazilia (2009) ere. Bi hizkera hauen arteko desberdintasun bakarra hori baldin bada, behe-nafarrera zubererarekin lerratu ahal genuke. Era berean, ohar zaitezte ez dudala Nafarroako euskara aipatzen (erronkaria alde batera uzten badugu); honen arrazoia zintzotasunari zor zaio, ez baitut hango euskarako datuen bilketarik egin; nago, halere, gipuzkeraren antzeko portaera erakutsi beharko lukeela (berriro ere, erronkaria alde batera uzten dugularik).

(ii) *-rik* partitiboaz ari garenean, aldiz, banaketa honelakoa izango da: (i) Bizkaiko eta Gipuzkoako (eta Nafarroako) euskara, (ii) Lapurdiko, Zuberoako eta Erronkariko euskara.

Lan hau jarraian zehazten den bezala dago antolatua. Bigarren atalean artikulua definituak euskal hizkeretan zehar duen erabileraren bueltan ibiliko naiz ahalik eta deskribapenik zehatzena emateko helburuarekin. Hirugarren atalean, berriz, *-rik* partitiboan zentratuko gara, eta artikulua definituarekin eginda bezala, beraren erabilera euskaretan zehar zein den azalduko dut.

## 2. *-a(k)* artikulua definitua

Jakina da euskarazko *artikulu definituak* inguruko hizkuntzetako artikulua definituek dutena baino erabilera zabalagoa duela (atal honetan aurreraxeago ikusiko dugunez). Erabilera zabal honi zor zaio *artikulu definitua* letra etzanetan jartzea. Eskura datorkigu hemen Trasken (2003: 119) aipua: “The label definite article is misleading, since this article is of a much broader use than the English definite article.”

Trasken aipu honetan euskarako *-a* morfema ingeleseko artikulua definituaren erabilerarekin alderatzen da, baina aipu berdin-berdina egin genezake alderatutako artikulua definitua frantsesekoa edo espainierakoa balitz. Eta bai, arrazoi du Traskek, mendebaldeko euskaretan (edo euskara batuak artikuluari ematen dion erabileran) bakarrik oinarritzen bagara behintzat; izan ere, euskarako artikulua definituaren erabilera aipatu ditugun hizkuntza horietako artikulua definituarena baino askozaz ere zabalagoa da mendebaldeko euskaretan, eta askotan ageri da beste hizkuntzetan artikulurik agertuko ez litzatekeen tokietan, esaterako, predikatuetan edo per-paus existentzialetan. Are gehiago, Trasken aipu honi serioski jarraitzen bagatzaizkio, euskarazko *artikulu definitua* ez dela benetan *definitua* pentsatzera eraman gaitzake. Lan honetan, halere, euskarako *-a* morfema beti artikulua definitua dela eta beti posizio sintaktiko berean sortzen dela asumituko dugu, Etxeberria (2005, 2007) lanei hertsiki jarraituz, non argudiatzen den *-a* determinatzaile (D) definitua eta singularreko  $\emptyset$  eta pluraleko *-k* numero markak posizio sintaktiko desberdinetan sortzen direla: *-a* Determinatzaile Sintagmaren (DS) buruan, numero markak Numero Sintagmaren (NumS) buruan. Nolanahi ere, lanaren helburua ez da lan horietan esandakoaren aldeko argudiorik ematea, eta besterik gabe proposamen hori ontzat hartuko dugu; irakurlea lan haietara zuzentzen dut; ikus baita Manterola (2009) ere, non artikulua definituaren analisi diakroniko bat proposatzen den.<sup>2</sup>

Pasa gaitezen orain *-a* morfemaren portaera deskribatzera. Euskal artikulua definitua oro har ezin da bakarrik agertu, atzizki baten moduan portatzen da, eta *-a* (singularreko forman) edo *-ak* (pluraleko forman) moduan gauzatzen da.

- (1) a. gizon-a                      b. gizon-ak

Mendebaldeko aldaeretan pluraleko *-ak* formarekin batera hurbileko plurala ere badugu: *-ok*.<sup>3</sup>

- (2) gizon-ok

Artikulua izen sintagmaren azken gunean agertzen zaigu, dela izenari lotuta, dela adjektibo bati lotuta.<sup>4</sup>

- (3) a. moto gorri-a              b. moto gorri haundi-a              c. moto gorri haundi polit-a

...

<sup>2</sup> Beste autore batzuen arabera, *-ak* euskal artikulua plurala elementu bakar baten moduan analiza daiteke: cf. Goenaga (1978), (1991), Euskaltzaindia (1993), Ticio (1996), Arriagoitia (1997), (1998), (2002), (2003), (2004), (2006), Rodriguez (2003), Trask (2003).

<sup>3</sup> Gaur egungo euskaran hurbileko singularrik ez dugun arren, testu zaharretan posible da *-ori*, *-or*, *-au* edo *-o* bezalako formak aurkitzea. Gaur egungo bizkaieran singularreko *-o* *hemen bertan* bezalako kasuetan aurki daiteke (*hemen bertan* ere erabiltzen da gaur egungo bizkaieran).

<sup>4</sup> Oro edo *franko* bezalako kuantifikatzaileekin gertatzen dena albo batera utzita: *ikasle-ak oro*, *ebiztari-a(k) franko*. *Ikasle-eta-tik asko* bezalako egitura partitiboetan ere artikulua ez da sintagmaren bukaeran agertzen izenaren eta kasu ablatiboaren artean baizik. Ikus Etxeberria (2008) datuen aurkezpen zabal baterako eta analisi posible baterako.

Oro har, euskarako *-a* morfemaren propietateak aurreko paragrafo hauetan eskainiak lirerateke.<sup>5</sup> Has gaitezen orain euskal hizkeretan elementu honek duen portaera eta erabilera zabalari begirada bat ematen.

## 2.1. Bizkaitik Lapurdira, Gipuzkoatik pasaz

Onartu izan da, lan askotan aipatzen den bezala, —ikus Laka (1993), Artiagoitia (1997), (1998), (2002), besteren artean— euskaran izen biluzirik (IB) ezin daitekeela argumentu bezala erabili eta artikulua presentzia ezinbestekoa dela perpausa gramatikala izango bada.<sup>6,7</sup> Hauxe da, hain zuzen ere, atal honetan kontuan hartzen ari garen euskarretako *-a* artikulua definituaren propietate bereizgarrietako bat, ondorengo adibideek argiro erakusten duten bezala.

(i) Subjektu posizioan:

- (4) a. Irakasle\*(-a) berandu etorri zen  
b. Irakasle\*(-ak) berandu etorri ziren

(ii) Objektu posizioan:

- (5) a. Martxelek pilot\*(-a) hartu zuen  
b. Martxelek pilot\*(-ak) hartu zituen

(iii) Zehar Objektu posizioan:

- (6) a. Jonek gizon\*(-a)-ri eskua eman dio  
b. Jonek gizon\*(-e)-i eskua eman die

---

<sup>5</sup> Bada euskara guztietan jasotzen den euskal artikulua beste erabilera bat: *-a(k)* morfemaren presentzia beharrezkoa da baita *kuantifikatzaile sendo* deituekin ere ('strong quantifiers' Milsark-en 1977 lanaz geroztik). Ikus (i):

- (i) Ikasle guzti\*(-ak) berandu etorri ziren

Halakoetarako, Etxeberria (2005, 2008, 2009) eta Etxeberria & Giannakidou (2009) lanek argudiatu dute artikulua kuantifikatzailearen dominioaren testuinguru-murriztapena ageriko sintaxian gauzatzen duela.

<sup>6</sup> Determinatzaile indefinitu baten, (ia), edo *kuantifikatzaile ahul* deitu baten, (ib), —ikus Etxeberria (2005), (2008, prestatzen)— presentziak ere gramatikaltasuna eman diezaiokie perpausari. Hauek ere ez ditugu lan honetan tratatuko.

- (i) a. Mutil bat berandu iritsi zen.                      b. Mutil asko/batzuk/ugari berandu iritsi ziren.

Ohar bedi irakurlea adibide hauetan ezin daitekeela *-a* morfema erabili, eta hau euskara guztietan mantentzen den beste propietate bat dela (ikus Etxeberria 2008, prestatzen, datu hauen aurkezpen zabalago baterako eta anali posible baterako).

<sup>7</sup> Sarreran esan dudan bezala, lan honetan euskal artikulua definituak (eta *-rik* partitiboak) argumentu posizioan jasotzen duen erabileraz arduratuko gara soilik. Halere, eta hau ere pasieran aipatu dugu sarreran, ez da hori bere erabilera bakarra, predikatuekin ere ager baitaiteke: *Jon ikaslea da* vs. *Jon ikasle dago*; kasu horietan partizipioaren edo izaera-mailako predikazioaren ('individual-predicate') papera betetzen du; ikus besteak beste Zabala (1993), (2003), Artiagoitia (1997), Eguren (2005), (2006), Matushansky (2005) analisi posibletarako. Erabilera honetan ere badaude aldeak mendebaldeko eta ekialdeko euskararen artean; ikus Manterola (2008), Santazilia (2009).

Argumentu posizioan IBrik agertu ezin badaiteke mendebaldeko eta erdialdeko euskaretan, IB-ak erabili ditzaketan hizkuntzetan IB bidez adierazi daitekeena euskaraz nola adierazi ote daitekeen galdera sortzen zaigu.<sup>8</sup> Ingeleseztan eta beste hizkuntza germaniko batzuetan, adibidez, izen pluralak eta masa izenak D-rik gabe erabil daitezke espezie irakurketak (7) zein irakurketa existentzialak adierazteko (8).<sup>9</sup>

- (7) a. *Fishes* appeared 390 million years ago  
 arrain.pl agertu.lehen milioi urte.pl dela  
 b. *Silver* has the atomic number 47  
 zilarra dauka D.sg atomiko zbkia.
- (8) a. Garazi has eaten *olives*  
 Garazi aux jan oliba.pl  
 b. *Moles* are ruining my parents' vegetable garden  
 sator.pl aux hondatzen nere guraso.pl.gen baratzea

Fenomenora gerturatzearekin batera, eta lehenago ere esan dugunez, ohar gaitzek euskal artikularen erabilera hizkuntza erromantzeetako edo ingeleseko determinatzaile definituaren erabilera baino zabalagoa dela: (4), (5) eta (6) adibideetako ohiko interpretazio erreferentzian ez ezik, beste hizkuntza batzuetan —hala nola, espainieran edo ingelesean; ez ordea frantsesean, ezin baitu IBrik erabili koordinaziozko testuinguruetan ez bada; ikus Roodenberg (2004)— IBak erabiliko genituzkeen testuinguruetan ere agertzen zaigu euskal artikulua. Hasteko, euskaraz, artikuludun izen bat espezie mailako predikatu batekin —‘kind level predicates’, Carlson (1977); ikus baita Krifka et al. (1995) ere— konbinatzen denean (adibidez, (7)an), ohiko irakurketa espezifikoa, hau da, irakurketa definitu estentsionala galdu eta espezie irakurketa hartzen du: Determinatzaile Sintagma (DS) osoak izenak denotatzen duen espeziari egiten dio erreferentzia (eta irakurketa intentsional bat bultzatzen du mundu eta egoera posible guztietan multzoaren pluralitate handienari erreferentzia egiten diona).

- (9) a. Dinosauru-ak aspaldi desagertu ziren.  
 b. Nitrogeno-a ugaria da gure unibertsoan.

(9)ko adibideetan, *dinosauruak* eta *nitrogenoa* DS-ek ez diote dinosauru multzo jakin bati edo nitrogeno kantitate jakin bati egiten erreferentzia, baizik eta (lehenago adierazi dudana bezala) dinosauruen espeziari eta nitrogenoaren espeziari (edo nitrogeno likidoari bere osotasunean).

Erabilera honetaz aparte, euskarako DS definituak (pluralak eta masa izaeradunak betiere, DS singular definitu batek oro har ez baitezake irakurketa existentzialik

<sup>8</sup> Lan honetan, euskara alde batera utziz, gehien aipatuko ditugun hizkuntzak ingelesa, espainiera eta frantsesa izango dira; hizkuntza hauek IBak erabiltzeko garaian propietate desberdinak erakusten dituzte. Artikulurik gabeko hizkuntzak ere badira: errusiera, koreera, japoniera, txinera, dene sulinera, besteak beste. Hizkuntza hauek (in)definitutasuna modu desberdinetan markatzen dute, dela hitz hurrenkera, dela testuinguru, dela kasu marka bidez. Ez gara lan honetan hizkuntza hauetako IBen portaera aztertzen hasiko, pasaeran aipamenen bat egingo den arren.

<sup>9</sup> Masa izenak ere atomikoak direla asumitzen dut (ikus (26)), nahiz eta atomizitate hau izen zenbakarriarekin alderatuz lausagoa den; ikus Chierchia (1998), (2009).

lor —ikus halere (11)-(12)) objektu-zuzeneko posizioan agertzen direnean ez dute (berriro ere) nahitaez multzo zehatz bati erreferentzia egin beharrik eta (8)ko adibideek adierazten duten interpretazio *existentziala* deitua lor dezakete (ikus Carlson 1977, besteak beste). Hau da, (10)eko adibideetan ez dugu ez goxoki multzo jakin batez ez ardo kantitate jakin batez hizketan aritu beharrik.<sup>10</sup>

- (10) a. Unaxek goxoki-ak jan ditu.                      b. Bartolok garagardo-a edan du.

Ohar zaitzete (10)eko esaldietan DS objektuek ez dezaketela espezie irakurketa deitua lortu. Halere, bai da posible irakurketa espezifiko definitua, hau da, espainierako glosak eskainiko bagenitu (10a) eta (10b) bi modutara interpreta genitzake: lehena, ‘Unax ha comido *caramelos*’ edo ‘Unax (se) ha comido *los caramelos*’ bezala; eta bigarrena, ‘Bartolo ha bebido *cerveza*’ edo ‘Bartolo (se) ha bebido *la cerveza*’ bezala.<sup>11,12</sup>

Kasu hauetaz aparte, testuinguru jakin batzuetan DS definitu pluralek ez ezik singularrek ere jaso dezakete interpretazio existentzial deitua, (11)n erakusten dugunez. Lan honetan kasu hauek aipatu baino ez ditugu egingo, eta noski, ez gara erabilera honetzako analisi bat ematen saiatuko: ikus Rodriguez (2003), Etxeberria (2005, prestatzen) edo Eguren (2006) analisi formal posibletarako eta Manterola (2006) analisi diakroniko baterako.

- (11) Mattinek auto-a erosi zuen.

<sup>10</sup> Hizkuntza erromantzeek estrategia desberdinak erabiltzen dituzte euskaraz artikuludun DS-aren bitartez lortzen dugun irakurketa existentziala lortzeko. Espainieraz eta italieraz IBak erabil daitezke objektu-zuzenetan (edo aditz ondorenera mugitutako subjektu ezakusatiboetan: *juegan niños en el parque*). Frantsesak aldiz, D partitiboa deitutako *des/du* erabili behar du (italierak ere badu D partitibo bat).

- (i) Espainieraz:                      a. Juan ha comido *caramelos*                      b. Juan ha bebido *café*  
(ii) Frantsesez:                      a. Pierre a mangé des sucreries                      b. Elle a goûté *du vin*

Ikus, besteak beste, Chierchia (1998), Zamparelli (2000, 2002ab), Kleiber (1990), Bosveld-de Smet (1997), Heyd (2003), Suñer (1982), Bosque (1996) eta McNally (2004). Era berean, ikus Etxeberria (2005, 2007) ingeleseko IBek, frantseseko D partitibodun izenek eta euskarako artikuludun izenek lor dezaketen irakurketa existentzialaren analisi bateratu baterako.

<sup>11</sup> Euskarako DS definituak erakusten duen irakurketa existentziala azaltzeko hainbat modu erabili izan dira. Leku falta dela eta, ez naiz analisi horiek zein diren eta zertan desberdintzen diren azaltzen hasiko. Lan hauen artean Artiagoitia (2002, 2004) eta Etxeberria (2005, 2007) aipa genitzake; nik bigarren egilearen aldeko apustua egiten dut (eta ez egilea bera ezagutzen dudalako bakarrik).

<sup>12</sup> Irakurketa existentzial hau irakurketa indefinitu ere dei genezake; halere, badaude ageriko desberdintasun batzuk euskal artikulua (edo beste hizkuntza batzuetan, ingelesean edo espainieran kasu, izen biluziek) bultzatzen dezakeen eta benetako indefinituek (e.g. *bat*) lor dezaketen irakurketa existentzialaren artean: Interpretazio existentziala lortzen dutenean, euskarako DS definituak ez dira indefinitu soilak bezala portatzen eta besarkadura estua izango dute beti (indefinitu soilak ez bezala), ingeleseko IBek bezala.

- (i) a. # Nire aitak bi sator hil ditu ordubetez.                      b. Nire aitak satorr-ak hil ditu ordubetez.

(ia) adibideko *bi sator* indefinituak besarkadura zabala baino ez dezake har *orbubetez* adizlagunaren gainera [bi sator > adlg.]; lortzen dugun irakurketa bakarrean berdinak diren bi sator behin eta berriro hil ditu nire aitak, egoera nahiko berezi baten deskribapena, beraz; hortik (gutxienez) pragmatikoki arraroa izatea. (ib) adibidea, berriz, erabat zuzena da. Lortzen dugun irakurketa nire aitak sator desberdinak hil dituenekoa da eta DS definituak adizlagunaren azpiko besarkadura estua baino ez dezake har [adlg. > *satorrak*].



Esaldi hau bi modutara interpreta daiteke: irakurketa posible bat Mattinek auto jakin bat erosi dueneko da; adibidez, aurreko egunean aipatu zuen autoa: Citroën Bi Zaldi bat; bigarren irakurketa berriz ‘Mattinek *auto bat* erosi du’ perpausaren gutxi gorabeherako pareko bat litzateke non ez dakigun ze autoz ari garen (*auto baten* irakurketa ez-espezifikoaren pareko litzateke, beraz).

Halere, aipatu bezala, (12)ko [izen zenbagarri + D singular] sekuentziek (objektu zuzen posizioan) irakurketa existentziala testuinguru jakin batzuetan lortzen dute bakarrik: testuinguru estereotipatu deituetan, non jabegotasunak ere baduen zeresanik. (12)ko adibide guztiek jabegotasun kutsu ageriko bat dute: behin autoa/etxea erositara, auto hori eroslearena bihurtzen da; zerbait edukitzeak ere jabegotasunarekin erlazio hertsia du, baita zerbait gainean eramateak ere (e.g. txapela). Agerikoa da, beraz, DS singularreko hauek ez dutela irakurketa existentziala pluralek eta masa izenek lortzen duten erraztasunarekin lortzen.

(12) auto-a/etxe-a erosi, senarr-a/emazte-a eduki, txapel-a eraman, etab.

Hizkuntza erromantzeetan (espainieraz, frantsesez eta errumanieraz behintzat) (12) ko esamoldeek adierazten dutena adierazteko IB singularrak erabiltzen dira: ikus Bosque (1996) espainierako datuen aurkezpen zabal baterako; era berean, ikus Dobrovie-Sorin, Bleam & Espinal (2005), Espinal & McNally (2007) analisi posibleetarako.

(13) comprar coche/casa, tener marido/mujer, llevar sombrero, etab.

Halaber, ohar gaitzen, euskaraz, objektu mailako predikatu baten objektu zuzeneko posizioan agertzen den [izen zenbakarri + D singularra] sekuentziak normalean irakurketa espezifikoa bakarrik lortzen duela, (12)ko adibideetan ez bezala. Hau da, (14)koetan disko jakin batez, neska jakin batez eta egunkari jakin batez ari gara nahitaez, eta ezinezkoa da (12)ko adibideetarako aipatutako irakurketa existentzialak lortzea:

(14) disko-a erosi, neska-a ikusi, egunkari-a irakurri, e.a.

Bada desberdintasun bat Bizkaia eta Gipuzkoako euskararen eta Lapurdiko euskararen artean. Gogoan izan ez naizela predikatuetako artikuluen erabilera tratatzen ari lan honetan. Entonazio neutroko esaldi existentzialetan, hiru euskarek artikulua erabiliko lukete normalean ((15a) zein (15b)).

(15) a. Bada ardoa hozkailuan                      b. Hozkailuan ardoa dago

Aldiz, harridurazko entonazioa erabiltzen dugunean, posible da lapurteraz inolako artikulurik gabeko IB bat erabiltzea (16a); hegoaldeko euskaretan berriz, testuinguru horietan ere artikulua erabiliko genuke, (16b).<sup>13</sup>

(16) a. Bada jende hemen!!                      b. Badago jendea hemen!!

<sup>13</sup> Eztabaida liteke (15)eko adibideak benetan testuinguru existentzialak edo testuinguru lokatiboak diren. Ingelesezt, esaterako, testuinguru existentzialetan ezin daiteke determinatzaile definiturik erabili; testuinguru lokatiboetan, berriz, posible da determinatzaile definitua duen izen bat erabiltzea: cf. Freeze (1992), Bresnan (1994); ikus Etxeberria (prestatzen).

(i) a. There is a book on the table                      [existentziala]  
b. The book is on the table                              [lokatiboa]

Aipagarria da (16a)ko adibideak ‘jende asko/pila bat’ esanahia hartzen duela nahiz eta *jende* IBa erabili; hau da, (16a) *bada jende asko/pila bat hemen* perpausaren pareko litzateke, (15)eko adibideetako izenekin gertatzen ez dena.

## 2.2. Zuberua (eta Erronkari) edo artikulua noiz ez den erabiltzen

Aurreko ataleko euskarekin alderatuta, ekialdeko euskaretan (eta zubereraz eta erronkarieraz ari naiz kasu honetan) *-a* morfema gutxiago erabiltzen da eta posible dute posizio sintaktiko jakin batzuetan IBak erabiltzea (mendebaldeko euskaretan ezinezkoa dena; ikus Txillardegi (1977), Coyos (1999), Casenave-Harigile (2006), Etxebarne (2006) zubererako IBen erabileraren deskribapen baterako.<sup>14</sup>

Has gaitezen ikusten euskara hauetan IBak non erabil daitezkeen. Zubereraz IBak posible dira objektu zuzeneko posizioan, hau da, izenak artikulua, zenbatzaile ahul edo zenbatzaile kardinalik gabe, bakarrik erabil daitezke objektu zuzeneko posizioan.

- (17) a. Bortüan ikusi dut *behi, ardi eta mando* (Coyos 1999: 232)  
 b. Dembora da (...) içan deçadan *diru* (Bourciez 1895)<sup>15</sup>  
 c. *Sagar* ebatsi dü (Manterola 2006)  
 d. Manexek *hur* edan dizü. Peiok *ogi* jaten dizü.

IB hauek aurretik (10)eko adibideetan aipatu dugun interpretazio *existentziala* (Carlson 1977) deitua lortzen dute. Interpretazio existentziala diogunean esan nahi dugu (17)ko adibideetan ez garela *behi, ardi, edo mando* jakin (espezifikoa) batzuen gainean hizketan ari, ez eta *diru* kantitate jakin baten gainean ere; *sagar*, ur eta *ogi* kantitatea ere ez da axola zaigun zerbait izango. Esperokoa den bezala, (17)ko adibideetan artikulua erabiliko bagenu, irakurketa espezifikoa lortuko genuke.

Testuinguru existentzialetan ere erabil daitezke IBak, hurrengo adibideek erakusten duten bezala:

- (18) a. Badüzü etüdiat arruan                      b. Badüzü hur godaletin

Kontura bedi irakurlea IBen erabilera hau ez dela posible ez subjektu posizioan (dela kasu ergatiboan dela absolutiboan) ez zehar objektu posizioan ere, (19)-(20) adibideek argiro erakusten duten moduan:

---

Ohar zaitzete (15)eko eta (16)ko adibideetan masa-izen bat erabiltzen ari naizela; izen hori izen zenbakarri batez aldatuko bagenu, adibidea ez-gramatikala litzateke erabat. Gramatikaltasuna *bat* edo *batzuk* erabiliz berreskuratuko genuke.

- (ii) a. \*Bada gizona gelan                      b. \*Badira gizonak gelan

(15b) adibidean *gizon* izen zenbakarria erabiliko bagenu, adibidea ez litzateke txarra, baina irakurketa argiro lokatiboa litzateke, eta ez existentziala; hau da espainierazko (iii) adibidea *en la habitación está el hombre* itzuliko genuke, eta ez *en la habitación hay un hombre*.

- (iii) Gelan gizona dago

<sup>14</sup> Eskerrak Battittu Coyos eta Maider Bedaxagarri zubererako datuekin laguntzeagatik.

<sup>15</sup> Gándara & Santazilia (2007: (14))-tik hartutako adibidea.

## (i) Subjektua

- (19) a. Ergatiboa: \*Ikaslek hori egin dü / Iksleek hori egin düe  
 b. Absolutiboa: \*Ikasle jin da / Iksleak jin dira

## (ii) Zehar objektua:

- (20) \*Iksleri librü eman deiot / Iksleei librü eman deiët

Era berean, IBak ezin daitezke espezie mailako predikatu batekin konbinaturik agertu (ikus (9)). Horietan IBak izenak denotatzen duen espeziearen osotasunari egiten dion erreferentzia (eta irakurketa intentsional bat bultzatzen du).

- (21) a. Lehu\*(-ak) desagertzera dira  
 b. Nitrojeno\*(-a) paketa da gure lürraldean

Ezinezkoa da ere IBak perpaua generiko deituetan erabiltzea; ikus Carlson & Peltier (1995).

- (22) a. Gatü\*(-a) intelijent da  
 b. Nik errespetatzen düüt erakasle\*(-ak)

Buelta gaitezen berriro ere zubereraz (eta erronkarieraz) IBak erabil daitezkeen tesuinguruetara, hau da, buelta gaitezen (17)ko adibideetara. Pentsa genezake irakurketa existentzial deitu hau pluraltasunarekin loturik legokeen irakurketa dela. Beste modu batera esanda, pentsa genezake IB bat erabiltzen dugunean izenak denotatzen duen multzoak elementu bat baino gehiago izan behar duela perpaua egiazkoa dela esateko. Eta ez litzateke hau zentzugabea izango, kontuan izanda espainierako zein ingelesko (irakurketa existentziala bultzatzen duten) IBak -s plural markarekin agertzzen direla eta mendebaldeko euskaretan irakurketa existentziala lortzeko pluraleko -ak erabiltzen dela (10)eko adibideetan ikusi ahal izan dugunez. Masa izenetan -a erabiliko genuke, baina Etxeberria (2005, 2007) lanei jarraituz asumitzen dut masak numeroari dagokionez neutroak direla, hau da, ez dutela inolako numero morfolojarik; ikus baita Delfitto & Schrotten (1991), Doetjes (1997), Dayal (2004), Krifka (2004) ere, beste askoren artean.

Pentsatzeko modu hau ez da zuzena, alabaina; izan ere, (17)ko adibideetako izenek lortzen duten irakurketa existentzian ez du haien pluraltasunak edo singularitasunak axola. Benetan axola duena (hiztunaren aburuz hori delako garrantzitsua kasu honetan) izen horrek mundu errealean erreferentzia zehatzik ez izatea da (espainierako zein ingelesko IBekin gertatzen den bezala). Honen aldeko ebidentzia hurrengo adibideetatik letorke: zuberotar bati (23)ko ingelesko, frantseseko edo espainierako perpaua euskarara itzultzeko eskatuko bagenio, jasoko genukeen erantzuna (24)koa litzateke.

- (23) a. Do you have *children*?  
 b. Est-ce que vous avez *des enfants*?  
 c. ¿Tienes hijos?

- (24) Badüzü haur?<sup>16</sup>


<sup>16</sup> Testuinguru honetan posible da ere IBaren orde partitiboa erabiltzea, hau da, *badüzü haurrik?* Aukera naturalena IBarena da, halere. Ikus 2.2.

Garrantzia duena, halere, ez da hainbeste zuberotar batek (23)ko adibideari emango liokeen itzulpena, baizik eta (24) bezalako perpaus bati emango liokeen erantzuna. Demagun haur bakarra duela zuberotar horrek. IB batek pluraltasuna denotatuko balu, haur bakardun zuberotar horren erantzunak ezezkoa behar luke izan (haur bakar batek ez baitu pluraltasunik denotatzen); baina ez da horrela gertatzen eta, haur bakarra izan arren, erantzuna baiezkoa izango da.<sup>17</sup>

Honen aldeko beste adibide argi bat (25)ekoa genuke. Demagun Gizarte Segurantzako bulego batean sartu eta haur bakardun zuberotarrak (25)eko adibidea duen kartel batekin egiten duela topo. Dudarik gabe, eta nahiz eta haur bakarra izan, zuberotar horrek kartelari egingo lioke kasu eta ezkerreko ilaran jarriko litzateke. Honek ez luke horrela izan behar IBak plurala denotatuko balu.

(25) Haur badüzü, jar zite ezkerreko herrokan

Azken batean, zera ari gara esaten: IBek *saretxo* oso bat denotatzen dute,<sup>18</sup> eta ez dio axolarik elementu bati, i.e. atomo bati, edo pluraltasun bati egiten zaion erreferentzia.



Aipatu berri dugun zubererako IBen distribuzioak eta artikularen erabilera ezak hizkuntza erromantzeen portaera dakarkigu gogora (batzuen behinik behin). Espainieraz, adibidez, IBak posible dira argumentu posizioan, baina objektu zuzeneko posizioan bakarrik, (27a-b) adibideek —izen zenbakarri batekin eta masa izen batekin, hurrenez hurren— erakusten duten bezala. Aditzaren ondorengo subjektu posizioan ere ager daitzke (27c): (Ikus Bosque 1996 espainierako IBen inguruan. Baita 9. oin-oharra ere).

- (27) a. Juan ha comido patatas                      c. Llegaron estudiantes  
b. Mikel ha bebido café

(27)ko IBek, zubereran gertatzen den bezalaxe, interpretazio *existentziala* deitua lor dezakete bakarrik.

Subjektu posizioan, berriz, D-ren presentzia beharrezkoa da esaldia gramatikala izango bada (28). Ikus Bosque (1996: 73):

- (28) a. \*(Los) médicos trataron de salvar al niño que se moría  
b. \*(Los) estudiantes han comido patatas  
c. \*(Los) dinosaurios están extintos

<sup>17</sup> Ingeleseaz, frantsesez eta espainieraz ere erantzun berdina emango genioke (23)ko galderari. Honek erakutsiko liguke zubererako IBak beste hizkuntza horietako plural biluziak eta masak bezala portatzen direla.

<sup>18</sup> Izen batek parte-osotasun egitura bat duela adierazteko moduetako bat *saretxo* (*lattice*) egitura da (Link 1983). Saretxoak partzialki ordenaturiko multzoa da; adibidez (26) adibidean a, b eta d indibiduo atomikoak izango dira,  $\cup_I$  indibiduen batuketara operatzailea da, eta marrek *-ren parte* antolaketa bat adierazten dute  $\leq$ .

Antzekotasunak antzekotasun, bada desberdintasun esanguratsu bat zubererako eta hizkuntza erromantzeetako IBen artean: numero marka. Espainierako IB pluralak (ez horrela masa izenek) *-s* pluralgilearen presentzia ezinbestekoa badute ere (29), zubererako IBak benetakoa IBak dira eta inolako markarik gabe agertzen zaizkigu (29):<sup>19,20</sup>

- (29) a. Espainierako IBak: *patata-s, leone-s, estudiante-s, (vino)...*  
 b. Zubererako (eta erronkarierako) IBak: *behi, ardi, mando, (arno)...*

Atal honetan, *-a* artikulua definituaren erabileraren deskribapen orokor bat egin dugu lehenengo eta gero euskara batzuek ematen dioten erabileran zentratu gara. Ikusi dugunez, zenbat eta ekialderago etorri, orduan eta gutxiago erabil daiteke artikulua. Mendebaldean artikulua definitua beharrezkoa da argumentu posizio guztietan (ikus 1.1. ataleko 6. oinoharra); hori ez da horrela zubereraz eta erronkarieraz, non IBak erabil daitezkeen, betiere objektu zuzen posizioan (ikus 1.2 atala).

Ondoko atalean *-rik* partitiboak zenbait euskaratan erakusten duen portaera azaltzen saiatuko naiz. Lehenengo *-rik* partitiboaren deskribapen orokor (ez-oso) bat egingo dut eta, gero, sarreran aipaturiko mendebalde/ekialdeko euskaren arteko banaketa eginez *-rik* partitiboak erakusten dituen erabilera desberdinen berri emango dut.

### 3. *-rik* partitiboa

Autore askok tratatu izan dute *-rik* artikulua bezala: ikus Larramendi (1727), Azkue (1905), (1923), besteren artean; ikus de Rijk (1972) erreferentzia historikoetarako. Hala bada —eta egia da sintaktikoki artikulua baten pare portatzen dela; halere, ez naiz eztabaida honetan barneratuko— artikulua berezi bat behar du izan, ezin baitu beste kasu markarik hartu. Lan honetan *partitibo* termino neutroa erabiliko dut *-rik* atzizkiari erreferentzia egiteko garaian, hainbat gramatika tradizionalak aurretik erabili izan duten bezala; ikus Lafitte (1962).<sup>21</sup> Partitiboa objektu zuzen iragankorrei (30) eta subjektu ez-iragankorrei (31) lotzen zaie bakarrik eta “polaritate elementu” baten pare portatzen da polaritatezko testuinguruetan bakarrik agertuz.

- (30) a. Martxelek ez du baloi-rik ekarri      c. \*Katu-rik ez du jan arratoi-rik  
 b. Maia-k ez du ardo-rik edan
- (31) a. Aralarren ez da hildako animalia-rik azaldu  
 b. Bilerara ez da irakasle-rik etorri

<sup>19</sup> Ikus Etxeberria & Etxepare (2009), non propietate honen azalpen posible bat aipatzen den.

<sup>20</sup> Zubererako IBen portaera honek ageriko antzekotasunak erakusten ditu koreera, japoniera, dene sulinera, eta azken finean artikulurik gabeko hizkuntzetako IBen portaerarekin. Alde nabari bat zera da, beste hizkuntza horiek ez bezala, zubererak badituela artikulua, bai definituak bai indefinituak. Ez naiz antzekotasun/desberdintasun hauek zein diren azaltzera pasako. Ikus Manterola (2009) gerturatze baterako; ikus baita Etxeberria (prestatzen) ere.

<sup>21</sup> Partitiboaren sorrera atzizki ablatiboari loturik dago (ikus de Rijk 1996). Esaterako, ekialdean *-rik* forma erabil daiteke kasu batzuetan *-tik* atzizkiaren ordez. Gainera, *-rik* partitiboa *-tik* ablatiboaren zentzuarekin euskara guztietan produktiboa den adizlagun egituretan ager daiteke: *mendi-rik mendi, abo-rik abo, ate-rik ate*, e.a.; ikus baita de Rijk (2007) ere.

Esan izan da (de Rijk 1996, Etxepare 2003) *-rik* atzizkiaren esanahiak, izenak denotatzen duen horren erreferentzia zehaztugabea dela adierazi nahi duela eta kantitate zehaztugabe bati egiten diola erreferentzia. Halere, esan behar da zehaztugabetsuna izenak denotatzen duenari loturik dagoela, hau da, hiztunak dakiena da izenak denotatzen duen multzotik batere elementurik ez dagoela, ez dela azaldu edo ez dela etorri, eta ez zaio inporta zenbat elementuk —batek, bostek, hamarrek edo milak— osatzen duten multzo hori. Beraz, badirudi, IBek bezala (1.2 atala), partitiboak ere *saretxo* osoari egiten diola erreferentzia (ikus (26) adibidea).

Honako testuinguru hauetan (beste batzuen artean) ager daiteke partitiboa; ikus de Rijk (1972), (1996), Trask (2003) eta Etxepare (2003) erabileraren deskribapen oso baterako: (i) ezezko perpausetan (30)-(31); (ii) perpaus existentzialetan (32a); (iii) bai/ez galderetan (32b); baldintzazko esaldien protasian (32c); (iv) *baino lehen* perpausetan (32d); (v) *gabe* perpausetan (32e); (vi) superlatiboetan (32f); (vii) kuantifikatzaile batzurekin (32g).

- (32) a. Bada atzerritar-rik Donostian!<sup>22</sup>  
 b. Goxoki-rik nahi al duzu?  
 c. Taxi-rik lortu nahi baduzu, hobe duzu ilara honetatik ez mugitu  
 d. Tontakeria-rik egin baino lehen, joan zaitetz etxera  
 e. Diru-rik gabe atera naiz etxetik  
 f. Jostailu-rik politena nik ekarri dut gaur  
 g. Zeresan-ik asko / gizon-ik aski / lagun-ik franko / Esker-rik asko!

Lan honetan partitiboaren lehenengo hiru erabileretan oinarrituko naiz bereziki, gainontzekoak alde batera utziz. Era berean, ez ditut kontuan izango partitiboa partizipioekin —*Jon gaixorik dago* de Rijkek (1972) *stative -rik* deitzen duena— eta *-en* konplementatzailearekin (*ez dut uste azalduko direnik*) agertzen duten kasuak.

Partitiboa, *-a(k)* artikulua definituaren irakurketa existentzialen (kasu absolutibokoak) ezezko ordeko moduan definienezake (ikus Irigoien 1985, de Rijk 1972). Aurrera segi aurretik, utzidazue de Rijkek (1972: 140) dioenaren gainean zehaztapen-ohar bat egiten: haren esanetan (33a)ko euskarako perpausak (33b)ko ingeleseko itzulpena jasoko luke. (33a) perpausaren ezezko zuzen bezala (33c) proposatzen du non partitiboa erabiltzen den; (33d) berriz, ez litzateke (33a)ren ezezko zuzena, *-a* artikulua kasu horretan irakurketa definitua bakarrik emango ligukeelako.<sup>23</sup>

- (33) a. Ijito-a ikusi degu (de Rijk 1972: (6a))  
 b. We have seen A gipsy  
 c. Ez degu ijito-rik ikusi (de Rijk 1972: (7a))  
 d. Ez degu ijito-a ikusi (de Rijk 1972: (8a))

<sup>22</sup> Egitura hauek harridurazko perpausak direnean bakarrik dira onargarri; ikus de Rijk (1972). Azpimarratu nahi nuke perpaus honek lortzen duen interpretazioa *bada atzerritar askopila bat Donostian* perpausaren pareko dela; ikus (16) adibidea. Izenari adjektibo bat gehituz gero, perpausak ez du zertan harridurazkoa izan: *ardo onik badute tabernan honetan / gizon onik bada Euskal Herrian* (ikus de Rijk 1972: 178; ikus baita Euskaltzaindiaren 30. araua ere).

<sup>23</sup> de Rijkek (2007: 292) (33)ko adibideen ordeko masa izen bat duen adibide bat erabiltzen du, lan honetako (35) adibidearen parekoa litzatekeena. Dioena, hemen (35)i buruz esango dugunaren pareko da.

1.1 atalean erakutsi dudan bezala, *-a* singularrekoak testuinguru jakin batzuetan (estereotipatuak, jabegotasunarekin hertsiki lotuak) baino ez dezake interpretazio existentzialik jaso —ik. (11)-(12)— eta (33a)koa ez da inolaz ere horietako testuinguru bat. Ondorioz, (33a) esaldia D definitua duen hizkuntza batera itzuli beharko bagenu D definitu hori erabili beharko genuke nahi eta nahi ez *ijitoo*-ren interpretazio posible bakarra definitua eta espezifikoa delako; beraz, ingeleseko itzulpen zuzena *we have seen the gipsy* litzateke (eta ez (33b)koa, zeinak baduen euskaraz pareko zuzen bat: *ijito bat ikusi dugu*). Ildo beretik, (33a)ren ezezko zuzena (33d)koak behar luke izan, erreferentzia zuzena duen ijito bati buruz ari baikara.

Beraz, aurreko adibideekin argi geratzen da partitiboa ezin erabili daitekeela irakurketa definitu eta espezifikoa bultzatzen duten elementuen ezezko moduan —eta singularreko *-a* artikulua irakurketa hauxe bultzatzen du izen zenbakarriekin konbinatzen denean. Gauza bera gertatzen da artikulua definituaren pluraleko *-ak* formarekin ere (34a): plurala definitu eta espezifiko moduan interpretatzen bada, ezezko formak ere *-ak* definitu plurala erabiliko du (34b); aldiz, plurala modu existentzialean interpretatzen bada —eta gogoan izan irakurketa hau objektu zuzeneko posizioan bakarrik lor daitekeela; ikus 1. atala eta Artiagoitia (2002), (2004), Etxeberria (2005), (2007)— ezezkoak *-rik* partitiboa erabiliko du, (34c) adibidean adierazten den bezala:

- (34) a. Bittor-ek ikasle-ak ikusi ditu [definitua / existentziala]  
 b. Bittor-ek ez ditu ikasle-ak ikusi [definitua / \*existentziala]  
 c. Bittor-ek ez du ikasle-rik ikusi [\*definitua / existentziala]

Jokamolde berdin-berdina erakusten du DS pluralaren ordez *-a* artikulua definitua masa izen batekin konbinatzen dugunean.<sup>24</sup> Horrela, (35a) anbigua da, irakurketa definitua zein existentziala har baititzake: irakurketa definituan ardo jakin batez ari gara, aurretik aipatu duguna esaterako; irakurketa existentzialean, berriz, ez gara ez ardo jakin batez ezta ardo kantitate jakin batez ere hizketan ari. Ezezko perpausa irakurketaren arabera aldatzen da: *-a* artikulua duen (35b) da irakurketa definituaren ezezkoa eta *-rik* partitibodun (35c) irakurketa existentzialaren ezezkoa:

- (35) a. Ricardo-k cognac-a edan du [definitua / existentziala]  
 b. Ricardo-k ez du cognac-a edan [definitua / \*existentziala]  
 c. Ricardo-k ez du cognac-ik edan [\*definitua / existentziala]

Laburbilduz, oro har ondorengoak lirerateke euskarako *-rik* partitiboaren propietateak: (i) artikulua definituaren interpretazio existentzialaren ezezko bezala erabiltzen da testuinguru jakin batzuetan (zeinak euskara batzuetan aldatzen diren); (ii) izenak denotatzen duen horren erreferentzia zehaztugabea dela adierazten du eta kantitate zehaztugabe bati egiten dio erreferentzia.

Pasa gaiten orain euskal hizkeretan elementu honek duen portaera eta erabilera ikustera; gogoan izan aurretik aipatu ditudan erabileretatik hiru bakarrik hartuko ditudala kontuan: ezezko perpausak, bai/ez galderak eta baldintzazko esaldien protasia.


<sup>24</sup> Ikus 1.2 atala, non masei buruzko eztabaida labur bat baden. Atal horretan aipatu da masak neutroak direla numeroari dagokionez eta, ondorioz, esan da *-a* artikulua artikulua definitua baino ez dela. Ikus Etxeberria (2005, 2007) honen gaineko eztabaida luze eta aldeko argudioen aurkezpen baterako. Era berean, ikus baita 9. oin-oharra.

### 3.1. *-rik* Bizkaia eta Gipuzkoan zehar

Euskara hauetan partitiboari ematen zaion erabilera aurreko atalean deskribatu-takoarekin bat datorrela esan genezake. Horrela, *-rik* partitiboa artikulatu definituaren irakurketa existentzialaren (pluralen eta masen) ordezkio bezala erabiliko genuke polaritatezko testuinguruetan.

- (36) a. Ez dugu baloi-rik/ardo-rik erosi                      b. Erosi al duzue baloi-rik/ardo-rik?  
c. Goxoki-rik/ardo-rik nahi baduzu, ez mugitu hemendik

Gorago esan dugun bezala, partitiboaren esanahiak adierazten du izenak denotatzen duen horren erreferentzia zehaztugabea dela, eta kantitate zehaztugabe bati egiten dio erreferentzia. Bestela esanda, hiztunak adierazi nahi du ez dela izenak denotatzen duen multzotik batere elementurik erosi, eta ez du garrantzitsutzat jotzen multzo hori zenbat elementuk osatzen edo osatuko duten, batek, hamarrek edo milioi batek. Gauzak horrela, partitiboak (zubererako IBek bezala —ikus 1.2 atala—) izenak denotatzen duen *saretxo* osoari egiten dio erreferentzia (gogoan izan asumitzen dudala masa izenek ere atomo maila dutela, ikus 9. oin-oharra). Honen ondorio da autore batzuek *-rik* partitiboa singularreko formen —(33)ko *ijitoaren*— ezezkotzat ere hartzea; ondorio okerra, erakutsi dugunez.



Euskara hauetako partitibodun izenak *saretxo* osoari egiten badio erreferentzia, sor dakigukeen galdera bat ondokoa da: beste modurik ba ote dago euskara hauetan *saretxo* osoari erreferentzia egiteko, zubereraz IBekin gertatzen den bezala? Posible ote zaio pluraleko *-ak* artikulatu definituari beraren irakurketa existentzian *saretxo* osoari erreferentzia egitea?

Galdera haui eman beharko geniekeen erantzuna baiezkoa dela esango nuke. Egia da hasiera batean erantzunak ezezkia behar duela izan ematen duela. Besterik gabe, (24)ko eta (25)eko adibideak hartzen baditugu eta euskara hauetan nola esango genituzkeen galdetuko bagenio gure buruari, burura etorriko litzaizkigukeen lehenengo perpausak (38) eta (39)koak lirarteke hurrenez hurren.

(38) Baduzu haurrik?

(39) Haurrik baldin baduzu, jar zaitetz ezkerreko ilaran

Lehenengo esaldiari baiezko erantzuna emango genioke haur bakar bat izango bagenu, eta norbaitek (39) esango baligu ezkerreko ilaran jarriko ginatke haur bakar baten guraso bagina. Beraz, goraxeago esan dudanari helduz, partitiboak *saretxo* osoari erreferentzia egiten diola mantenduko genuke. Partitiboa testuinguru jakin batzuetan erabiltzen dugula jakinda, pentsa genezake baiezko perpausetan artikulatu definituaren irakurketa existentzialak *saretxo* osoari erreferentzia egiteko gaitasuna izan behar lu-keela; pentsatzeko modu hau zuzena dela uste dut. Hasteko, euskara hauetako hiztun



batzuek ez dute erabat txartzat jotzen (38)-(39) perpausen esanahi berdina mantenduz -ak erabiltzea -rik atzizkiaren orde: *badituzu haurrak? Haurrak baldin badituzu, jar zaitetz ezkerreko ilaran.*<sup>25</sup> Hau horrela bada, haur bakar bat izateak balioko luke bi kasuetan. Gainera, (40a-b) perpauetako DS definitu pluralak diren *kruasanak* eta *ahateak* DS-ek ez diote nahi eta nahi ez pluraltasun bati erreferentziarik egin beharrik eta izan liteke Pakok kruasan bakarra jatea edo guk ahate bakarra ikustea.

- (40) a. Pakok kruasanak jaten ditu gosaltzeko<sup>26</sup> (Artiagoitia 2002: (13))  
b. Goazen ahateak ikustera

Adibide hauek erakutsiko ligukete artikulua definituaren irakurketa existentzialak ere saretxo osoari egiten diola erreferentzia.

Hurrengo atalean Lapurdiko eta Zuberoako (eta Behe-Nafarroako) euskaretan partitiboari ematen zaion erabilera ikustera pasako naiz.

### 3.2. -rik Lapurdin eta Zuberoan

Lapurdiko euskaran partitiboari ematen zaion erabilera aurreko ataleko euskaretan ematen zaiona baino murriztuagoa da. Lapurdin, partitiboa ezezko perpauetan baino ez da erabiltzen; bai/ez galderetan eta baldintzazko perpauetan artikulua definitu plurala erabiliko genuke (ikus 25. oin-oharra).

- (41) a. Ez dugu baloi-rik erosi  
b. Erosi al dituzue baloi-ak?  
c. Goxoki-ak nahi badituzu, ez mugitu hemendik

Espero den bezala, partitiboak saretxo osoari egiten dio erreferentzia eta izenak denotatzen duen horren erreferentzia zehaztugabea dela adierazten du. Antzeko zerbait gertatzen da pluraleko artikulua definituarekin eta kasu honetan ere zehazgabetasunak izango du garrantzia, izenak elementu bakar bati edo pluraltasun bati egin diezaiokeelarik erreferentzia, i.e. saretxo osoa denotatuko du. Hau, are argiago ikusten da hurrengo adibideetan.

- (42) a. Haurr-ak badituzu?  
b. Haurr-ak badituzu, jar zaitetz ezkerreko ilaran<sup>27</sup>

<sup>25</sup> Masa izen batekin konbinatzen den -a artikulua definituak ere, esaterako, *ogia* edo *ardo*a izenetan, saretxo osoari egiten dio erreferentzia. Gogoratu *ogia* bezalako zerbait neutroa dela numeroari dagokionez (baina atomikoa izango da, modu lausoa bada ere).

<sup>26</sup> Aditzaren aspektuak ere badu zeresanik plural existentzialen interpretazio honetan; *jaten ditu* orde *jan ditu* erabiliko bagenu, *Pakok kruasanak jan ditu gosaltzeko, kruasanak* DS-ak pluraltasuna denotatuko luke.

<sup>27</sup> Elkarrizketatu ditudan hiztun gehienek (42)ko perpauak hartuko lituzkete (23)ko perpauetan izulpen zuzentzat. Halere, badira hiztun batzuk partitiboa lehenengo aukera bezala erabili zutenak. Era berean, aipagarria da bai/ez galderetan partitiboa naturalago erabili baina artikulua definitua onar dezaketenek desberdintasun bat aurkitzen dutela (i) eta (ii) perpauen artean.

- (i) Baduzue ogi-a? (ii) Baduzue ogi-rik?

*Ogirik* partitiboa errazago erabiliko lukete galdera okindegi batean egingo balute, non espero izatekoa den ogia saltzeko izatea; (i) perpausa aldiz, errazago erabiliko omen lukete gasolindegri batean, non ogia saldu dezaketen baina ez den segurua hori gertatzea. Egoera neutro batean, (i) erabiliko lukete.

Bi perpaus hauek espainierako *¿tienes hijos?* eta *si tienes hijos, ponte en la fila de la izquierda* perpausen baliokide lirateke eta *haurrak* existentzialki interpretaturiko artikulua definitudun DS-a.

Lapurdiko partitiboaren erabilera frantsesaren eragin zuzena nabari da. Frantsez, “*de négatif*” partitiboa ezezko testuinguruetan (eta objektu zuzeneko posizioan) bakarrik ager daiteke (ikus Heyd 2003).<sup>28</sup>

(43) Je n’ai pas d’enfants

*De* ezezkoaren erabilera ez da zuzena bai/ez galderetan ez eta baldintzazko perpausen protasian ere, eta kasu horietan frantseseko *des/du* D partitiboak deituak erabiliko genituzke.

(44) a. Est-ce que vous avez DES enfants?

b. Si vous avez DES enfants, mettez-vous sur la file de gauche

Ohar zaitezte (43)ko *d’enfants* eta (44)ko *des enfants* sintagmen irakurketa existentzialekin (besterik ez dezakete lor; euskarako artikulua definituak ez bezala, zeinak irakurketa definitua ere lor dezakeen) erreferentzia zehaztugabea egiten ari garela izenak denotatzen duen horri, hau da, saretxo osoari egiten ariketako ginategi erreferentzia. Eta azken batean, frantsesez egitura hauekin lortzen dugun emaitza, Lapurdiko euskararen *-rik* partitiboaren eta artikulua definitu pluralaren irakurketa existentzialarekin lortzen dugu. Eman lezake, beraz, garai batean partitiboaren erabilera zabala goa izan zitekeela euskara honetan —ikus, adibidez, Lafitte (1944), non esaten den ezezko testuinguruez aparte, bai/ez galderetan eta baldintzetan ere erabil zitekeela— eta frantsesaren eraginez haren erabilera ezezko testuinguruetara murriztuz joan dela. Garrantzia duen beste puntu bat hau da: *des/du* partitiboaren eta euskarako artikulua definituaren irakurketa existentzialaren erabilera portaera oso antzekoa erakusten dute, berdina ez esatearren (ikus Etxeberria 2005, 2007).

Zuberoako euskararen, Lapurdiko euskararako deskribatu ditudanaren oso antzera dira kontuak *-rik* partitiboari dagokionez (hiztun batzuen arabera behintzat). Printzipioz, partitiboa ezezko testuinguruetan baino ez genuke erabiliko; aldiz, bai/ez galderetan eta baldintzazko perpausetan IB bat erabiliko genuke (ikus (24)-(25)).

(45) a. Ez dūgū balu-rik erosi

b. Balu erosi dūzüeia?

c. Huntto nahi balin badüzü, ez zitila hebentik igi

Lehenago aipatua dudana bezala (ik. 1.2 atala), (45)ean bai *baloirik* partitiboak baita *balu*-k ‘baloi’ eta *huntto*-k ‘ontto’ IBek saretxo osoari egiten diote erreferentzia. Ez da, beraz, izenak denotatzen dutenaren pluraltasuna edo singularitasuna axola duena; benetan axola duena da izen horrek mundu errealean erreferentzia zehatzik ez izatea.

Halere, ez dirudi Zuberoako hiztun guztiak hemen goran esandakoarekin ados egongo lirategi: Casenave-Harigile (2006) edo Etxebarne (2006) zuberotarraren gramatikak diotenaren arabera, partitiboaren erabilera ez da mendebaldeko erabilera asko aldentzen eta ezezko perpausaz aparte, bai/ez galderetan eta baldintzazko perpausetan ere erabiltzen omen da (baita beste zenbait kasuetan ere, ikus (32)).

<sup>28</sup> Zenbatzaile ahul batzuekin ere agertzen da *de* partitiboa: *beaucoup d’étudiant, beaucoup de livres, peu de femmes*, etb. Ikus adibidez Doetjes (1997, 2004). Erabilera honetaz ez naiz arduratuko.

Momentu honetan, datu falta dela eta (nire partetik, noski), ez naiz gai sistema baten (-rik ezezkoetan bakarrik erabiliko lukeena) edo bestearen (-rik modu zabaloan erabiliko lukeena) aldeko argudioak emateko.<sup>29</sup> Baliteke gaur egun ekialdeko euskaretan (eta baita neurri batean mendebaldekoetan ere, ikus 2.1 atala) bi sistema hauek elkarrekin bizitzen egotea. Gauzak horrela badira, momenturen batean sistema bat besteari gailenduko zaiola pentsa genezake, eta apustu egingo nuke gailenduko den sistema deskribatu dudanetik lehenengoa izango dela, hura non partitiboak ezezko testuinguruetan bakarrik erabiltzen den (hau da, frantsesaren antza gehien duen sistema) eta, ondorioz, DS plural irakurketa existentzialdunak (Lapurdin) eta IBak (Zuberoan) -rik partitiboari lekua kenduko dioten. Honetan argi pixkat bat emango digute euskal hizkeren sintaxia aztergai duten proiektuek, hala nola *Towards a Syntactic Atlas of the Basque Language* (<http://www.iker.cnrs.fr/~tsabl-towards-a-syntactic-atlas-of-.html?lang=fr>) edo *Syntactic micro-variation in Basque: a theoretical and typological approach* (<http://basdisyn.net/>).

### Aipamen bibliografikoak

- Artiagoitia, X., 1997, «DP predicates in Basque», in A. Taff (arg.), *University of Washington Working Papers on Linguistics* 15, 161-198.
- , 2002, «The functional structure of Basque noun phrases», in X. Artiagoitia et al. (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk, ASJU-ren Gehigarriak*, Bilbo: 73-90.
- , 2004, «Izen-Sintagmaren birziklatzea: IS-tik izenaren inguruko funtzio-buruetara», in Albizu, P. & B. Fernández (arg.), *Euskal Gramatika XXI mendearen Atarian: Arazo Zaharrak, Azterbide Berriak*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz: 13-38.
- Azkue, R. M., 1905, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo.
- , 1923, *Morfología Vasca*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. [Edizio berria: 1969.]
- Bosque, I., 1996, *El sustantivo sin determinación*, Madrid: Visor Libros.
- Bosveld-de Smet, L., 1997, *On mass and plural quantification. The case of French des/du -NPs*, PhD diss., University of Groningen.
- Carlson, G., 1977, *Reference to kinds in English*, PhD: UMass, Amherst.
- & J. Pelletier, 1995, *The generic book*, Chicago: University of Chicago Press.
- Casenave-Harigile, J., 2006, *Xiberotar gramatika llaburra*, Maule: Sü Azia.
- Chierchia, G., 1998, «Plurality of mass nouns and the notion of “semantic parameter”», in S. Rothstein (arg.), *Events and Grammar*, Dordrecht: Kluwer, 53-103.
- , 2009, «Mass nouns, vagueness and semantic variation», eskuizk., Harvard.
- Coyos, B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*. Paris: L'Harmattan.
- Dobrovie-Sorin, C., T. Bleam & M. T. Espinal, 2006, «Bare nouns, number and types of incorporation», in S. Vogeleer & L. Tasmowski (arg.), *Non-definiteness and plurality*, Amsterdam: John Benjamins, *Linguistics Today*, 51-79.
- Eguren, L., 2005, «Marcas de predicación en vasco», in B. Fernández eta I. Laka (arg.), *Andolin gogoan: Essays in Honour of Professor Eguzkitza*, 233-250. UPV/EHU, Bilbo.

<sup>29</sup> Ez dut inolaz ere Casenave-Harigile eta Etxebarne autoreen datuen zuzentasuna dudan jartzen, ez dezala inork pentsa horrelakorik, baina galdetu dieidan hitzunen gandiak jaso ditudan datuak begiratu eta autore hauen emaitzekin bat ez datozela ikusita, azterketa sakonago bat egin nahi nuke.

- , 2006, «Non-canonical uses of the article in Basque», in M. J. Hauser et al. (arg.), *Proceedings of the 32nd Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*. Berkeley.
- Espinal, T. & L. McNally, 2007, «Bare singular nominals and incorporating verbs», in G. Kaiser eta M. Leonetti (arg.) *Proceedings of the 3rd "ereus Workshop*. Universität Konstanz Arbeitspapier 122, 45-62.
- Etxebarne, J., 2006, *Xiberotar gramatika*, Maule: Sü Azia.
- Etxeberria, U., 2005, *Quantification and domain restriction in Basque*, PhD diss., UPV/EHU & HiTT.
- , 2007, «Existentially interpreted definites», in Puig-Waldmuüller, E. (arg.), *Proceedings of Sinn und Bedeutung 11*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra: 229-243.
- , 2008, «On quantification in Basque and on how some languages restrict their quantificational domain overtly», in Matthewson, L. (arg.), *Quantification: A crosslinguistic perspective*. Emerald: 225-276.
- , 2009, «Contextually restricted quantification in Basque», in Giannakidou, A. & M. Rathert (arg.), *QP Structure, Nominalizations, and the Role of DP*, Oxford: Oxford U. P. Oxford Studies in Theoretical Linguistics Series.
- , Prestatzen, *Nominal expressions in Basque*, Ms. IKER-CNRS.
- & R. Etxepare, 2009, «Zenbatzaileak komunizatzen ez direnean: Hiru sistema», *Lapur-dum* 13, UMR 5478: CNRS (Université Michel de Montaigne Bordeaux III-UPPA) Département Interuniversitaire d'Études Basques de Bayonne.
- & A. Giannakidou, 2009, *Contextual domain restriction across languages: Definiteness, indefiniteness, and the structure of QP*. Ms. IKER-CNRS & U. Chicago.
- Etxepare, R., 2003, «Negation», in *A Grammar of Basque* (J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina, arg.), 387-421. Mouton de Gruyter, Berlin.
- Euskaltzaindia, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gándara, A. & E. Santazilia, 2007, «Zehaztapen batzuk artikulua erabileraz Bourcier korpusean». UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika Bideetan*, Donostia: Erein.
- , 1991, «Izen Sintagmaren Egituraz», in Lakarra, J. (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia: UPV/EHU, 847-865.
- Heyd, S., 2003, *L'interprétation des Syntagmes Nominaux en «des» et «de» en Position Sujet et Objet. Généricité, Habitualité et Incorporation Sémantique*, Doctoral dissertation, Université Strasbourg II-Marc Bloch.
- Hualde, J. I. & I. Ortiz de Urbina (arg.), 2003, *A Grammar of Basque* de Gruyter: New York-Berlin.
- Irigoién, A., 1985, «Euskarako izen sintagma mugatzaileak gabekoez», *Euskera* XXX: 129-139.
- Kleiber, G., 1990, *L'article LE générique. La généricité sur le mode massif*, Genève-Paris: Droz.
- Krifka, M. et al., 1995, «Genericity: An introduction», in Carlson, G. eta F. Pelletier (arg.), *The Generic Book*, Chicago: University of Chicago Press, 1-124.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Donostia: Elkar.
- Laka, I., 1993, «Unergatives that assign ergative, unaccusative that assign accusative», in Bobaljik, J. eta C. Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement I*, Cambridge, MA: MIT Working Papers in Linguistics, 149-172.
- Larramendi, M., 1727, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca.

- Link, G., 1983, «The Logical Analysis of Plurals and Mass Terms: A Lattice Theoretical Approach», in R. Bäuerle et al. (arg.), *Meaning, Use, and Interpretation of Language*, Berlin: Walter de Gruyter, 302-323.
- Manterola, J., 2006, «-a euskal artikulatu definituaren gainean zenbait ohar», in *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask-R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (J. A. Lakarra eta J. I. Hualde, arg.), 651-676. Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Donostia-Bilbo (Supplements of *ASJU*).
- , 2007, «-a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan», in J. Gorrotxategi et al. (arg.), *Koldo Mitxeleren Katedraren II. Biltzarraren Aktak*, Vitoria-Gasteiz. Prentsan.
- , 2009, «-a and *bat* Basque articles and recent contact theories». Eskuiz.: UPV/EHU.
- Matushansky, O., 2005, «Iraqi head seeks arms: Are bare nouns created equal?», Paper presented at the Bare Workshop, Utrecht.
- McNally, L., 2004, «Bare plurals in Spanish are interpreted as properties», *Catalan Journal of Linguistics* 3, 115-133.
- Milsark, G., 1977, *Existential Sentences in English*. Garland Publishing Inc., New York.
- de Rijk, R. P. G., 1972, «Partitive assignment in Basque», *ASJU* 6: 130-173. [Reprinted in de Rijk 1998].
- , 1996, «On the origin of the partitive determiner», *ASJU* 30 [Reprinted in de Rijk 1998].
- , 1998, *De lingua vasconum: Selected writings*. UPV/EHU (Supplements of *ASJU* 43).
- , 2007, *Standard Basque: A Progressive Grammar*. Cambridge: MIT Press.
- Rodríguez, S., 2003, *Euskal artikulatuaren sintaxiaz*, manuscript, University of the Basque Country.
- Roodenberg, J., 2004, «French bare arguments are not extinct: The case of coordinated bare nouns», *LI* 35.2: 301-313.
- Santazilia, E., 2009, «Artikulatuaren 1895eko argazki bat VDM programaren bitartez». Eskuizk. UPV/EHU.
- Suñer, A., 1982, *Syntax and semantics of Spanish presentational sentece-type constructions*. Washington: Georgetown U. P.
- Ticio, E., 1996, «El morfema -a en vasco como marca de referencialidad», *Interlingüística VI*. AJL.
- Trask, L., 2003, «The Noun Phrase: Nouns, Determiners, and Modifiers; Pronouns and Names», in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 92-134.
- Txillardegi, 1977, «L'emploi de l'indéfini en souletin», *FLV* 25: 29-54.
- Zabala, I., 1993, *Predikazioaren Teoriak Gramatika Sortzailean*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- , 2003, «Nominal Predication: Copulative Sentences and Secondary Predication», in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 324-339.
- Zamparelli, R., 2000, *Layers in the Determiner Phrase*, PhD diss., University of Rochester.
- , 2002a, «Definite and bare kind-denoting noun phrases», in C. Beyssade et al. (arg.), *Romance Languages and Linguistic Theory 2000*, Amsterdam: John Benjamins, 305-342.
- , 2002b, «Dei ex machina: A note on plural/mass indefinite determiners». Eskuizk., Università di Bergamo.



# OMEN BARIAZIOAN

Ricardo Etxepare  
(IKER, UMR5478)

## Abstract<sup>1</sup>

*The present work has as its aim to describe and account for the syntactic and semantic variation in the use of the hearsay evidential particle omen in Basque. The hypothesis I will advance is that evidentiality, and in particular hearsay evidentiality, is syntactically expressed by means of a constellation of syntactic structures. Two main hypotheses are discussed in the context of this paper: (i) on the one hand, Cinque's idea that (hearsay) evidentiality occupies a designated syntactic position in the Left Periphery of the clause, by means of a particular category we will call Evidential Head; (ii) on the other, the view that hearsay evidentiality is, or can be, a subspecies of epistemic modality. I will try to show that the dialectal variation in the syntactic expression of omen can be seen to instantiate those two possibilities, and that furthermore, a third one must be proposed for some of the Eastern varieties of Basque: there, the hearsay evidential is an independent lexical item that can be merged in different parts of the clause structure. What those positions have in common is that they encode logical operators that take propositional entities as arguments.*

## 1. Sarrera

Oker izateko beldur handirik gabe, esan daiteke *omen* partikularen inguruan euskaraz egin diren lan gehienek ez dutela gaur arte orokortasunen muga igaro. Sintaxiaren alorrean, esku bakarrarekin kontatzekoak dira, nik dakidanez, hura deskribatzeko edo alderdi batean edo bestean esplikatzeko egin diren saio bakanak. Lan honek *omenen* izaera sintaktikoan barrendu nahi du, horretarako *omenek* berak euskal eremuan ezagun duen barne bariazio sintaktikoa baliatuz. Ikusiko den bezala (hala nahi nuke behintzat), *omenen* barne bariazioari begiratzea ez da, sintaxiaren kontestuan, ugarietasunaren zaletasunak bultzaturiko ariketa huts bat, baizik eta analisi teoriko egoki baten giltza aurkitzen lagun dezakeen tresna metodologiko garrantzitsua. Artikulua

---

<sup>1</sup> Lan hau ondoko proiektuen baitan burutu da: Ministerio de Ciencia e Innovación (FFI2008-002240/FILO), Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Sareak HM-2008-1-10, Eusko Jaurlaritzaren talde kontsolidatuentzako proiektua GIC07/144-IT-210-07, Frantziako ANReko TSABL proiektua (ANR-07-CORP-033) eta Fédération Typologie et Universaux (TUL) federazioko *Types de Phrase* proiektua. Berriemaile gisa lagundu didaten Maia Duguine, Celine Mounole, Beñat Oyharçabal eta Xarles Videgain eskertu nahi nituzke. Egon litezkeen huts guztiak, bereziki berriemaileek emandako datuen interpretazio egokiari dagozkionak, nire gain hartzen ditut.

honela banatua dago: bigarren atalean, *omenen* inguruko oinarrizko elementu batzuk ematen dira, eta artikuluan garatuko diren hipotesi nagusiak aipatzen. Hirugarren atalean erdialdeko eta ekialdeko hizkerek sintaxi mailan erakusten dituzten diferentziak deskribatzen dira. Laugarren atalak diferentzia horien analisi sintaktiko bat ematen du. Bosgarren atalak *omen* partikulararen erabilerak erdialde eta ekialdean erakusten dituen esanahi aldetiko diferentzia batzuk deskribatzen ditu, analisi sintaktikoaren ikuspegitik azaltzen direnak. Seigarren atalak ondorioak biltzen ditu.

## 2. *Omen*: oinarrizko elementu batzuk

### 2.1. Esana eta duda

Euskarak badu kategoria funtzional bat beste norbaiten esanari erreferentzia egiten diona (1b):

- (1) a. Etorri da                                      b. Etorri OMEN da

Zubeldiak (2008: 12) oraintsu proposatutako definizioaren arabera, *omenen* esanahia honela jaso daiteke. Izan bitez  $S$  perpausa,  $p$  adierazten den proposizioa eta  $S_{omen}$  *omen* duen perpausa:

- (2) ( $S_{omen}$  ) Hitzuna ez den beste(ren) batek esana da  $p$

Deskripzio simple honek ez du aintzat hartzen (egileak hala bilatuta), *omeni* erantsi izan zaion beste esanahi atal bat, esandakoaren egiazkotasunari zor zaion konfiantzari dagokiona. Zenbait ikertzaileentzat (aspaldikoentzat, hala nola Larramendi 1729 edo Van Eys 1873, edo berriagoentzat, Euskaltzaindiaren gramatika adibidez, 1987, 1993), *omenek* dudazko ñabardura bat ekartzen dio egiten den baieztapenari. Delako dudazko osagai hori azaleratu egiten da zenbait kontestutan. Eman dezagun esate baterako (3)koa:

- (3) Errealaren partida entzuten ari naiz Irratian. Hasi eta buka. 90. minutuan partida bukatu da 2-1 emaitzarekin. Sukaldera noa eta bertan semea aurkitzen dut. Esaten diot: —*Errealak irabazi egin omen dik.*

(3)ko kontestuan egindako baieztapena *omenekin* laguntzeak bitxi ematen du. Baina *omenek* norbaiten esana besterik adierazten ez badu, eta hitzunaren ebidentzia hemen esanezkoa da, ez dago garbi zergatik *omenen* presentziak baieztapenaren indarra behar gabe ahultzen duen. (4)ko kontestuan, *omenek* ironia puntu bat eranstean dio hitzunaren esanari:

- (4) Xabier bulegoan da. Ondoan bere idazkaria. Harekin paper batzuk egin behar ditu. Hartan hasi baino lehen, hala ere, esaten dio: —*Momentu bat, komunera joan behar dut eta.* Ateratzen da. Handik berehala lankide bat sartzen da Xabierren bulegoan. Ez du hura ikusten. Galde egiten dio idazkariari: —*Xabier ez da hor?.* Idazkariak: —*Komunera joan omen da.*

Zergatik eranstean dio *omenen* presentziak halako burlaize bat idazkariaren baieztapenari, *omenen* egitekoa norbaiten esana adieraztea besterik ez bada, eta horrenbestez Xabierren esana jaso besterik ez badu egiten? *Omenen* kontribuzio semantiko ba-



karra baieztapena esanezko ebidentzian oinarritua dela markatzea baldin bada, modu bat egon behar du haren erabilerak sortzen dituen erantsizko adierak esplikatzeko. Aterabide bat interpretazio efektu horiek kontestuaren gain ematea da. Idazkariaren esana ironikoa gertatzen da berbaldi unean esanezko ebidentziarekin batera bestelako informazio iturburu batzuk ere jokoan direlako: idazkariak entzun du Xabier nola atera den, beharbada ikusi ere egin du ateratzen. Arazoa ez da honenbestez, Zubeldiak dioen bezala bestalde, *omenek* berez dudazko ñabardura bat ekartzen duen, baizik eta berbaldi unean bestelako informazio iturburuak hiztunaren irispidean diren ala ez. Esate baterako, antzekoa den ondoko kontestuan *omenek* ez dakar (ez behintzat halaberharrez) dudazko ñabardura hori:<sup>2</sup>

- (5) Idazkariak deitu egin dit bere etxetik goizean. Esan dit: —*Ez naiz ondo aurkitzen eta gaur ezin izango naiz lanera joan*. Idazkaria pertsona serioa baita, ez dut inolako arrazoirik esaten didan hori dudatan jartzeko. Norbait sartu da handik berehala bulegoan idazkariatz galdezka. Esan diot: —*Ez, idazkaria ez da gaur hemen izango, eri omen da*.

Hemen ez dute bestelako informazio iturriek jokutzen, eta ironiazko tasun hori desagertu egiten da. Dudazko ñabardura beraz, ez da *omenek* lexikotik dakarren osagai bat, baizik eta *omenen* erabilerak kontestu jakin batean ahalbidetzen duen edo errazten duen inplikatura bat.

Intuizio hori ikuspegi formal batetik lantzen dute Davis eta bestek (2008), hemen gaingiroki baizik aipatuko ez dugun azterketa batean. Davis eta bestek (2008) Griceren kalitate maxima<sup>3</sup> modu probabilistikoa tratatzen dute. Maxima horrek gertagarritasun probabilitate bat finkatzen du  $p$  proposizio bakoitzeko. Aldi berean, solas inguruak kalitate atalase bat ezartzen du zeinaren azpitik ezinezkoa baita baieztapen bat egitea. Esate baterako, solas inguruak 0.8ko gertagarritasun probabilitatea ezartzen badu  $p$  egiazki baieztatu ahal izateko, eta  $p$ -ren gertagarritasun edo egiazkotasun probabilitatea (hiztunaren ikuspegitik) 0.5koa baizik ez bada,  $p$  ezin da zuzen onez baieztatu. Ikuspegi orokor honetan, ebidentzialek kalitate maximaren atalasea bera manipulatzeko dute,  $[0,1]$  eskalan puntu jakin batera ekarriaz. Puntu hori hiztunak eskuartearen duen ebidentziaren arabera erabakitzen da: esan-entzunezko ebidentziari sinesgarritasun handirik ematen ez bazaio, esan-entzunezko ebidentzialaren erabilerak beherago eramango du baieztapena posible egiten duen kalitate atalasea (0,2ra, eman dezagun). Honela, sinesgarritasun handirik ez duten proposizioak baieztatuak izan daitezke. Manipulazio hau berbaldi mailan gertatzen den zerbait da, eta pragmatikaren alorrekoztat jo behar da. Ebidentzialaren kontribuzio lexiko hertsia honenbestez, ebidentzia iturburu markatzea da, ez gehiago. Gure kasuetara itzuliaz: esango genuke (3) eta (4) adibideetan, hiztunak bere esku duen ebidentzia aski fidagarria dela. Lehen kasuan, zuzeneko emanaldi batez ari gara (entzuleak pertzepzioari loturiko informazioa ere jaso dezake, hala nola publikoaren harrabotsa, eta edozein kasutan irratiko esataria *ikusten* ari denari buruz ari da). Bigarrenean, ikusizko ebidentzia ere gurutzatzen da. Horrelako kon-

<sup>2</sup> Eskerrak zor dizkiot Bernat Oyharçabali adibide honengatik.

<sup>3</sup> Griceren kalitate maximak hala dio: “ez ezazu esan esateko ebidentzia egokirik ez duzun hura”.

testu batean, *p* proposizioa kalitate atalasea derrigor jaisten duen ebidentzial bategiaren laguntzeak (esan-entzunezkoa), *p*-ren egiazkotasuna zeharbidez auzitan jartzen du, eta berbaldia ironia efektu batez jantzen da. Zubeldiarekin batera beraz, egingo dugu *omenen* esanahi lexikoa “informazio iturburu” dela; zehazkiago, beste norbaiten esanak osatzen duena.

## 2.2. *Omen ebidentzialen artean*

*Omen*, tipologian *ebidentzialitatea* deituraz ezagutzen den fenomenoaren barnean kokatu behar da. Munduko hizkuntza askok (laurden batek, Aikhenvalden iritzian, 2004) badute baieztapen bat bermatzen duen informazio iturria (ebidentzia) gramatikalki agertzeko beharra. Hau errazago ikusiko dugu etsenplu batekin.

Tariana, Arawak familiko hizkuntza bat da, Amazoniako ifar-mendebaldean mintzatzen dena (Aikhenvald 2004: 2-3). Hizkuntza horretan, baieztapen guztiek ebidentziaren iturburuarekin loturiko kategorio gramatikal bategi hornituak etorri behar dute:

- (6) a. Juse irida di-manika-KA  
 Jose futbola 3sg-joka-E<sub>ikusmenezkoa</sub>  
 ‘Jose futbolean aritu da (ikusitako dugu)’
- b. Juse irida di-manika-MAHKA  
 Jose futbola 3sg-joka-E<sub>ez-ikusmenezkoa</sub>  
 ‘Jose futbolean aritu da (entzun dugu)’
- c. Juse irida di-manika-NIHKA  
 Jose futbola 3sg-joka-E<sub>ikusitakotik ondoriotatua</sub>  
 ‘Jose futbolean aritu da (ikusitako dugunetik ondoriotatzen dugu)’
- d. Juse irida di-manika-SIKA  
 Jose futbola 3sg-joka-E<sub>dakigunetik ondoriotatua</sub>  
 ‘Jose futbolean aritu da (dakigunetik ondoriotatzen dugu)’
- e. Juse irida di-manika-PIDAKA  
 Jose futbola 3sg-joka-E<sub>esana</sub>  
 ‘Jose futbolean aritu da (esan zaigu)’

Ustez, Tariana bezalako hizkuntzetan, informazioaren iturburu markatzen duten morfema lotuak ezinutzizkoak dira. Perpaus hezurdura gauzatuaren parte, beraz. Tariana hizkuntzaren sistemarekin alderatzen badugu, euskararena aski pobrea gertatzen da, esan-entzunezko informazioaren adierazpenarekin agortzen baita. *Omen* partikulak gainera, Tarianaren ez bezala, hautazkoa ematen du.

Aikhenvaldentzat, aukerazkoak diren ebidentzialak (euskararena kasu) ez dira zinezko ebidentzialak, baizik eta bestelako bidetatik antzeko efektuak lortzen dituzten estrategia gramatikalak. Sail honetan sartzen dira, haren ustez, aditzlagunak (7a), eta parentetikoak (7b):

- (7) a. Diotenez, Xabier eri da                      b. Xabier, bistan da, eri da

Euskarazko *omen* ez da erraz makurtzen honelako sailkapen batera: *omenek*, erdialdeko hizkeretan behintzat (ikus ondoko atala) leku finkoa du euskarazko funtzio hitzen hurrenkeran, aditz lagunek eta parentetikoek ez bezala. Eta *omenek*



(9b) perpausean, ebidentzialak leku jakin bat hartzen du perpaus egituran, modu ebaluatiboa adierazten duen morfemaren eta modu epistemikoa markatzen duenaren artean. Turkiera bezalako hizkuntzen datuetarik, Cinquek balio unibertsaleko hierarkia sintaktiko bat definitzen du, ebidentzialen lekua, besteak beste, behin betiko finkatu asmo duena.

Lan honetan, euskarazko *omenek* euskal hizkeren eremuan ezagun duen distribuzio sintaktikoa aztertuko dugu. Ekialdeko eta erdialdeko hizkerak konparatzen baditugu, ohartzen gara *omenen* erabilera ez dela arras bera bi kasuetan. Diferentzia hauek bi eratakoak dira. Esanahiaren aldetik, iduri du ekialdekoentzat posible dela *omen* modalitate epistemikoa adierazten duen laguntzaile batekin erabiltzea. (10b) ezinezkoa da erdialdeko hizkeretan. (10c) aldiz, arazorik gabea da ekialdekoetan:

- (10) a. *Ikusita zein nekatuta nabilen, nire apetitu falta etabar*, gaixo egon behar dut  
(epistemikoa)  
b. \*Gaixo egon behar omen dut (epistemikoa, erdialdean)  
c. Eri izan behar omen dut (epistemikoa, ekialdean)

Zubeldiak *omenentzat* proposatzen duen esanahiari jarraiki, (10b-d)k honelako zerbait adierazi behar lukete:

- (11) *Diotenez, ikusita zein nekatuta nabilen, nire apetitu falta eta abar*, eri izan/gaixo egon behar dut

Erdialdeko hizkeretan beraz, ekialdekoetan ez bezala, *omen* ezin ager daiteke moduzko laguntzaile epistemiko batekin batera.

Erdialdeko eta ekialdeko hizkeren artean dauden diferentziak ez dagozkio esanahiari bakarrik. Horrekin batera, badakigu ekialdeko zenbait hizkeretan *omen* partikulak leku bat baino gehiago har dezakeela perpaus egituran:

- (12) a. Protestanten komentu batean OMEN eskolarazi zuen (Davant, *Herria*, 2006)  
b. Eüskaldüna zen lehenago OMEN populü ez ikasia (*Herria*, Benat Etxebest/Pierrra Laco, Xubero, 2001)  
c. OMEN gizon zuhur horrek zuela gero gobernuaren mandua hartu eta garai berriak zirela orduan hasi (Arkotxa, *Septentrio*, 2001)  
d. Ta oixtian erten nitianak “Lana ta hiria gure ganat eta ez gu heien ganat” etxu batree Enbatak pentsatia, bana Joanes XXIII garrenak hori bezalako hitzak erran eta manatu txi OMEN (Etxamendi 1969-1990)

(12)ko perpausek erdialdeko hizkeretan ezinezkoak diren segidak erakusten dituzte:

- (13) a. OMEN - Aditza - Laguntzailea...  
b. Laguntzailea ... OMEN ...  
c. OMEN ... Laguntzailea + Konp ... Aditza  
d. Aditza - Laguntzailea ... OMEN

## 2.4. Xedeak eta hipotesiak

Lan honen xedea erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan *omenen* inguruan diren diferentziak deskribatu eta (ahal den heinean) azaltzea da. Hemen eskaintzen dudana azalpena ondoko hipotesien bitartez laburbil daiteke: (i) *omen* buru sintaktikoa da erdialdeko hizkeretan, adjunktua edo espezifikatzaile berriz ekialdekoetan; (ii) *omen* moduzko adierazpide hertsia da erdialdeko hizkeretan; ekialdekoetan berriz *ez*. Analiaren ondorioetako bat da ebidentzialitatearen adierazpen sintaktikoa euskaraz *ez* dela beregizko kategoria funtzional batekin agortzen, Cinqueren hipotesiak nahiko lukeen bezala, eta bestelako estrategia sintaktikoak posible direla. Hemen jasotzen dugun *omenen* baitako bariazioa erdialdeko eta ekialdeko euskalkiek erakusten duten beste ezaugarri batekin lot daitekeela proposatuko dut: ekialdeko hizkeretan, *omen* beregainki joka dezakeen izen mailako elementu konplexu bat da, bere adieren artean beste norbaiten esanari erreferentzia egitea daukana. Erdialdean berriz, *omenek* *ez* du, tradiziozko hizkeretan behintzat, halako esanahirik bere izenezko erabileran. Izenezko formaren adiera hori batetik, eta adjunktua nahiz espezifikatzaile gisa erabilia izateko gaitasuna bestetik, bat datoz geografikoki, datuen azaleko miaketa batek adierazten duenez. Lan honen arabera, bat etortze hori *ez* da kasualitatea. Begibistakoa dena: *omenek* euskararen tradizio gramatikalean izan duen arreta eta lan eskasa kontuan harturik, hemen aurkezten diren datu eta ondorioak zuhurki hartzekoak dira.

## 3. *Omenen* bariazio sintaktikoa

Sarrerako atalean ekialdeko hizkerak bereizten dituzten ezaugarri batzuk eman ditut, *omenen* distribuzioari dagozkionak. Ondoko ataletan ekialdeko *omenen* izaera sintaktikoa modu xeheagoan aztertzen da.

### 3.1. *Omen* eta adizki jokatuak

Erdialdeko hizkeretan, *omen* adizki jokatuarekin bat eginik agertzen zaigu. Ez da nahitaez horrela ekialdeko hizkeretan:<sup>6</sup>

- (14) a. Aldiz Euskal Herrian ere gazte batek OMEN gauza bera eginik, amanda eta presondegia ukan zituen (*Herria*, P.L/A.H. “Herrietako kronikak: Baxenabarre”, 2001-03-08, 5. orr)

<sup>6</sup> Horrek *ez* du esan nahi erdialdean *omen* adizki jokaturik gabe ezin ager daitekeenik. Ondokoak *Ereduzko Prosatik* ateratako etsenpluak dira:

- (i) Otsen izkera ezdarri zakarren mintzo erlatza baino garaia goa *omen*, aingeruen izkera, alegia (Ibinagabeitia, 0031)
- (ii) Bere bertsoak rimadun prosa uts *omen*, *ez* *giar*, *ez* *gazi-gezik*, *ez* *bizi* txinpartik (Etxaide, 0149)
- (iii) Donibanez bildu lorak tisanan artu ezker, ezin obeak *omen* zenbait eritasun sendatzeko (JMB, 0024)

Bada ordea diferentzia nabarmen bat kasu hauen eta ekialdeko hizkeretakoan artean. Aurrekoak bati isildutako laguntzaile baten lagun direla ematen du. 3.1. atalean ematen ditugun ekialdeko adibideek berriz *ez* dute horrelako analisirik ahalbidetzen. Ez dugu erduzko prosaren korpusean behintzat, gipuzkerazko alerik aurkitu laguntzailearen isiltze baten bitartez ezin esplikatu daitekeenik. Antzeko ondorioa ateratzen du Zubeldiak (2008).

- b. Denbora batez, balearen mihia, hura izanki OMEN haragi hoberena, Baionako apezpikuari oparitzen zen ardurenik... (*Herria*, sinadurarik gabe, 2003-06-19, 8. orr.)
- c. Duela bizpahiru hilabete, Hazparneko ostaler batzuk aurtengo Hazparneko bestak aste batez gibelarazirik OMEN, ez dituzte beraz auzo hortan usaian bezala Jondoni Joanez antolatzen Hazparneko pestak, bainan bai Jondone Petriz, Aiherrako bestekin betan! (*Herria*)
- d. Handik zonbeit egunen buruan, bera mintzatu da telebixtan, garbitasun bat eman beharrez OMEN, bainan ainitzek ez dute garbitasun handirik kausitu haren solasetan. (*Herria*, “Egun eta bihar”, 2004-07-01, 1. orr.)
- e. Ehortzetara joan zen emaztearen ixilik OMEN, eta gaineko galerian bakarrik zagola, nigar hipaka entzuten zuten beherekoek (J. L. Davant 1991-1999, *XX. mendeko Euskararen Corpusa*)

*Omenen* izaera sintaktikoa zein nahi dela, argi da ez dela forma jokatuaren eremuaren parte, erdialdeko hizkeretan ez bezala.

### 3.2. Aditzaren klitikotasuna

Ezaguna den bezala, adizki jokatua klitiko multzo bat bezala portatzen da euskaraz; ikus Ortiz de Urbina (1994), besteak beste:

- (15) a. \*Dator                      b. Badator                      c. Ez dator                      d. Norbait dator

*Omen* partikula, erdialdeko hizkeretan, ez da gai adizki jokatuaren klitiko izaera asetzeko.<sup>7</sup> Konpara hartara (16a) eta (16b-d):

- (16) a. \*Omen du zakur bat                      c. Ba omen du zakur bat  
       b. Ez omen du zakurrik                      d. Zakur bat omen du

(16)ko datuek adierazten dute erdialdeko *omen* forma jokatuaren parte dela, eta horrenbestez, buru bat. Ekialdeko hizkera zenbaitetan, aldiz, *omenek* adizki jokatuaren klitikotasuna ase dezake, erdialdekoetan ez bezala:

- (17) a. Behin gizon batek OMEN zuen bele bat ttipitik etxean hazia  
       b. OMEN da paper, eta bertzerik (*Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, III, *Kazetaritza* (A), 1903-1915, 262. orr.)

Honek *omen* beregaineko elementua izatea eskatzen du. Egitate horren adierarik sinpleenean, *omen* bera izaera konplexuko elementua da. Honetaz, ikus beranduago 4.3. atala.

### 3.3. Beste ebidentzialitate estrategiekiko bateragarritasuna

Beha diezaiegun ondoko perpausai:

---

<sup>7</sup> Honek argi uzten du, bestalde, jokoan diren baldintzak ez direla fonologikoak huts-hutsik. *Omen*, adizki jokatua osatzen duten forma lotuak ez bezala, elementu bisilabiko bat da, printzipioz azentugabeko hitz morfologiko bat sostengatzeko gauza. Ikus hartara Elordieta (1997, 2007).

- (18) a. Medikuek diotenez, golpean zendu OMEN ditaike Mayi (*Herria*, sinadurarik gabe, “Herrietako kronikak: Baxenabarre”, 2004-12-30, 5. orr.)  
 b. Hango pasaiantetarik badira 301 salbatuak edo bederen aurkituak, baina erran dutenaren arabera, ba OMEN litazke 200 bat bederen desagertuak (*Herria*, sinadurarik gabe, “Herriak eta Gizonak”, 2004-02-05, 2. orr.)  
 c. Xerto baten laguntza beharrezkoa ez OMEN litake ezin aurkitua luze gabe (*Herria*, sinadurarik gabe, “Herriak eta Gizonak”, 2004-02-05, 2. orr.)  
 d. Gaineratekoek ez dute oraino aterabiderik kausitu, ezinbertzean lantegia he-  
 tsiko OMEN lukete (*Herria*, sinadurarik gabe, 2004-04-22, 3. orr.)

Perpauk hauek guztietan, *omen* partikula alegiazko forma baten aitzinetik ager-  
 tzen da, hura lagunduaz. Alegiazko forma hauek beste norbaiten esana adierazten  
 dute. Forma hauen jatorria frantseseko baldintza forma epistemikoak dira:

- (19) Le premier ministre serait souffrant

(19) bezalako formek —ikus Ducrot (1984), Dendale eta Collier (2003), Squar-  
 tini (2004)— bi ikuspuntu bateratzen dituzte: bata hiztunarena, ‘lehen ministroa eri  
 da’ liokeena, eta beste bat hiztunaz kanpoko norbaiten esanari dagokiona, eta baldin-  
 tzazko forma hauei esanahi ebidentziala ematen diena. Espainolez honelako formak  
 genituzke:

- (20) Según un rumor, el monarca habría sufrido un infarto

(20)n, perpauk hasierako adjunktua (esan orokor bat jasotzen duena) da baldin-  
 tzazko formaren esanahi ebidentziala finkatzen duena. Honelako baldintzazko for-  
 mak ohikoak dira beste hizkuntza erromantzeetan —italiera kasu, ikus Squartini  
 (2004)—, eta moduzko laguntzaile berezien bitartez adierazten dira beste batzuetan  
 (alemanierazko *sollen*, Schenner 2008). Kontua da, korpuseko zenbait kasu adieraz-  
 ten dutenaren arabera, *omen* ez dela nahitaezkoa horrelako egituretan. Ebidentzialta-  
 suna alegiazko forma huts baten bitartez ematen ahal da zuzenean:

- (21) Ez da oraino jakina nork erosiko duen (Donapaleuko herria erosletarik LITAIKE)  
 [internetetik, *Herria*]

(21) bezalako etsenpluek adierazten digute oinarrizko ebidentzial balioa ema-  
 ten diguna alegiazko forma dela, jokaturiko aditzaren modu berezi bat. *Omen* ber-  
 tan ager daiteke, esan-entzunezko interpretazioa berresteko, baina ez da nahitaezkoa.  
 Nola adieraz dezakegu formalki horrelako distribuzio bat? Batetik, *omenen* hautazko-  
 tasunak adjunktuen gogora ekartzen du. Aldi berean, oinarrizko ebidentzialtasun in-  
 terpretazioa ezartzen duen perpauk atala adizki jokatuaren modu tasunak dira, flexio  
 buruan biltzen direnak. Bestetik, flexio burua eta haren aurretik agertzen den *omen*  
 partikula ezin bereziak dira, adjunktuekin ohi denaz bestera. Momentuz izan daitez-  
 keen aukeren artean erabaki gabe, emango dugu ebidentzial balioa zuzenean jasotzen  
 duen alegiazko formaren eta *omenen* arteko harremana buru-espezifikatzaile edo bu-  
 ru-adjunktua erlazio baten gisa irudika daitekeela:

- (22) ...<sub>[ModS]</sub> Omen <sub>[ModS]</sub> M ]

### 3.4. *Omen* menpeko perpaus baten bide-emaile

Ekialdeko zenbait hizkeren ezaugarri nabarmenen artean dago *omen* menpeko perpausen bide-emaile gisa agertzea:

- (23) a. OMEN, Lurreko Paradisuko kasko gorenean DELA lau ibaiei sortzea ematen dien iturri miragarria... (Arkotxa, *Septentrio*, 81. orr.)  
 b. OMEN gizon zuhur horrek ZUELA gero gobernuaren mandua hartu... (ibidem 85. orr.)  
 c. Jazdanik, OMEN aurpegiz eta gorputzez aldatu DELA (*Herria*, sinadurarik gabe, 2001-03-01, 7. orr.)

*Omen* ez denez menpeko perpausa aukeratzen duen aditz bat, beste modu batean ulertu beharrean gara bien arteko lotura. Moduzko adizki epistemikoekin *omenek* betetzen duen eginkizuna, (22)n adierazia den bezala, lagun diezaguke hemen ere. *-eladun* perpausak hizketa ekintza bat aipatzeko balia daitezke diren direnean, sintaxi mailako menpekotasunik gabe. Horren erakusgarri da esate baterako, ondoko kasua (Sallaberry 1978: 67):

- (24) Goiz batez mahastiko landan ginen lanean. Hil-zeinuak hasten dira ortzia bezala burrunban. Eta ari, eta ari. Landa batetik bertzerat oihuka hasi ziren gizonak: —*Norbait hil dea?* —*Ez dugu aditu. Gerla ditake.* Eta tenore baten buruan: —*Gerla DELA. Irisarriko jendarmak hor DIRELA, berriaren jakinarazteko etorriak.*

(24)n, *-eladun* perpausa ez da ageriko aditz baten osagarria, baizik eta aurreko esan bat berritzen duen perpausa. Konplementatzaileak bertan zeharkako diskurtsua markatzen du. *-eladun* perpausak beste norbaiten esana berez jaso dezakeenez, *omen* eta *-eladun* perpausen arteko lotura aurreko alegiazko kasuetan bezala formula daiteke: *omenek* bat egiten du berez beste norbaiten esana jasotzeko gai den egitura batekin, hura zehaztuz:

- (25) a. Omen etorri dela                      b. [<sub>KompS</sub> Omen [<sub>KompS</sub>[...]<sub>IP</sub>] Komp<sup>0</sup>]

Zertan ote da delako zehazte hori? (24)ko testua hartzen badugu, eta *omen* ebidentzial batez laguntzen, *omenen* presentziak *-eladun* perpausak berez ekartzen ez duen esanahi bat eransten dio: esana zehaztugabea dela, 'esaten da' baten pareko. Molda dezagun antzeko testu bat honela:

- (26) a. Irisarriko jendarma jin da. Gerla dela.  
 b. Irisarriko jendarma jin da. Omen gerla dela.

(26a)k ez bezala, (26b)k adierazten du gerla delako berria ez duela nahitaez Irisarriko jendarmak bere gain hartzen. Aipaturiko esana hor barna jasoa da, ez du egile zehatzik.

### 3.5. *Omen* adizki jokatuaren ondotik

Ekialdeko *omen* perpausaren leku batean baino gehiagotan ager daitekeen elementu bat dela ikusi dugu. Adizki jokatua present denean, posizio sintaktiko horiek *omen* adizki jokatuaren aitzinean paratzen dute. *Omenen* ezaugarri honek azterbide erraza du *omen* ebidentzial mailako buru funtzional bat ez baizik eta adjunktu edo espezifikatzaile



gisa funtzionatzen duen bestelako kategoria bat bada. Ekialdeko hizkera beretan, *omen* adizki jokatuaren ondotik ere ager daiteke. Ikus esate baterako ondoko kasuak:

- (27) a. Langonen zen OMEN bizi Hipokrataren alaba bakararra... (Arkotxa, *Septentrio*, 59. orr.)  
 b. Eta denak loriatuak zauden OMEN leku goxo hartaz (Aintziburu/Etxarren, 2002, 191. orr.)  
 c. Eüskaldüna zen lehenago OMEN populü ez ikasia (*Herria*, Beñat Etchebest/Pierra Laco, Xubero, 2001-06-14, 5. orr.)

Ez dago garbi, hitz hurrenkera horiei begiratuaz, nola aztertu behar ditugun kasu hauek. Aurreko datuen luzapen gisa ikusten baditugu, *omen* adizki jokatuaren aitzinetik batzen zaio perpaus egiturari, baina bestelako fenomeno batek hura atzean agertzea dakar. Fenomeno hori ekialdeko hizkeretan aukeran gertatzen den laguntzailearen aurreratzea izan liteke. Jakina denez, ekialdeko hizkeretan galdegaik laguntzailearen aurreratzea galda dezake, (28)n ikusten dugun bezala: Etxepare eta Ortiz de Urbina (2003) foko konfigurazioen gainbegiratu baterako. Fenomeno honen analisi zabalduak galdegaia espezifikatzaile posizio batean eta laguntzailea haren buruan dagoela defendatzen du: burua Konp delarik, Ortiz de Urbinak (1989, 1995) nahi bezala, edo galdegai gunerezi bat, Duguine eta Irurtzunek (2008) proposatu bezala:

- (28) a. Jonek du egin                                  b. ...<sub>[FokS]</sub> Jonek du+F<sup>0</sup> [<sub>IP</sub> ...egin (du)]

Honen arabera, *omen* ebidentziala, aurreko datuek adierazten duten bidetik, adizki jokatuaren aurretik batuko litzaioke perpaus egiturari. Ondotik, laguntzailearen aurreratzea eragiten duen galdegai estrategiak hura atzean gelditzea ekarriko luke. Momentuz adizki jokatuaren aurreko posizio hori zein izan daitekeen albora utziz,<sup>8</sup> mugimenduaren ondoko perpaus egitura (29b)koa izango litzateke:

- (29) a. Langonen da omen bizi  
 b. [<sub>FokS</sub> Langonen da+F [<sub>XP</sub> omen... [<sub>IP</sub> ...(Langonen) bizi (da)]]

Ebidentziala inflexio sintagmaren islapen hedatuan badago eta laguntzailea perpaus ertzeko galdegai buru batera mugitzen bada, ebidentzialaren izaera sintaktikoaz zuzenki galdetzeko modua izan genezake: hura buru bat bada, laguntzailearen aurreratzea tratu behar luke Buru Mugimenduaren Gaineko Hertsidura-ren arabera (ikus Artiagoitia 2000 kontzeptuaren gaineko argitasunentzat); adjunktua edo espezifikatzaile bat bada, berriz, ez du zertan. Ezinezko konfigurazioa (30b)k ematen du. Bertan, *omen* buruak laguntzailearen mugimendua tratatzen du.

- (30) ...<sub>[FokS]</sub> XP<sub>[FokS]</sub> Lag+F<sup>0</sup> [<sub>XP</sub> omen [<sub>IP</sub> ...(XP)...(Lag)...]]

Perpaua gramatikala denez aipaturiko ekialdeko hizkeretan, *omen* partikulak ezin du, Buru-Mugimenduaren ikuspegi tradizionaletik begiratu behintzat, buru sintaktiko bat izan. Kategoria konplexua izan behar du nahitaez.<sup>9</sup>

<sup>8</sup> Posizio hori enpirikoki ondo bermatua da ekialdeko hizkeretan, 3.2 atalak erakusten duen moduan.

<sup>9</sup> Ez dago batere garbi buru-mugimendua, X-barraren teorian formulatua den gisan, posible denik Sintagma Egituraren Teoria Sinplearen barnean: ikus Vicente (2007) oraintsuko eztabaida baterako.

Ohar gaitezen hala ere, (29a)ko hitz hurrenkerak bestelako deribazio sintaktiko bat ere onartzen duela: hartan, ezkerreturiko elementua *da+omen* buru konplexua da, laguntzailea *omeni* adjunktatu eta gero sortua. Honek ordea ez luke esplikatu (11b) bezalako perpaus bat, (31) zenbakiaz emana, zeinetan laguntzailea eta ebidentziala denborazko aditzlagun batez bereizita agertzen diren:

(31) Eüskaldüna zen lehenago OMEN populü ez ikasia

*Omen* adizki jokatuaren ondotik agertzen den kasuak buru-mugimenduaren bidez esplika badaitezke ere, badira bestelako datuak azterbide hori zalantzan jartzen dutenak. Ekialdeko zenbait hiztunentzat, *omenek* aditz lexikoaren ondoko posizio bat har dezake baitaere, eta posizio hori ez da aise aztertzen ahal *omen* inflexio sintagmaren islapen hedatuan delarik (32a-b).

- (32) a. Ta oixtian erten nitianak “Lana ta hiria gure ganat eta ez gu heien ganat” etxu batree Enbatak pentsatia, bana Joanes XXIII garrenak hori bezalako hitzak erran eta manatu txi OMEN  
 b. Smith deitzen den mediku batek hitzaldia entzun du OMEN biltzar tribalean (astobelarra.over-blog.com/categorie-10423579.html)

*Omen*, kasu honetan, etenik gabe ematen da, ez parentetiko gisa. 4.2. atalean ikusiko dugunez, badira arrazoiak pentsatzeko (29a) eta (32) perpausetan agertzen den *omen* partikulak leku bera hartzen duela bietan. Hala bada, behartuta gaude ondorioztatzeraz badela, ekialdeko hizkera hauetan, *omen* aditzaren ondotik batzea posible egiten duen posizio sintaktiko bat. Ikus honetarako 4. atala.

### 3.6. *Omen* parentetikoa

*Omen* ebidentzialaren adjunktua izaera erakutsian gelditzen da parentetiko gisa duen erabileran:

- (33) a. Erdi aroan, omen, Nafarroa osoa hona etortzen zen debozioz (Aintziart, *Santiago Oinez*, Elkar, 2000. 44. orr)  
 b. Organo barrokoa ikustekoa da, omen (ibidem, 61. orr)

*xx. mendeko Euskararen Corpusak* ez du antzeko etsenplu bakar bat ematen gipuzkerarako. Bai ordea lapurtera-nafarrerako:

- (34) Ni naiz Donapaleukoa, omen, eta aski dut ez joatea ez badut nahi (1991-1999 saila, A. Luku).

### 3.7. Laburbilduaz

Erdialdeko hizkeretako *omenekin* konparatzen badugu, ekialdekoak (edo ekialdeko zenbait hizkeretakoak) baditu berezia egiten duten ezaugarri batzuk: (i) ez zaio nahitaez adizki jokatuari lotzen; (ii) perpaus barneko hainbat posiziotan ager daiteke; (iii) aditzaren klitikotasuna ase dezake; (iv) bateragarri da bestelako ebidentzialitate estrategiekin; eta (v) parentetiko gisa agertzen da. Ezaugarri hauek, elkarrekin jartzen baditugu, ekialdeko *omen* espezifikatzaile baten edo adjunktua baten gisa portatzen dela erakusten digute. Honen ondoan, erdialdeko *omenek* kontrako ezauga-



finkoa dena. Ekialdeko hizkeretan ez bezala, gainera, *omen* ezin ager daiteke izaera epistemikoa duten modu adizkiekin batera, bien arteko osagarritasuna adieraziz (ikus 5. atala). Erdialdeko egitura horientzat, buru-mailako hipotesiak arrazoizkoa ematen du:

(40) [<sub>OmenS</sub> Omen [<sub>InfS</sub>...]]

## 4.2. *Omenen* batze posizioak

### 4.2.1. *Omen eta polaritatea*

*Omenen* baitako bariazioak hiru eratako konfigurazioak erakusten dituela proposatu dugu aurreko atalean. Ez dugu ordea esan bariazio horren eskutik heldu zaizkigun formak non kokatzen diren perpaus egituran, eta zergatik hor eta ez beste nonbait. *Omenek* har ditzakeen posizioen azpi-multzo batek kokapen aski garbia dauka, harekin lotuak agertzen diren buru funtzionalen espezifikatzaile gisa. Sail horretan sartzen dira modu adizkiekin eta Konplementatzaile Sintagmarekin batera agertzen diren kasuak. Horretaz aparte, ekialdeko hizkeretan *omen* beste lau tokitan ager daiteke (erabilera parentetikoak alde batera utzita), hain azterbide garbia ez dutenak: aditz lexikoaren aurretik (41a), laguntzailearen aurretik (41b), laguntzailearen eta aditz lexikoaren artean (41c), eta aditz lexikoaren ondotik (41d):

- (41) a. Protestanten komentu batean omen eskolarazi zuen  
 b. Behin gizon batek omen zuen bele bat ttipitik etxean hazia  
 c. Langonen zen omen bizi Hipokrataren alaba bakarra  
 d. Joanes XXIII garrenak hori bezalako hitzak erran eta manatu txi omen

Erabilera hauek, esan bezala, ez dira parentetikoak: *omenek* ez du kasu hauetan talde intonazional propioa osatzen. Honenbestez iduri luke *omenen* distribuzioak ez duela hertsidura garbirik, eta perpaus egituraren ebakiune desberdinetan barrea daitetekeela, bestelako baldintzarik gabe. *Omenen* kokapen librea haatik, baiezko perpausen propietatea da. *Omen* honela erabiltzen duten hizkeretan, leku bakarra dauka ezezko perpausetan:<sup>11</sup>

- (42) a. Ez omen zuen dendan erosi                      c. \*Dendan ez zuen erosi omen  
 b. \*Dendan ez zuen omen erosi                      d. \*Ez zuen dendan erosi omen

*Omenen* kokapena holakoetan polaritatearen adierazpenarekin lotua agertzen zaigu beraz. Nola esplikatzen ahal dugu lotura hori?

### 4.2.2. *Ezeztapenaren lekua*

Ezeztapenaren sintaxiak euskaraz ezaugarri bereziak agertzen ditu. Ustez euskararen hitz hurrenkera neutroak agintzen duenaz bestera, ezezko perpausak laguntzailea ezker aldean agertzen dute:


- (43) a. Etorri da                      b. Ez da etorri

<sup>11</sup> Eskerrak eman nahi dizkiet Celine Mounole eta Xarles Videgaini datu honengatik. Ikus hala ere 1. oin-oharra.

Lakaren analisi ezagunean, laguntzailea perpausaren eskuinaldeko bere lekutik mugitzen da ezker aldean dagoen ezezko buruari adjunktatzeko. Forma Logikoak ezartzen duen baldintza bat da mugimendua behartzen duena (1990):

- (44) Forma Logikoan, Denborazko operadoreak perpausaren bestelako operadoreak o-komandatu behar ditu

(44)ko baldintzak [denbora]-tasuna duen laguntzailea (*da*, behean) ezeztapen burura mugitzera behartzen du:



Lakak zenbait argudio ematen ditu ezeztapenak laguntzailearen gaineko posizio bat daukala erakusteko. Garbientako bat elipsiari dagokio:

- (46) [<sub>DenbS</sub> Xabier etorri da], baina Mikel [<sub>EzeztS</sub> ez [<sub>DenbS</sub> pro-etorri da]

(46) perpausaren, Denbora Sintagma osoa da desagertzen dena elipsiaren bidez, aurreko Denbora Sintagmarekiko parekotasunez. Ezeztapena ez dagoenez ezabatzen den zatian, handik kanpora egon behar du. Datua garbia da oso, baina datu horrek berak arazo bat ekartzen dio (46)ri: zergatik, laguntzailea ezeztapen burura mugi badaiteke, ez den posible (47) bezalako zerbait:

- (47) \*Xabier etorri da, baina Mikel ez da


Kasu honetan, elipsia laguntzailearen mugimendua gertatu ondoren egiten dugu:

- (48) Mikel [<sub>EzeztS</sub> ez+da [<sub>LagS</sub> pro-(da)-etorri]]

Ez dago deus ere (47) galaraz dezakeenik, baina (47) ez da posible. Haddicanek (2001, 2004, 2008) bestelako arazoak ikusi dizkio hipotesiari, hain zuzen ere *omenen* propietate zenbaitekin lotuak direnak. *Omen* partikula ezezko elementuaren eta laguntzailearen artean kokatzen da ezezko perpausetan:

- (49) Ez omen da etorri

Nola analizatu behar genuke hurrenkera hori euskararen perpaus egitura tradizional batetik abiatuta? Hipotesi ez-antisimetrikoaren barnean dagoen Elordietaren analisiak (2001) honela eratoritzen ditu baiezeko kasuak:



Elordietak proiektzio sintaktikoek osagarri-buru ordena dutela argudiatzen du. Honenbestez, partikula modalak eta ebidentzialak proiektzio buru-azken batean baten dira, Aditz Sintagmaren eta Laguntzaile Sintagmaren artean. Partikula horiek buru-adjunkzioaren bitartez lotzen zaizkio laguntzaileari. Ezezko perpausek adizki jokatua mugimendua galdatzen dutenez, adizki jokatua mugidak hari adjunkta-turiko partikulak garraiatzen ditu, ezezko perpausetako ordena emanaz:

(51) Ez omen da etorri

Kontua da, analisi honek hitzordena esplikatzeko badu ere, ez dituela *omen* eta ezeztapenaren arteko besarkadura erlazioak aintzat hartzen. *Omenek*, goiko egiturek adierazi ez bezala, ezeztapenaren gaineko besarkadura hartzen du. Besarkadura erlazioak xuxen esplikatu nahi baditugu, iduri luke *omenek* ezeztapenaren gainetik batua izan beharko lukeela:

(52)  $[_{EBS} \text{ omen } [_{PoIS} \text{ ez } [_{LagS} \text{ lag}$

Honek aldiz, nahi ez bezalako hitz hurrenkera ematen digu:

(53) \*Omen ez da etorri

Haddicanek, honen aurrean, bestelako analisia proposatzen du. Hartan, laguntzailearen azpiko posizioa ezkerrean da (antisimetriaren hipotesiak nahiko lukeen bezala), ez eskuinean, eta ezeztapena perpaus egituran beherago baten da, Aditz Sintagmaren ertzean kokatzen den ezezko proiektzio batean. Ezezko burua bertan baten da, baina laguntzailearen gaineko Polaritate proiektzio batera mugitzen da.<sup>12</sup> Guk Haddicanen (2004, 2008) proposamena aintzat hartzen dugu. Haddicanek *Polaritate Burua* deitzen duenak, ezezko burua hartzen du ezezko perpausetan, eta baiezko partikula isil batek gobernatutako Aditz Sintagma baiezkoetan. Proiektzio hori *omen* hartzen duen Sintagma Ebidentzial baten gainetik dago:

(54) a.  $[_{PoIS} \text{ ez Pol}^0 [_{EBS} \text{ omen } [_{LagS} \text{ da } [_{EzezS} \text{ ez Ezez}^0 [_{AS} \dots \text{ etorri}]]]]]$   
 b.  $[_{PoIS} [_{BaiezkoS} \emptyset [_{AS} \dots \text{ etorri}]]] \text{ Pol}^0 [_{EBS} \text{ omen } [_{LagS} \text{ da } [_{BaiezkoS} \emptyset \text{ Baiez}^0 [_{AS} \dots \text{ etorri}]]]]]$

Ezezko burua berreraiki egiten da Forma Logikoan, eta hortik *omenek* haren gaineko besarkadura izatea.<sup>13</sup> Deribazio horrek esplikatzeko du, halaber, zergatik ondoko elipsi kasuak ezinezkoak diren:

(55) \*Xabier etorri da, baina Mikel ez da

<sup>12</sup> Goiko eta beheko ezezko proiektzioen arteko joko hori hainbat hizkuntzak agertzen duten ezezkoetasun erdibituarekin lotu behar da (ikus Zanuttini 1997).

<sup>13</sup> Baitezpadako berreraiketa honek badu antza frantsesez (i) bezalako kasuetan gertatzen denarekin (Kayne 1975, Pollock 1989, Cinque 1999):

(i) Il (ne) faut pas que tu parles

(i) 'behar duzu ez hitz egin' interpretazioarekin uler daiteke, hau da ezeztapena beheko perpausari lotuta. Era honetako berreraiketak ez dira ezeztapenarekin bakarrik gertatzen (Cinque 1999-n aipatua: 17). Ondokoetan ere berreraiketa baitezpadakoa da:

(ii) a. Vous avez mal dû raccrocher  
 b. Il a bien dû se comporter

Laguntzailea ezabatzen den Inflexio Sintagmaren barnean dago, ez da ezeztapen burura igotzen. Ezeztapena bere aldetik, Polaritate proiektziora mugitua da:<sup>14</sup>

- (56) a. ...baina Mikel ez [<sub>InfS</sub>—]  
 b. [ Mikel Top<sup>0</sup> [<sub>PolS</sub> ez Pol<sup>0</sup> [<sub>LagS</sub> da [<sub>EzezS</sub> ez Ezez<sup>0</sup> [<sub>AS</sub>... etorri]]]]]

Gatozen orain ekialdeko hizkeretan aurkitzen dugun bariaziora. *Omen* laguntzailearen eta aditzaren ondotik ager daiteke, baina bakarrrik perpausa baiezkoa duen. Ezezkoetan, toki bakarra du: erdialdeko hizkeretan hartzen duenaren antzekoa, ezezko buruaren eta laguntzaile jokatuaren artekoa. Ezezkoekin gertatzen den hori *ba-* aurrizkiarekin ere gertatzen da:<sup>15</sup>

- (57) a. Ba omen dira ikasle ainitz bertan      b. Badira (\*omen) ikasle ainitz (\*omen)

Honelako kasuak, Cinqueren arabera (1999), A-barra kateek sortutakoak dira. Hala bada, (i)eko berreiraketa kasua ere ezeztapenaren A-barra mugimenduaren ondorio da. Euskarazko *ez* ezeztapenaren igoera era horretako mugimendua ere izango litzateke.

Besarkadura erlaziook beste modu batean uler dakitezke baitaere. Haddicanen argudioak besarkadura erlazio horiek sintaxi egiturak ezarritakoak izatea galdatzen du. Argudioak *ez* du indarrrik partikula ebidentzialak ezezkoaren gaineko besarkadura bestelako arrazoiengatik hartzen badu. Potts-ek (2005) era horretako fenomenoak semantikoki analizatzen ditu, inplikatura konbentzionalen inguruko bere lan eraginkorren. Pottsen arabera, perpausoko zenbait elementuk balukete, propietate lexiko gisa batzuetan, batuak diren konfigurazioaren ondorioz bestetan, hizketa ekintzaren parametroen baitan zuzenean ulertuak izateko aukera. Beste hitzetan esanda, indexikal gisa ulertuak izatekoa. Euskararen antzeko datuak erakusten ditu kitxuerak ere (Faller 2002):

- (i) Ines-qa mana-s qaynunchaw ñaña-n-ta-chu watuku-rqa-n  
 Ines-Top ez-ebid atzo arreba-3-Ak-CHU bisitatu-Irag-3

‘Inesek ez zuen bere arreba bisitatu atzo (eta hiztunak entzunezko ebidentzia dauka hau esateko)’

(i) perpausuan, ezezko buruak itxuraz esan-entzunezko ebidentzialaren gaineko besarkadura du, baina hala ere, ebidentziala ezeztapenaren gainetik interpretatzen da. Fenomeno hori orokorra bada (ezeztapenaren peko ebidentziala beti ezeztapenaren gainetik interpretatzen bada), ezeztapenaren baitez padako berreiraketa eskatzen duen analisiak *ad hoc* xamarra ematen du.

<sup>14</sup> Iduri luke deribazio honek huts egiten duela baiezkoekin. Haddicanek proposatzen duena egia bada, printzipioz honelako zerbait posible izan beharko luke:

- (i) \*Jon etorri da, eta Mikel ere etorri

(i)eko perpausuan, Baiezko Sintagma Polaritate islapenaren espezifikatzailean dago, eta Inflexio Sintagma, berriz, ezabatuta. Horrelako elipsi kasuak Haddicanen proposamenaren kontra doaz, eta ondorioz baita honakoaren kontra ere. Bada, ordea, ezaugarri bat Inflexio Sintagmaren elipsi kasuak agertzen dutena baiezkoetan, eta hori *bai* partikularen presentzia da. Elipsiak beraz, gauzaturiko buru fonologiko bat eskatzen du Baiezko Sintagman. Buru hori *ez* partikula bera bezala portatzen bada (hots, bera bakarrrik mugitzen bada Polaritate Sintagmara), (i)en ezina zuzenean segitzen da. Garbi ez badago ere zergatik *bai* bezalako zerbait beharrezkoa den horrelako kasuetan, litekeena da *ereren* izaera klitikoarekin lotua egotea. Ni bezalako hiztunentzat, (i) bezalako perpausetako *ere* proklitiko da, hau da, eskuinean egongo den osagai baten sostengua behar du. Eten intonazionala zutabe batez adieraziez gero, honela irudikatu genuke: *Mikell ere bai*. Honen arabera, *ereren* presentziak gauzaturiko buru bat eskatuko luke haren eskuinean, eta honek, Inflexio Sintagma osoa desagertzen delarik elipsiaren ondorioz, *bair*en presentzia behartuko luke. Konponbide honek ondoko predikzioa egiten du: *ere* tartean ez bada, (i)en moduko elipsi kasuak aurkitzea posible behar luke. Nire ustez, (ii)k horrelako kasu bat erakusten du:

- (ii) a. Ni joan naiz, eta zu etorri  
 b. Ni joan naiz, eta [<sub>TopS</sub> zu Top<sup>0</sup> [<sub>PolS</sub> [<sub>BaiezkoS</sub> ...etorri] Pol<sup>0</sup> [<sub>LagS</sub> zara...]]]

<sup>15</sup> Perpaus existentzialetako *ba-* aurrizkia ezezko buruarekin distribuzio osagarrian dago:

- (i) a. Badira                      b. Ezdira                      c. \*Ezbadira

Paradigma hori ulertzeko modu bat da ezezko eta baiezko markatzaileak eta laguntzailearen ondotik agertzen den *omen* partikulak posizio bera hartzen dutela perpaus egituran, eta ondorioz, bata eta bestea ezin direla elkarrekin agertu. *Omenek*, honenbestez, ezezko buruaren (eta baiezko aurrizkiaren) lekua beteko luke:

- (58) a. ...<sub>[LagS]</sub> Lag <sub>[PolS]</sub> Omen Pol<sup>0</sup> <sub>[AS... A]]] b. Jones du omen erosi</sub>

Adizki jokatuaren azpian agertzen den posizio horrek aukera ematen digu *omen* adizki jokaturik gabe agertzen den perpausak analizatzeko. (59)k egitura horien erre-presentazio sinplifikatu bat ematen du (hainbat xehetasun albora utziz):

- (59) a. Gazte batek omen gauza bera eginik  
b. <sub>[PartitiboS]</sub> Gazte batek <sub>[PolS]</sub> omen Pol<sup>0</sup> <sub>[AS (gazte batek) gauza bera egin]] -ik]...</sub>

Hipotesi horretatik abiatuz, ikus dezagun nola erator daitezkeen ekialdean *omeni* lotuak diren ondoko hitz hurrenkerak:

- (60) a. Protestanten komentu batean omen eskolarazi zuen  
b. Behin gizon batek omen zuen bele bat ttipitik etxean hazia  
c. Langonen zen omen bizi Hipokrataren alaba bakarra  
d. Joanes XXIII garrenak hori bezalako hitzak erran eta manatu txi omen

(60a) zuzenean esplikatzen da Haddicanek proposatzen duen Baiezko Sintagma mugidaren bidetik. Gogora *omen* sintagma horren espezifikatzailea dela:

- (61) ...<sub>[PolS]</sub> <sub>[PolS]</sub> omen Pol<sup>0</sup> <sub>[AS eskolarazi]]<sub>i</sub> Pol<sup>0</sup> [ zuen t<sub>i</sub> ]]</sub>

Hirugarren kasuan *omen* Polaritate Sintagmaren espezifikatzailean dago berririo (*in situ* beraz), eta laguntzailea aurrerratu egin da gorago dagoen foko posizioa:

- (62) <sub>[FokS]</sub> Langonen F+zen <sub>[InfS]</sub> (zen) <sub>[PolS]</sub> omen Pol <sub>[PartS]</sub> bizi Ø <sub>[AS ...Hipokrataren alaba bakarra...(Langonen) (bizi)]</sub>

(62)k badu, aurreko egiturarekin alderatuta, berrikuntza bat: aditza Aditz Sintagmatik Aspektu proiektzio batera mugitu dugu. Horren aldeko argudioentzat, ikus Laka (1990), eta Haddican (2001, 2004, 2008). Horrek esplikatzen du subjektua aditzaren ondotik agertzea. Subjektu hau *in situ* legoke.<sup>16</sup>

Azken kasuak *omen in situ* dauka, Baiezko Sintagmaren espezifikatzaile gisa, eta AS bera da Polaritate Sintagmara igotzen dena.

- (63) <sub>[PolS]</sub> <sub>[AS manatu]</sub> Pol<sup>0</sup> <sub>[InfS]</sub> txi <sub>[PolS]</sub> omen Pol<sup>0</sup> (manatu)]]

Bi hurrenkera ditugu oraino aztertzeko: bata, (64)n errepikatua, zeinetan *omen* perpausoko lehen elementua den eta laguntzailearen klitikotasuna asetzen duen; bigarrena, orokorragoa, eta *omen* erabiltzen duten hizkera guztiak partekatzen dutena, zeinetan *omen* laguntzailearen eta aditzaren edo ezeztapenaren artean aurkitzen den (65):

- (64) Omen da paper

<sup>16</sup> Ez gara honetan luzatuko. Uriagerekak (1999) argudiatzen du perpaus egituran komunztadura islapenetara mugituriko DS-ek fokoaren mugimendua tratatzen dutela. Horrela, galdegaia Foko posizioa mugitzen denean, Fokoa ez diren argumentuek dislokaturik edo *in situ* agertu behar dute.



- (65) a. Ez omen da etorri  
b. Etorri omen da

Ekialdeko hizkeretarako, bi kasu horien analisi batu bat proposatuko dugu. Had-  
dicani segituaz, emango dugu badela hizkera hauetan buru funtzional bat ebidentzia-  
litatea markatzen duena, eta *omen* haren espezifikatzailea dela:<sup>17</sup>

- (66) a. [<sub>PolS</sub> Ez Pol<sup>0</sup> [<sub>EbS</sub> omen Eb<sup>0</sup> [<sub>InfS</sub> da etorri]]]  
b. [<sub>EbS</sub> Omen Eb<sup>0</sup> [<sub>InfS</sub> da paper]]

Azterbide honek, hargatik, badu salbuespen eite bat ekialdeko hizkerak beren  
osotasunean hartzen baditugu. Ebidentzial buru beregizko bat —Cinqueren analisia  
gogora ekartzen duena— nolabaiteko tenkan dago distribuzio aski librea erakusten  
duten *omenen* gainerako kasuekin. Kasu horietan gainera, ondo finkatuta ematen du  
*omen* perpaus egiturako beste atal batzuekin batzen dela. Ikusi ditugun *omenen* koka-  
pen posibleak honela laburbil daitezke:

- (67) a. [<sub>ModS</sub> omen [<sub>Mod'</sub> ditaike [<sub>AS...</sub>]]]      c. [<sub>InfS</sub> lag [<sub>PolS</sub> omen Pol<sup>0</sup> [<sub>AS ...</sub>]]]  
b. [<sub>KonpS</sub> omen [...]] Konp<sup>0</sup>

Zergatik bitarikotasun hori, batetik perpaus egitura gauzaturiko ebidentzial ka-  
tegoria berezi bat eta bestetik berriz perpaus libreki barreiatua iduri duen ele-  
mentu konplexua? 4.3 atalean erantzun bat eman baino lehen, komeni da ondoko  
datua eman dezagun bi estrategia horiek bereiz mantentzea aholkatzen duena: dia-  
kronikoki, *omen* perpaus hainbat ataletan agertzea aski gauza berria da ekialdeko  
hizkeretan. *Orotarikoak* ematen dituen lekukotasunen arabera —parentetiko gisa  
uler daitezkeen kasuak ez ditut aintzat hartzen—, lehen etsenpluak XIX. mendekoak  
dira. Diakroniari begiratura, beraz, badirudi badirela bi estrategia: bata, *omen* erabil-  
tzen duten hizkera guztiek erakusten dutena, eta *omen* aditz lexikoaren (edo ezezt-  
penaren) eta laguntzailearen artean kokatzen duena, eta beste bat, berriagoa, *omen*  
perpaus barreiatzea posible egiten duena, beti ere baiezko perpausetan bakarrik.  
Estrategia ebidentziala, kategoria funtzional berezi batez adierazten dena, da hizkera  
guztiek partekatzen dutena. Bestea, bereziak diren baldintza sintaktiko batzuk era-  
kusteaz aparte, ekialdeko (zenbait) hizkeratan bakarrik gertatzen dena da.

Ekialdeko hizkerak honela aztertzen baditugu, *omenen* baitako bariazioa ondoko  
(behin-behineko) formularen bitartez eman dezakegu:

- (68) a. *Omen* buru ebidentzial bat da erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan  
b. *Omen* ez da nahitaez buru bat ekialdeko hizkeretan

(68b) denez ekialdeko hizkerak bereizten dituen ezaugarria, honek lotua egon  
behar du *omenen* kokapen librearekin. Lotura hori (69)ren bitartez zehazten  
dugu:

- (69) *Omen* buru bat ez den kasuetan, bere kokapena perpaus egitura librea da, bal-  
dintza batzuen barnean

<sup>17</sup> Ekialdeko hiztun anitzek (65a-b) onartzen dituzte, baina ez halabeharrez (64). Hitztun horientzat  
proposa daiteke *omen* Sintagma Ebidentzialaren burua dela.

### 4.3. *Omen* izena eta *omen* ebidentziala

(68)ko diferentzia, parametro gisa harturik, oso bitxia gertatzen da ikuspegi minimalistatik. Espezifikatzaile, adjunktua edo buru izatea ez da lexikoaren barnean uler daitezkeen diferentzia mota bat, baizik eta baturiko egitura konplexuetarik erator daitezkeen ezaugarri erlazionalak (Chomsky 1995). Parametro gisa, beraz, (68a-b) ikuspegi minimalistan ezin integratua da. *Omenen* baitako bariazioa hala ere, beste bariazio mota batekin lot daitezkeelakoan nago. *Omen* partikulak erabateko antza dauka *omen* izenarekin. Lehenak beste norbaiten esana adierazten badu, bigarrenak norbaiten edo zerbaiten izena sarri (eta ondo) aipatua dela markatzen du. Ez dirudi beraz burugabea pentsatzea biak elkarrekin lotuta egon daitezkeela.<sup>18</sup> *Omen* partikula eta *omen* izenaren distribuzio geografikoak lotura hori bera adierazten dute, zeharka bada ere. *Orotariko Euskal Hiztegiak* ondoko zehaztasunak ematen ditu *omenen* distribuzioari buruz: (i) *omen* partikula ekialdeko eta erdialdeko hizkeretara mugatua da, mendebaldekoek *ei* erabiltzen dutelarik partikula eginkizunetan; (ii) izen gisa, askoz ere erabiliagoa da ifar ekialdeko hizkeretan mugaz bestaldekoetan baino, XIX. mendera arte eta Ubbillosen kasua alde batera utzita, *Orotariko Euskal Hiztegiak* dioenaren arabera.

Ondoko taularen bitartez eman daitezke distribuzio horren nondik-norako larrienak:<sup>19</sup>

(70)	MENDEBALDEA	ERDIALDEA	EKIALDEA
IZENA	—	% Omen	Omen
PARTIKULA	—	Omen	Omen

Taulak gutienez jeneralizazio bat egiteko balio digu: *omen* partikula ez dagoen lekuan ez dago *omen* izenik ere (mendebaldea). Datu hori bat dator partikula eta izena lotuta egon daitezkeen ustearekin.

*Orotariko Euskal Hiztegiak* hala ere hori baino argibide gehiago emateko moduan da. *Omen* izena ‘izen ona’ adiera ez, baizik eta ‘entzunaz jakina dena’ adiera duenean, ekialdeko hizkeretan da bakarrik posible, hiztegiak erakusten dituen lekukotasunen arabera. *Omen* ‘rumor, fama, opinió extendida’ azpisarreran *SP Arch*, *H* eta *VocB* erreferentziak agertzen dira,<sup>20</sup> guztiak ere ekialdekoak, zentzu zabalean. Xalbadorren ondoko etsenplua ematen dugu adibide gisa:

(71) Entzun duzue engoitik/ ixtripu horren omena

Beste horrenbeste gertatzen da *omen* izenetik eratorritako adizlagun funtzioko beste formekin. *Orotariko Hiztegiak* honakoak jasotzen ditu:

- (72) a. *Omenez* ‘par oui-dire’ (Lhanderen hiztegitik; harek Foix eta S markatzen du, gehi Hiribarrenen etsenplu bat)  
 b. *Omenka* ‘par oui-dire; por referencias’ (L, BN apud Azkue; Dv). Badira Zaitegiren eta Orixeren etsenplu bana, erregistro ikasikotzat joko ditugunak.  
 c. *Omenamen* ‘Rumor’ (*Herria* aldizkaritik, etsenplurik gabe)

<sup>18</sup> Aikhenvaldek berak (2004: 284) jasotzen du antzekotasun hau, Jacobsen (1986) aipatuz.

<sup>19</sup> Proporzio zeinuaren bitartez, *omen* izenaren erabilera urria adierazten dut.

<sup>20</sup> Silvain Pouvreau, Archu, Harrieten hiztegia eta *Voces Baztanesas* erreferentziak dira.

Hona hemen lehen bi formen etsenplu bana (Euskaltzaindia 1987: II, 515):

- (73) a. Omenka ibili behar al du beti?                      b. Omenez ezagutzen nuen

*Omen* izena 'entzunaz jakina dena' adierarekin, honenbestez, ekialdeko hizkeren ezaugarria da, *omen* partikulak espezifikatzaile edo adjunktua izatera hartzen duen hizkera beretakoa beraz.

(73b)ko kasua argigarria da beste alde batetik ere. *Omen ez* da semantikoki zernahi izen, baizik eta gertakari bat adierazten duen izena, eta *ez* zernahi gertakari ere, baizik eta telikoa den bat. *-ka* atzizkiaren lotze baldintzak guti ikertuak badira ere, iduri luke gertakari izen telikoei bakarrik har dezaketela *-ka* bezalako aspektu atzizki iteratibo bat:

- (74) a. Saltoka    (75) a. \*Lanka  
       b. Oihuka    b. \*Jolaska  
       c. Kolpeka    c. \*Loka

*-ka* iterazioa markatzen duen atzizki bat da, eta horretarako telikoa izango den gertakari baten beharra du. Beste hitzetan esateko, iterazioa gertatzeko, gertakari batek bukaera puntu natural bat izan behar du, den gertakari mota izateagatik berez dagokiona. Lan egitea, jolastea edo lo egitea bezalako gertakariak ez dute horrelako bukaera-puntu naturalik. Gertakari izen telikoei du beraz *-ka* atzizkiak ikustekoa. Baina nola irudikatu behar dugu horrelako izatera duen izen bat syntaxian? Telikotasunaren ezaugarriak aditzean zenbakarritasuna du kide izenen eremuan. Gertakari batek berezko bukaera bat daukan bezala, izen zenbakarriek indibiduazio baldintza bati obeditzen diote. Gertakari telikoak errepika daitezkeen bezala, izen zenbakarriak kontatu daitezke (ikus Bach 1986). *-ka* alde horretatik, ez da aditzei edo gertakari izenei bakarrik atxikitzen zaien atzizki bat: *-ka* atzizkiak zenbatuak diren entitateak ere har ditzake argumentu bezala, ondoko kasuan bezala:

- (76) a. Mila lagun elkartu dira    b. Milaka lagun elkartu dira

Gauzak horrela, *-karen* presentziak zenbakarri den izen baten presentzia salatzen du. Ekialdeko *omen* beraz, gertakari izen zenbakarria izan behar du. Baina ezaugarri horrek konplexutasun sintaktiko bat galdetzen du. Boreren sistemari (2005) jarraitzen badiogu, indibiduazioak baditu bi maila sintaktiko. Bata Boreren *Banaketa Sintagma* deitzen duena, izen baten denotazioa kontagarri egiten duena, eta beste bat *Kontaketa Sintagma*, kontagarri den izen horretan kontaketa egiten duen funtzioa denotatzen duena:

- (77) [<sub>NumS</sub> Bi Num<sup>0</sup> [<sub>BanS</sub> lagun Ban<sup>0</sup> [<sub>IS</sub> (lagun)]]]

Non kokatuko genuke *omen* bezalako zerbait? *-ka* bezalako atzizki iteratibo bat lotzen ahal zaionez, emango dugu atzizki hori hartzen duen *omenek* gutxienez banaketa proiektzioa betetzen duela. Hipotesi antisimetrikoan, egitura honelakoa litzateke:

- (78) [<sub>NumS</sub> [<sub>BanS</sub> [<sub>IS</sub> omen] Ban<sup>0</sup>] *-ka...*]

(78)ri kontaketa burua kentzen badiogu, *omenek* betetzen duen hondarra ondoko da:<sup>21</sup>

<sup>21</sup> Bere horretan, egitura horrek ez du kontaketa funtziorik bere baitan hartzen. Hau zuzena da, *omen* ezin baita zenbatzaile kardinalen bitartez kontatu: \**omen bat*, *bi omen*.

(79)  $[_{\text{BanS}} [_{\text{IS}} \text{Omen}] \text{Ban}^0 ([_{\text{IS}} \text{Omen}]]]$

(79), bere xumean, kategoria konplexu bat da, espezifikatzaile edo adjunktua gisa funtziona dezakeena. Egitura hori da perpausaren gune desberdinetan txertatzen dena. (79)ko egiturak berak ebidentzialtasuna markatzen du, *omenen* esanahi lexikoaren ondorioz. Izenaren eta partikularen arteko harreman hori ondoko taularen birtartez irudika dezakegu:

(80)

	ERDIALDEA	EKIALDEA
GERTAKARI-IZENA	—	+
ESPEZIFIKATZAILEA/ADJUNKTUA	—	+

Esan-entzunezko ebidentzia markatzen duen kategoria konplexu horrek ebidentzialtasunarentzat lekua egin dezaketen proiektio guztietan ager daiteke. Proiektio horiek, gogora dezagun hemen, ondokoak dira:

(81) a.  $[_{\text{ModS}} \text{omen} [_{\text{Mod}} \text{ditaik} [_{\text{AS}} \dots]]]$       c.  $[_{\text{InfS}} \text{lag} [_{\text{PolS}} \text{omen} \text{Pol}^0 [_{\text{AS}} \dots]]]$   
 b.  $[_{\text{KompS}} \text{omen} [\dots] \text{Komp}^0]$       d.  $[_{\text{EbS}} \text{omen} \text{Eb}^0 [_{\text{InfS}} \dots]]]$

(81)eko zerrendak jasotzen duen distribuzio sintaktikoa, bere aldetik, honela uler daiteke:

(82) Emazu *omen* proposizioa argumentu gisa hartzen duten operadoreen eremuan

Polaritatea, zeharkako diskurtsua eta modalitate ebidentziala, operadore sail horren azpikasu naturalak dira, Sintagma Ebidentziala bera bezala. Proiektio funtzional horiek esan-entzunezko ebidentzia lexikoki markatzen duen espezifikatzaile bat har dezakete, eta horretan da *omenen* kokapen librearen funtsa.

Erdialdean, *omen* izena izen abstraktu bat da, ‘fama’ adierazten duena, ez esanari loturiko gertakari bat, eta horrenbestez, ez dago zuzenean loturik ebidentzialitate adierazten duen *omen* partikularekin. Hori horrela denez, ebidentzialitatea markatzeko bide hori ez da posible. Erdialdeko *omen* partikula beraz, buru-mailako elementu baten gisa hartuko dugu. Ekialdeko hizkeren analisiari segitzen badiogu, hipotesirik sinpleena buru ebidentzial gisa hartzea da:

(83)  $[_{\text{EbS}} \text{omen} [_{\text{InfS}} \dots]]]$

Ikusiko dugun bezala, ordea, erdialdeko eta ekialdeko hizkeren arteko zenbait diferentziak bestelako tratamendu bat eskatzen dute erdialdeko *omentzat*. Hau, hurrengo atalaren zeregin da.

## 5. Erdialdeko *omen* interpretazioaren aldetik

Ekialdeko eta erdialdeko *omenen* erabilera bereizten dituzten propietateen artean badira *omenen* interpretazioari dagozkionak, sarrera atalean ikusi dugun bezala. Azterbide aski hedatu baten arabera, ebidentzialitatea modalitate klase bat bezala sailkatzen ahal da hizkuntza askotan. Zehazkiago, modalitate epistemikoaren azpikasu gisa: ikus Garrett (2000), Izvorski (1997), Kratzer (1991), Palmer, (2001). Ikusiko dugu-

nez, badira arrazoiak pentsatzeko erdialdeko *omen*, ekialdeko *omen* ez bezala, modalitate epistemikoaren barnean ulertu behar dela.<sup>22</sup>

Modalitate epistemikoa adierazten duten esapideak (azpiko) proposizio baten ger-tagarritasuna markatzen dute ebidentzia edo informazio izari batekiko. *Behar*-en ondoko erabilera epistemikoa da, esate baterako:

(84) Jonek ailegatua behar du (honezkero)

(84)k adierazten duena da daukagun informazioaren arabera, eta honelako joan-entorriek dituzten ohiko baldintzak betetzen direla, Jon ailegatua dela mintzatzen naizen momentuan. Jon ailegatu dela esateko baliatzen dudana ebidentzia inferentziaz eskuratua dut, abiaburuko zenbait datu aintzat hartuta. Modalitateari dagozkion osagaiak ez dira ordea baliatzen dugun informazioarekin bukatzen. Informazio klasea berbera da (85)en, esate baterako:

(85) Jon etxean egon liteke honezkero

Erabiltzen dudana informazio klasea berbera den arren, (85)ek ez du (84)k adinako baieztapen sendoa egiten: litekeenari buruz ari da, ez izan behar duenari buruz. Aldatzen dena zenbaketa indarra da. Zenbaketa hori, gauzak nola izan litezkeen eta hura deskribatzen duten egoeren gainekoa da. Gauzak izan daitezkeen modu horiei *mundu posibleak* deitzen zaie (Lewisengandik datorren deitura).

Esapide modalen bi ezaugarri horiek: baieztapena oinarritzeko erabiltzen dugun informazio klasea, eta modu adierazpidearen ahalmen kuantifikazionala —mundu posibleak eskuragarritasun erlazio baten arabera ordenatzen dituen funtzio batekin batera—, modalitatearen semantikaren funtsa osatzen dute (Kratzer 1991). Oinarritzeko ideia da modalak mundu posibleen gaineko zenbatzaileak direla. Mundu posible horien multzoa, informazio klase baten arabera mugatua da beti. Informazio klase horiek modalitate desberdinak finkatzen dituzte. Hona hemen *behar* modu aditza hartuaz sortzen diren batzuk:

- (86) a. *Aterki busti horiek ikusita*, kanpoan eguraldi kaxkarra behar du  
(epistemikoa)  
b. *Ospitaleko arauak tarteko*, bisitariek 6:00etarako kanpoan behar dute  
(deontikoa)  
c. *Nire sudurraren egoera den bezalakoa delarik*, zintz egin behar dut  
(zirkunstantziala)

Modalitate epistemikoan gelditzen bagara, osagai desberdinak era honetara formula daitezke (von Fintel eta Gillies 2006: 5):

- (87) Behar (epistemikoa)  
i. *Behar* (B) ( $\varphi$ )  
ii. *Behar* (B) ( $\varphi$ ) egia da *w*-n baldin eta baldin bakarrik  $\varphi$  egia bada B-eskuragarria den mundu guztietan

<sup>22</sup> Hau da Jendraschek-ek proposatzen duena *omementzat* oro har (2003: 191-193), hizkera arteko diferentziak aintzat hartu gabe.

- iii. B: *solasaldiaren backgrounda* —teknikoki, funtzio bat munduetatik proposizio multzoetara— ((72)n letra etzanean datorrena, eta *oinarri modal* gisa ere ezagutzen dena)
- iv.  $\phi$ : baieztatzen den proposizioa

Kontua da, modalen semantika honek oso gertu uzten gaituela ebidentzialetatik. Modal batzuek hertsidurak ezartzen dituzte aintzat hartua izan daitekeen informazio klasearen inguruan. Ingeleseko *might* modalak esate baterako, ez dezake irakurketa deontikorik izan, eta *can* modu adizkiak bere aldetik, ezin du epistemikoki interpretatua izan (ikus Papafragou 2000). Hori horrela delarik, ez al genezake imajina modal bat, background gisa baliatzen duen informazio klasea ebidentzialen moduan mugatua duena? Hau da Izvorskik (1997) bulgarierako ebidentzialetarako proposatzen duena. Bulgarierako egitura ebidentzialak modu esapideak dira, zeinetan B aldagaia besteez esandakoak edo hitzunik inferitutakoak mugatzen duen. Har, esate baterako, ondoko bulgarierako etsenplua (88) (Izvorski 1997: 222). Izvorskiren arabera, perfektua anbigua da aspektuzko irakurketa burutu baten edo irakurketa ebidentzial baten artean:

- (88) Az sâm                    došal  
 Ni izan-1sg.orain etorri-partizipioa  
 ‘Etorri naiz’ / ‘Etorri behar izan dut’

Izvorskiren arabera, bigarren irakurketa horretan, bulgarierako perfektua balio unibertsaleko aditz modal epistemiko bat da. Kontua da, perfektu horrek ez duela zernahi adizki modal epistemiko ordezkatzeko: perfektuak halaber baina baino zerbait gehiago adierazten du. Ikus hartara ondoko kontrastea:

- (89) Jakinik Jonek zenbateraino maite duen ardoa,  
 a. toy trybvada e    izpil vsičkoto vino učera  
    berak behar    izan edan dena    ardo atzo  
    ‘Ardo guztia edan behar izan du’  
 b. #toy izpil                    vsičkoto vino učera  
    berak edan-perfektua dena    ardo atzo  
    ‘Itxura batean ardo gustia edan zuen atzo’

Aditz modal epistemiko arrunta (89a) ez bezala, ebidentzial balioko perfektua egokia da bakarrik inguruan Jonek edan izanaren ageriko arrastoak badira. Izvorskiren azterketak perfektua aditz modal epistemiko baten gisa hartzen du, baina presuposizio ebidentzial bat erantsiaz, zeinaren arabera adierazten den proposizioa ikusizko informazioan oinarritua izan behar duen. Azterketa hori honela formula daiteke:

- (90) Baieztapena: *p*, hitzunaren ezagutza egoeraren arabera  
 Presuposizioa: hitzunik ikusizko zeharbidezko ebidentzia dauka *p*-rako

Azterbide honetan, oinarri modala presuposizio horrek murrizten du.

Ebidentzialak modu adierazpideak badira gauza bat espero dugu: ez dira egokiak izango hitzuna ziur badago *p* ez dela egiazkoa. Hau honela da modalaren bitartez hitzuna *p* posiblea edo baitezpadakoa dela esaten ari delako:

- (91) a. #It may/must be raining, but it is not raining                    (Faller 2002: 191)  
 b. #Jonek etxean behar du honez gero, baina ez dago etxean

Erdialdeko euskaran antzeko efektuak aurkitzen ditugu *omenekin*:<sup>23</sup>

- (92) a. Jonex petrikilo titulua lortu OMEN du, #baina ez du lortu  
 b. Jonex ez OMEN du petrikilo titulua lortu, #baina lortu du

Aldi berean, *omen* modalitate epistemikoa adierazten duen buru sintaktiko bat bada, espero dugu modalitate epistemikoa adierazten duen beste buru batekin ez bateragarri izatea. Konpara ondokoak:

- (93) a. *Ikusita zein nekatuta nabilen, nire apetitu falta etabar*, gaixo egon behar dut  
 (epistemikoa)  
 b. #Gaixo egon behar omen dut (epistemikoa)  
 c. Diotenez, *ikusita zein nekatuta nabilen, nire apetitu falta etabar*, gaixo egon behar dut

Erdialdean ezinezkoak edo bitxiak gertatzen diren segida horiek arruntean ematen ahal dituzte ekialdeko hiztunek:

- (94) a. Eri izan behar omen dut  
 b. Jonex petrikilo titulua eskuratu omen du, baina ez du eskuratu.

Guztiarekin ere ez da ezinezkoa aurkitzea, baita ekialdean ere, zenbait kasu zeinetan *omen* partikulak modu inferentziazeko adiera hutsa baitu, eta horrenbestez modalitate epistemikoan sartzen den bete-betean. Ondokoa Elizalderen itzulpen batetik hartua da:

- (95) Ez dut ere sekulan ahantziko zoin onak izan ziren niretzat bai Carmeseko bai Jondoni Pauloren serora maiteak. Saigoneko girichtinoek ere gogotik atchikiko omen ninduten segurki! (P. Dourisboure, *Bahnar deithu salbaiak*, Jean Elissalde itzulia, 1936)

*Omen* gordetzen duen perpausa, (95)eko testu zatian, agiantza bat da, hiztunak agertzen duen desio bat, Saigoneko giristinoek haren oroitzapena atxikiko ahal duten. Agiantza ez da esan-entzunezko zerbaiti buruzkoa, hiztunak ez baitu, hain zuzen ere, jendaki haien esanen edo iritzien inolako lekukotasunik. Kontestu honetan, *omenek* esanarekin zuzenki lotua ez den dudazko adierazpide bat baizik ez du ekartzten. Kasu hauetarako guztietarako, egokia ematen du modalitatearen barnean geldituko litzatekeen analisi bat. Analisi horretan, *omen* moduzko buru funtzional bat izango litzateke, presuposizio ebidentzial bat daukana:

- (96) [<sub>ModEpS</sub> omen [<sub>InfS</sub> ...]]

## 6. Sintesi modura

Artikulu honetan *omen* partikularen distribuzioa deskribatzen eta aztertzen saiatu gara, erdialde eta ekialdeko hizkeretan erakusten duen bariazioa aintzat hartuz. Bariazio horren azterketak hiru egitura desberdin erakutsian jartzen ditu: bata, erdialdeko

<sup>23</sup> Ez zaigu kontsultatu ditugun hiztun guztiekin gertatu. Horietarako, EbS analisia egokia da seguruenik.

hizkeretan bereziki ordezkaturia dena, zeinetan *omen* moduzko partikula bat den, sintaxi aldetik buru bat dena; beste bat, ekialdeko hizkerek bakarrik erakusten dutena, zeinetan *omen* esan-entzunezko ebidentzia adierazten duen elementu konplexu bat baita, perpausaren gune izendatu batzuetan ager daitekeena. Gune horiek ezaugarri semantiko komuna dute: guztiak ere proposizio bat argumentu gisa har dezaketen operadoreak lexikalizatzen dituzten kategoria funtzionalak dira, hala nola polaritatea, modua, edota zeharkako diskurtsuari ahalbidetzen dutenak. *Omen* partikulak azkenik, ebidentzialitatea izendatuki kodetzen duen proiektzio funtzional bat gauza dezake, edo horrelako proiektzio baten espezifikatzaile izan. Bariazioaren emaitza hauek esan-entzunezko ebidentzialitatearen ikuspegi jakin bat ematen digute: haren arabera, ebidentzialitatearen adierazpenak forma sintaktiko bat baino gehiago har dezake, modalitatearen adierazpenarekin nahas daitekeena kasu batzuetan, edo izenezko elementu konplexuen eta perpaus egituraren arteko harreman sintaktikoetarik erator daitekeena bestetan. Esan-entzunezko ebidentzialitate sintaktikoa beraz, baldintza batzuen pean bakarrik ematen ahal da, baina ez baitezpada, ikuspegi zurrunagoek nahiko luketen bezala, gune sintaktiko bakar baten bitartez. Alde horretatik euskarazko *omenen* baitako bariazioaren azterketak tipologiari eta sintaxi teoriari ekarpen bat ere egiten dio.

## Aipamen bibliografikoak

### a) *Corpusak*

Ereduzko Prosa Gaur

Orotariko Euskal Hiztegia

xx. Mendeko Euskararen Corpusa

Dourisboure, A. (1935) *Babnar deitu Salbaiak*. Baiona. [Jean Elissalde-ren itzulpena]

Sallaberry, E. (1972) *Ene sinestea*. Zarautz: Itxaropena.

### b) *Bibliografia*

Aikhenvald, A., 2004, *Evidentiality*. Oxford: Oxford U. P.

Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Bach, E., 1986, «The algebra of events», *Linguistics and Philosophy* 9-1:5-16.

Barbiers, S., 1995, *The syntax of interpretation*. Doktoradutza tesia. Holland Academic Graphics.

Borer, H., 2005, *Structuring sense. In name only*. Oxford: Oxford U. P.

Chomsky, N., 1995, *The Minimalist Program*. Cambridge: MIT Press.

—, 2000, «Minimalist inquiries», in R. Martin, D. Michaels & J. Uriagereka (arg.), *Step by step. Essays in Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Massachusetts, CA: MIT Press.

Cinque, G., 1999, *Adverbs and Functional Heads. A crosslinguistic Perspective*. Oxford Studies in Comparative Syntax. Oxford: Oxford U. P.

Davis, C. eta beste, 2007, «The Pragmatic value of evidentials», in M. Gibson & T. Friedmann (arg.), *Proceedings of SALT 17*. CLC Ithaca, NY: Publications, 71-88.

Dendale, P. & Tasmowski, L., 2001, «Introduction: Evidentiality and related notions», *Journal of Pragmatics* 33, 339-48.



- eta D. Collier, 2003, «Point de vue et évidentialité», *Cahiers de Praxématique* 41: 105-130.
- Ducrot, O., 1984, *Le dire et le dit*. Paris: Les éditions de Minuit.
- Duguine, M. eta A. Irurtzun, 2008, «Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez», in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren Omenez. ASJU-ren Gehigarriak*, LI. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 195-209.
- Elordieta, A., 2001, *Verb Movement and Constituent permutation in Basque*. Doktorego tesia, Leideneko Unibertsitatea. Leiden: LOT dissertation series.
- Elordieta, G., 1997, *Morphosyntactic Feature Chains and Morphological Domains*. Doktorego tesia, University of Southern California.
- , 2007, «Segmental Phonology and Syntactic Structure», in G. Ramchand eta C. Reiss (arg.), *The Oxford Handbook of Linguistic Interfaces*. Oxford: Oxford U. P., 125-178.
- Ettxepare, R. & J. Ortiz de Urbina, 2003, «Focus and Wh-movement in Basque». In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter, 459-515.
- Euskaltzaindia, 1987, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1993, *Euskal Gramatika Laburra*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Faller, M., 2002, *Semantics and Pragmatics of Evidentials in Cuzco Quechua*. Unpublished doctoral dissertation. Stanford.
- Garrett, E., 2000, *Evidentiality and Assertion in Tibetan*. Unpublished doctoral dissertation. UCLA.
- Haddican, B., 2001, «Basque Functional Heads», *Linguistics in the Big Apple Working Papers in Linguistics*. New York: CUNY.
- , 2004, «Sentence polarity and word order in Basque», *The Linguistic Review* 21-2:87-124.
- , 2008, «Euskal perpausaren Espez-Buru-Osagarri hurrenkeraren aldeko argudio batzuk». In X. Artiagoitia eta A. Elordieta (arg.), *Antisimetriaren Hipotesia vs. Buru Parametroa. Euskararen Hitz Hurrenkera ezbaian*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Izvorski, R., 1997, «The present perfect as an epistemic modal», in A. Lawson eta E. Cho (arg.), *Proceedings of SALT 7*. Stanford: CSLI Publications.
- Jendraschek, G., 2003, *Les notions de la modalité en basque*. Doktorego tesia, Tolosako Unibertsitatea.
- Johanson, L. eta B. Utas (arg.), 2000, *Evidentials. Turkic, Iranian and neighboring languages*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Kayne, R., 1975, *French Syntax*. Cambridge: MIT Press.
- Kratzer, A., 1991, «Modality», in A. von Stechow & D. Wunderlich (arg.), *Semantics. An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin: Mouton de Gruyter, 639-650.
- Laka, I., 1990, *Negation in Syntax. On the Nature of Functional Categories and Projections*. Doktorego tesia, MIT.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido*. Salamanca.
- Marit, J., 2002, *Syntactic Heads and Word Formation*. Oxford Studies in Comparative Syntax. Oxford: Oxford U. P.
- Papafragou, A., 2000, *Modality: Issues in the Semantics-Pragmatic Interface*. Amsterdam eta New York: Elsevier Science.
- Palmer, F. R., 2001, *Mood and Modality*. Cambridge: Cambridge U. P.
- Pollock, J. Y., 1989, «Verb movement, Universal Grammar and the structure of IP», *LI* 20: 365-424.

- Potts, C., 2005, *The logic of conventional implicatures*. Oxford: Oxford U. P.
- Schenner, M. (agertzekoa), «Semantics of Evidentials: German reportative modals». CONSOLE XVI-ko agirietan.
- Squartini, M., 2004, «Disentangling evidentiality and epistemic modality in Romance», *Lingua* 114-7: 873-895.
- Uriagereka, J., 1999, «Minimal restrictions on Basque movements», *NLLT* 17-2: 403-444.
- Van Eys, J., 1873, *Dictionnaire Basque-Français*. Paris eta Londres.
- Vicente, L., 2007, *The Syntax of Heads and Phrases. A Study of verb Phrase Fronting*. Dokto-rego tesia. Leideneko Unibertsitatea. Leiden: LOT dissertation series.
- Von Stechow, K. & J. Gillies, 2006, «Epistemic modality for dummies», eskuizkribua, MIT eta University of Michigan.
- Zanuttini, R., 1997, *Negation and Clausal Structure. A Comparative Study of Romance Languages*. Oxford: Oxford U. P.
- Zubeldia, L., 2008, «Omenek esan nahi omen duenaz», *Gogoia* VII-2: 237-269.

*DATIBO OSAGARRI BITXIAK ETA DATIBOAREN  
LEKUALDATZEA:  
ARI NAI DIYOT ETA KANTA EGIN NAZU BIDEGURUTZEAN*

Beatriz Fernández

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertistatea)

Milan Rezac

(CNRS UMR 7023, Paris VIII)

**Abstract**<sup>1</sup>

*Under certain conditions, nonstandard varieties of Basque display so-called quirky dative objects, a phenomenon that belongs to the broader family of constructions studied in the typological literature as Differential Object Marking (DOM). For the most part, Basque grammarians have either ignored the phenomenon, or set it aside with suspicion or disparagement. In this paper we seek to redress this gap. First, we describe the main properties of quirky dative objects in Basque, and delimit the range of variation across varieties. Second, we compare it to similar DOM constructions in Spanish (leísmo) and Hindi-Urdu (-ko marking). Last, we analyze its syntactic properties and claim that Basque quirky dative objects should be viewed as true direct objects rather than as indirect objects. Our discussion compares quirky dative objects with the phenomenon of dative displacement, another little-known source of nonstandard variation in the language.*

**0. Atarikoak**

Asko izango dira zuon artean Bilintz handiaren *Izazu nitzaz kupira* izeneko bertsoak gogoan izango dituztenak. Halaxe dio lehen bertsoak hasierako puntuan: *Loriak udan intza bezela, / maite det dama gazte bat, / ari ainbeste nai diyotanik / ez da munduan beste bat* (Bil 104).<sup>2</sup> Eta bertsozaleek Bilintzen garai bereko Iparragirren Zi-

---

<sup>1</sup> Gure eskerronen zerranda luzea da. Ez dakigu bakarka eta bidaidetik gabe, halako bide luzerik egingo genukeen. Ziur asko ez. Horregatik, bihotzez eskerrak, Julen Agirre, Pablo Albizu, Arantzazu Elordieta, Kepa Erdozia, Urtzi Etxeberria, Orreaga Ibarra, Mikel Lersundi, Jesus Mari Makazaga, Céline Mounole, Javier Ormazabal, Jon Ortiz de Urbina, Juan Romero, Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Igone Zabalarri. Baita Aitor Iglesias ere bere doktorego tesiko datuengatik. Eskerrak, era berean, Hizkuntza Tipologia eta Morfologia Orokorreko 08/09 ikasturteko ikasleei, bereziki Ane Odriari fenomenoaz egingdako lanarengatik, Alex Gurrutxagari Zarauzko euskararen inguruan emandako datuengatik, eta Kontxi Arraztiori gure galdetegia Arantz-Beteluko hizkerako hiztunei egin eta hemen aurkezteagatik. Azkenik, hurbilenekeoi: Uxune Iriondo eta Paddy Francori igerilekuko itxaronaldi luzeetan emandako juzkuengatik. Txosten hau lau ikerketa proiekturen dirulaguntza baliatuz idatzi dugu: UPV/EHUren EHU06/20, Ministerio de Ciencia e Innovaciónen FFI2008-00240/FILO, Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Sareak HM-2008-1-10, eta Agence Nationale de la Rechercheren ANR-07-CORP-033.

<sup>2</sup> Hona hemen, Bilintzen bertsoa osorik (Zavala 1962): *Loriak udan intza bezela, / maite det dama gazte bat, / ari ainbeste nai diyotanik / ez da munduan beste bat; inoiz edo bein pasatzen badet / ikusi gabe aste bat, / biyotz guztira banatutzen zait / alako gauza triste bat.*

*billak esan naute* ere gogoratuko dute beharbada. Ostean, bertsozalea ere izan beharrik ez dago *Goxo goxo kanta egin nazu / Benitoren Maria Solt*<sup>3</sup> gogoratzeko Juan Carlos Perezen bertsiogogoangarrian.

Halako formak nekezago aurkituko ditugu idatzizko testuetan, izan badiren arren, baina ahozko literaturak jasotzen ditu substandarrean aitortu izan zaiena baino sarrigo agertzen diren forma hauek, eta forma hauezaz da, hain zuzen, gure lana: bate-tik, *datibo osagarri bitxiez*, alegia, *ari nai diyot* formako osagarriaz, eta bestetik, *datiboaren lekualdatzeaz* (DL), *goxo goxo kanta egin nazu* esaldiak erakusten duenaz.

Datibo osagarri bitxiez bereziki ezer gutxi idatzi da euskal gramatikan, eta ez dira oso aspaldikoak eurei buruzko lanak: Rezac (2006a), Fernández & Ortiz de Urbina (2008), Fernández (2008) eta Mounole (2008) aipa genitzake ordena kronologikoan, eta gaia zeharbidez aipatzen da baita Fernández & Ezeizabarrena (2001) lanean ere.<sup>4</sup> Oso bestela, euskal gramatikak ia aipatu ere egin ez dituen datibo osagarriekin nolabait konpara daitezkeen fenomenoak, hala nola, gaztelaniaren *leismoak* (Fernández-Ordoñez 1999) edota, oro har, hizkuntza tipologian *differential object marking* edo *osagarri markapen bereizgarria* (DOM) deitu izan denak —Bossong (1991), (1997), Lazard (2001), Aissen (2003)— berezko tokia dute teoria linguistikoan bai beraien xehetasun empirikoei dagokienez bai azalpenari dagokionez.

Gure lanean, bada, datibo osagarri bitxiak ahal den zehatzen deskribatu eta azalpen bideak jorratuko ditugu. Deskribapenean, hizkera eremua zehazteaz gain (1.1) euren oinarritzko ezaugarriak erakutsiko ditugu (1.2), hizkeren arteko aldakortasuna sortzen duten parametroak ahal dela zehaztuz. Ondoren datiboaren lekualdatzearekin konparatuko ditugu, hizkera berean, datibo osagarri bitxiak nahiz datiboaren lekualdatzea jasotzen dituzten hizkeretako datuak kontuan hartuz (1.3). Deskribapena amaitzeko, leismo itxurako datibo-bitxiak absolutibo/datibo alternantziadun aditzetakoekin (*begiratu dizut*) konparatuko ditugu (1.4). Azalpena bidean, gaztelaniaren leismoaz (Bleam 2001, Ormazabal & Romero 2006, 2007) eta hindiera/urdueraren *-ko* markapenez (Mohannan 1994, Bhatt, 2006) egin diren analisiak azalduko ditugu (2), gure datibo bitxien gaineko analisisia ere garatzeko aukera emango digutelakoan (3).

## 1. Datibo osagarri bitxiak

Hasi gaitezen, bada, deskribapenaren xehetasunekin.

### 1.1. Hizkera eremuaz

Gramatika lanetan ia aipatzen ez bada ere, dialektologiaren eremuan eta bereziki Yrizarren lan agortezinean sarrigo aurki daiteke datibo osagarri bitxien berri. Berez, normalean adizki ez-kanonikoak kanonikoen ordeztzearekin zerikusia daukan fenomenotzat hartu izan da, nahiz eta, dagoeneko erakutsi dugun bezala, gure ikuspuntutik gauzak oso bestelakoak diren. Batzuetan, datiboaren lekualdatzearen aipamenekin batera aurki daiteke, esaterako, Yrizarrek (1981: II, 359) adizkien erabilera

<sup>3</sup> Itoizen *Lau teilatut* kantaz ari gara, noski.

<sup>4</sup> Besterik da dialektologiaren ekarpena, lan klasikoetatik jasotzen duena datibo osagarri hauen berri, geroago (1.1) erakutsiko dugunez.

*okerrean* bi dira aipatzen dituen ordezkapenak, batetik, *dit*-en ordezko *nau*, hau da, gure datiboaren lekualdatzea, eta bestetik, bere ustez kontrako erabilera dena, alegia, *nau*-ren ordezko *dit*,<sup>5</sup> lan honetako mintzagai nagusia.

Yrizarrek dioenez, Bonaparte (1869)<sup>6</sup> bera ere ohartu zen hegoaldeko goi-nafarreraren hizkera gehienetan ez zirela erabiltzen *ikus*<sup>7</sup> *nindue* bezalako formak, eta beraien ordez *ikusi zida* bezalakoak zerabiltzatela, berezkoa zaien erabileran ez eze —datibodun aditz iragankorrekin—, *okerreko* erabileran ere, hau da, iragankor soil-leko adizkiak erabili beharko liratekeen kasuetan ere. Euskalki honetan, Artze, Erro eta Auritzeko aldaeretan<sup>8</sup> baino ez omen ziren biak zaintzen. Elkanon (Eguesibarreko aldaera) ez ezik, Gares (Gareseko aldaera) eta Oltza eta Goñin (Oltzako aldaera), *dit* moduko *dira*, *dida*, *dere*, *dede* jasotzen ditu Yrizarrek (1981: II, 360).

Yrizarren garaian, Bonapartek esandakoa neurri batean baino ez da betetzen hegoaldeko goi-nafarreraz (1981: II, 362). Hala, Ihabarren (Oltzako aldaera) edota Zian (Gulinako aldaera), ez, aldiz, Txulapain (Gulinako aldaera) edota Odieta (Olaibarko aldaera) ibarretan. Artze eta Auritzeko aldaerez esandakoa, bestalde, berrets daiteke Yrizarren garaian. Erroko aldaerari dagokionez, mendebaldean, Esteribarrean, forma kanonikoak agertzen dira, baina baita *dire*, *zirek*, *direte* ez-kanonikoak ere. Ekialdean, ez da forma kanonikorik jasotzen.

Euskalkiz euskalki ari garela, Yrizarri (1981: II, 363) jarraituz beti ere, hegoaldeko goi-nafarreraren Bonapartek zehaztutako eremuarekin muga egiten duten aldaeretan ere aurki daiteke: iparraldeko goi-nafarreraz, Lizaso eta Huarte Arakileko aldaeretan; eremu horretatik gertu samar dauden hizkeretan, hala nola, gipuzkeraren nafar azpieskalkiko Burunda edota Etxarri-Aranatzeko hizkeretan. Hortik aparte, eremutik nahikoa urrundutako hizkeretan ere aurki daitezke halako formak, bizkaieraz, besteak beste, Markina, Gernika, Bermeo, Arratia eta Arrigorriagako aldaeretan, edota Irungo aldaeran (iparraldeko goi nafarreraz berau ere).

<sup>5</sup> Irakurleak Yrizarren (1981: II, 359-372) “Observaciones referentes al empleo incorrecto de algunas flexiones” atal osoa irakur lezake erabilera biak konparatu nahi baditu, eta era berean, fenomenoaz egazutzen duten hizkeren inguruko xehetasun guztiak jaso nahi baditu, nahiz eta guk esanguratsuenak laburbiltzen saiatuko garen.

<sup>6</sup> Bonapartek (1869: 434) halaxe dio “Les terminatifs à régime direct de première ou de seconde personne ne sont pas en usage dans la plupart des variétés du haut-navarrais méridional. On leur substitue en général les terminatifs à deux régimes, ce qui dépare singulièrement cet intéressant dialecte. C’est ainsi que *eman zida* s’emploie non seulement dans le sens de ‘il me le donna’, mais aussi, d’une manière incorrecte, dans celui de *eman nindue* seulement dans le sens de ‘il me donna ou dedit me’. Les variétés de Arce, d’Erro et de Burguete, ainsi que les manuscrits en notre possession ne méconnaissent pas toutefois ces terminatifs à un seul régime, que nous n’avons pas hésité pour cela même à insérer dans ce tableau.” Bonapartek (1869: 430-433) hamargarren taula osagarriaz dihardu, hegoaldeko goi-nafarreraren aditza biltzen duenaz. Yrizarrek (1981: II, 360) argitzen duenez, egokia da Bonapartek ematen duen azken argibidea, taula egiteko Elkanoko hizkeran (Eguesibarreko aldaera) oinarritu baitzen, eta bertan ez zegoen *nau* moduko aditz jokorik. Hegoaldeko goi-nafarreraz, beraz, Artze, Erro eta Auritzeko hizkeretan baino ez omen ziren egazutzen *nau* bezalakoak.

<sup>7</sup> Berez *eman* aditza aipatzen du Bonapartek, ez *ikus* —irakurleak goiko azken oin-oharrean ikusiko zuenez—. Ez dirudi fenomenoaren berri emateko aditz egokia hautatu zuenik datibodun iragankorra izanik. Horregatik, eta irakurlea ez nahastearren, erabili dugu *ikusi* datibogabea.

<sup>8</sup> Orreaga Ibarak dioskunez, gaur egun *hizkera* hitza erabiltzen dute dialektologoen gaztelaniazko *habla* zein *variedad* adierazteko. Halaxe egingo dugu guk ere, Yrizarren lanaren aipamenetan *aldaera* hitza ere erabiliko dugun arren *variedad* adierazteko.

Gainerakoan, Yrizarrek mendebaldeko behe-nafarreraz, Baigorriko hizkera aipatzen duen arren —ikus (Yrizar 1981: II, 360)—, Mounolek (buruz buru) diosku akats filologiko gaizto baten eta Yrizar eta Haritxelarren arteko gaizki ulertzean oinarritzen dela. Horrek neurri batean, DOM-i dagokionez ziur aski esanguratsua den hizkera eremua utziko digu: DOM-ik ez dago frantsesarekiko ukipen eremuan, gaztelaniarekikoan baino.<sup>9</sup>

Eremu horretan, hizkeren gaur egungo gramatikei begiratuz gero, ez dira gutxi datibo osagarri bitxien aipamena egiten dutenak.<sup>10</sup> Lan horiek azterturik, DOM aurkitu digu euskara nafarrean.<sup>11</sup> Hala, Ultzaman (erdigunea), Esteribar eta Erroibarren (sortaldea), edota Aezkoan eta Baztanen (tarteko hizkerak). Koldo Zuazok dioenez (1998: 18) gaur egun Nafarroa gehiengan erabiltzen da —nahiz eta Bonapartek hegoaldeko goi-nafarreraren ezaugarritzat jotzen zuen— eta mendebaldeko hizkeretan baino ez da gorde absolutibodun osagarri kanonikoa, alegia, Bortzerriak, Sunbila, Bertizarana, Malerreka, Basaburua Ttikia eta Araitzen. Mendebaleko euskaraz ere bai, hala nola, Basauri, Igorre (sartaldea), Forua (Busturialdea), Lekeitio (sortaldea) eta Elgoibarren (tarteko hizkera). Erdialdekoan, Tolosa, Ordizia eta Goierri, Lasarte-Oria, eta Pasaia, Oiartzun, Hondarribia eta Irunen (tarteko hizkerak), baita sortaldeko Imotz, Basaburua Nagusian eta Larraunen ere.<sup>12</sup>

Ez ditugu hemen jasoko lan horietan guztietan dialektologoen emandako datuak eta xehetasunak, baina interesgarria da gure lanera begira azpimarratzea hizkera haueetatik badirela, geroago ikusiko dugunez, DOM bakarrik duten hizkerak, Erroibar eta Esteribarrekoak, adibidez, eta badirela DOM eta DL, biak erakusten dituztenak, hala nola, Basauri edota Hondarribi eta Irungoak. Ibarren (2000: 155) nafar adibideak dituzue ondokoak, DOM-en erakusgarri:

- (34) a. Il tsekote fréntian Andrései ta (Mezkiritz)  
 b. Gerra denboran iru aldiz eritu zioten (Lintzoain)  
 c. Erematen badirete kartzélera (Lintzoain)

Arretzek (1994)<sup>13</sup> Basaurin jasotakoetatik, DOM erakusten dute (a,b) lehen adibideak, DL hurrengoak (c,d), eta DOM eta DL-en arteko forma hibridoa azken adibideak.

- (35) a. Lagunek ekartzen dotzie kotxien  
 b. Etor baseinkittes nik ukusi eingo neinkixu  
 c. Gausa asko ekarten gatus  
 d. Serio begittu gatusek  
 e. Aurok guri yo in gatus

<sup>9</sup> Baldin eta datibo osagarri bitxiak euskaraz gaztelaniaren leismoaren itzalean sortuko balira, orduan ez litzateke horren harrigarria izango frantsesarekiko ukipen eremuan euren aztarnarik ez aurkitzea.

<sup>10</sup> Hemen herrien aipamena baino ez dugu egingo. Behera jo dezake irakurleak ikustearren zein den herri horretako hizkeraren iturria, alegia, zein gramatikatatik jaso dugun bere berri.

<sup>11</sup> Zuazoren (2003) hizkera banaketa eta deiturak darabiltzagu ondoren.

<sup>12</sup> Gaur egungo hizkeren deskribapenetara begira, DOM-en testigantzarik ez da jasotzen Arrasate, Bergara, Bermeo, Eibar, Ermua/Eitza, Leioa, Orío, Otxandio, Sopela eta Zegaman; zalantza sortzen digute Antzuola eta Zeberioko kasuek. Horrek ez du esan nahi DOM-en arrastorik egon ez dagoenik hizkera horietan, baina deskribapena egin dutenek aipatu ez badute, beharbada, besterik gabe ez dagoela edo orokorturik ez dagoela suposa dezakegu.

<sup>13</sup> Karmen Moja hitzun bakarrarenak dira forma hauek guztiak.

Halaber, geroago (1.2) DOMen deskribapenean ikusiko dugunez badira parametrotu daitezkeen aukerak, esate batera DOM gizakiekin bakarrik erabiltzen ote den, lehen eta bigarren vs. hirugarren pertsonaren arteko banaketa erakusten ote duen...

Gainerakoan, gramatikarion helburuetatik aldendu eta soziohizkuntzalari edota dialektologoentzat bereziki esanguratsuak izan daitezkeen aipamenak aurkituko ditu irakurleak hizkeren gaineko lanetan. Izan ere, badira bereziki adinaren aldagaia aipatzen dutenak DOMen agerpena arrazointzeko. Ikus, esate batera, Hurtadok (2001: 104) Tolosaldeko eta Goierriko gazteen hizkeraz dioena, baita Fraile eta Fraile (1996: 11) ere Oiartzungo hizkerarako. Hurtadok Ikaztegitan (Toloaldea) jasotako adibideak dituzue ondokoak. Gazte hizkerakoa da lehena (DOM-duna) eta nagusien hizkerakoa bigarrena (DOM-ik gabea).

- (36) a. lengo urten Ikazteitan ikusi nizun  
 b. jun dan urten Ikazteitan ikusi zinduzten

Gazteen hizkeran DOM ugariagoa izateak zerikusia izan dezake, beharbada, gaztelaniaren eragin nabarmenagoarekin. Adina alde batera, inoiz halako DOM formak gaztelaniaren eraginpean sortu direla iradokitzen da, eta batzuetan iradokizuna baino zerbait gehiago da, adibidez, Ordiziako hizkerari buruzko lanean (Garmendia eta Etxabe 2004: 78), *erdarakaden* zerrendan jasotzen diren forma ugari *guri danoi eskola bialdu ziuén* edota *nei utzi zien emen* bezalakoak dira, alegia 1, eta 2 pertsonako DOM-dunak iraganean.

Utz dezagun hemen, bada, hizkera eremuari buruzko atala, eta ikus dezagun DOM bera zer ote den.

## 1.2. Deskribapenaren oinarriak

Gure lanaren abiapuntuan *ari ainbeste nahi diyotantik* ekarri dugu gogora datibo osagarri bitxiak nolakoak diren erraz ulertzeko. Deskribapena egiten hasi aurretik, bertsoa bera ez ezik, euskaraz perpausak nola atontzen ditugun kontuan izan behar dugu.

Forma estandarrean, eta euskaraz oro har, edozein perpausetan aditz iragankor soil<sup>14</sup> bat izanez gero, *ikus*i adibidez —geroago helduko gara *nahi izan* predikatura—, ergatibo eta absolutiboz markatutako argumentu bana ditugu, eta horiekin komunztadura egiten duten aditz laguntzaile iragankorreko adizkiak azaltzen dira, honela:

- |     |      |      |          |                  |
|-----|------|------|----------|------------------|
| (4) | Nik  | zu   | ikus     | z-a-it-u-t       |
|     | ni-E | zu.A | ikus.ASP | 2D-Apl-erroa-1sE |

Gogoratu perpaus honetan, ergatibo kasua ezarri zaiola subjektuari (*nik*) eta absolutiboa, berriz, osagarriari (*zu*). Era berean, ergatibo komunztaduraren bitartez agertzen da subjektua inflexioan —*t*, eta absolutibo komunztaduraren bitartez *z*— osagarria.

<sup>14</sup> Testu honetan zehar, Fernández & Ortiz de Urbinak (2008) proposatutako terminologiari jarraituko diogu iragankor, inergatibo eta inakusatibo soilak (datibogabeak) eta datibodunak bereiziz. Jo bertara xehetasunen bila.

Jo dezagun orain perpaus kanoniko honek substandarrean erakusten duen ordezkero perpausera, eta alderatu dezagun goiko adibidearekin. Lekeitioko hizkeratik jaso da bera.

(5)	(Ni-k)	su-ri	ikusi	d-o-t-zu-t <sup>15</sup>
	ni-E	zu-D	ikusi.ASP	espl-erroa-DA-2D-1sE

(Hualde, Elordieta & Elordieta 1994: 125-7)

(5)eko perpausean, bi dira ezberdintasun nagusiak perpaus-lagun kanonikoaren aldean: batetik, osagarriari datiboa ezartzen zaio ((*su*)*ri*), ez absolutiboa ( $\emptyset$ ), eta bestetik, datibo komunztadura ere egozten zaio inflexioan (*zu*), ez osagarriari ohikoa zaion absolutiboko komunztadura (-z).

Baina eten dezagun deskribapena aipatu ditugun bi ezaugarrietatik —kasua eta komunztadura— bat azpimarratzearen. (2) bezalako perpausetan berebiziko garrantzia duena da osagarria datiboaz markatzen dela modu ez-kanonikoan, baldin eta osagarria kanonikoki markatzen duen kasua absolutiboa bada. Datibo osagarri bitxia deituko diogu lehenago egin dugunaren ildotik (Fernández 2008). Leismoa ere deitu diogu inoiz (Rezac 2006a), gaztelaniaren fenomenoarekin erakusten dituen antzekotasunak azpimarratzearen. Geroago ikusiko dugunez (2. atala), euskaraz horren estigmatizatuak diren forma hauen modukoak dira, diferentziak diferentzia, hizkuntza tipologian *differential object marking* (DOM, osagarri markapen bereizgarria) labelpean biltzen direnak (Comrie 1981, Bossong 1991 beste askoren artean). Horregatik, DOM akronimoa erabiliko dugu fenomenoaren berri jasotzeko. Jakina, osagarria datiboaz markatzearen ondorioz, aditz laguntzaile iragankor datiboduna da hautatzen dena eta ez datibogabea,<sup>16</sup> eta datibo komunztaduraz islatzen da datibo osagarria inflexioan (*dotzut* vs. *saittut*).

Batzuetan, datibo osagarri bitxia erakusten duten hizkeretan, hala nola, Lekeitiokoan, datibo osagarri horren ordezkero, absolutibo osagarri kanonikoa ere aurki daiteke.<sup>17</sup> Hona hemen (1) adibide estandarren ordezkero dena, eta ikusten dugunez, osagarria absolutiboaz markatzen duena:

(6)	(Ni-k)	su	ikusi	s-a-itt-u-t
	ni-E	zu.A	ikusi.ASP	2A-plA-erroa-1sE

(A. Elordieta, buruz buru)<sup>18</sup>

Forma ez-kanonikoetara itzuliz, osagarriari datiboa ezartzen zaionez, aditz iragankor soileko perpausean (*ikus*), itxura hori bera du argumentuak, baita zehar osagarria denean ere, datibodun aditz iragankorreko perpaus batean (-*eman*). Gainera, aditz

<sup>15</sup> Lekeitioko hizkerako datuak izan arren, bertan agertzen diren ezaugarriak, oro har, halako forma erakusten dituzten hizkeretara zabal daitezkeelakoan gaude, nahiz eta geroago erakutsiko dugunez, euskararen hizkeren artean ere parametro aukerak dauden.

<sup>16</sup> NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK, hurrenez hurren, ezagunak izan arren, guk saihestuko ditugun deiturak dira, aditz laguntzaile iragankor datibogabe eta datiboduna hobetsiz.

<sup>17</sup> Honetan ere, osagarria markatzerakoan, hizkeren artean diferentziak daudelakoan gaude: (i) datibo eta absolutiboaren artean hautatu beharra dutenak, eta (ii) datiboa beste aukerarik ez dutenak.

<sup>18</sup> Fernández (2008) lanean jasotakoa.



laguntzaile bera agertzen zaigu aditz iragankor soil zein datibodunarekin; konpara itzazu (a), (2) adibide bera dena, eta (b).

- |     |    |        |       |         |                               |
|-----|----|--------|-------|---------|-------------------------------|
| (7) | a. | (Ni-k) | su-ri | ikusi   | d-o-t-zu-t                    |
|     |    | ni-E   | zu-D  | ikusi.A | espl-erroa-DA-2D-1sE          |
|     | b. | (Ni-k) | su-ri | liburua | emon d-o-t-zu-t               |
|     |    | ni-E   | zu-D  | ikusi.A | eman.ASP espl-erroa-DA-2D-1sE |

Honaino, beraz, deskribapenaren oinarrizko datuak. Ez datu guztiak nolana ere, ez baitugu oraindik esan datiboaz markatutako osagarri horrek berez ezaugarri berezirik izan behar ote duen datiboaz jabetu ahal izateko, ala osagarria den ezin argumentuk datiboa jaso dezakeen Lekeitiokoa bezalako hizkeretan. Fernándezek (2008) *Biziduntasunaren Hierarkiari* —(Silverstein 1976), ikus baita Mounole (2008)— begiratu dio datibo markapenak murriztapenik ote duen jakiteko, eta Lekeitioko hizkeran, behintzat, DOM izateko, argumentuak gizakia izan behar duela dirudi. Hala gizaki ez diren argumentuetan, datibo markapena ez da zilegi. Jo ondoko adibideetara:

- (8)
- a. Peruk ni ikusi nau/ ikusi dosta
  - b. (Nik) Su ikusi saittut / suri ikusi dotzut
  - c. (Peruk) Jon ikusi dau / Joneri ikusi dotza
  - d. (Nik) neskia ikusi dot /neskiari ikusi dotzat
  - e. (Nik) txakurra ikusi dot /\*txakurrari ikusi dotzat
  - f. (Nik) telebista ikusi dot /\*telebistari ikusi dotzat

Adibideetan hierarkian goren dauden singularreko lehen pertsona izenordaina (a) eta bigarren pertsona izenordaina (b) ditugu hasieran; datibo eta absolutibo markapen biak ditugu baita izen bereziekin (c) zein gizakia diren izen arruntekin (d). Hortik aurrera hierarkia eten egiten da, datibo osagarririk ez baitago ez bizidunak diren izen arruntekin (e)<sup>19</sup> ezta ondorioz hierarkian beheren dauden izen bizigabeekin ere (f).

Dena den, bada honi gaineratu behar zaion ñabardura itxuraz garrantzitsu bat, ziur aski, parametrotze aukerak zabaltzen dituena euskal hizkeretara; ikus baita 4 ataleko eranskinak. Izan ere, Hualde, Elordieta & Elordietak (1994: 125-127) diotenez, sarriago aurkitzen da datibo osagarri bitxia bigarren pertsonakoa (b) denean, hirugarren pertsonakoa (c) denean baino. Beraz, Lekeitioko hizkerari dagokionez, aurkakotasun nagusia gizakia/ez-gizakia<sup>20</sup> bada ere, lehen eta bigarren pertsona/hirugarren pertsonaren arteko aurkakotasunaren zantzuak<sup>21</sup> ere agerian uzten ditu, eta zantzu horiek bete-betean erakuts dezakete beste hizkera batzuetan aukera nagusia dena.

<sup>19</sup> Salbuespen bat bakarra aurkitu dugu lan asko eta askotan zehar, Hurtadoren (2001: 104) liburuan: *gizon batek joyo zakturrai* (Hernani, Hondarribia) vs. *gizonak txakurre jo do* (Ataun), *gizon batek txakurra jo du* (Alegia).

<sup>20</sup> Ez dirudi zuzena denik esatea, hizkera honetarako bederen, bizidun izan behar dela osagarria (Mounole: 9, 13), ez baitira bizidun guztiak datiboa erakuts dezaketena, bizidunetatik gizakiek baino ez, goiko (e) adibidean ikus daitekeen moduan.

<sup>21</sup> Oso litekeena da, era berean, aldakortasun idiolektala egotea. Adibidez Mounolek (2008: 13 oinarrean) dioenez, bere datu-emaila lekeitiarren artean bada bat, hierarkia izen berezi eta arrunten artean eteten duena, hau da, *Joneri ikusi dotza* onartzen duena eta *ez aldiz eztoztat ezaututen oneri umiari*.

Esate batera, Mounolek (2008), Iglesiasen (2005) laneko datuez baliatuz dioenez, Arratiako bailaran hirugarren pertsonako osagarriak halaberrez absolutiboa behar du, ez datiboa.<sup>22</sup>

Parametrotze horren lekuko dugu gainerako hizkeren artean ere antzematen den aldakortasuna.<sup>23</sup> Zenbait adibide ematearren, Ultzamako hizkeran, DOM 1/2 pertsonatarako orokorturik dago eta 3 pertsonarako hautazkoa dirudi (Ibarra 1995: 427); antzera esan daiteke Pasaiako hizkeraz: Pasai Donibanen DOM erabat orokorra da 1/2 pertsonetarako, eta San Pedrokoan badira oraindik ere berezko formen testigantzak (Agirretxe et al. 1998: 122). Bestalde, Erroibar eta Esteribarren 1/2 zein 3 pertsoneri eragiten die, nahiz eta salbuespenen bat baden 3 pertsonarekin (Ibarra 2000: 152-3): ikus goiko (1) adibideak vs. *maten tzute gizon goa*. Honek Lekeitioko hizkeraren hautua ekartzen digu gogora, nahiz eta Lekeitiokoan, DOM hautazkoa den eta Erroibar eta Esteribarren, itxuraz, halaberrezkoa.<sup>24</sup>

Oso interesgarria da era berean Mounolek bere lanean arakutzen duen beste aukera bat datibo osagarri bitxien murriztapenak hobe ulertzen laguntzen diguna: osagarriak, datiboaz markatu ahal izateko, gizakia ez ezik, zehatza ere izan behar duela dirudi. Mounoleren (2008: 10) lanetik jasotako adibideak dira ondokoak, Lekeitioko euskararako hauek ere.

- (9) a. \*\*Eztotzat ezaututen iñori                      b. \*\*Morroi bateri ikusi dotzat

Antzeko datuak dakartza Tolosako hizkeraz ere:

- (10) a. \*\*Nik ez diot iñorrei ikusi                      b. \*\*Jonek neska askori ikusi dio  
c. \*\*Elkarri ikusi diote

Egileak dioenez, sintagma zehaztuak datiboaz marka daitezkeen arren, zehaztugabeak (a), kuantifikatzaileak (b) eta elkarkariak (c) absolutiboaz baino ezin daitezke markatu. Inolaz ez, datiboaz. Areago Tolosako hizkerako datuak aipatzerakoan, *baten* erabilerari dagokionez azpimarratzen duenez, erreferentziadun interpretazioa du datiboaz markatutakoak, absolutiboaz markatutakoa erreferentziagabea den bitartean.

- (11) a. Idazkari bat bilatzen det                      b. Idazkari bati bilatzen diot

<sup>22</sup> Salbuespen bakarra dakar (Mounole 2008: 11), gazte hizkeran, hirugarren pertsonako datibo osagarriak *ikusi* bezalako aditz arras arruntekin erabil daitezkeela dioenean, *ari ikusi dotzét* adibidean esaterako. Bizidun izanik ere, datiboa inondik inora jaso ezin dezaketanak izen arruntak dira: —*Han atropellado al perro!* —*Txakurre jol/harrapeu/zapaldu deurie* (Iglesias, buruz buru).

<sup>23</sup> Batzuetan ez da eraza testuak behar bezala interpretatzea, eta litekeena da, gainera, datu gehiagorik gabe okerretara interpretatzea. Esate batera, Pasaiako hizkeraz ari direla, halaxe diote Agirretxek et al. (1998: 122): “Pasaian oro har, NOR 3. pertsona deneko formak ageri zaizkigu NOR-NORK paradigmari dagokionez: ‘*det, desu, ditusu*’. Pasai Donibaneren kasuan garbi esan daiteke gainerako pertsonetako formak ez direla erabiltzen, eta horien ordez NOR-NORI-NORK zutabeko formak erabili ohi dituztela: *Oan dala urte batzuek ikusi sian eta esan tzian, Asko maite siaten*.” Esan nahi al du horrek DOM 1/2 pertsonetan baino ez dagoela? *Det, desu* eta abar gordetzeak ez du esan nahi, adibidez, gizakietarako forma kanoniko horiek erabiltzen direnik. Halako zalantza asko sortu zaizkigu hizkeren gramatikak aztertzen geginharduela.

<sup>24</sup> Aukera bakar bat (Erroibar/Esteribar) ala bat baino gehiago (Lekeitio) izateak aldaketak daraman bidea erakusten digu. Esanguratsuak dira, alde horretatik, Kontxi Arraztiok Araitz-Betelun jasotako datu-emaielen artean dagoen aldakortasuna: 1. DOM-ik onartzen ez duen hiztuna, 2 forma kanonikoak nahiz DOM onartzen dituen, eta 3 DOM beste aukerarik ez duena.

Halako datuak —eta ondoren (3) erakutsiko ditugun beste asko— nekez ateratu daitezke eskura ditugun hizkeren gramatiketarik. Kontuan izan lan hauetan DOM-en berri jasotzen dela nagusiki NOR-NORK —iragankor soila— eta NOR-NORI-NORK —iragankor datiboduna— paradigmaren arteko nahasketa labelpean, eta kasurik onenean, adibide batzuk eta oharren bat baino ez dutela gaineratzen hizkuntzalariek. Horrek zaildu egiten du fenomenoaren nondik norakoak zehazteko bidea erakusten du, orobat, fenomenoaren arakatzeko bereziki sortutako galdetegiak behar ditugula, —lanaren I eranskinean dakarguna, adibidez, Kontxi Arraztiok (2009) Araitz-Betelun erabili duena. Nolanahi ere, geroago ikusiko dugunez, Mouroleren goiko datuak, oro har, berresten dira Arraztioren DOM-dun datu-emailearen juzkuetan.

Deskribapena amaitzeko, bada, gure ustez, parametrotzeta ekar lezakeen beste aldagai bat, nahiz eta hala ote den zalantza sortzen digun. Denboraz ari gara, Rezacek (2006a)ko lanean aipagai duen aldagaiaz. Dena den, denborak inon eraginik izanez gero, ez da hori Lekeitioko hizkeraren kasua. Hizkera honetan ez dirudi-eta denborak DOM-i eragiten diotik, goian dagoeneko ikusi ditugun orainaldiko adibideen ondoan, iraganeko honakoak ditugulako:

- (12) a. Péruk ikusi naben / eustan                      c. Koldok dzo saittun / eutzun  
 b. Su ikusi saittuten / suri ikusi neutzun             d. Péruk ikusi eban / eutzan

Berriro ere DOM agertzen zaigu iraganen eta forma kanonikoarekin aukeran. Diferentziarik ez da, beraz, orainaldi eta iraganaren artean. Alabaina, beste hizkera batzuetan, itxuraz denborak nolabaiteko eragina du DOM formen agerpenen. Izan ere, hizkera batzuetan, bederen, halako formak ugariagoak dira iraganen orainaldian baino. Halaxe diosku, adibidez, Sagarzazuk (2005: 82)<sup>25</sup> Hondarribi eta Irungo hizkeretarako. Bestalde, Yrizarren lanera begira, ez dira gutxi DOM formak iraganen baino erakusten ez dituzten hizkerak. Hala, adibidez, Azpilkuetako hizkeran DOM bakarrik jasotzen da iraganen ez orainaldian (*zaiztet* vs. *natzen*); Yrizar (1997: 716-750). Horrek pentsarazten digu litekeena dela denborak ere nolabait baldintzatzea fenomenoaren hedadura, baina, egia esan, oso litekeena da ispiatzeko hutsa izatea.<sup>26</sup> Dena den, ez dugu uste inondik ere denborak parametrotzean zerikusirik balu, biziduntasunak beste garrantzi izango lukeenik; pertsona eta denboraren araberrako parametrotzearen Azpi-

<sup>25</sup> "NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetan berezko adizkiez gain, ohikoa da herriotan bestelako adizkiak erabiltzea. Esate baterako, NOR-NORK sailako adizkiek Irunen eta Jaizubian hobeto iraun badute ere, NOR bigarren pertsonari dagokionean NORI modura hartu ohi da orainaldian: *ekixi disú* 'ikusit zaitu' / *emán djēt kótxjan* 'eraman hau'.

Bordariren lekukotasunak (1981: 300) adierazten digu Hondarribian behintzat xx. mendean asko zabalduta zirela: *Múñetaraño sartuak ttugú hondarrabitárak*: "Ikusio diot, zuri ikusi, esan nau ta olakuak" Iraganen pertsona gehiagotara ere hedatu da joera." (Sagarzazu 2005: 82).

<sup>26</sup> Batzuetan hizkuntzalariek ematen dituzten adibideetara begira, iraganeko formak dira nagusi, esate baterako, Makazagak (2007: 131) fenomenoaren aipamena egiten duenean Elgoibarko hizkeran jasotzen dituen guzti-guztiak iraganekoak dira. Alabaina, Makazagak berak argitu digunez, formak horiek iraganekoak dira datu-emailek iraganeko kontakizunak egiten dituzten pasarteetatik aterak direlako. Grabazio libreetan aurkitutakoak ez dira halabeharrez iraganekoak; ikus baita Etxebarria et al. (2009). Iraganekoak izatea, hortaz, zorizkoa da eta ez zaio fenomenoari berari zor. Oso litekeena da Ordizian Garmendia & Etxabek (2004: 78) erdarakaden zerrandan jasotakoak ere arrazoi berarengatik izatea iraganekoak.

likuetako adibidea dakargu *I* eranskinean, *a* adibidean, inork zertaz ari garen zehatzago ikusi nahi balu.

### 1.3. Datibo osagarri bitxiak eta datiboaren lekualdatzea

Goian aipatu ditugun ezaugarri guztiek neurri batean datibo osagarrien izaera zehazteko aukera eman digute. Datibo osagarri bitxiak, orobat, datiboaren lekualdatzearekin —Fernández (2001), (2004), Fernández & Ezeizabarrena (2001) eta Rezac (2006a)— konpara daitezke, eta berez konparatu izan dira dialektologian ez ezik, gramatika lanetan ere.

Horretarako, badago (2) perpausari begira oso kontuan hartu beharreko ezaugarri bat, hau da, kasuak eta komunztadurak bat egiten dute datibo osagarri bitxiko perpausetan. Gogoan izan DOM osagarriei datibo kasua ezartzen zaiela, eta ez hori bakarrik, datibo komunztadura ere gaineratzen zaie. Honek dirudiena baino garrantzi handiagoa du. Izan ere, adizkien komunztadura ez-kanonikoa bakarrik balego fenomenoaren sustraietan, dialektologiako lan klasikoetan —eta gaur egungo hizkeren lanetan agertzen den moduan—, litekeena da ondoko perpausak izatea, eta ez goian aipatutakoak:

- (13) a. \*Nik zu ikusi dizut    b. \*Zuk ni ikusi didazu

Adibide hauetan, osagarriak absolutibo kasuarengatik ere, datibo komunztadura erakusten du adizkian. Ez dirudi, baina, perpaus gramatikalak direnik.<sup>27</sup> Dena den, honi dagokionez dialektologia lanetan interpretatzen bihurriak diren kasuak aurkitu ditugu. Esate batera, Yrizarrek (1981: II, 359) berak dakartzan adibideak halakoxeak direla pentsa liteke, alegia, absolutibo kasu eta datibo komunztadurakoak. Ikusi bestela:<sup>28</sup>

- (14) a. (Nerau) gurdian ekarri dit    b. (Nerau) gurdian ekarri nau

*Neraulekarri dit* bikotean, absolutiboaz markaturik dator argumentua, nahiz eta datibo komunztadura erakusten duen adizkian.<sup>29</sup> Horrek pentsaraz diezaguke datibo komunztadura ezarrita ere, ez dela horregatik datibo kasua ezartzen, absolutibo kasua baino. Egia da parentesia darabilela Yrizarrek. Hortaz pentsatzekoa da *nerau* isilduriko argumentua dela, ez agerikoa, eta hori dela eta darabilela Yrizarrek parentesia, hizkuntzalariok egin ohi dugun bezala; berez ahozko hizkeran pertsona izenordaina besterik gabe isildu egiten da, argumentua nolabait indarturik ez badago, behintzat. Eta isildurik egonez gero, orduan, bi hipotesi izan genitzake isilpeko argumentuaren kasuaren gainean: i) edo absolutiboaz markatzen da, berez, datibo komunztadurarengatik ere, hala behar lukeelako osagarriaren markapenak,

<sup>27</sup> Ez dugu esan nahi honelako perpausak ezinezkoak direnik euskaraz —zer da ba ezinezko?—. Baina izatekotan, ez dira, guk dakigula behintzat, inongo hizkeraren ezaugarri. Oso bestela, *zuridizut* bikotearen testigantzak badira hizkera batzuetan, eta hori da hain zuzen ere dialektologiek-eta jasotzen dutena *zuzaitut* bikotearen ordez.

<sup>28</sup> Halaxe dio hitzez hitz: “Sustitución inversa de la anterior: empleo de *dit* con significado impropio de “él me ha” (además del suyo propio, “él me lo ha”); este uso da lugar a expresiones incorrectas, tales como (*nerau*) *gurdian ekarri dit*, en lugar de (*nerau*) *gurdian ekarri nau* “él me ha traído en el carro (a mí mismo)”.

<sup>29</sup> Datu hauek, gainera, fenomenoaren berri lehenengoz ematen duenean aipatzen ditu Yrizarrek.

edo ii) datibo kasuaz markatzen da, modu ez-kanonikoan, datibo komunztaduraz markatzen den bezala.

Yizarren *nerau* horrek sor ditzakeen zalantzak alde batera, badirudi halakoetan, ii) hipotesia dela bietan zuzena, hau da, datibo kasua nahiz datibo komunztadura ezartzen zaizkiola osagarriari. Lekeitioko hizkerako datuak jaso ditugu goian eta ageriko datibo osagarria erakusten dutenak dira eurretatik batzuk. Hortaz, datibo kasua da osagarriak daramana, ez absolutiboa. Arratiako euskararen datuek ere baieztatzen dute (ii) hipotesia. Datuak Aitor Iglesias<sup>30</sup> jasoak ditu Arratiako euskarari buruzko bere doktorego tesirako. Bertan, Iglesias bera da galdetzailea eta arratiar datu-emailea erantzuna ematen duena.

- (15) a. —Te he visto  
 a'. —Érrepareu ein dotzet edo ikusí in dot  
 b. —A ti  
 b'. —Suri érrepareu dotzut  
 c. —Ikusi saítut?  
 c'. —Es, suri ikusí dotzut  
 d. —Saítut  
 d'. —Es, sóri ikusí in dotzut

(c'./d'.) erantzunei begira ikus daitekeenez, *dotzut* datibodun laguntzaile iragan-korraz gain, datibodun argumentua ere (*suri*) agerian dago, eta ez da, beraz, absolutiboz markatutako argumenturik. Ostean, *erreparatu* aditza ere ageri zaigu (a./b.) erantzunetan. Absolutibo eta datibo alternantzia erakusten duen aditza da *erreparatu*, eta datiboa hautatzen duenean, arratiar datu-emaile honen kasuan bezala, *zuri-ikusi* subestandarrak bere itxura bera hartzen du; diferentziak badira, geroago ikusiko dugu-nez.

Datu hauekin, beraz, ez dirudi zalantzarik dagoenik argumentuak datibo kasua duela pentsatzeko. Dena den, datu ezezkorrak ere izatea komeniko litzateke, absolutiborik egon ezin daitekeela erakustearren. Halakorik ez dugu bete-betean, baina hona hemen, beste arratiar datu-emaile batek erantzundakoa, *zu ikusi dotzut* forma eman zaionean. Iglesias dugu galdetzailea berriro ere.

- (16) a. —Hik zelan esaten dok te he visto a ti, *zu ikusi dotzut* edo *zuri ikusi dotzut*?  
 a'. —Jenteak hemen kallean *zuri ikusi dotsut* esaten dau. Baina *zu ikusi zaitut* be entzuten da eta berez hauxe da ondo dauena

*Zuri ikusi dotsut* aipatzen du, eta *zu ikusi dotzut*-en ordeaz, *zu ikusi zaitut*.<sup>31</sup> Inplizituki, behintzat, *zu* absolutibodun argumentua egonez gero, orduan *zaitut* laguntzaile iragankor soila erabiltzen dela dirudi.<sup>32</sup>

<sup>30</sup> Eskerrik asko Aitor Iglesiasi bere doktorego tesiko datuak ez ezik, gure galderei erantzun nahian jaso dituen datuak ere horren eskuzabaltasun handiz emateagatik. Berarenak dira, ez gureak, eta berak jasoak, besterik esan ezean, Arratiako hizkeraz atal honetan zehar emango ditugun datu guztiak.

<sup>31</sup> Egia esan, ez dira hauek aukera guztiak. Badago laugarren aukera logikoa: *zuri ikusi zaitut* alegia. Geroago helduko gara halakoetara.

<sup>32</sup> Ikus baita Salaburu & Lakar (2008: 103): “Hiztunak ez du normalean erraten ‘Mirenek *zu ikusi zatzun*’ baizik ‘Mirenek *zuri ikusi zatzun*’ (*zatzun*, alegia, *zizun*).

Irakurleari agian harrigarria egingo zaio argumentuaren kasua zein ote den horren xehetasun handiz eztabaidatzea. Itxuraz ezaugarri hutsala dirudienak berebiziko garrantzia du, gure ustez, datiboaren lekualdatzearekin konparatzen dugunean. Datiboaren lekualdatzean, kasua eta komunztadura banatu, bereizi egiten dira bata bestetik, eta halaxe interpretatu izan dugu fenomenoak guk zenbait lanetan —Fernández (2001), (2004), Fernández eta Ezeizabarrena (2001), Rezac (2006)— zehar osagarriari datibo kasua ezartzen zaio, absolutibo komunztadura egozten zaion bitartean. Hortaz, badirudi datibo osagarriak eta datiboaren lekualdatzea nolabait ezberdinak direla, eta ez garamatzatela ezta ondorio teoriko bertsuetara ere. Beharbada argumentuei, oro har, komunztadura ez-kanonikoa ezartzean datza bi fenomenoen arteko ezaugarri komuna; zehar osagarriari absolutibo komunztadura datiboaren lekualdatzean, eta osagarriari, berriz, datibo komunztadura aztergai darabiltzagun forma hauetan. Baina xehetasunei begiratzen hasita, eta xehetasunak diogunean, kasua bezalako auzi handiez ari gara, oso ezberdinak dirudite: zehar osagarriak berari dagokion datibo kasua erakusten du datiboaren lekualdatzean; forma hauetan, oso bestela, osagarriak berari kanonikoki ez dago-kion datiboa jasotzen du. Ondorioz, hemen kasuak eta komunztadurak bat egiten dute; lekualdatzean, aldiz, ez.

Honi guztiari hurbilketa teorikoari buruzko beste faktore orokor bat gaineratu behar zaio. Morfologia teoria aberats askok morfologian bertan azal lezaket DL, komunztadurari bakarrik eragiten diolako, baina nekezago koka lezaket DOM morfologian, fenomenoak absolutibotik datiborako kasu aldaketaz gain, absolutibotik datiborako komunztadura aldaketa ere badakarrelako, eta biak lotzeko, determinatzaile sintagma eta komunztaduraren artean dagoen urruntasun handia gainditu beharko litzatekeelako.

Gainerakoan, datu-emaile arratiarrak bezala, forma zuzen —*berez hauxe da ondo dauena*— eta okerrak bereiz litzake gure irakurleak eta hemen ere erabilera okerra ikusiz, okerkerian bi fenomenoak, mintzagai darabilgun hau eta kostaldeko *solezismoa* (Lafitte 1987) deitu izan dena bildu litzake.<sup>33</sup> Kontuan hartu erabilera okertzat jo izan direnean, biak *dit*-en ordezkoko *nau*, datiboaren lekualdatzea alegia, eta *nau*-ren ordezkoko *dit*, bata bestearen ondoan jarri izan direla, fenomeno biek zerikusia izango balute bezala: Yrizarrek berak halaxe egiten du,

<sup>33</sup> Interesgarria litzateke, landa-lana abiarazten dugunean, sistematikoki jasotzea hiztunek zer deritzen halako forma estigmatizatuei. Argigarriak dira, zentzu honetan, Iglesiassek jaso dituen ondoko hitzak.

- (i) a. —*Selan esaten dosu te he visto?*  
a'. —Ikusi dotzut
- b. —*Ta ikusi saítut edo?*  
b'. —Es, es, es, badákit ikusi satút esán bear dana báya ikusi dotzut
- c. —*Eta sekulan estosu erabilten ori?*  
c'. —Es, iñós bes. Orrek éuskera sera estot... guréa. Txárto báya buéno; txárto ala óndo báya guréa da.

Datu-emaileak argi bereizten du zer den esaten duena eta zer esan *behar* dena, ezagutu ere ezagutzen dituelako forma *zuzenak* (estandarrak), baina ez dira forma zuzen horiek bereak, *txarto* erabilitakoak baino.

eta ez berak bakarrik.<sup>34, 35</sup> Eta egia ere bada, aditz laguntzaileari bakarrik begiratzeko bazaio —ez, horrenbeste osagarriaren kasuari—, orduan fenomeno biek zehazki izan lezaketela baita ikuspuntu deskribatzaile hutsetik ere; ikus, esaterako Hualde, Elordieta & Elordieta (1994: 125). Izan ere, osagarri hauek datibo kasua jasotzeak berehalako ondorio esanguratsu bat dakar: *nau* bezalako adizkiak desagertu egiten dira, *dit* bezalako ezkerreko ordezkatuz, edo bestela esanda, laguntzaile datibodunak betetzen du kanonikoki datibogabeak bete beharko lukeen tokia (a) eta baita berez dagokiona ere (b).<sup>36</sup> Hona hemen (4) adibideak errepikaturik, antzekotasunez kontura gaitzen:

(17) a. (Ni-k)	su-ri	ikusi	d-o-t-zu-t	
	ni-E	zu-D	ikusi.A	espl-erroa-DA-2D-1sE
	b. (Ni-k)	su-ri	liburua	emon d-o-t-zu-t
	ni-E	zu-D	ikusi.A	eman.ASP espl-erroa-DA-2D-1sE

Eta hau esanda, neurri batean lehengo atal baten hasierara itzuliko gara (1.1), Yrizarren aipamena eginez, *nau*-ren ordez *dit* daukagula zioen lehen paragrafoa, hori delako, hain zuzen, (a) adibideak erakusten diguna, datibo kasudun argumentuari begiratu beharrean, aditz laguntzaileari begiratzeko zaionean. Begi-bistakoa da, beraz, osagarri-datiboak izateak inflexiora dakarren ondorioa: datibodun laguntzaileak datibo-gabea zokoratzen du, eta ondorioz, lehen edota bigarren pertsonako *nau-zaitut* bezalakoak desagertzen dira, nahiz eta hirugarren pertsonakoak, hau da, *du* modukoak gordetzen diren. Dena den, gure orain arteko deskribapenean erakusten saiatu garen bezala, fenomeno ezberdinak dira biak: osagarria datibo kasuaz markatzearen ondorioz agertzen da gero datibo komunztadura eta ez alderantziz. Rezac-ek ere (2006: 62) halaxe begiratzeko dio fenomenoari.

Baina itzul gaitzen ildo nagusira. Datibo osagarri bitxiak datiboaren lekualdatzea ez bezalakoak direla aldarrikatu dugu, kasua eta komunztadura ez dira-eta bata bestetik bereizten osagarria datiboarekin markatzen den kasuetan. Bereiziko balira, orduan datiboaren lekualdatzearen ezaugarri nagusia, hau da, *komunztadura bitxia*

<sup>34</sup> “Forma batzuk gaizki erabilia daude, gaur egun gazteak analfabetoak diren neurrian, gaizki erabiltzen bait dituzte. Berrogei urtetik gorakoek, eta zenbait gazte jatorrak, batez ere euskaraz beti egiten dutenak, ongi erabiltzen dituzte nork-nor formak batzuk besteekin nahastu gabe. Baina biak erabiltzen eta nahastuz diren neurrian, gaizki eta ongi erabiltzen direnak jaso ditut, errealitatea hori baita.” Busturiko euskarari buruz J. Aguirreazcuenagak dioena, Yrizarrek (Yrizar 1981: II, 365) jasotzen duen modura.

<sup>35</sup> Beste eztabaidagai bat izan liteke ea gramatikariok honelako egiturez arduratu beharrik ote dugun ala ez. Abstrakzio bideak halako formak ezinbestez zokoratzea eraman gaitzake, nahikoa dugularik forma kanonikoa deskribatu eta azaltzearekin, baina hala izanik, bazterrean uzten ditugu hizkeren forma ez-kanonikoak, hizkeretan *de facto* ditugun horiek, euskararen normalizazio eta batasun bidean sarri askotan aitortu nahi izan ez direnak edota besterik gabe forma estigmatizatuak izan direnak hiztunen artean. Gu sintaxilariok gure urteotako lanaren bitartez erakusten ari gara mikro-aldakortasunaren aukerak eta mugak aztertzea zein garrantzitsua den ikuspuntu deskribatzaile huts, tipologiko zein teorikotik; ikus baita Fernández & Ortiz de Urbina (2008: 161-162) ere. *Basdisyn* lantaldeak euskararen hizkeretan aldakortasun sintaktikoa sortzen duten aldagaitzat jo du hemen aztergai duguna.

<sup>36</sup> Horregatik jasotzen da DOM gaur egungo hizkeren gaineko hainbat gramatikatan, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK paradigmen nahasketa gisa.

(Hale 2001) ere azal liteke, baina ez da hala. Berez, baldintza sintaktikoek beraiek ere ezberdinak dirudite. Datiboaren lekualdatzea gerta dadin, datibo argumentuak lehen edota bigarren pertsonakoa izan behar du, absolutibo argumentuak hirugarren pertsonakoa izan behar duen bitartean. *Ikusi dotzut* eta abarretan, jokoan dagoen bakarra osagarria bera da. Gainera, osagarriak ez du zertan hirugarren pertsonakoa izan behar: lehen edota bigarren pertsonakoa ere izan daiteke, goian dagoeneko erakutsi dugun moduan, eta baita hizkeren arabera hirugarren pertsonakoa ere —ikus 1.2—. Nolanahi ere, diferentziak diferentzia, antzekotasunak ere badituzte, esate batera, pertsonari dagokionez, parametrotu daitezke biak bai datiboaren lekualdatzea (Rezac 2006a) bai, ikusi dugunez, DOM bera ere (Lekeitio vs. Arratia).

Deskribapena osatuz joateko, Rezac-en (2006: 64-65) lanera itzuli nahi dugu. Goian esan dugun moduan, datiboaren lekualdatzea hobe ulertze bidean aztertzen ditu Rezac-ek datibo osagarri bitxiak. Izatez, Rezacek dioenez, eta irakurleak, hizkera eremuaz esan diogunaz gogoratuko duenez, datiboaren lekualdatzeak eta datibo osagarri bitxiak ez dute zertan hizkera banaketa bera izan behar: hizkera batzuetan datiboaren lekualdatzea dago bakarrik —lapurtera osoan, oro har, esate batera—, eta beste batzuetan, berriz, datibo osagarri bitxiak baino ez (Erroibar eta Esteribarrek hizkeretan). Hala eta guztiz ere, badira, era berean, datiboaren lekualdatzea nahiz datibo osagarri bitxiak jasotzen dituzten hizkerak, Lekeitio edota Irungoak, esate baterako, eta horiexei, hain zuzen, begiratu nahi diegu jarraian. Izatez, goian deskribatu gabe utzi dugun azken aukera logikoa da gogoan duguna eta hori aztertzea da gure oraingo asmoa.

(18) Niri ikusi nauzu

Perpau honetan, orain arteko guztietan ez bezala, datibo osagarri bitxia ageri da, baina era berean datibogabeko *nau* laguntzailea. Irakurleak pentsa lezake osagarria datibo kasuaz markatzeko joera bada DOM-en sorburua, orduan, DOM zein DL erakusten dituzten hizkeretan, goikoa bezalako perpauak aurki litezkeela. Gogoratu, adibidez, goian Basauriko hizkeratik jaso duguna halakoa dela:

(19) Aurok guri yo in gatus

Baina adibide honek bere mugak ditu, Arretzek (1994: 151, 57) dioenez, forma nolabait ihartua delako, eta *gu(ri)* osagarria den guztietan (*zuk guri, zuek guri...*) erabiltzen delako. Hortaz, halako itxura duten egitura emankorrek dira guri axola digutenak. Dena den, DOM eta DL hizkera berean izatea ez dirudi nahikoa denik, halako formak izateko. Esate baterako, Lekeitioko euskaraz ez da perpau gramatikala, Arantzazu Elordietak esan digunez, nahiz eta egitura biak ezagutzen dituen hizkera den. Hala, osagarriaren markapenean, kasu eta komunztaduraren arteko korrelazioa dago —baldin eta absolutibo kasua, orduan absolutibo komunztadura eta baldin eta datibo kasua, orduan datibo komunztadura—:

- (20) a. Peruk ni ikusi nau / \*Peruk neri ikusi nau  
 b. Peruk ni ikusi nabn / Peruk neri ikusi eustan / \*Peruk neri ikusi nabn

Ez-gramatikalak dira, beraz, DOM datiboaz markatu eta absolutibo komunztadura egozten dioten adibideak. Ez dira, dena den, hautu berekoak DOM eta DL dituzten hizkera guztiak, begiratu besterik ez dago honako adibide hauei:



- (21) a. Ez al duzu gogoratzen nola aurkeztu nintzen hiru aldiz azterketetara, eta hiruretan zuk zeuk bota ninduzun atzera ahozkoan, «zuri ikusi zattut», «zuri esan zattut», eta antzekoak esaten nituelako, oiartzuar jatorren antzera...?<sup>37</sup>
- b. Ez genuenez dirurik, gauean, maletak egin eta alde egin genuen inork guri ikusi ez gintuzen?<sup>38</sup>
- c. zergatik ez gaituzue uzten, gure alardeaz disfrutatzen, beti bezala, eta ondoren, bagoazenean, zuek pasa zuei ikusi nahi zaituztenek ikusteko?<sup>39</sup>

Adibideotan, datiboaz markatzen da osagarria, baina datibo osagarri horrek absolutibo komuntzadura jasotzen du inflexioan. Mikel Lersundik (buruz buru) argitu digunez, Pasaiako hizkeran eta bereziki Pasai Donibanekoan, ohikoak dira bai *niri eman nau* —DL-duna— bai orain mintzagai dugun *niri ikusi nau* —DOM zein DL-duna— hibridoa.

Ikuspuntu teoriko hutsetik ere, diferentziak sortzen dira orain arte egin ditugun proposamenen artean. Esate batera, Fernándezen (2001, 2004) oinarri teorikoekin ez dirudi (12) bezalakoak sor daitezkeenik. Gogoratu lan hauetan proposatu genuenez, datibo argumentuak absolutibo komuntzadura jasotzen duela, baldin eta perpauscan hirugarren pertsonako absolutibo osagarriak badago. Hortaz, absolutibo osagarriak ez dagoen goiko perpausetan, teorikoki datibo argumentuak ezin lezake *nau* bezalako adizkirik erakutsi inflexioan. Oso bestela, Rezacen (2006a) azalbide teorikoa erabiliz, halakoxe datuak izatea espero izatekoa da, eta ia zorizko hutsunetzat jo behar du lekeitiarren sisteman ezin ager daitezkeen goiko adibideak. Edozelan ere, irakurlea konturatuko zenez, gutxienez, Rezacen Irungo [> Errenteria] datu-emaileak *niri ikusi nazu* hura ontzat jotzen du *niri ikusi dit* formarekin batera, eta hori ontzat jotzen bada, eta ez bada behintzat, ezer idiolektala, orduan, hauexek ere azaldu beharko lituzke ezein hipotesik.

Amaierara bidean, DOM eta DL-dun hizkerez ari garela oraindik ere, Rezacek (2006) gure ustez esanguratsua den beste gai bat ere aipatzen du. Berak dioenez, hizkera batzuetan, datibo osagarri bitxiak ageri zaizkigu datiboaren lekualdatzea ezartzen ez denean, eta alderantziz. Izan ere, DOM eta DL ia banaketa osagarrian dauden paradigma oso bat erakusten dute. Hauxe da, adibidez, Hondarribiko hizkerak erakusten duena (ikus II. eranskinetako (b) adibidea), Rezacen hitzetan oso arraroa dena: muturreko sistema honetara lerratzen diren hizkeratzat jotzen ditu Burunda eta Etxarri-Aranatzekoa. Hizkera honetan *ikusileman nazu* vs. *ikusidigu, dizu, dizue* sistema dugu, hau da, singularreko 1 pertsona alde batera, DOM nonahi duena eta datibogabeko formarik, *zaitu* adibidez, ia gorde ez duena. Baina, orobat, DL dugu singularreko lehen pertsonarako (*eman nazu*) eta ez da datibodun formaren aztarnarik (*eman didazu*). Horregatik aipatu dugu gorago DOM eta DL-ren arteko banaketa osagarria dagoela zenbait hizkeratan. Dena den, gauzak oso sinplifikaturik eman ditugu, irakurleak, nahi izanez gero, xehetasunak jasoko dituelakoan eranskinetako tauletan. Irakurleak badaki datu berberak ikusi eta inter-

<sup>37</sup> <http://www.ivap.com/admeusk/kontaki2.htm>

<sup>38</sup> <http://inati.pnte.cfnavarra.es/iturrrpro/aldizkaria/blogs/index.php/2008/08/20/ipuina?blog=17>

<sup>39</sup> <http://arkimia.nireblog.com/post/2007/09/08/emakumeak-alardean-hacia-la-igualdad%23comment-213671>

pretatzeko modu bat baino gehiago dagoela, eta gurea modu horietatik bat besterik ez dela.

#### 1.4. Datibo osagarri bitxiak absolutibo/datibo alternantziadun aditzetan

Goian aztertu ditugun datibo osagarri bitxiak hizkera jakinetan aurki ditzakegu, eta ez dira estandarrena heldu. Orain aztergai darabiltzagunak, aldiz, hizkera guztietan daude orokorturik, eta ez dira beraz subestandarrean zokoratutako formak. Datibo osagarri hauek nagusiki bi eremutan aurki daitezke, batetik datibodun inergatiboetan eta bestetik absolutibo/datibo alternantziadun aditzetan. Gogoratu absolutibo/datibo alternantziadun aditzek ere datiboaz marka dezaketela osagarria, nahiz eta osagarriaren markapenean datiboa absolutiboarekin txandaka daitekeen. Aditz hauen berri jasotzen du Euskaltzaindiak (1987) *nor izuna* duten aditzen labelpean; Etxeparek (2003) *alternating verbs* deritze, eta Fernández eta Ortiz de Urbinak (2008, 2009) absolutibo/datibo alternantziadun aditzak, guk hemen deritzegun bezala.

Ez dugu zoritxarrez gure datibo osagarri bitxiak alternantziadun aditzetako datibo osagarrien portaerarekin behar besteko xehetasunez aztertzeko modurik eta beste baterako utzi beharko dugu. Dena den, zenbait ezberdintasun erakutsi nahi genituzke jarraian.

Dagoeneko ahaztuko zitzaion gure irakurleari Bilintxen hasierako bertsoaren *ari ainbeste nai diyotanik* hura. Bada, igual garaia dugu forma hura berriz ere gogora ekartzeko. Izatez, guk geuk ere zalantza izan dugu ea *nahi izan* predikatuaren osagarria goikoak bezalako datibo osagarria ote den ala alternantziadun predikatuak hautatzen ote dutenen modukoa. Zalantzak zalantza, oso litekeena da alternantziadun predikatua izatea *nahi izan* adiera honetan. Begira bestela ondoren dakartzagun adibideak, *OEHT*ik (Mitxelena eta Sarasola 1987-2005) jasoak denak:

- (22) a. Egiyazko amorioz / nai dizutalako (Bil 98)
- b. Ez det senide, baña seme bati aña nai diot nik oni (Apaol 108)
- c. Bere biziari niri baño gehiago nai dionak, anima galduko du (Lard 395)
- d. [Aurren] inozentziari zenbat nai zion adierazteko (Lard 421)

Diferentzia bat azpimarratuko genuke, bereziki (c,d) adibideei begira, lehenago hizkeretan jasotako datibo osagarrien adibideekin alderaturik: hemen datiboa ezartzen zaie baita Biziduntasunaren Hierarkiaren behe-behean dauden izen sintagmei ere. Hau da, ez dago ez gizaki ez bizidun izan beharrik datiboaz markatzeko. Areago, Mounoleren (2008) datuei begira, bederen, erabat ez-gramatikalak diren sintagma zehaztugabeek ere jaso dezakete datiboa, goiko adibideetan ez bezala.

- (23) a. Bere buruari nai dio beste guzien gañetik (Echta *Jos* 24)
- b. Ta beragatik lagun urkoari nai diogu geren buruari bezala (Ub 123)

Areago, *gura izan* predikatuak, neurri batean, *nahi izanen* antzera erabiltzen denak, halako erreferentzia zehaztugabeko adibideak erakusten ditu ondokoetan:

- (24) a. Emen, ikusten badogu penaz ondo gura deusagun pertsona bat, errukituten gara (JMMg *BasEsc* 93)
- b. Ez dago bat eurai ondo gura deutseenik (fB *Ic* II 214)

Diferentziak, beraz, izan badira. Areago, ez ahaztu absolutibo/datibo alternantziatz ari garela, hortaz, printzipioz espero izatekoa da absolutiboa ere agertzea, datiboa bera agertzen zaigun banaketa berarekin, eta hala dela dirudi.

- (25) a. Nork naiko naun ni? nork? / Aberatsa ez danik / ez du maite inork (Bil 48)  
 b. Ez dadukat dirurik / eta ondasunik; / ez det uste, Bartolo, / zuk naiko nazunik (Tx B II 100)

Ikusten denez, lehen adibidea Bilintxena da berriro ere. Hemen absolutiboaz markatzen da *nahi izan* predikatuaren osagarria, ez datiboaz, adiera itxuraz berean.

Fernández eta Ortiz de Urbinak (2008) xehetasun handiz jasotzen dute alternantziadun aditz hauen berri, eta inoiz ere mintzagai izan ditugu (Fernández eta Ortiz de Urbina 2009). Hortaz, oraingoan, behintzat, goian eman ditugun zertzelada horiek baino ez ditugu aipatuko, datibo osagarri bitxien gai orokorra osatzen lagun dezaketelakoan.

Gogoan izan gure *nahi izan* edota *gura izan* predikatuak alde batera absolutibo/datibo alternantziadunak direla *abisatu*, *barkatu*, *begiratu*, *bultzatu*, *deitu*, *entzun*, *erregutu*, *erreparatu*, *esetsi*, *eskertu*, *iguriki*, *itxaron*, *jarraitu*, *jazarri*, *kontseilatu*, *laga*, *lagundu*, *manatu*, *obeditu*, *oratu*, *segitu*, *ukitu* eta *utzi* (Etxepare 2003, Fernández eta Ortiz de Urbina 2008, 2009).

## 2. *Differential object marking* edo osagarri markapen bereizgarria (DOM)

Mintzagai darabilgun fenomenoak, hizkuntza tipologian eta gramatika teorian, oro har, *differential object marking* edo osagarri markapen bereizgarria deitu izan denaren barruan (Bossong 1991, 1997, Lazard 2001, Aissen 2003)<sup>40</sup> bil daiteke: osagarri bizi-dun edota zehaztuek gainerako osagarriek ez bezalako kasu-markapena eta markapen nabarmenagoa izaten dute munduko hizkuntzetan. Sarri askotan, markapen bereizgarriko osagarriek datibo marka erakusten dute, hala nola, gaztelaniaren leismoan, hindi-urdueraren *-koren* erabileran edota euskararen datibo osagarri bitxietan.

Hizkuntza erromanikoetako DOM-az ari garenean, DOM osagarriek zehar osagarrien *a*-markapena izaten dute —errumanieraz izan ezik— eta ez horren sarri, klitiko sorta berak bikoizten ditu (Bossong 1992). DOM-ek datibo itxura erakustea arrunta da baita fenomenoak hizkuntza artean arakatzen denean ere, adibidez, hindieraz, guaranieraz edota tigreraz, nahiz eta unibertsala ez den: hebraiera (Aissen 2003), pertsiera (Lambton 1993) edota turkiera (Kornfilt 1997, Enç 1991).

Hizkuntza artean nahiz bereziki euskaraz, begi-bistakoa da datibo osagarri bitxiek datibodun zehar osagarriekin duten azaleko antzekotasuna, baina ez dago horren argi antzekotasun horren ondorio teorikoak zein diren. Izan ere, zein dira datibo osagarri bitxiek oro har datiboen sintaxitik jaso dituzten alderdiak, datibo itxura izateko? Anlisi gehienek ez dute ematen egitura sintaktiko bera markapen bereizgarriko datibo eta datibodun zehar osagarrietarako, eta batzuetan egituren artean dagoen antzekotasuna zorizkoa da.

<sup>40</sup> *Identified object marking* ere deitu izan zaio; ikus Masica (1980).



Leismoa, labur adierazita zera da, *le(s)* klitiko datiboaren erabilera *lo(s)* eta batzuetan *la(s)* klitiko akusatiboan ordez. Fernández Ordoñezek (1999) deskribapen bikaina du fenomenoaz, eta bere lanetik jasotakoak dira ondoko adibideak:

(28) ¿Conoces a Juan? Sí, le conozco hace tiempo

Euskal Herriko gaztelaniaren leismoan, *le(s)* klitiko datiboak biak *lo(s)* maskulinoa eta *la(s)* femeninoa ordezkatzen ditu; ikus Fernández-Ordoñez (1999: 1349-1355), Landa (1995).

(29) A María hace tiempo que no le veo

Fernándezek (2008) datibo osagarri bitxi eta leismoaren arteko antzekotasun batzuk zehaztu ditu: batetik, datibo osagarri bitxiak dituzten hizkeretan, ez dago absolutibo eta datibo komunztaduraren arteko aurkakotasunik, ezta leismoan gaztelaniaren hizkeretan akusatibo eta datibo klitikoaren arteko; bestetik, biak datibo osagarri bitxiak zein leismoa Biziduntasun Hierarkiaren baldintzatzen ditu, nahiz eta datibo osagarri bitxiak gorago azaltzen zaizkigun hierarkian leismoa baino: gizaki < bizidun, bizigabeak euskaraz, eta bizidun < bizigabeak gaztelaniaz; ikus baita Mou-nole (2008). Era berean, diferentzia esanguratsu bat aipatzen du, alegia, euskaraz komunztadurari ez ezik, kasuari berari ere eragiten diola. Hortaz, datiboa da osagarri nahiz zehar osagarri ezartzen zaien kasua, eta ondorioz baita datibo komunztadura ere datibo osagarri bitxi nahiz zehar osagarri ezartzen zaiena, datibodun aditz laguntzailea aukeratuz, jakina.

Leismoan hizkeretan, badira oraindik ere osagarri zuzen eta zehar osagarrien arteko diferentziak, esate batera, DOM izateko, osagarri zuzena biziduna izan behar da; zehar osagarriak, berriz, bizigabeak izan daitezke (a). Era berean, osagarri zuzen zein zehar osagarriak beti bereizten dira egitura pasiboetan leismoan hizkerak izan zein ez. Hala, osagarri zuzena nominatiboaz pasibotzen da beti (c), ez datiboaz (d):

- (30) a. Le di una patada a la mesa [zehar osagarri bizigabea]  
 b. \*No le he comprado todavía (el libro)  
 c. El libro fue visto [pasiboa]  
 d. \*Le fue visto  
 e. El libro fue entregado  
 f. Le fue entregado

Nolanahi ere, leismoan sistemak *le* datibora hurbiltzen dira, esate batera, *a nadie* bezalako sintagma zehaztugabeak bikoizteko gaitasunean (a).<sup>41</sup> Horixe da, hain zuzen, Euskal Herriko leismoan duguna. 1 eta 2 pertsonako osagarri zuzenak zehar osagarrien klitiko berberekin kodetzen dira, eta bikoizteko gaitasun bera dute (Ormazabal & Romero (2006).

- (31) a. No le vio (%a nadie) [bikoizketa]  
 b. No os encontramos a nadie (Ormazabal & Romero 2006)

<sup>41</sup> Bleamek (2001: 49) ez-gramatikaltzat jotzen du *Juan no (\*le) conoció a nadie* perpausa vs. Ormazabal eta Romero (2006).

Ikuspuntu teorikoen sortak antzekotasun eta ezberdintasunen aukerak islatzen dituzte:

- a) DOM osagarriak sintaktikoki datiboak dira. Aukera hau ageriko morfologia-tik gertu dago. Hortik dator DOM osagarriek eta datiboek ezaugarri berberak izatea, gainerako osagarri zuzenetatik bereiziz. Bleamek (2001) analisi hau dabil leismorako.
- b) DOM osagarriak sintaktikoki osagarri zuzen hutsak dira. Aukera hau argumentu egituratik hurbil dago. Hala, DOM osagarriek eta osagarri zuzenek, oro har, ezaugarri berberak dituzte, eta datiboak ez bezalakoak dira. Ormazabal eta Romeroren ustez (2007: 320) Euskal Herriko leismoaz ari direla, *No le vi a nadie* bezalako perpausetan, *a nadie* osagarri zuzen hutsa da eta *le* klitikoa erabiltzea *loren* orde z biziduntasun ezaugarriaren burutzapen morfologikoari zor zaio. Ildo honetan, *le* honek ez du zerikusirik zehar osagarrien *le* klitiko eta *a*-markapenarekin; ikus Ormazabal eta Romero (2006) beste hurbilketa baterako.
- c) DOM osagarri zuzenak bezalaxe sortzen dira oinarrian, ez zehar osagarrien antzera. Alabaina, osagarri zuzenek ez bezala, zehar osagarrien zenbait ezaugarri ematen dizkien mugimendu sintaktiko berezia jasaten dute. Ideia honen oinarria da zehaztasunean goren dauden argumentu zuzenak (ez zeharkakoak) aditz sintagmatik atera behar direla interpretazio arrazoiengatik (Jelinek eta Diesing 1995).

Ikusten denez, hiru hurbilketa teoriko dugu aurreikuspen garbiekin. Hirugarren hurbilketa teorikoa dabil Bhatt-ek (2006) hindi-urdueraren DOM osagarrietarako. Analisia, hirugarren hurbilketa teorikoarengatik ere, lehen hurbilketara ere hurreratzen da DOM eta oro har datiboen berdintasun morfologikoa ere jasoz.

Hortik jarraian datorren oinarritzko galdera analitikoa zera da: DOM osagarriek (eta euskaraz datibo osagarri bitxiak) eta zehar osagarriek duten kodetze erkideak ezkututzen al du osorik edo zati batean sintaxi erkiderik?

## 2.2. Hindi-urdueraren *-ko* markapenaz

Hindi-urdueraz, askotariko erabilerak ditu *-ko* atzizkiak. Guk gure eztabaidarako, bereziki osagarri zuzen eta zehar osagarrien *-ko* markapenari begiratuko diogu (*a*-markapenaren antzekoa da), baina benetan interesgarria da atzizki honek duen askotariko erabilera, euskal datiboari hurbiltzen zaiona alderdi batetik baino gehiagotatik; ikus Ahmed (2006). Atzizkia oro har aztertzeak izan lezakeen interesarengatik ere, ikus ditzagun orain markapen bereizgarriko osagarriek dagokienez erakusten dituen oinarritzko datuak.

Hindi-urdueraz, zehar osagarriak eta bizidun/zehatzak diren osagarriak *-ko* atzizkiak markatzen dira, gainerako osagarri zuzenak markatu gabe utziz; hindieraren deskribapena garatzeko Bhatti (2006) jarraituko diogu:

- (32) Mina tum-\*(ko)/Tina-\*(ko) dekh rahii thii  
Mina.f zu-KO/Tina-KO ikusi prog.f izan.irgn.fsg  
'Mona zuri/Tinari begira zegoen'

Goiko adibidean ikusten denez, *-ko* atzizkiak halaberrez markatzen ditu osagarriak, lehen eta bigarren pertsonako pertsona izenordainak badira (*tum-\*(ko)* ‘zuri’), baita bizidunak diren izen bereziak ere (*Tina-\*(ko)* ‘*Tinari*'). Halaber, aukeran marka ditzake hirugarren pertsonako osagarriak bizidunak izanez gero, eta zehatzak diren DS bizidun zein bizigabeak. Ikusten denez, leismoaren banaketa eremu bera du *-ko* atzikiak.

*-Ko* markapenak datiboen are antz handiagoa du leismoak baino. Izan ere, *-ko* markadun osagarri zuzenak egitura pasiboetan aurki daitezke aukeran, *-ko* markadun zehar osagarriak bezalatsu (gatzelaniaz ezinezkoa den aukera). Izan ere, egitura pasiboetako osagarri zuzenek bi aukera dituzte: bata, *-ko* markapena, iragankorretan bezala, bestea markarik eza, baita argumentua zehatza edota 1/2 pertsonakoa denean ere, inakusatiboen subjekturako eskuragarria den aukera bakarra.<sup>42</sup> Gogoratu goian erakutsi dugunez, gatzelaniaz osagarri zuzenak pasibotzerakoan ez dagoela DOM-ik.

- (33) a. Ram-ne is tehni-kō kal kaat-aa thaa  
 Ram-ERG hau abar.f-KO atzo ebaki-Pfv.msg izan.irgn.msg  
 ‘*Ramek abar hau ebaki zuen atzo*’  
 b. is tehni-kō kal kaat-aa gayaa thaa  
 hau.zhr abar.f-KO atzo ebaki-Pfv.msg izan.irgn.msg  
 ‘*Abarra atzo ebakia izan zen*’

Bhattena DOM aztertzeko beste bide bat da eta horregatik dakargu hona. Ez da gatzeleniarako aproposa batetik *-ko* markapenaren oinarritzko ezaugarriak diferentek direlako eta bestetik aldakortasun handia erakusten duelako. Guk erakusgarri modura baino ez darabilgu, gure datuak eta balizko azterketa teoriko baten gakoak bertan aurki daitezkeelakoan.

### 3. Datibo osagarri bitxiak, osagarri zuzen

Azken atalean, DOM izan dugu mintzagai eta eztabaidan zehar zehaztu ditugu bera zer den erabakitzeke gatzelaniaz nahiz hindi-urdueraz erabili diren irizpide eta frogak, osagarri zuzenekin eta zehar osagarriekin konparatuz. Ondoren datibo osagarri bitxien izaera hobe zehazteko asmoz, bigarren mailako predikatuak (3.1), bi datibodun egiturak eta bide batez Pertsona Kasuaren Murriztapena (3.2), eta azkenik urruneko datiboak —*behar/nahi* egiturak, *ari izan* eta egitura arazleak (3.3)— aztertuko ditugu osagarri bitxiekin harremanetan. Erakutsiko dugunez, datibo osagarri bitxiak, han eta hemen erakusten duten jokabidea ikusirik, osagarri zuzenak direla pentsarazten digute. Ikus dezagun, bada, datibo osagarri bitxien jokabidea ondoko lerroetan.

#### 3.1. Bigarren mailako predikatuak

Euskaraz, zehar osagarriek, absolutibodun osagarri zuzenek ez bezala, ezin dute bigarren mailako predikaturik zilegiztatu (Zabala 1993, Oihartzabal 2007, Arregi eta Molina-Azaola 2004). Ondoko adibideak Oihartzabalenak (2007) dira:

<sup>42</sup> Kontuan izan, halere, Mohanane (1994: 92-7) hizkeren arteko aldakortasuna aipatzen duela.

- (34) a. Jonek haragia<sub>i</sub> gordinik<sub>i</sub> jan zuen  
 b. \*Jonek<sub>i</sub> Joanari<sub>j</sub> berriak mozkor<sub>i/\*j</sub> eman zizkion<sup>43</sup>

(a) adibidean, *gordinik* bigarren mailako predikatua absolutibodun osagarriari zuzentzen zaio, eta (b) adibidean *mozkor* ergatibodunari, baina bigarren mailako predikatu hori bera ezin zaio *Joanari* datibodun zehar osagarriari zuzendu.

Kontua da datibo osagarri bitxiek, goiko datiboaren jokaera ikusita pentsa litekeenaren kontra, bigarren mailako predikatuak zilegizta ditzakeela, ondoko adibideetan bezala:

- (35) a. Nik<sub>i</sub> zuri<sub>j</sub> mozkortuta<sub>i/j</sub> ikusi dizut  
 b. Nik<sub>i</sub> umeari<sub>j</sub> oinutsik<sub>i/j</sub> ekarri diot

Hortaz, bigarren mailako predikaziora begira ikus daitekeenez, datibo osagarri bitxiek bat egiten dute absolutibodun osagarri zuzenen ezaugarriekin, zehar osagarrietatik bereiziz: ikus 2. eta 3. hiztunen galdetegiko (10) erantzunak.

Hemen datibo osagarri bitxiek nahikoa jokaera berezitua erakusten dute gaineko datiboekin konparatuz gero. Izatez, datibo argumentuen artean, araziak izaten dira salbuespen bigarren mailako predikatuak zilegiztatzerakoan (Zabala 1993). Konpara itzazue ondoko bi adibideak.

- (36) a. Nik<sub>i</sub> zuri<sub>j</sub> umea<sub>k</sub> haserre<sub>i/\*j/k</sub> ekarri dizut  
 b. Nik<sub>i</sub> zuri<sub>j</sub> umea<sub>k</sub> haserre<sub>i/j/k</sub> ekar arazi dizut

(a) perpausean, datibodun zehar osagarriak ezin du *haserre* zilegiztatu, gorago esan dugunaren haritik; bai, ordea, datibo araziak (b) perpausean. Dena den, iruditzen zaigu beharrezkoa dela xehetasun handiagoko deskribapena egitea, datibo osagarrien jokabidea hobe zehazteko, iruditzen baitzaigu, kasu batzuetan, esate batera absolutibo/datibo alternantziadun aditzetan, datiboei aitortu zaiena baino bigarren mailako predikatu gehiago zilegizta ditzaketela. Esate baterako, Araitz-Beteluko 1. hiztun DOM-ik gabeak, ondoko (a,b) perpausak ez ditu ontzat hartzen, baina (c) perpausa bai, eta baita Arantzazu Elordietak ere Lekeitioko hizkeran.

- (37) a. Nik<sub>i</sub> Mikeli<sub>j</sub> biluzi<sub>i/\*j</sub> begiratu nion hondartzan  
 b. Nik<sub>i</sub> Mikeli<sub>j</sub> biluzi<sub>i/\*j</sub> jarraitu nion hondartzatik  
 c. Nik<sub>i</sub> Mikeli<sub>j</sub> mozkortuta<sub>i/j</sub> entzun nion

Araitz-Beteluko DOM-dun hiztunen juzkuetan, bestalde, datibo osagarriak bigarren mailako predikatua zilegizta ditzake baita (a,b) adibideetan ere, DOM-en jokatibidera lerratuz. Oso litekeena da DOM zenbat eta orokorragoa izan hizkeran orduan eta errazago onartzea (a,b) bezalakoak. DOM aukerakoa denean, Lekeition bezala, orduan hiztunak absolutibodun osagarri zuzena da hautatzen duena (*Nik umia ortosik ekarri dot*).

Absolutibo/datibo alternantziadunek sortarazten dituzten zalantzak alde batera, DOM osagarriek (35) osagarri zuzenek bezalatsu jokatzen dute honi dagokionez.

<sup>43</sup> Antzeko adibidea dakarte Arregi eta Molina-Azaolak (2004: 4 oin-oharra): *Nik zuri umea mozkortuta emon dautsut*.



### 3.2. Datibo bat gaineratzen. Pertsona Kasuaren Murriztapena

Ikus dezagun orain zein den datibo osagarri bitxien jokabidea datibo bat gaineratzen denean perpausean. Kontuan izan printzipioz ergatibo eta absolutibo bi argumentudun perpausetan, oro har, beste argumentu bat gaineratu daitekeela (a), hiru argumentudunetan, aldiz, ez (b).

- (38) a. Anek autoa erosi du/Anek Mikeli autoa erosi dio  
 b. Anek Mikeli liburua eman dio/\*\*Anek Mikeli liburua eman dio niri<sup>44</sup>

Gauzak hala, nekez aurkituko ditu irakurleak (b) bezalako bi datibodun egiturak.

- (39) a. Martak Aneri eraman dio ikastolara  
 b. \*Martak Aneri eraman dio amonari (ikastolara)

Albizu eta Fernándezena (2006) da bigarren adibidea. (a) perpausak *Aneri* datibo osagarri bitxia dakar; (b) perpausak, *Aneri* datibo osagarri bitxia ez ezik, *amonari* zehar osagarria ere erakusten du. Bigarren adibidea da, hain zuzen, auzian erabakigarria dena. Lehenik eta behin aipa dezagun bigarren adibidea ez-gramatikaltzat jotzen dutela Albizu eta Fernándezek (2006).<sup>45</sup> Horrek printzipioz galdetegietan izango ditugun emaitzen arrastoa zein den erakusten digu, eta geroago erakutsiko dugunez, Kontxi Arraztioren datu-emaile DOM-dunak (2 eta 3 hiztunek) bat datoz perpausaren ez-gramatikaltasunarekin; ikus galdetegiko (12) adibideak.

Era berean, Albizu eta Fernándezek (2006) argitu dutenez (b) adibidea txartzat hartzen duten hiztunen kasuan, bederen, bi estrategia espero ditzakegu adibide txarra saihesteko: batetik datibo osagarri bitxien ordeztatik absolutibodun osagarri zuzenak izatea (a) —*Aneri* formaren ordeztatik *Ane*—, edo datibo osagarri bitxia gorde eta zehar osagarriaren ordeztatik postposizio sintagma bat agertzea (*amonari* forma gabe, *amonarengana*):

- (40) a. Martak Ane eraman dio amonari (ikastolara)  
 b. Martak Aneri eraman dio amonarengana (ikastolara)

Nolanahi ere, Araitx-Beteluko DOM-dun datu-emaileen artean, bi estrategietatik (b) baino ez daukate; (a) aukera DOM ez duen hiztun nolabait kanonikoak baino ez dauka. Ikusi beharra dago, beraz, zenbateraino darabilten (a) aukera DOM hiztunek.

Goian aipatu berri ditugun bi estrategiez gain, teorikoki badago burura datorrigun hirugarren estrategia, alegia, bi datiboetatik baten komunztadura ezabatzea, nahiz eta hiztun hauen hizkeretan datibo komunztadura beharrezkoa den.

Jo dezagun berriro eztabaidagai dugun goiko adibidera:

- (41) \*Martak Aneri eraman dio amonari (ikastolara)

Ohartuko zen irakurle begi-zorrotza adibide honetan bi datiboetatik batek ez duela komunztadurarik eragiten, hau da, ez dugula euskaraz (inongo hizkeretan, bide batez esanda) *dioo* bezalako adizkirik, non bi datibo argumenturi datibo komunztadura hizki

<sup>44</sup> *Niri* datibo etiko modura interpretatu beharko genuke hemen.

<sup>45</sup> Itziar San Martín, Markinako hizkerako datu-emailea da (b) adibidea gaitzesten duena.

bana egozten zaien.<sup>46</sup> Halakoetan, bi argumentuetatik bakar batek erakusten du komunztadura. Gure adibidean, bi argumentu datiboak singularreko hirugarren pertsonakoak izaki, ezin dugu jakin (ez bada hipotesi teoriko baten argitan) zein den bietatik komunztadura eragiten duena, datibo osagarri bitxia ala datibodun zehar osagarria. Oso bestela, esate batera, zehar osagarri hori lehen edota bigarren pertsonakoa denean, eta hortaz, komunztadura hizkia osagarri bitxiarena ez bezalakoa duenean, orduan badugu aukera jakiteko benetan bietatik zein den komunztadura egiten duena. Bi aukera ditugu, bata datibo osagarri bitxia komunztaduraz jabetzea (a), eta bestea, zehar osagarria izatea komunztadura egiten duena osagarri bitxia komunztadurarik gabe utziz (b).

- (42) a. Martak Aneri eraman dio zuri (ikastolara)  
b. Martak Aneri eraman dizu zuri (ikastolara)

Dena den, aukera teorikoak alde batera, hiztunek bata zein bestea txartzat hartzen dituzte, eta horrek berriro ere erakusten du bi datibodun perpausak, bata datibo bitxikoa eta bestea helburua ez direla gramatikalak gure datu-emaile DOM-dunentzat. Besterik da gero, haien ordez hiztunek ematen dituzten erantzunak —ikus 2 eta 3. hiztunen galdetegi (14) erantzunak— ziur aski datu teorikoak eurak bezain bihurri direnak eta momentuz interpretatu gabe utziko ditugunak.

Halako datuez galdetzen hasita, berehala datozkigu gogora *Mellui murriztapena* edo, nahiago bada, *Pertsona-Kasuaren Murriztapena (PKM)* deritzonaren adibideak.<sup>47</sup> Badaezpada, irakurleak murriztapen honen berri ez balu, labor esan dezagun euskaraz —eta munduko hainbat hizkuntzatan— baldin eta hiru argumentudun perpaus jokaturik badago, alegia, subjektu, osagarri zuzen eta zehar osagarria dituena, orduan, osagarri zuzenak nahitaez hirugarren pertsonakoa izan behar duela (b). Hortik Albi-zuren (1998) (a) adibidearen ez-gramatikaltasuna:

- (43) a. \*Azpizapoek ni etsaiari saldu naiote  
b. Azpizapoek Jon etsaiari saldu diote

Albizuk (1997) dioenez, estrategia bat baino gehiago darabiltzate hiztunek, PKM urratzen duen (a) perpausa bezalakoak saihesteko. Adibidez, hiztun askok, baita datibo komunztadura beharrezkoa duten hizkeretako hiztunek ere, datiboa komunztadurarik gabe uzten dute horrela:

- (44) a. Azpizapoek ni etsaiari saldu naute  
b. Ez da Afganistan osoan amerikarrei salatuko nauenik<sup>48</sup>

Adibide bietan, *etsaiari* eta *amerikarrei* datibodun zehar osagarriak komunztadurarik gabe azaltzen zaizkigu, ez-gramatikaltasunik sortu gabe.<sup>49</sup> Ez da hau, dena den,

<sup>46</sup> Besterik da, jakina, datibo argumentu *bakarrak* komunztadura marka bat baino gehiago erakustea, *komunztadura bikoizketa* alegia. Adibidez, xiberutarraren *erraiten deitazüt* edo *erraiten deitadazüt*, datibo komunztadura marka bi eta hiru marka erakusten dituztenak, hurrenez hurren.

<sup>47</sup> Irakurleak literatura nahikoa zabala aurkituko dugu gaiaz euskalaritzan: Albizu (1997, 1998, 2001), Ormazabal eta Romero (1998, 2001, 2007), Ormazabal (2000), Rezac (2006b, 2008, 2009) bartzuk aipatzearen.

<sup>48</sup> Albizu (1997) eta Albizu (2001) lanetatik jaso ditugu, hurrenez hurren, adibide biak.

<sup>49</sup> Geroago erakutsiko dugunez, antzeko estrategia erabiltzen da gaztelaniaz, non klitiko-bikoizketa bertan behera uzten den, PKM saihesteko.

Albizuk aipatzen duen estrategia bakarra. Absolutibodun osagarria bera datibo komunztaduraz ere ager daitekeela erakusten du bere adibideez, eta, jakina, *etsaiari* eta *amerikarrei* datibodun zehar osagarriak komunztadurarik gabe:

- (45) a. Azpizapoek (ni) etsaiari saldu didate  
b. Ez da Afganistan osoan (ni) amerikarrei salatuko didanik

PKM saihestearren sortzen diren azken forma hauek benetan bihurriak dira: zeharbidez datibo osagarri bitxien itxura hartzen zaie komunztadurara begira, absolutibo kasua gordetzen duten arren; hemen ere kasua eta komunztadura bereizten dituen aparteko adibidea daukagu. Horrek are zailago egiten du euren irudia: absolutiboa gordetzeak printzipioz erakusten du halakoetan komunztadura iraultzen dela eta ez kasua.

Guk DOM-ik ez duten hiztunen artean (a) baino ez dugu jaso eta (b) ez da onztat hartzen: begiratu Araitz-Beteluko 1. datu-emailaren (16) erantzunak.

Estrategia hauek bereziki murriztapen bati aurre egiteko darabiltzate hiztunek, eta hori oso gogoan izan behar da datuak ebaluatzerakoan. Datuak, berez, labankorrek dira, eta halakoetan, are labankorrago. Galdera da orain ea datibo osagarri bitxiak dituzten hiztunek estrategia berberak ote darabiltzaten ala bestelakoak murriztapena saihesteko. Teorikoki beste bi aukera ditugu, bietan datibo osagarri bitxiak hizkera hauetan ohikoa duen bezala, datiboa erakusten du eta inflexioan datibo komunztadura (a) ala absolutibo komunztadura (b). (b) aukera ez dugu berez espero ez bada datibo osagarri bitxia datiboaren lekualdatzearekin gurutzatzen den hizkeretan.

- (46) a. Azpizapoek niri etsaiari saldu didate  
b. Azpizapoek niri etsaiari saldu naute

Bada, PKM saihesteko, Araitz-Beteluko DOM-dun hiztunen artean esanguratsuak diren bi ildo aurkitu ditugu: 2. hiztunak DOM osagarria saihestu eta osagarri kanoniko modura ematen du, helburu-datiboa komunztadurarik gabe utziz (a), eta 3. hiztunak BI datibodun egituraz baliatzen da (b), espero litekeenaren kontra. Hemen, adibide esanguratsu biak:

- (47) a. Azpizapoek ni saldu naue etsaiari (2 hiztuna)  
b. Deabruak nei saldu diate etsaiari (3. hiztuna)<sup>50</sup>

Ostean, Lekeitioko datu-emaelek sistematikoki txartzat hartzen ditu datibo biko perpaus guzti-guztiak, baita PKM saihestearren goian aipatu ditugun estrategiak ere.

Datibo osagarri bitxiko perpausetan beste datibo osagarririk gaineratu daitekeen aztertu dugu orain artean. Erakutsi dugunez, bi datibo batera agertzea ez da nagusitzen den aukera eta ahal izanez gero, ekidin egiten da, baina aukera hori ez da inondik ere ezinezko, adibidez, PKM saihesteko estrategietan. Horrek neurri batean erakuts dezake datibo osagarri bitxiak osagarri zuzenak direla eta ez zehar osagarriak. Uste hau are sendoagoa da, orain arteko DOM adibideak absolutibo/datibo alter-

<sup>50</sup> Gogoan izan DOM-dun hiztunetarik batek (2.ak) DOM zein osagarri zuzen kanonikoa dituela eta beste hiztunak (3.ak) DOM baino ez. Hortaz, oso litekeena da PKM saihesteko estrategiak lotzea hiztunek osagarria markatzeko dituzten aukerei.

nantziadun aditzen datibo osagarriekin alderatzen ditugunean. Mendebaldeko hiztunek, esate batera:

- (48) a. Martak zuri arretaz begiratu dizu  
b. Martak Aneri arretaz entzun dio

bezalakoak esaten dituztenean, nekez onartzen dute, adibidez, datibo etiko bat gaineratzea:

- (49) a. \*Martak zuri arretaz begiratu dizu/dit niri  
b. \*Martak Aneri arretaz entzun dio/dit niri

Bada, honi dagokionez, erabateko asimetria dago DOM eta alternantziadun aditzen datiboen artean. Ikusi besterik ez dago Araitz-Beteluko hiru hiztunen juzkuak. *Begiratu* eta *aditu* bezalako alternantziadun aditzen kasuan, osagarria datiboaz markatzen dute; 1. hiztunarenak dira ondokoak:

- (50) a. Martak arretaz beitto'izo zoi  
b. Martak arretaz aitto dio Anei

baina ez dute onartzen datibo osagarri horretaz gain, beste datibo bat gaineratzen duen (49) bezalako adibiderik. Hiru hiztunek aho batez jotzen dituzte ez-gramatikaltzat galdetegiko (19) adibideak.

Laburbilduz, DOM-dun hiztunek ez dituzte lehenesten bi datibo osagarridun egiturak, eta ahal izanez gero, bestelako egiturez ordezkatzen dituzte —\**Aneri amonari eraman dio* vs. *Ane amonarengana eraman du*— baina besterik ezean, PKM saihesteko estrategian, adibidez, bi datibo erakusten dituzten adibideak ematen dituzte. Horrek erakusten du datibo osagarri bitxiak osagarri zuzenen zantzuak dituztela, lehenago bigarren mailako predikatuen datuetatik atera dugun ondorio bera berretsiz.

### 3.3. Datibo osagarri bitxiak urrunetik

Orain arte arakatu ditugun eremuetan, datibo osagarri bitxiak egitura bakunetan agertu zaizkigu. Ondoko atal honetan, labur bada ere, erakutsi nahi dugu zein den datibo osagarri bitxien jokabidea egitura konplexuagoetan. Horretarako, hiru dira bereziki aipatuko ditugun eremuak: lehenik, *behar/nahi* egitura modalak, bigarrenik *ari* progresiboa, eta hirugarren eta azkenik, egitura arazleak. Egitura hauek guztiak konplexuak dira, eta datibo osagarri bitxiak urrunetik ere zein komunztadura harremanetan sartzen diren ikusteko arakatu beharreko eremua osatzen dute.

*Behar/nahi* egitura modalak diren bezainbatean,<sup>51</sup> osagarri perpausak hautatzen dituzten egiturak dira gogoan ditugunak, eta bereziki mendeko aditzak partizipio forma hartzen dutenak, hala nola:

- (51) a. Nik Joni liburuak eraman behar/nahi dizkiot  
b. Nik umeak igerilekura eraman behar/nahi ditut

<sup>51</sup> Egitura hauen gaineko lanak ez dira falta euskalaritzan. Ikusi, beste batzuen artean, Ormazabal (1991), Ortiz de Urbina (2003), Etxepare (2003b), Albizu eta Fernández (2006) edota Goenaga (2006).

Adibide hauek erakusten dutenez, aditz laguntzaileak subjektuarekin ez ezik (*nik*) mendeko datibo (*Joni*) nahiz absolutibo argumentuekin (*liburuak*, *umeak*) komunztadura egiten du halaberrez. Halaberrezko komunztadura hori bera agertzen zaigu baita alternantziadun aditzekin ere:

(52) Nik Joni jarraitu/begiratu behar/nahi diot

Honi dagokionez, ez dago ezberdintasunik datibo osagarri bitxien eta, oro har, alternantziadun aditzetako datibo argumentuen artean, bitxiak ere komunztadura egiten dutelako:

(53) Nik Aneri ikastolara eraman behar/nahi diot

Halaxe baieztatzen dute Kontxi Arraztioren datu-emaileek; ikus galdetegiko (22) eta (23) adibideek. Ez da hau Lekeitioko gure datu-emailearen hautua: (52) bezalakoak onartzen ditu (*segidu biar dotzat Joneri* adibidez), baina (53) txartzat hartzen du.

*Behar/nahi* egituretan, osagarri zuzen nahiz zehar osagarriek komunztadura egiten dutenez,<sup>52</sup> berez komunztadurari begira ez dugu aurkituko euskarririk datibo osagarri bitxiak osagarri zuzen ala zehar osagarri ote diren ebazteko. Printzipioz irizpideak erakusten digu DOM urrunekoa ere izan daitekeela ez besterik. Alabaina, zeharbidez, DOM osagarri zuzena denaren susmoa izan daiteke, gure Lekeitioko hiztunak halako egituretan DOM absolutibo kanonikoaz saihesten duenean.

Bestelako egitura konplexuetan ere urruneko DOM ote dugun galde daiteke, *ari izan* progresiboan adibidez. Era berean, baldin eta urruneko DOM-ik badago, komunztadurara begira nola portatzen den ikus daiteke. Izan ere, *ari izan* progresiboan, datibodun zehar osagarriaren komunztadura hautazkoa da<sup>53</sup> eta absolutibodun osagarriarena ezinezkoa (Ortiz de Urbina 2003).

(54) a. Jon Mikeli poemak irakurtzen ari da/zaio/\*dira/\*zaizkio  
b. Jon neskak ikusten ari da/\*dira

Bada, orain arte ditugun galdetegietako erantzunak eskura, badirudi *ari izan* egituretan, hiztunak DOM saihesteko estrategiak darabiltzatela.

(55) a. Jonek Mikel ikusten du (2. hiztuna)  
b. Jon Mikel ikusten ai da (3. hiztuna)

Bi estrategia horietan, DOM osagarri zuzen kanonikoa bihurtzen da, bai *ari izan* egituradun adibidean (b) bai bestelakoan (a). Koherentea da hau baita Lekeitioko datu-emailearen iritziekin. Halakoxe egiturak dira darabiltzanak:

(56) a. Jon Mikeleri poemak leiduten dabil/dzabilko  
b. \*Jon Mikeleri apur-apurka ezagutzen dabil

<sup>52</sup> Salbuespenak salbuespen. \**Nik joan behar diot hari(?)Nik joan behar dut hari* perpaus parean islatzen den murriztapenerako, ikus Albizu eta Fernández (2006).

<sup>53</sup> Halako egituretan datiboak erakusten duen komunztadura hautazkotasunerako, ikus Fernández eta Landa (2009) eta Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009).

Hortaz, zeharbidez besterik ez bada ere, pentsatzekoa da DOM osagarri zuzen kanonikoaren modukoa dela.<sup>54</sup>

Azkenik, egitura arazleetan, datiboaz markatutako araziaz gain, itxuraz DOM ekiditeko, osagarri zuzen kanonikoa darabilte DOM-hiztunek, berriro ere agertuz DOM eta osagarri zuzenen arteko antzekotasuna.

(56) Jonek nei launak ikusiaz dizkit

Labur bada ere, datu sorta honek erakusten du DOM egitura konplexuetan ager badaiteke ere, normalean alboratu eta osagarria absolutibo kanonikoaz markatzeko joera dutela baita DOM-dun hiztunek ere, hala, bereziki *ari izan* edota *ibili* aditzarekin sortzen diren perifrasietan nola arazietan. *Behar/nahi izan* egitura modaletan, berriaz, urruneko DOM ere badugu Araitz-Beteluko hiztunengan, baina Lekeitiokoak DOM baztertu eta absolutiboaz markatzera jotzen du gainerako egitura konplexuetan bezala. Gure ustez, DOM saihesteko estrategian, osagarria ez litzateke absolutibo kanonikoaz markatuko DOM datiboarengatik ere, sintaktikoki osagarri zuzena ez balitz.

#### 4. Ondorioak

Lan honetan datibo osagarri bitxiak aztertu ditugu eta DL-rekin batera agertzen diren sistemetako ezaugarriak erakutsi ditugu. Datibo osagarri bitxiak azken batean DOM orokorraren erakusgarri direlakoan, gaztelaniaren leismoarekin eta hindi-urduaren *-ko* markapenarekin alderatu dugu. Datibo osagarri bitxiak, datibo marka-pena izan arren, sintaktikoki osagarri zuzenak direla ere erakutsi dugu azkenik zenbait egitura sintaktiko aztertuz.

#### Aipamenak

- Ahmed, T., 2006, «Spatio, temporal and structural usages of urdu *ko*». In M. Butt & T. H. King (arg.), *Proceedings of the LFG06 Conference*. CSLI Publications.
- Aissen, J., 2003, «Differential object marking: Iconicity vs. Economy», *NLLT* 21. 435-483.
- Albizu, P., 1997, *The Syntax of Person Agreement*. Doktorego tesia, University of Southern California, AEB.
- , 1998, «Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology». In M. Uribe-Etxebarria & A. Mendikoetxea (arg.), *Theoretical Issues on the Morphology-Syntax Interface*, ASJUren Gehigarriak XL. Donostia / Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, 1-33.
- , 2001, «Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu». In Fernández & Albizu (arg.), 49-69.
- Apalauza, A., 2008, «Nafarroako Ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun, eta Araitz-Betelu», *FLV* 107. 63-104.
- Arregi, K. & G. Molina-Azaola, 2004, «Restructuring in Basque and the Theory of Agreement». In G. Garding & M. Tsujimura (arg.), *Proceedings of WCCFL* 23. 101-114.

<sup>54</sup> Nolanahi ere den, galdetegi gehiagoren beharra dugu behin-betikoa den ezer esan aurretik.

- Bhatt, R., 2006, «Unaccusativity and Case Licensing». Paper presented at *LFG06 Conference. Workshop on Case and Aspect in South Asian Languages*. Universität Konstanz.
- Bleam, T., 2003, «Properties of the Double Object Construction in Spanish». In R. Núñez-Cedeño, L. López & R. Cameron (arg.), *A Romance Perspective on Language Knowledge and Use*. Selected papers from the 31st *Linguistic Symposium of Romance Languages, Chicago, 2001*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins, 233-252.
- Bonaparte, L. L., 1869, *Le verbe basque en tableaux*. Berrargitaraturik in *Opera omnia vasconice* (I): 221-242. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991.
- Bossong, G., 1991, «Differential object marking in Romance and beyond». In D. Wanner & D. A. Kibee (arg.), *New analyses in Romance linguistics*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 143-170.
- Elordieta, A., 2001, «Double Object Constructions and Neutral Order in Basque», in *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT: 49-107.
- Enç, M., 1991, «The semantics of specificity», *LI* 22, 1. 1-25.
- Exepare, R., 2003a, «Valency and argument structure in the Baque Verb». In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter. 363-425.
- , 2003b, «Menpeko infinitiboak eta urruneko komuntadura», *Lapurdum* 8, 167-206. Euskaltzaindia, 1987, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Fernández, B., 2001, «Absolutibo komuntaduradun ergatiboak, absolutibo komuntaduradun datiboak: Ergatiboaren lekualdatzetik datiboaren lekualdatzera». In Fernández & Albizu (arg.), 87-112.
- & M. Ezeizabarrena, 2003, «Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean». In J. M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXA. Mendearen atarian. Gramatika gaiak, Iker* 14-1, Bilbao: Euskaltzaindia, 255-278.
- , 2004, «*Gustatzen nau gustatzen dizu*: aditz laguntzaile eta komuntadura bitxiak perpaus ez-akusatiboetan». In P. Albizu & B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gasteiz: UPV/EHU / Arabako Foru Aldundia, 89-112.
- & P. Albizu (arg.), 2007, *On Case and Agreement. Kasu eta Komuntaduraren gainean*. UPV/EHU.
- , 2008, «Quirky dative objects in Basque», *European Dialect Syntax Meeting III*, Venezia, 2008 irailak 18-21.
- & J. Landa, 2009, «Datibo komuntadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsyntax», *Lapurdum*, Baiona [inprimatzen].
- & J. Ortiz de Urbina, 2008, «Datiboa hiztegia», eskuizkribua, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea.
- , 2009, «Datibo alternatiboak hiztegia eta hizkeretan». In *Euskaren sintaxia: aldakortasun sintaktikoa euskal hizkeretan*. UPV/EHUren XXVIII. Donostiako Uda Ikastaroak/ XXI. Europar ikastaroak. Donostia, uztaialak 2-3.
- , — eta J. Landa, 2009, «Komuntadurarik gabeko datiboen gakoetz» [inprimatzen].
- Fernández-Ordóñez, I., 1999, «Leísmo, laísmo y loísmo». In I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española I*. Madrid: Espasa Calpe, 1.317-1.394.

- Goenaga, P., 2006, «BEHAR-en lekua euskal hiztegian eta gramatikan». In B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Leioa: UPV/EHUko Argitarapen Zerbitzua, 397-416.
- Hale, K., 2001, «Eccentric Agreement». In B. Fernández & P. Albizu (arg.), 15-48.
- Kornfilt, J., 1997, *Turkish*. London: Routledge.
- Lambton, A. K. S., 1993, *Persian Grammar*. Cambridge: Cambridge U. P.
- Landa, A., 1995, *Conditions on Null Objects in Basque Spanish and their relation to Leísmo and Clitic Doubling*. Los Angeles, University of Southern California.
- Lazard, G., 2001, «Le marquage différentiel de l'object». In M. Haspelmath, E. Köning, W. Oesterreicher & W. Raible (arg.), *Language Typology and Language Universals. An International Handbook*. 2 ale. Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 873-885.
- Masica, C. P., 1980, «Identified object marking in Hindi and other languages». In O. N. Koul (arg.), *Topics in Hindi linguistics*. IA. alea. Delhi: Bahri Publications, 16-50.
- Mitxelena, L. & I. Sarasola, 1987-2005, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mohanani, T., 1994, *Argument Structure in Hindi*. Stanford (CA): CSLI Publications.
- Mounole, C., 2008, «Evolution of the transitive verbs in Basque and apparition of datively marked patients». In G. Authier & K. Haude (arg.), *Ergativity, Transitivity and Voice*, Berlin/New York: Mouton de Gruyter [inprimatzen].
- Oihartzabal, B., 2007, «Basque ditransitives». Eskuizkribua, IKER, CNRS.
- Ormazabal, J., 1991, «Modal verbs in Basque and head-movement». In J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum, ASJUren Gehigarriak XIV*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 835-845.
- , 2000, «A conspiracy theory of case and agreement». In R. Martin et al. (arg.), *Step by step: Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge (Mass.): MIT Press, 235-260.
- & J. Romero, 1998, «On the syntactic nature of the Me-lui and the Person Case Constraint», *ASJU* 32.2, 415-433.
- & —, 2001, «A brief description of some agreement restrictions». In B. Fernández & P. Albizu (arg.), 215-241.
- eta —, 2007, «Object agreement restrictions», *NLLT* 25, 315-347.
- Rezac, M., 2006a, *Agreement displacement in Basque: Derivational principles and lexical parameters*, eskuizkribua, UPV/EHU.
- , 2006b, «Escaping the Person Case Constraint: Reference-set computation in the  $\varphi$ -system». In P. Pica (arg.), *Linguistic Variation Yearbook* 6. 97-138. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- , 2008, «The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolutive Displacement in Basque», *NLLT* 26, 61-106.
- , 2009, «Person restrictions in Basque intransitives», *Lapurdum*, Baiona [inprimatzen].
- Silverstein, M., 1976, «Hierarchy of features and ergativity». In Dixon, R. M. W. (arg.), *Grammatical categories in Australian languages. Linguistic Series* 22, Canberra, Australian Institute of Aboriginal Studies: 112-171.
- Torrego, E., 1998, *The dependencies of objects*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Yrizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. 2 ale, Donostia: Gipuzkoako Kutxa.
- , 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*. 2 ale, Bilbo: Euskaltzaindia.



- , 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*. 2 ale. Iruñea: Euskaltzaindia / Nafarroako Gobernua.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Iruñea: Euskaltzaindia / UPV/EHU.
- , 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Iruñea: Euskaltzaindia / UPV/EHU.
- Zabala, I., 1993, *Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean (Euskararen kasua)*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Zavala, A. (arg.), 1962, *Bilintx. Bertsoak ta lan guziak*. Auspoa.
- Zuazo, K., 1998, «Nafarroako euskal hizkerak». In I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardualdietako Agiriak*, UEU: Bilbo.
- , 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.

### Hizkeren gramatikak

- Aezkoa*: Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Ahetze*: Cabodevilla, J., 1991, *Aetzen Uskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Amaiur*: N'Diaye, G., 1970, *Structure du dialect basque de Maya*. Mouton: The Hague.
- Antzuola*: Larrañaga, J., 1998, *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Arrasate*: Elortza, J., E. Garro, J. M. Garai, J. L. Ormaetxea & E. Plazaola, 1999, *Arrasateko euskara*. Arrasate: Arrasateko Udala.
- Basauri*: Arretxe, J., 1994, *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Bergara*: Elexpuru, J. M., 1988, *Begarako Euskara*. Bergara: UNED.
- Bermeo*: Egaña, A., 1984, «Bermeoko aditzaren azterketa lorratzak», *Bermeo* 4: 13-43.
- Beskoitze*: Duhau, H., 1993, *Hasian hasi: Beskoitzeko Euskara*. Donibane Lohitzune: Irkus.
- Baztan*: Salaburu, P. & M. Lakar, 2008, *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Bilbo: Nafarroako Gobernua/Euskaltzaindia.
- Deba 1*: Zuazo, K., 1999, *Deba Ibarreko Euskeria*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Deba 2*: Zuazo, K., 2002, *Deba ibarretik euskararen herrira*. Eibar: Badihardugu Euskera Alkartia.
- Eibar 1*: Eibarko Euskara Mintegia, 1998, *Eibarko aditza*. Eibarko Udala.
- Eibar 2*: Etchebarria, T., 1998, *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Elgoibar*: Makatzaga, J. M., 2007, *Elgoibarko Euskara. Elgoibarko berbak, egiturak eta irakurgaiak*. Elgoibar: Elgoibarko Udala.
- Ermua*: Aranberri, F., 1996, *Ermua eta Eitzako Euskara*. Ermua: Ermuko Udala.
- Erroibar*: Ibarra, O., 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Erronkari*: Angos, A., 2005, *Erronkarieta I: Gramatika*. Donostia: Hiria.
- Forua*: Gaminde, I., 1992, *Foruko euskararen morfosintaxiaz*. Forua: Foruko Udala.
- Hondarribial/Irun*: Sagarzazu, Tx., 2005, *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.
- Igorre*: Iglesias, A., 2005, *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. Eskuizkribua, UPV/EHU.
- Imoz*: Apalauza, A., 2008, *Imozko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Lasarte-Oria*: Lakaba, A., M. E. Azurza & J. I. Bereziartu, 1996, *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.

- Laudio*: Urkijo Orueta, N., 1994, *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Lazkao*: Hurtado, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Tolosa: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
- Leioa*: Gaminde, I., 1989, *Leioako euskararen gramatikaz*. Leioa: Leioako Udala.
- Lekeitio*: Hualde, J. I., G. Elordieta & A. Elordieta. 1994 *The Basque dialect of Lekeitio*, ASJUren Gehigarriak XXXIV. Bilbo eta Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea/Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mallabi*: Mugarza, P., 2006, *Mallabiko euskara*. Mallabiko Udala.
- Marquina*: Rollo, W., 1925, *The Basque dialect of Marquina*. Amsterdam: H. J. Paris.
- Oiartzun*: Fraile Ugalde, I. & A. Fraile Ugalde, 1996, *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Oñati*: Badihardugu, 2005, *Deba ibarreko aditz-etaulak: Oñati* [interneten eskuragarri: www.badihardugu.com/argitalpenak/aditz\_etaulak]
- Ondarroa*: Rotaetxe, K., 1977, *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*. Durango: L. Zugaza.
- Ordizia*: Garmendia, L. & K. Etxabe, 2004, *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordizia: Ordiziako Udala.
- Orio*: Iturain, I. & L. Loida, 1995, *Orioko euskara*. Orio: Orioko Udala.
- Otxandio*: Burguete, X. & I. Gaminde, 1991, *Otxandioko euskaraz*. Otxandio: Otxandioko Udala/Bizkaiko Foru Aldundia.
- Pasaia*: Agirretxe, J. L., M. Lersundi & O. Olaetxea, 1998, *Pasaia* hizkera. Pasaia: Pasaiko Udala.
- Sopela*: Gaminde, I., B. Markaida & E. Markaida, 1993, *Sopelako euskaraz*.
- Ugao*: Salazar, B.. *Ugao*ko euskara. *Ugao*ko euskararen azterketa etnolinguistikoa. Bilbo: Ediciones Beta.
- Ultzama*: Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Zaldibia*: Etxabe, K. & L. Garmendia, 2003, *Zaldibiako euskara: Bertako bizimodua, ohiturak, eta pasadizoak*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- Zamudio*: Gaminde, I., 2000, *Zamudio berbarik berba*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Zeberio*: Etxebarria, J. M., 1996, *Zeberio* haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Zegama*: Azurmendi, J. M., 1998, *Zegamako euskara*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.

**Eranskinak (I)****Galdetegia***1. Datibo osagarri bitxiak. Biziduntasuna*

- |                                 |                                 |
|---------------------------------|---------------------------------|
| (1) a. (Nik) zu ikusi zaitut    | c. (Zuk) ni ikusi nauzu         |
| b. (Nik) zuri ikusi dizut       | d. (Zuk) niri ikusi didazu      |
| (2) a. (Nik) Jon ikusi dut      | c. (Nik) Neska ikusi dut        |
| b. (Nik) Joni ikusi diot        | d. (Nik) Neskari ikusi diot     |
| (3) a. (Nik) txakurra ikusi dut | c. (Nik) telebista ikusi dut    |
| b. (Nik) txakurrari ikusi diot  | d. (Nik) telebistari ikusi diot |

*2. Zehaztasuna*

- |                                  |  |
|----------------------------------|--|
| (4) a. Ez dut inor ikusi         | c. Jonek neska asko ikusi du/ditu        |
| b. Ez diot inori ikusi           | d. Jonek neska askori ikusi dio/die      |
| (5) a. Elkar ikusi dute          | c. Jonek bere burua ikusi du ispiluan    |
| b. Elkarri ikusi diote           | d. Jonek bere buruari ikusi dio ispiluan |
| (6) a. Idazkari bat bilatzen dut | b. Idazkari bati bilatzen diot           |

*3. Denbora*

- |                                |                             |
|--------------------------------|-----------------------------|
| (7) a. (Nik) zu ikusi zintudan | d. (Zuk) niri ikusi zenidan |
| b. (Nik) zuri ikusi nizun      | e. (Nik) Jon ikusi nuen     |
| c. (Zuk) ni ikusi ninduzun     | f. (Nik) Joni ikusi nion    |

*4. Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea (biak dituzten hizkeretan baino ez)*

- |                               |                            |
|-------------------------------|----------------------------|
| (8) a. (Nik) zuri ikusi dizut | d. (Zuk) niri ikusi didazu |
| b. (Nik) zuri ikusi zaitut    | e. (Zuk) niri ikusi nauzu  |

*5. Bigarren mailako predikatuak*

- (9) a. Nik zuri mozkortuta ikusi dizut (mozkortuta dagoena ni zu ni edo zu )  
 b. Nik umeari oinutsik ekarri diot (oinutsik dagoena ni umea ni edo umea )
- (10) a. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta begiratu nion hondartzan (ni Mikel ni edo Mikel )  
 b. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta jarraitu nion hondartzan (ni Mikel ni edo Mikel )  
 c. Nik Mikeli mozkortuta entzun nion (ni Mikel ni edo Mikel )
- (11) a. Nik zuri umea haserre ekar arazi dizut  
 b. Niri mutil hura mozkorturik gustatu zitzaidan (ni mutil hura ni edo mutil hura )  
 c. Nik zuri kantariari mozkortuta entzun arazi dizut (ni zu kantaria ni, zu edo kantaria )  
 d. Nik umeari haserre ekar arazi dizut (ni zu umea ni, zu edo umea )

6. *Datibo bat gaineratzen. PKM*

- (12) a. Martak Aneri eraman dio ikastolara  
 b. Martak Aneri amonari eraman dio ikastolara  
 c. Martak Aneri eraman dio amonari ikastolara
- (13) a. Martak Ane eraman dio amonari      b. Martak Ane eraman du amonarengana
- (14) a. Martak Aneri eraman dio zuri      b. Martak Aneri eraman dizu zuri
- (15) a. Azpizapoek ni etsaiari saldu naiote      b. Azpizapoek Jon etsaiari saldu diote
- (16) a. Azpizapoek ni etsaiari saldu naute      c. Azpizapoek niri etsaiari saldu didate  
 b. Azpizapoek ni etsaiari saldu didate
- (17) a. Martak zuri eraman dizu Aneri      c. Martak zuri eraman dizu niri  
 b. Martak niri eraman dit zuri
- (18) a. Martak zuri arretaz begiratu dizu      b. Martak Aneri arretaz entzun dio
- (19) a. Martak zuri arretaz begiratu dizu niri      c. Martak Aneri arretaz entzun dio niri  
 b. Martak zuri arretaz begiratu dit niri      d. Martak Aneri arretaz entzun dit niri

7. *Datiboak urrunetik*

- (20) a. Nik Joni liburuak eraman behar/nahi dizkiot  
 b. Nik umeak igerilekura eraman behar/nahi ditut
- (21) a. Nik Joni jarraitu/begiratu behar/nahi diot  
 b. Nik Aneri ikastolara eraman behar/nahi diot  
 c. Nik zuri ikastolara eraman behar/nahi dizut
- (22) a. Nik Ane ikastolara eraman behar/nahi dut  
 b. Nik zu ikastolara eraman behar/nahi zaitut
- (23) a. Jon Mikeli poemak irakurtzen ari da      b. Jon Mikeli poemak irakurtzen ari zaio
- (24) a. Jon Mikeli ikusten ari da      b. Jon Mikeli ikusten ari zaio
- (25) a. Jon zuri ikusten ari da      b. Jon zuri ikusten ari zaizu
- (26) a. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dit      c. Jonek (niri) lagunak ikusarazi dizkit  
 b. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dizkit

**Eranskinak (II)****Zenbait adibide**a) *Pertsona eta denborak parametrotutako sistema: Elizondo (Yrizar 1997: 716-750)*

Varietad de Elizondo, Subvariedad de Baztan noroccidental, Karakotxeko Borda (Azpilcueta-Azpilcueta). KOLDO ARTOLA. *Comunicaciones personales* —Artola (1991)— recogió las conjugaciones completas del modo indicativo de los verbos auxiliares, en el mes de noviembre de 1991. Informador: D. Alfonso Mihura Arraztoa, na-

cido el 16 de septiembre de 1939. Su padre era de Iruingo Borda (Arizcun); su madre, de Orttoroko Borda (Lecároz)». Yrizar (1997: 721).

Hizkera honetan DL bakarrik gertatzen da orainaldiko 1PLean, aukeran, eta ez du DOMen eraginik. DOM iraganean baino ez da gertatzen eta bakar-bakarrik 2SG/PLean. [hitano/alokutiboak ez ditugu kontuan hartu]

Behean: etzanak = DOM iragankor soilean; belztuak = DL datibodun iragankorrean

	NIK	ZUK	HARK	GUK	ZUEK	HAIEK
NI NIRI		naizu datazu	nau dat		naize dataze	naute date
ZU ZURI	zaitut datzut		zaitu datzu	zaitu datzu		zaitute date
HURA HARI	dut diot	duzu diozu	du dio	dugu diou	duze dioze	dute diote
GU GURI		gaituzu GAITUZU, dakuzu	gaitu daku		gaituze GAITUZE, dakuze	gaituz(t)e dakute
ZUEK ZUEI	zaiztet datzet		zaizte datze	zaizteu datzeu		zaizte datze
HAIEK HAIEI	tut diotet	tuzu diolete	tu diote	tu dioteu	tuze dioze	tuzte diote

1. taula. *Elizondo: iragankor soila eta ABS singularreko datibodun iragankorra (orainaldia)*

	NIK	ZUK	HARK	GUK	ZUEK	HAIEK
NI NIRI		n(in)aizun zinatazun	ninauen zaten		ninaizen zintatzen	n(in)nauten zateten
ZU ZURI	zituten, <i>natzun</i> natzun		zintuen, <i>zatzun</i> zatzun	<i>ginatzun</i> ginatzun		<i>zatzuten</i> zatzuten
HURA HARI	nuen nion	zinuen zinion	zuen zion	ginuen ginion	zinuten zinioten	zuten zioten
GU GURI		gintuzun zinakuzun	gintuen zakun		gintuzen zinakuzen	gintuz(t)en, gaituzen zakuten
ZUEK ZUEI	<i>natzun</i> natzun		<i>zatzun</i> zatzun	<i>ginatzun</i> ginatzun		<i>zatzun</i> zatzun
HAIEK HAIEI	nituen nioten	zintuen zinioten	zituen zioten	gintuen ginioten	zintuzten zinioten	zuzten zioten

2. taula. *Elizondo: iragankor soila eta ABS singularreko datibodun iragankorra (iragana)*

b) *DOM eta DLren artean banaketa osagarria erakusten duen sistema: Hondarribiko Portuko auzoa*

Yrizar (1992 II: 429-464).

«Fuenterrabía (Barrio de La Marina) (1987-1990) —KOLDO ARTOLA. *Comunicaciones personales*— [...] En cinco o seis sesiones de trabajo, Artola recogió todas las formas verbales ... El informador fue D. Florencio Lekuona Zubillaga, nacido en Fuenterrabía el 14 de mayo de 1912, como dice él: “Titaníc ondorátu zén egúnëan”. Sus padres eran ambos de Fuenterrabía» (Yrizar 1992 II: 433).

	NIK	ZUK	HARK	GUK	ZUEK	HAIEK
NI NIRI		<b>nazu</b> <b>nazu</b>	nau ditt, <b>nau</b>		<b>nazia</b> <b>nazia</b>	<b>naute</b> <b>naute</b>
ZU ZURI	<i>dizut</i> <i>dizut</i>		dizu dizu	dizuu dizugu (dugu zuri)		dizute <i>dizute, zute</i>
HURA HARI	dut diot	duzu diozu	du dio	dugu, degu digu, diogu	dizia dizia	dute diote
GU GURI		gattuzu diuzu	<i>digu</i> , gattu <i>digu</i>		ziagu, (gi/zi)zian [sic] dizie, diziate	<i>digute</i> <i>digute</i>
ZUE ZUEI	diziat diziat		<i>dizia</i> <i>dizia</i>	<i>diziagu</i> <i>dizia (zuekeri), diziegu</i>		<i>diziete</i> <i>dizia</i>
HAIEK HAIEI	ttut diot	ttuzu diozu	((d)i)ttu diote	ttugu dugu, diegu	ttizia ziä	ttute diote

3. taula. *Hondarribiko Portuko auzoa: iragankor soila eta ABS singularreko datibodun iragankorra*

	NIK	ZUK	HARK	GUK	ZUEK	HAIEK
NI NIRI		<b>nazun</b> <b>nazun</b>	zitten, zian nauen, ziran, zien		<b>nizian</b> , zi(re)zien nazian	ziaten ziaten
ZU ZURI	nizun nizun		zizun zizun	genizun genun (zuri), dizugun		zizuten zizuten
HURA HARI	nu(e)n nion	zuzun ziozun	zu(u/a)n zion	genuen, giñun genion	zizia/än ziozien	zuten zioten
GU GURI		zi(g)uzun ziguzun	zi(g)un zigun		zien, z/gizian, (gatti)zian? zizien guri	ziguten ziguten
ZUE ZUEI	nizie/än niziän		zizie/an zizan	genizian genizian		ziziän zizian
HAIEK HAIEI	nittuen nio(te)n	zuzun ziozun	zittuen zioten	genu(e)n ziogun, genioten	zizia/än zizien	zuzten zioten

4. taula. *Hondarribiko Portuko auzoa: iragankor soila eta ABS singularreko datibodun iragankorra (iragan)*

c) DOM eta DL gurutzatzen diren lekua: Pasaia (Agirretxe eta al. 1998)

		NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AYEK
NI	D SP			nau				naute
I	D SP							
URA	D SP	det det, dut	dek/n dek/n	du du	de(g)u de(g)u	desu desu	desute desute	dute dute
GU	D SP							
SU	D SP	saitut				gaitusu	gaitusute	
SUE	D SP	saitustet						
AYEK	D SP	ditut ditut	dituk/n dituk/n	ditu ditu	ditugu ditugu	ditusu ditusu	ditusute ditusute	dituste dituste

5. taula. Pasaia (D = Pasai Donibane, SP = San Pedro): iragankor soila (orainaldia)

		NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AYEK
NI	D SP		<b>na/k</b> <b>nak/n</b>	<b>nau</b> , dit <b>nau</b>		<b>nasu</b> , diasu <b>nasu</b> , diasu	diasue <b>nasute</b> , diasute	<b>naute</b> <b>naute</b> , diate
I	D SP	yat/(di)ñat di(ñ)at		di/k di/k	(di)y/ñau (di)y/ñau			ditek/n ditek/n
URA	D SP	yot (di)yot	(di)yok/n (di)yok/n	(di)yo (di)yo, dio	(di)yo(g)u (di)you	(di)yosu (di)yosu	(di)yosute (di)yosute	yote/diote (di)yote/diote
GU	D SP		di(g)uk/n di(g)uk/n	digu digu, ( <b>gaitu</b> )		digusu digusu	digusue digusute	digute digute ( <b>gaituste</b> )
SU	D SP	disut disut		disu disu	disugu disugu			disute disute
SUE	D SP	disu(t)et disuet		disute disute	disugu disugu			disute disute
AYEK	D SP	(di)yotet, di(ot)et (di)yotet	(di)yok/n (di)yok/n	(di)yote (di)yote	(di)yogu (di)yogu	(di)yosu (di)yosu	(di)yosute (di)yosute	(di)yote (di)yote, diote

6. taula. Pasaia (D = Pasai Donibane, SP = San Pedro): ABS singularreko datibodun iragankorra (orainaldia)





# ALINEAZIO ALDAKETAK EUSKARAREN DIAKRONIAN

Céline Mounole

(Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea, Bordeaux3)

## Abstract

*This paper aims at giving some examples of alignment variations in the diachrony of the Basque language. As shown by Campbell & Harris (1995) and Creissels (2006, 2008), the reanalysis of light-verb constructions, of Tense, Aspect, Mood (TAM) periphrasis and the ellipsis of the term P in the transitive constructions are the main causes of the emergence of irregular alignments in the languages. Here, we present the syntactic evolution of the modal periphrasis (behar izan + partizipioa) 'to need to', (nahi izan + partizipioa) 'to want to', (gogo izan + partizipioa) 'to desire to', (gura izan + partizipioa) 'to desire to' and the aspectual structure (ari izan +  $V_{ten}$ ) of Basque, from the 16th century to the 20th. The data make appear that the oriental dialects are the varieties of Basque which are more persistent in realigning the accusative alignments appeared by the reanalysis of those constructions. However, few of those realignment cases are systematic, that is to say, in the majority of the structures studied, the ergative and the accusative alignments fluctuate in modern Basque.*

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Munduko hizkuntza anitzetan, denbora-aspektu-modu perifrasiaren gramatikalizazioak hizkuntzarekin bat ez datozen alineazioak agerrarazi dituzte (Campbell & Harris 1995, Creissels 2006, 2008). Euskarak perifrasi franko ditu, gehienak egitura biperpausdunetarik eratorriak. Hauen berranalisiak alineazio akusatiboak ekarri ditu hizkuntzan, hizkera batzuk emeki-emeki zuzentzen saiatu direnak, subjektuaren kasua eta aditzaren laguntzailea alineazio nagusiari egokituz.

Idatzi honek bi helburu nagusi ditu. Lehenik, euskararen diakronian gertatu alineazio aldaketak aztertu nahi ditugu. Horretarako, alineazio akusatiboaren sorrera, eta alineazio ergatiboaren berrezartzea deskribatuko ditugu. Bigarrenik, ez-ohiko alineazioek garai eta euskalkien arabera nolako garapena izan duten zehazteko xedea dugu. Horretarako, bost perifrasiaren bilakabide historikoa ardatzat hartu ditugu, [behar izan + partizipioa], [nahi izan + partizipioa], [gogo izan + partizipioa], [gura izan + partizipioa] perifrasi modalak, eta [ari izan + inesibodun aditz-izena] perifrasi

---

<sup>1</sup> Eskerrik beroenak Beatriz Fernándezi bere oharrengatik.

aspektuala.<sup>2</sup> Egitura bakoitzaren xvi. mendetik xx. mendera bitarteko garapena aztertu dugu, testuetako, eta *Erizkizundi Irukoitza* proiektuaren (Azkue 1921, Etxaide 1984) ahozko datuak uztartzuz.

Euskara idatziaren datuen biltzeko, hiru iturri nagusi erabili ditugu: alde batetik *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987-2005), bestetik, *Klasikoen Gordailuko* bilaketa sistema (<http://klasikoak.armiarma.com/>), eta azkenik, tesirako burutuak ditugun hainbat testuren adizkitegiak.

Gaian sartu aitzin, xehetasun terminologiko zenbait plazaratuko ditugu (§2). Gero, aipatu perifrasi modal (§3.1) eta aspektualen (§3.2) garapenak aztertuko ditugu. Azkenik, gertakarien azalbidea eskainiko dugu (§3.4).

## 2. Xehetasun terminologikoak

### 2.1. Alineazioa eta alineazio aldizkatzeak

Alineazioa tipologian erabiltzen den terminoa da, marka morfologikoen edo ezaugarri sintaktiko eta morfologikoen banaketaren aipatzeko. Bestela erranik, ergatibo, akusatibo eta beste patroien aipatzeko termino neutrala da (Campbell & Harris 1995, Creissels 2006, 2008, Haig 2008).

Munduko hizkuntzetan, hiru alineazio mota nagusi dira:<sup>3</sup>

- alineazio akusatiboa, zeinetan S eta A gisa berean kodifikatuak diren (S=A);
- alineazio ergatiboa, zeinetan S eta P gisa berean kodifikatuak diren (S=P);
- alineazio aktiboa, zeinetan S, txandaka A eta P bezala kodifika daitekeen (S=A; S=P).

Bizkitartean, hizkuntzek ez diote beti tinko atxikitzen bere alineazio nagusiarri, eta han-hemenka haien alineazioarekin bat ez datozen egitura batzuk izan ditzakete: alineazio ergatiboak hizkuntza akusatiboetan (S=P), edo alderantziz, alineazio akusatiboak hizkuntza ergatiboetan (S=A).

Alineazio aldizkatze horien iturrien berri ematen dute Harris & Campbell (1995), eta Creissels (2006, 2008) hizkuntzalariek. Hiru aipatzen dituzte: (i) egitura arinen berranalisia; (ii) P-ren elipsia (Akhvakh, Nakh-Daghestaniera) (Creissels 2006, 2008); (iii) Denbora-Aspektu-Modu perifrasi berranalisia. Formaz, egitura arinak [izen + aditz-arin] gisa eratuak dira gehienetan, elementu nominalak aditz-arinaren osagarri funtzioa betetzen duelarik. Egitura arina osoki aditzat berranlizatzen delarik, hots, elementu nominala aditzean inkorporatzen delarik, bere osagarri funtzioa galtzen du eta egitura osagarririk gabe gelditzen da. Orduan, erran daiteke sintaktikoki egitura iragangaitz bihurtu dela. Gertakari horrek ez-ohiko alineazio akusatiboak agerarratzen ditu hizkuntza ergatiboetan, egitura iragankorreko subjektua (A) eta egitura berranalisatu iragangaitz hauen subjektua (S) gisa berean markatzen diren neurrian,

<sup>2</sup> Hemendik aitzina [*ari izan* +  $V_{ten}$ ] gisa izendatuko duguna.

<sup>3</sup> Comrieri jarraikiz (1978), S gisa izendatzen dugu egitura iragangaitzeko argumentu bakarra (subjektua), A gisa egitura iragankorreko agentea (edo egilea), P gisa egitura iragankorreko pazientea (edo gaia). Bestalde, testuan zehar ondoko laburdurak erabiliko ditugu: ABS = absolutiboa, COP = kopula, DAM = Denbora-Aspektu-Modu, ERG = ergatiboa, INES = inesiboa, SGM = maskulino singularra, SGN = neutro singularra.

ergatiboan hain zuzen. Gauza berbera gertatzen da akhvakheraz (Nakh-Daghestaniera) egitura iragankor batzuetan pazientea isiltzen delarik (Creissels 2008). Azkenik, egitura biperpausdunen Denbora-Aspektu-Modu perifrasi gisa berranalizatzeak alineazio akusatiboak sorraraz ditzake hizkuntza ergatiboetan (ikus §3), eta alineazio ergatiboak hizkuntza akusatiboetan; cf. ergatibotasunaren sorrera iranieraz perfektuzko egitura batetik Haig (2008).

Ohar gaitezen aipatu lehenbiziko bi iturriek soilik hizkuntza ergatiboen alineazioa ukitzen dutela (S=A eragiten baitute). Azkenak baizik ez ditu alineazio aldizkatzeak eragiten hizkuntza ergatibo zein akusatiboetan (Creissels 2008).

## 2.2. Berranalisia

Ikusi dugun bezala, ez-ohiko alineazioak agertzeko, egituraren berranalisia gertatu izan behar da. Berranalisiak egitura baten barne antolaketa aldatzen du, bizkitartean, ez du azaleko aldaketarik ekartzen.<sup>4</sup> Berranalisia gertatu ondoan, agerian gelditzen diren irregulartasunak edo ez-ohiko ezaugarriak erregularizatzen edo hizkuntzan ohikoak diren zenbait parametroren arabera egokitzen dira. Prozesu horri *actualization* edo egokitzapena deitzen zaio (Timberlake 1977, Harris & Campbell 1995).<sup>5</sup> Bistan dena, egitura bat berranalizatu delako froga segurua azaleko aldaketak gertatu ondoan baizik ez dugu izanen, egokitzapena gertatu ondoan.

## 3. Alineazio aldizkatzeak euskararen barnean

Parte hau lau zatitan banatua da. Lehenik, [*behar izan* + partizipioa], [*nahi izan* + partizipioa], [*gogo izan* + partizipioa] eta [*gura izan* + partizipioa] perifrasi modalei dagozkien alineazio aldizkatzeak aztertuko ditugu (§3.1). Gero, [*ari izan* + V<sub>ten</sub>] egituraren berranalisia eta egokitzapena deskribatuko ditugu. Ondotik, bildu datuen bilduma (§3.3) eta azalbidea aurkeztuko ditugu (§3.4).

### 3.1. Perifrasi modalak

#### 3.1.1. Behar izan

*Behar izan* lokuzioa euskalki eta garai guztietan erabiltzen da. Bi osagarri mota har ditzake: (i) substantibo bat (1); edo (ii) partizipioa buru duen perpaus osagarri bat (2)-(3). Bigarren kasu horretan, aditz-lokuzioaren subjektua eta partizipioarena erreferentziakideak dira.

- (1) Cer gehiago BEHAR DUGU? (Leiz. 1571, Mat. XXVI, 65)
- (2) BEHAR LUKE PENSATU langoikoak nola duen batbedera formatu (Etxepare 1545: I, 1-2)

<sup>4</sup> “Reanalysis [...] is a mechanism which changes the underlying structure of a syntactic pattern and which does not involve any immediate or intrinsic modification of its surface manifestation” (Campbell & Harris 1995: 61).

<sup>5</sup> “Reanalysis —the formulation of a novel set of underlying relationships and rules— and actualization —the gradual mapping out of the consequences of reanalysis—.” (Timberlake 1977: 141).

## (3) EGON BEAR DOT exilik (Lazarraga c.1564: 1202r)

Ikus dezagun, mendez mende, egitura horrek pairatu duen garapena.

## a) XVI. eta XVII. mendeak:

*Behar izan* aditz-lokuzioa XVI. eta XVII. mendeetako testu guzietan erabiltzen da. Kasu gehienetan, subjektuak kasu ergatiboa hartzen du, eta \**edun* laguntzailea erabilia da, partizipioa iragankorra (2) edo iragangaitza (3) izan. Bizkitartean, han-hemenka, Leizarraga (1571), Axular (1643) eta Gazteluzarren testuetan (1686), perpaus osagarriko partizipioa iragangaitza delarik, egiturako subjektuari kasu absolutiboa (ABS) ezartzen zaio eta *izan* laguntzaile iragangaitza erabiltzen da. Zalantzarik gabe, azaleko aldaketa horrek erakusten du egituraren berranalisia gertatu dela eta egitura biperpausduna izatetik, egitura bakuna, hots, perifrasi izatera pasatu dela: [[*behar izan*] + [perpaus osagarri jokatugabea]] > [partizipioa + *behar izan*]. Horrekin batera, alineazio akusatiboa (S=A) baztertu eta alineazio ergatiboa ezarri da, iragangaitzekin *izan* laguntzailea eta subjektu ABSdunak hedatuz.

Bizkitartean, delako egokitzapena ez da bat ere sistematikoa. Axularrek horren adibide bat baizik ez du eskaintzen (4); eta Leizarragaren testuan ere ez da orokorra (ikus (5) vs (6) eta (7) vs (8)). Horrez gain, autore hauen garaikideek ere ez dute egokitzapenaren lekukotasunik eskaintzen: ez Etxepare (1545), Lazarraga (c. 1564), eta RSek (1596), ezta Etxeberri Ziburukoak ere (1627, 1636).

- (4) Haserretzekotz ere zeure buruaren kontra HASERRETU BEHAR ZARA (Axular 1643: XXV)
- (5) Orduandanic has Cedin Iesus bere discipuluei declaratzen, ECEN BEHAR ÇUELA IOAN Ierusalemere (Leiz. Mat. XVI, 21)
- (6) Saluadore hunegana bada IOAN ETA RETIRATU BEHAR GARA, huni bihotz on eta libre batez iarreiqui behar gaitzaitza, iracats gaitzançat (Leiz. Sarrera, 277)
- (7) Ezteçála mirets ceren erran drauadan, BERRIZ IAYO BEHAR ÇARETE (Leiz. Io III, 7)
- (8) Ecen egun hire etchean EGON BEHAR DIAT (Leiz. Luk XIX, 5)
- (9) Gau argi Saindu huntan ungi zuek egiteko HIL BEHAR ZARETE ahalkez, amudioz ez hiltzeko (Gazteluzar 1686: 80)

## b) XVIII. mendea:

XVIII. mendean, [*behar izan* + partizipioa] egituraren egokitzapen berezia agertzen zaigu, Martínez de Morentin Muzkiarren predikuetan (Gesalatz ibarra, Lizarra iparraldean). Beren sorterrian predikatu zuten deitura bereko bi apezan idatzi hauek Lekuonak agerrarazi zituen (1973). Lehena, Francisco Martínez de Morentin —hemendik aitzina *Martínez Morentin zaharra*— 1765-1782 artean izan zen Muzkiko apez. Bigarrenak, Francisco Antonio Martínez de Morentinek —hemendik aitzina *Martínez Morentin gaztea*— 1783an hartu zuen kargu horren segida, 1797a arte.

Prediku hauetan, *behar izan* aditz-lokuzioak partizipio iragangaitz bat duelarik osagarri gisa, subjektua kasu ABSan du, baina laguntzaile iragankorrari atxikitzen

zaio (10)-(12). Beste gisa batez erranik, alineazio akusatiboaren egokitzapena kasu markaketan baizik ez da gertatzen, laguntzailea aldatu gabe gelditzen delarik. Erabilerara horren salbuespen bat baizik ez dugu bildu (13):

- (10) Emancionean Jangoycoac noticie Isaias profetari, JERUSALENGO CIUDADEA IZAN-BEARZUELA DESTRUITUA, erraten digu Profeta Sanduonec ainverce susto dolore eta affliccio errecibituzuela, ecce (sic) gueldituzela sentidoric bague eta erorizela lurrera illic vezala [...] eta ainverce asustetu balibaze Profeta ure noticie onequi, CEMBAT GUEIAGO VEARGINDUQUE GU ASUSTETU egungo egunean? Bada Jangoyco verac ematendigu noticiebat guzis dolosoago (sic) eta aviso bat guzis sensibleago cein baita urbil dagola ya juicio Universaleco egun ure, CEÑETAN IZANBEARDU DESTRUITUE MUNDU GUCIE, eta orduan escatuveardigula contu erchibat mundu ontan eguin eta eguin eztugun gucies. Noticie formidablea por cierto! (Mtz Morentin Zah.: 371)
- (11) HIZAN VEAR BALINBADU ENE CONVERSIOA urterenbategaz, cergatic eztu izan bear aurten? (Mtz Morentin Zah. 379)
- (12) ala eracusten digu doctrina sanduac, demboraartan erranciotte Christoren Magestadeac vere disciopuloegui, eta egun erraten digu guri ere IAQUETA ETORRI VEARDUEN CHRISTOREN MAGESTADEA, munduen Juzgucera, Juicio Universaleco egunean (Mtz Morentin Gazt. 383)
- (13) NOREC, bada, nere catolicoac, NAI IZANVEARDU IBILI condenaturic munduontan? (Mtz Morentin Zah. 376)

Zorigaitzez aldaketa horrek ondoko hamarkadetan har zitzakeen norabideen berririk ez dugu, alde batetik, Muzkiko euskararen beste lekukotasun idatzirik ez baitugu, eta bestetik, geroztik euskara galdu baita ibar osoan. Hortaz, ez dakigu aldaketak soilik ISa hunkitzea tarteko urrats bat den perifrasiaren berregituraketan, ondoko urratsa laguntzailearen ordezkatzeta izanik, ala beste egokitzapen mota baten aitzinean garen.

c) XIX. mendea:

XIX. mendetik aitzina alineazio ergatiboaren berrezartzea maizago agertzen da. Behe Nafarreraren hizkera batzuetan orokorturik agertzen zaigu: sistematikoa da Duhalderen testuan (1809), kasik sistematikoa Hiriart-Urrutiren idatzietan. Gipuzkera, zuberera, eta goi nafarreraz (Luzaideko katexima (1833) eta Lizarraga Elkanokoa) berriz, orduantxe hasten da hedatzen. Bizkaieraz den bezainbatean, Azkue-ren ustez (1924) erabilerara hori euskaldun berriena da. Bizkitartean, ez du iduri hala denik, Zavalak (1848) erraten duenaren arabera, Arratia inguruan *izan* laguntzailea hobesten baitute partizipio iragangaitzekin eta *\*edun* iragankorrekin (14). Gainera, egituraren egokitzapenaren adibideak Astarloa (1818) eta Añibarro (1802, 1803, c. 1804-1821, c. 1820) idazleen lanetan ere biltzen dira (14):

- (14) ELDU BEAR ZARA (Añibarro apud Zavala 1848)
- (15) EMETI YOAN BEAR GUEUNKE (Zavala 1848)

d) *XX. mendea:*

*Orotariko Euskal Hiztegiaren* (1987-2005) arabera, gaur egun, alineazio ergatiboa maizago agertzen da ekialde eta erdialdeko euskalkietan, erran nahi baita lapurtera, behe nafarrera, gipuzkeraz. Bizkitartean, *Erizkizundi Irukoitzak* (Azkue 1921, Etxaide 1984) beste gisa bateko datuak ekartzen ditu.<sup>6</sup> Inkestako 62. galderak —“*Bear, nai ta gura* beti ote dira *transitivos?*”— ondoko erantzunak jaso zituen: *joan behar naiz* eta *joan behar dut*. Lehenbizikoa, behe nafarreraz —mendebaldekoa (Uztaritze, Hazparne, Beskoitze, Arrangoitze, Urketa (Azkue 1921, Etxaide 1984)); ekialdekoa (Donibane Garazi, Donapaleu (Odon Apraiz-en inkesta argitaragabeak)—, goi nafarreraz (Olazti, Olo) eta bizkaieraz (Oñati, Arrasate, Orozko) bildu zuten. Bigarren erantzuna (*joan behar dut*), berriz, lapurteraz (Urruña, Donibane Lohitzune, Sara, Ainhoa), gipuzkeraz (Etxarri-Aranaz, Mutriku) eta zubereraz jaso zuten.

Azkenik, Donapaleu, Garazi eta Arrangoitzeko hiztunek *joan behar naiz* eta *joan behar dut*, biak, ontzat eman zituzten (Odon Apraizen inkesta argitaragabeak). Nahiz eta inkesta hauetan ez den bi aldaeren arteko desberdintasunik aipatzen, Gèzek (1873: 251) eta geroago Coyosek (1999) bien arteko ñabardura semantiko bat bildu dute (azken honek Arbailetan (Zuberoka ekialdea)): (i) Subjektu ERGa eta \**edun* (alineazio akusatiboa) = ‘devoir’ (*Ni-k joan behar dut* ‘je dois partir’). Lafitteri (1944: 655) *joan behar dut* idorragea iduritzen zaio “plus catégorique”; (ii) subjektu ABSa eta *izan* (alineazio ergatiboa) = ‘falloir’ (*Ni joan behar naiz* «Il faut que je parte / il me faut partir»). Gèzeren ustez (1873: 251), azken honek inperpersonaltasuna adierazten du.

3.1.2. *Nahi izan*

*Nahi izan* aditz-lokuzioa XVI. mendean berean aurkitzen dugu, euskalki guzietan. Hark ere, bi osagarri mota har ditzake: (i) substantibo bat (*Misericordia nahi dut eta ez sacrificio* (Leiz. 1571: Mat. IX, 13), edo (ii) partizipio bat edo partizipioa buru duen perpaus osagarri jokatu gabe bat (16)-(17). Azken kasu honetan, aditz-lokuzioa eta partizipioaren subjektuak erreferentziakideak dira. Partizipio iragangaitzekin bi jokabide desberdin agertzen zaizkigu euskalkien arabera.

a) *Alineazio ergatiboa ekialdeko testu zaharretan:*

Testu zaharrenetatik Leizarraga (1571) eta Oihenart (1657) ekialdeko autoreek subjektu ABSa eta *izan* kopula hobesten dituzte partizipio iragangaitzekin (17)-(18). Bistan dena, partipio iragankorrekin, subjektuak kasu ERGa hartzen du eta \**edun* laguntzailea erabiltzen da (16). Halere erabilera hori ez da sistematikoa aipatu testu hauetan:

(16) Bainan bere erhiaz HUNKI NAHI EZTITUZTE (Leiz.1571: Mat. XXIII, 4)

<sup>6</sup> Azkuek, *Erizkizundi Irukoitzaren* proiektuaren emaitza gehienak, izen bereko liburuan agerrarazi zituen 1921ean. Bizkitartean, argitaratu gabe gelditu ziren Odon Apraizek proiektu horretarako burutu inkestak. Azken hauek ere kontsultatu ditugu Euskaltzaindiaren Azkue liburutegian eta lan honetarako erabili. Paradaz baliatu nahi genuke Josune Olabarria liburuzainaren eskertzeko, hark eman baitzigun inkesta argitaragabe hauen berri.

- (17) Baldin bizitzean SARTHU NAHI BAHAIZ, begiraitzak manamenduak (Leiz.1571: Mat. XIX, 17)
- (18) ABERATSI NAHI ZENA urthe bitan, urkha zedin urtherditan (Oih. Prov. 681)

Berriz ere, egituraren egokitzapenak *nahi izan* + partizipioa egitura biperpausduna egitura bakun gisa, perifrasi gisa berranalizatu delako froga ematen digu: [[*nahi izan*] + [perpaus osagarri jokatugabea]] > [partizipioa + *nahi izan*]. Berranalisia gertatu ondoan, alineazio akusatiboan saihesti da (S=A), egitura, kasu-markaketa eta laguntzaile hautaketaren legeen arabera, alineazio nagusiari egokituz.

xvii. eta xviii. mendeetako lapurteraz egokitzapenaren adibide bat baizik ez dugu bildu, Etxeberri Sarakoaren testuan hain zuzen (NAHI NAIZ IRAGAN *aitcinago*, *eta dembora berean*, *eracutsi -b- hura ere gambiatua dela*, *eta -v- khenduric eçarria* (Etxeberri [1712-19] 1907: 209).

*b) Gipuzkera eta nafarreraren testu zaharrak:*

Berant arte, gipuzkera eta nafarrerazko testuetan, egiturako subjektua ERGAN da eta *\*edun* laguntzaile iragankorra erabiltzen da partizipioa iragankorra ala iragangaitza izan (Axular 1643, Elizalde 1735, Otxoa Arin 1713) (19-22).

xix. mendean, egituraren egokitzapenaren adibide soil batzuk agertzen zaizkigu Lardizabal (1855) eta Gerrikoren (1858) testuetan. Partizipio iragangaitzarekin, subjektu ABSa eta *izan* laguntzailea erabiltzen dira (23)-(24).

- (19) NAHI DU IOAN parabisura, ordea nekhatu gabe (Axular 1643: 31)
- (20) Guztiok NAHI DUGU SALBATU, guztiok nahi dugu ioan parabisura, eta guztiok dugu esperantza (Axular 1643: 67)
- (21) ESAN NAI DET (Otxoa Arin 1713: 136)
- (22) Zein gaitzetatik NAI DUGU LIBRATU? (Elizalde 1735: 45)
- (23) Obea IZAN NAI BAZERA [...] dezun guzia [...] beartsuai eman (Lardizabal 422)
- (24) Eztizu ukatuko, orrela zure salbaziorako eskatzen diozunik, egiaz zere partetik ONDU NAI BAZERA (Gerriko 1858, 2.lib., 387)

*c) xx. mendea*

*Erizkizundi Irukoitzaren* arabera (Azkue 1921, Etxaide 1984), xx. mendean, egitura horren alineazio ergatiboa (subjektu ABSa eta *izan* partizipio iragangaitzekin, eta subjektu ERGa eta *\*edun* partizipio iragankorrekin) behe nafarreraz eta zubereaz<sup>7</sup> baizik ez da erabiltzen. Halere, behe nafarreraren barnean txandaketak agertzen zaizkigu, herri batetik bestera. Izan ere, partizipio iragangaitzekin hiru joera dira: (i) subjektu ABSan + *izan* laguntzailea baizik ez (Uztaritze, Beskoitze, Urketa, Hazparne eta Maule); (ii) subjektu ERGAN eta *\*edun* eta subjektu ABSan eta *izan* al-

<sup>7</sup> Zubereraz, alineazio ergatiboa nahitaezkoa da gutienez xix. mendeaz geroztik (Gèze 1873: 251, Coyos 1999).

dizka (Donibane Garazi, Lartzabale, Donapaleu);<sup>8</sup> (iii) subjektua ERGan eta \**edun* laguntzailea baizik ez (Bardoze, Aldude).

Gainerateko euskalkietan, hots, gipuzkeraz, goi nafarreraz (Nabaz eta Oroz Betelu herriez aparte) eta lapurteraz (Urruña, Sara, Donibane Lohitzune, Ainhoa) alineazio akusatiboa baizik ez da agertzen. Datu hauek *behar izan* perifrasi modalarenekin bat datoz. Beherago itzuliko gara perifrasiaren arteko eraketara (§3.3)

### 3.1.3. *Gura izan*

Mendebaldeko euskalkiek *gura izan* aditz-lokuzioa erabiltzen dute. Honek, partizipio bat edo partizipioa buru duen perpaus osagarri bat har ditzake osagarri gisa. Kasu horretan, aditz-lokuzioa eta partizipioaren subjektuak erreferentziakideak dira. XIX. mendera arte, egitura horretako subjektuak kasu ERGa hartzen du eta \**edun* laguntzailea erabiltzen da, partizipioa iragankorra ala iragangaitza izan:

(25) JOAN GURA DOT ekustera nik on deretxadanari (Laz. 1164v)

(26) GURA DOT XAIGI (Mikoleta 1653: 22)

(27) GURA DOT EDAN (Mikoleta 1653: 28)

XIX. mendean berregituraketaren lehen adibideak agertzen zaizkigu. Partizipio iragankorrekin, Zavala (1818-33) (28), Astarloa (1816) (29), Añibarro (1803, c. 1820) (30), eta Iturzaetak (1894) *izan* laguntzailea eta subjektu ABSa agerrarazten dituzte. Gisa berean, Zavalak (1848) alineazio ergatiboaren ezarketaren adibideak bildu zituen Bizkaia erdialdean, zehatzago Arratia inguruan (31). Mota horretako datuak aurkitu ditugu XX. mendean ere, Lauaxetaren (1931-35) (32) eta Bingen Aizkibelen (1917, 1918) testuetan:<sup>9</sup>

(28) Zelan bada nik egingo dot Konfesiño jeneral ori? Zelan atera anbeste pekatuen kontua? Kristiñau larritua, ONDU GURA ZARA? Itxi gura dozuz bein betiko orainarteko leku, olgantza, okasiño eta ekandu deungak? (Zavala 1818-1833)

(29) Orain bada, zelan esan zinaike itxaroten dozula zerura eldutia, IBILI GURA EZPAZARA bide onetatik? Kontu egizu, uri eder, zoragarri bat daguala mendi guttiz eregi, edo altu baten ganian, norako eztaguan bide bat bakarrik baño (Astarloa 1816)

(30) Antxe gorrotetan dira, eta betiko ta sekulako madarikatuten dira bekatu bide guztiak, zeintzuetarik orain ALDENDU GURA EZ GAREAN (Añibarro 1803)

(31) Ni gaztetan IL GURA NINTZATEKE (NINTEKE) (Zavala 1848: 16-17)

(32) Olako baten Maripa orrek esan eutsan: — Zer esango zeunkio neskato bati ezkondu aurrean? — Nik? Ba auxe: GEURERA ETORRI GURA ZARA? — Eta ezetz erantzungo baleutsu? — Beste bategana joan ta kito (Lauaxeta 1931-35)

<sup>8</sup> Lafitteren ustez, \**edun* agertzen duten egiturak biziagoak dira, “plus énergique” (Lafitte 1944: 654).

<sup>9</sup> Azpimarratzekoa da *Erikizizundi Irukoitzean* (Azkue 1921, Etxaide 1984) *joan gura dot* bezalako formarik baizik ez dela agertzen.



Dudarik gabe, berriz ere berregituraketa horiek egitura berranalizatua izan delako frogatzen dira. Egitura biperpausduna izatetik, perifrasi izatera pasa da: [[gura izan] + [perpaus osagarri jokaturagabea]] > [partizipioa + *gura izan*].

### 3.1.4. *Gogo izan*

xvi. mendean, *gogo izan* aditz-lokuzioa behin baizik ez da lekukotzen, Leizarragaren testuan (1571) hain zuzen. xvii eta xviii. mendeetatik goiti baizik ez zaigu maiztasun handiagoarekin agertzen. Zalantzarik gabe, ekialdeko egitura da, lapurterarena —Etxeberri Ziburukoa 1621, Pouvreau 1665, Xurio 1720, Aranbillaga 1684, Haranburu 1635, Etxeberri Sarakoa 1718, Duvoisin 1859-65, Leon Leon 1924—, goi nafarrerarena (*Primer Sermon* 1729, Axular 1643), behe nafarrerarena (Tartas 1672) eta zubererarena (Belapeire 1693). Erran behar da horren agerraldi soil batzuk bildu ditugula gipuzkeraz ere, xviii. mendean (Ubillos 1785, Mendiburu 1740-67).

*Gogo izan*, xedearen eta gogoaren adierazteko erabiltzen da, gehienetan partizipio bat buru duen perpaus osagarri jokaturagabe batekin (33) vs (34)-(35). Kasu horretan, *gogo izan* aditz-lokuzioaren subjektua eta partizioarena erreferentziakideak dira. xix. mendera arte subjektuak kasu ERG hartzen du, eta \**edun* erabiltzen da, partizipioa iragankorra ala iragangaitza izan (34)-(35):

- (33) Sar zaitte GOGO BADEZU (Lardizabal 1855)
- (34) Beraz hunelatan, peril handian iarri nahi du, zahartzeraiño bekhatutan EGON GOGO DUENAK (Axular 1643)
- (35) Neure obligacioarequin cumpliceo, ASIGOGO DUT egun Jaietaco Euangelioen esplicacen (*Prim. Serm.* 1729: 8-9)

xix. mendetik goiti, berregituraketa kasuak agertzen hasten dira lapurteraz eta behe nafarreraz. Partizipio iragangaitzekin, Duvoisin (1859-1865) (36) eta Duhaldek (1809) (37) subjektua kasu ABSan marka dezakete eta *izan* laguntzaile gisa erabil. Haien garaikideak diren Joanategi (1887) eta Laphitzek (1867), berriz, patroizaharrari atxikitzen diote. xx. mendean, joera desberdinak ikusten ditugu testuetan. Barbier (1924, 1926, 1992, 1929a, 1929b) eta Zerbitzarik (1921-1922; 1928-1957, 1985; c. 1914-1940) ez dute behin ere berregituraketaren arrastorik erakusten, eta Larzabal eta Leon Leonen (1924) testuetan subjektu ABS eta *izan*, eta subjektu ERG eta \**edun* eten gabe aldizkatzen dira egituran partizipio iragangaitzak erabiltzen direlarik (41-42). Oxobi (1926), Hiriart-Urruti, Etxepareren (1910, 1931) testuetan, berriz, berregituraketa sistematikoa da (38-40). Azpimarratzekoa da datu hauek ez datozela bat *Erizkizundi Irukoitzean* (Azkue 1921, Etxaide 1984) agertzen direnekin. Iduriz, *juan gogo niz* Aldunen baizik ez zen bildua izan (vs *Joan gogo dut* berriz: Uzta-ritze, Ainhoa, Heleta, Lartzabal, Sara, Bera, Oroz-Betelu, Lison (Azkue 1921, Etxaide 1984, + Odon Apraiz-en inkesta argitaragabeak)).

- (36) Horren gainean Jesusek erran zioten hamabiei: Zuek ere GOAN GOGO OTHE ZARETE? (Duvoisin 1859-1865: Jo 69)
- (37) Orai ifernuan dauden arima gehienek gerokotzat xederik hoberenak zituzten; [...] kofesio on bat eginik Jainkoarekin BAKHETU GOGO ZIREN, arras debozio-neari eman gogo zitzaizkon (Duhalde 1809)

- (38) Eta zu, Jauna, noiz arte BIZI GOGO ZARE? (Hiriart-Urruti 1891-1914)
- (39) Baduke zer aipa, orotaz MINTZATU GOGO BALIN BADA (Hiriart-Urruti 1892-1912: 96)
- (40) Ba, ni ere LEHIATU GOGO NINTZAN osaba bezala, eta lehen bai lehen, peludo harapatzera! (Etxepare 1910)
- (41) Zer pretenitzen duk? Zertarat HELDU GOGO HAIZ? (Bordaxurik Katxori) (Larzábal 1952: 1. gert.)
- (42) Zertarat HELDU GOGO DUK ele tetele horiekín? (Bordaxurik Katxori) (Larzábal 1952: 2. gert.)

Bukatzeko, berriz ere, berregituraketa kasu hauek erakusten dute egitura [[*gogo izan*] + [perp. osagarri jokgg]] egitura biperpausduna, [partizipioa + *gogo izan*] egitura bakun edo perifrasi gisa berranalisatua izan dela.

### 3.2. *Ari izan* perifrasi aspektuala

*Ari izan* +  $V_{ten}$  egitura ekialde eta erdialdeko euskalki modernoek progresibozko egitura da. Testu zaharrenetatik, *ari izan*-ek bi osagai mota har ditzake: (i) izen bat inesiboan (43); (ii) aditz-izen bat inesiboan (44)-(46). XVI. mendean, egiturak ez du progresiboa adierazten, subjektuaren okupazioa edo jarduera baizik:<sup>10</sup>

- (43) Igande eta besta egunetan LANEAN HARITU NAIZ (Etxeberri [1636] 1665: 144)
- (44) Enequin biltzen ari eztena BARREYATZEN ARI DA (Leiz. Mat XII, 30)
- (45) Egun oroz çuen artean iarten nincén, IRACASTEN ARI NINCELA templean (Leiz. Mat. XXVI, 55)
- (46) Anhiz guição ARI BADA andrez GAYZQUI ERRAYTEN (Etxepare 1545: III, 3)

XVII. mendetik goiti, *ari izan* hasten da progresiboaren adierazten aditz-izen inesibodun batekin agertzen delarik. Egituraz biperpausduna da, eta *ari izan* aditz-lokuzioaren subjektua eta aditz-izenarena erreferentziakideak dira: [ $S_i$  *galtzen*] [ $S_i$  *ari direla*]. XIX. mendearen 2. erdia arte, aditz-izena iragankorra edo iragangaitza izan, egituraren subjektua kasu ABSan da eta *izan* laguntzailea erabiltzen da (47)-(49):

- (47) passatucen galcina labebaten aldetic, non ARIBAYCIRA guizon baçuec labeari SU EMATEN (Berriain 1621: 110v)
- (48) Jende guzia, egungo egunean, errenkura da: bizipideak oro GALTZEN ARI DIRELA; ez dela gehiago nehon deus irabazpiderik, bertzeak bertze, konkurrentzia mada-rikatu horrek xahutzen dituela oro (Hiriart-Urruti 1892-1912)

<sup>10</sup> Datu hau biziki ontsa heldu da Aldaik (2003) proposatzen duen *ari*-ren etimologiarekin. Haren ustez, *hartu* aditzaren forma zaharra da (oroit Etxeparek [1545] *haritu* aldaera ekartzen duela). Orduan, *hartua izan* gendake oinarrian, eta hortik, *okupatua izan* balioa har zezakeen ('taken, busy, occupied', Aldaik 2003: 112).

- (49) Gizonak, xutik, multzoka emanak, beren zigarrotoen ERRETZEN ARI ZIREN, sasoinaz errenkuratuak, arratsaldean berean eginen zuten lanaz mintzo (Barbier 1926)

xix. mendearen 2. erditik goiti, progresibozko egiturak berregituratze prozesu bat pairatzen du ekialdeko euskalki zenbaitetan. Izan ere, aditz-izen iragankorrekin, subjektuari kasu ergatiboa ezartzen zaio eta *izanen* ordez \**edun* laguntzailea erabiltzen da. Gainera, berregituraketa kasu hauetan, objektua ez da gehiago genitiboan markatzen, absolutiboan baizik. Bizkitartean, prozesu horrek bere mugak ditu. Objektua 3. pertsonakoa bada, nahi eta nahi ez agerian izan behar da berregituraketa gertatu ahal izateko. Bestela erranik, *ogia jaten ari dut, liburua irakurtzen ari dut* posible dira, ez, berriz, \*\**jaten ari dut, \*\*irakurtzen ari dut*.<sup>11</sup> 1. edo 2. pertsonako objektuekin ez da murriztapenik, objektua agerian izan edo isildua, berregituratzea posible baita: *Zorionaren bizitasunak ithotzen ari nau* (Laphitz 1867). 80 urte inguruko bi hiztunek testuetan aurkitu murriztapenak baietsi dizkidate.

- (50) Nahiz ez den errex, ARI DUTE BIZKITARTEAN HARRASIEN BARNEKO HIRIA, EMEKI-EMEKI GARBITZEN, argitzen, idekitzen norapeit, ahal arau (Hiriart-Urruti 1891-1914)
- (51) Bainan onak utziz, makhurak eta tzarrak HARTZEN ARI DITUGU ordean (Hiriart-Urruti 1891-1914)
- (52) Erran dugu kargu behar-gabekoak emendatzen ari direla, eta bizkitartean kargu bakhoxaren irabazia oroz batean goititzen ari; bi aldetarik IRESTEN ARI GAITUZTELA gero-ta gehiago (Hiriart-Urruti 1891-1914)
- (53) Aspaldian barneko min batek XAHUTZEN ARI ZUEN IÑAZIO (Laphitz 1867)
- (54) Ongarriak HEDATZEN ARI ZITUZTEN sorho guzietan, beltz beltza, dena khe, dena lanho, lasto mutzitu batzuz ihaurriak (Barbier 1926)
- (55) Zirimola batek han ARI DIOTE AURDIKITZEN gurutze landatu berria (Zaldubi 1877)
- (56) 249 garren erreximendua ARI ZUTEN APAILATZEN gudu-tokietarat igortzeko (Lafitte: 1934-67)
- (57) Alemanek bat egiten dute, joan zaharrak jin berrier bidearen ziltzeko han dagozilarik erne, sare handi batez bezala HARTZEN ARI BAITITUZTE zoko guziak eta, beren umez bezala, beren gauzez estaltzen (Etxepare 1910)
- (58) KENTZEN ARI DAIZKOTE nere odolari Indar eta esperantzak (Lafitte 1948)
- (59) Auhē dei horrek minaren minez URTZEN ARI DAUT bihotza (Iratzeder 1941-46)

Berregituratzearen maiztasunari dagokionez, joera desberdinak ikusten dira autoreen artean. xix. mendearen 2. erdian, hiru talde bereiz ditzakegu egitura iragankorretan agertzen diren patroien arabera: (i) ABS eta *izan* nagusi dutenak (Webster

<sup>11</sup> Horren salbuespen bat baizik ez dugu atzeman aztertu testuetan: *Joko guzietan ez da deus hain ederrik nola pilota. Ziberuak eta Garazik GALTZEN ARI DUTE; hanbat gaxto hekiēntzat; bainan oraino Laphurdik pilotari ederrak baditu* (Arbelbide 1895).

1877), (ii) ERG eta \**edun* nagusi dutenak (Arbelbide 1895 Zaldubi 1977), (iii) bata bestea bezainbat erabiltzen dutenak (Laphitz 1867, Hiriart-Urruti). xx. mendearen 1. erdian, berriz, (i) ABS eta *izan* nagusi dutenak (Barbier 1924, 1926, 1929a, 1929b, Lafitte 1934-67, Lhande 1929, Zerbitzari 1921-22, 1928-57, c. 1914-40, Leon Leon 1924); (ii) bata bestea bezainbat erabiltzen dutenak (Etxepare 1910, 1931, Iratzeder 1920-41, 1941-45).

Huna, beraz, egitura iragangaitzak baizik ez zenbaturik, ateratzen zaizkigun proportzioak:

19. mendearen 2. erdia	Subjektua ABS + <i>izan</i>	Subjektua ERG + * <i>edun</i>
Webster (1877)	10	2
Laphitz (1867)	5	5
Arbelbide (1895)	1	7
Zaldubi (1977)	1	2
Hiriart-Urruti (1891-1914, 1892-1912)	6	6
20. mendearen 1. erdia	Subjektua ABS + <i>izan</i>	Subjektua ERG + * <i>edun</i>
Barbier (1924, 1926, 1929a, 1929b)	79	4
Lafitte (1934-67)	13	6
Leon Leon (1924)	2	-
Etxepare (1910, 1931)	6	5
Iratzeder (1920-41; 1941-45)	2	3
Lhande (1929)	4	1
Zerbitzari (1921-22, 1928-57, c. 1914-40, d.g.1, d.g.2)	17	8

Azpimarratu beharra da berregituraketaren adibideak biziki nekez aurki daitezkeela gipuzkeraz eta goi nafarreraz: bana adibide baizik ez dugu bildu xx. mendearen 1. erdian (Iraizozkoa 1935, Orixe 1934).

- (60) Oiu bat entzuten dut, Bartolome Aitarena: «AI! LOTZEN ARI NAUTE!» Geroxeago orixe berorixe esaten du Isidro Anaiak (Iraizozkoa 1935)
- (61) Aitzin-gibel, ezker-eskuin, / gain ta barne / NEURTZEN ARI NAUZUN Begi, / zure dirdaiz, argi berriz / soil dakusat / uts, ez, ogen, naizela ni. Zeru, lur, egurats, gizon, / nigana tut / epaile-sur, oro begi. / Ez luze, ez zabal, ez sakon, / baino or zaitut / guzi oien irozgarri (Orixe 1934)

Gaur egun, iduri luke Hegoaldean ere berregituraren adibideak ugaltzen ari dira. Ondoko adibideak testu ofizialetatik atereak dira. Lehena, Eusko Jaurlaritzaren web-gunean bildua da (62),<sup>12</sup> bestea, 2001/05/19ko EGA azterketako ulermenezko parteko erantzun posibletarik bat da (63):<sup>13</sup>

- (62) Plásticos Bilorea, CAF eta Kutxa enpresek, besteak beste, etorkizuneko zuzendaria PRESTATZEN ARI DITUZTE. Etorkizun hau berrikuntzaren gaitan berehalakoa

<sup>12</sup> [http://www.enpresadigitala.net/euskera/noticias/noticia\\_concreta.jsp?id=2599](http://www.enpresadigitala.net/euskera/noticias/noticia_concreta.jsp?id=2599)

<sup>13</sup> <http://www.interneteuskadi.org/euskara/ega/20010519.xml>

da, IKTi esker. Hauek dira apustuaren gai nagusiak: IKTen bertatzekoa enpresaren estrategian eta merkatuari aurreratzea

(63) Oporrak iritsi bitartean, udako PLANAK EGITEN ARI DITU

Zalantzarik gabe, berregituraketa kasu hauek guztiak erakusten dute egitura bi-perpausduna egitura bakun gisa, perifrasi gisa berranalizatu dela. Inesiboan zen osagaia aditz nagusi gisa berranalizatu da, kopula horren laguntzaile gisa, eta *ari* marka aspektual gisa: [aditz izena INES + marka aspektuala + laguntzailea] (Ortiz de Urbina & Hualde 1987, Laka 2004).

### 3.3. Alineazio aldizkatzeak laburbilduz

Ikusi dugun bezala (§3.1), ondoko lau perifrasi modalek alineazio aldizkatzeak erakusten dituzte: (i) [partizipio + *behar izan*], (ii) [partizipio + *nahi izan*], (iii) [partizipio + *gogo izan*], (iv) [partizipio + *gura izan*]. Haien jatorrizko egitura hau da: aditz-lokuzio bat + partizipioa buru duen mendeko perpaus osagarri jokatugabe bat, bestela erranik, egitura biperpausduna, aditz-lokuzioa aditz nagusizat duena. Azken hau, [izen + \**edun*] gisa eratua da, eta haren subjektuak kasu ERGa hartzen du.

Euskararen historiaren zenbait unetan, egitura biperpausdun hauek bakun gisa, perifrasi gisa, berranalizatuak izan dira. Egitura berranalizatuan, hastapen batean osagarri funtzioa betetzen zuen partizipioa egituraren aditz nagusi bilakatu da, eta aditz-lokuzioko aditza (\**edun*) haren laguntzaile (64)-(65). Lokuzioko elementu nominalaren betekizun berria, aldiz, (*behar*, *nahi*, *gogo*, *gura*), ñabardura modal baten ekartzea dateke:

(64) [[S<sub>i</sub> Egin] [S<sub>i</sub> behar dut]] > [egin behar dut]  
osag. aditz nagusia perifrasi

(65) [[S<sub>i</sub> Joan] [S<sub>i</sub> behar dut]] > [joan behar dut]  
osag. aditz nagusia perifrasi

Egitura hauek berranalizatu diren ber, euskararen ez-ohikoa den alineazioa agertu da: alineazio akusatiboa. Izan ere, egitura hauek perifrasi gisa analizatzen diren momentutik, egitura iragankor (66) eta iragangaitzetako subjektuak (67) gisa berean markatuak dira (ergatiboan), hizkuntza akusatiboetan gertatzen den bezalaxe:

(66) [Nik] [egin behar dut]

(67) [Nik] [joan behar dut]

Orduan, egitura hauek hizkuntzan arruntena den alineazioari egokitu zaizkio euskararen hizkera batzuetan. Partizipio iragangaitzekin, subjektu ABS eta *izan* laguntzailea hedatu dira, egitura iragangaitzak aldatu gabe gelditu direlarik:

(68) [Nik] [egin behar dut]

(69) [Ni] [joan behar naiz]

Ikusi dugun bezala, egituraren egokitzapenak (*actualization*) maila desberdinak ditu hizkera batetik bestera. Lehenik, erran behar dugu behe nafarrera eta zuberearak egitura hauen alineazio nagusiari egokitzeko joera handia dutela (*behar izan*, *nahi*

*izan, gogo izan*), lapurterak berregituratzearen biziki adibide guti eskaintzen duelarik hiru egitura hauetan, bai testu zaharretan, baita *Erizkizundi Irukoitzean* ere (Azkue 1921, Etxaide 1984). Gisa berean, goi nafarreraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz hiru perifrasi hauen berregituratzearen adibideak urriak eta berantiarrak dira. Salbuespen gisa agertzen zaigu [partizipio + *gura izan*] perifrasi, XIX eta XX. mendeetako testuetan haren berregituratzearen adibide franko aurkitu baititugu Bizkaiko zoko desberdinetan. Harrigarri iduri badu ere, *Erizkizundi Irukoitzean* (Azkue 1921, Etxaide 1984) berregituratzearen adibide bakar bat ere ez zuten bildu.

*Ari izan* +  $V_{ten}$  progresibozko perifrasiari dagokionez, haren egokitzapenaren edo berrantolaketaren adibideak behe nafarrerazko eta lapurterazko testuetan bildu ditugu. Dirudenez, zubereraz ez da horrelakorik gertatzen (Coyos 1999).

Bukatzeko, azpimarratu nahi genuke berregituraketa edo egokitzapen kasuak ugarriak izanagatik, ez direla sistematikoak. Gaur egun, [*gogo izan* + partizipio], [*gura izan* + partizipio], [*behar izan* + partizipio] perifrasiak —eta azken hau XVI. mendeaz geroztik—, alineazio akusatiboa zein ergatiboarekin agertzen zaizkigu, bestela erranik, bi erabilerak bizirik dira hizkeretan (*joan behar / gogo / gura dut; joan behar / gogo / gura naiz*). Izatekotan, [*nahi izan* + partizipio] perifrasi da berregituraketa sistematikoki ekartzan duen bakarra, Leizarraga eta Oihenart autore zaharren testuetan, XX. mendean, ondoko herrietan: Uztaritze, Beskoitze, Urketa, Hazparne eta Maule (Azkue 1921, Etxaide 1984) (ikus §3.1.2). Sistematikotasun faltaren arrazoietarik bat denbora izan daiteke, batzuetan hizkuntz aldaketek beste batzuetan baino denbora gehiago behar dutelako orokortzeko. Gure ustez, bigarren arrazoi posibletarik bat aurreiritzi eta jarrera garbizaletan datza. Ikusi dugu Azkuek berak ere aipatu aldaketa hauek euskaldun berrien akastzat jo zituela, alta gure autore hobereenek hauen adibide franko eskaintzen dituztelarik: “Es de euskaldun barris o barrioides decir o escribir *etorri bear naiz, ibili gura nintzan, yausi (erori) nai da gizon ori*” (Azkue 1924: 208).

### 3.4. Azalbidea

Idatzi honetan zehar aipatu bezala, egitura hauetan gertatzen diren aditz-laguntzaile eta subjektuaren markaketa aldaketak, berranalisiaren ondorioz agertu alineazio ez-ohikoen saihestea eta hizkuntzaren alineazio nagusiaren berrezartzea dute helburu. Bestela erranik, hizkuntzaren alineazio ergatiboaren presioak eragin aldaketak dirateke. Erran behar da gisa horretako aldaketak biziki arruntak direla hizkuntza ergatiboetan. Hemen aurrera (Dagestan familia, Kaukasoko Ipar Ekialdea) hizkuntzaren adibide bat baizik ez dugu aipatuko. Hizkuntza horrek badu progresibozko egitura biperpausdun bat, partizipio + kopula gisa eratua. Partizipioa eta kopularen subjektuak erreferentziakideak dira, eta egiturako aditz nagusia kopula izanik, subjektuak kasu ABSa hartzen du, perpaus osagarriko partizipioa iragankorra ala iragangaitza izan. Bizkitartean, azken hamarkadetan, egitura biperpausduna perifrasiatza berranalizatu da, partizipioa aditz nagusi gisa eta kopula haren laguntzaile gisa (Harris & Campbell 1995: 187-189, Creissels 2008: 27). Horrek ekarri du aditz iragankorrekin kasu ergatiboa egituraren subjektura hedatzea (72), edo bestela erranik, alineazio akusatiboa kendu eta alineazio ergatiboa berrezartzea.

(71) egitura biperpausduntzat jo liteke, alde batetik, kopulak *emen* subjektu ABSarekin komunztadura betetzen baitu, eta bestetik, partizipioak sintagma bateko

buruak markatzen dituen *-w* atzizkia baitarama. (72) perpaua bakuntzat jo liteke, kasu eta komuntadura markak egokituak izan baitira:

- (70) *Emen w-ač'ule-w w-ugo*  
Aita.ABS SGM-etorri-SGM SGM-COP  
'Aita etortzen ari da'
- (71) *Emen [χur b-ex'ule-w] w-ugo*  
Aita.ABS arloa.ABS SGN-irauli-SGM SGM-COP  
'Aita arloa iraultzen ari da'
- (72) *Insu-ca χur b-ex'ule-b b-ugo*  
Aita-ERG arloa.ABS SGN-irauli-SGM SGM-COP  
'Aita arloa iraultzen ari da'

Analogia ere izan daiteke euskaraz gertatu berrantolaketan bigarren arrazoia. Egitura perifrastiko guztiek tinko atxikitzen dute iragankor eta iragangaitzen arteko bereizketa formala. Perifrasi burutu eta burutugabeak ([partizipio + *izan* / \**edun*], [aditz-izena INES + *izan* / \**edun*]) maizenak izanik, eragina izan zezaketen aipatu egituren egokitzapenean.

Laguntzaile hautaketaren bidez iragankor eta iragangaitzen arteko bereizketa markatzeko beharra hizkuntza akusatiboetan ere aurkitzen dugu. Adibidez, italiara eta okzitaniaraz, laguntzaile egokitzapena gertatu da perifrasi batzuetan, nahiz eta jatorrizko egiturak ez zuen ez-ohiko alineaziorik ekartzen (S=A) (Jensen 1986: 228, Ronjat 1930-41):

- (73) SONO VOLUTO VENIRE vs ho voluto cominciare (Meyer-Lübke III, § 296; Tobler II, 44-45; Diez 973, n.1; Regula 188 apud Jensen 1986: 228)
- (74) E POTUTO ANDARE vs ha potuto farlo (Meyer-Lübke III, § 296; Tobler II, 44-45; Diez 973, n.1; Regula 188 apud Jensen 1986: 228)
- (75) Noun s'es troubat degun i sio VOUGUT VENIRE (Ronjat 1930-41 § 816)

Hori ikusirik onartu behar dugu mekanismo desberdinek eragin zitzaketela gertatu egokitzapenak: alineazio nagusiaren eragina bat izan liteke, eta iragankorren eta iragangaitz arruntekiko analogia, beste bat.

#### 4. Konklusioa

Lantto honetan ikusi dugun bezala, Denbora-Aspektu-Modu perifrasiaren sorrerak eta berranalizatzeak alineazio akusatiboak ekarri ditu euskararen barnean. Euskalki batzuk saiatu dira ez-ohiko alineazio horien eredu ergatiboari egokitzera. Bizkitartean, erran bezala, berregituratzeak ez dira sistematikoak, kasu gehienetan, alineazio akusatiboak alineazio ergatiboarekin batera agertzen baitzaigu.

Iduri luke behe-nafarrera eta zuberera, gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera eta bizkaiera baino gehiago tematzen direla ez-ohiko alineazio horien konpontzera. Berregituratze gehienek subjektuaren kasuaren eta laguntzailearen aldaketa ekartzen dute. Kasu bakar bat baizik ez dugu bildu non subjektuaren kasua baizik ez den aldatu (salbuespena dudarik gabe) (cf. §3.1.1).

Bukatzeko, euskara historikoan gisa horretako aldaketen izateak bultzatzen gaitu pentsaratzera aitzinagoko garaietan ere mota bereko egokitzapenik gerta zitekeela. Perifrasi batzuk oposaketa argia dute iragankor eta iragangaitzen artean, baina haien gramatikalizazio iturriaren arabera, laguntzaile iragankorra eta subjektu ERGa ezinezkoak dituzte. Horiatarik bat da gure perifrasi burutugabe arruntena, inperfektibozko perifrasi gisa deitu ohi dena. Gramatikalizazioaren lehen urratsetan, beste edozein egitura inesiboren parekoa zatekeen: Subjektu ABS + (aditz)-izena INES + kopula (*izan*). Bestela erranik, *izan* kopula eta subjektua ABSan erabiltzen ziren, aditz-izen iragankor eta iragangaitzekin (*ibiltzen naiz*, eta \**egiten naiz*, gaur egun bizkaieraz *ibiltzen dago* eta *egiten dago* ditugun bezala). Garai ez-historiko batean, berregitura zitekeen, aditz nagusi iragankorrekin kasu ERG eta \**edun* orokortuz (Mounole 2008).

### Aipamen bibliografikoak

#### a) Hizkuntzalaritza orokorra

- Aldai, G., 2003, *Grammaticalization of present and past in Basque*, Doktoretzako tesia, University of Southern California.
- Azkue, R. M., de, 1923-1925, *Morfología Vasca*, *Euskera* IV-VI.
- , 1921, *Erizkizundi irukoitza (Triple cuestionario)*, Bilbo, Euzko-argitaldaria.
- Campbell, L. & Harris, A., 1995, *Historical syntax in cross-linguistic perspective*, Cambridge U. P.
- Comrie, B. [1978], 1981, *Aspect: An introduction to the study of verbal aspect and related problems*, Cambridge.
- , 1978, «Ergativity», in W. P. Lehmann, *Syntactic Typology*, Austin, University of Texas Press, 329-394.
- Coyos, J. B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan.
- Creissels, D., 2006, *Syntaxe générale: une introduction typologique*, Paris, Lavoisier.
- , 2008, «Direct and indirect explanations of typological regularities: The case of alignment variations», *Folia Linguistica* 42/1.
- Gèze, L., 1873, *Éléments de grammaire basque: dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*, Baiona, Lamaignère alargunaren inprimategia.
- Haig, G., 2008, *Alignment changes in Iranian Language: A constructional grammar approach*, Berlin, W. de Gruyter.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J., 1987, «Restructuring with *ari*», *ASJU* 21, 425-452.
- Jensen, F., 1986, *The syntax of Medieval Occitan*, Niemeyer, Tübingen.
- Lafitte, P. [1944], 1987, *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Donostia, Elkar.
- Laka, I., 2004, «Ari progresiboaz: euskararen kasu markak», *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*, P. Albizu, B. Fernández (arg.), Vitoria-Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 113-132.
- Mounole, C., 2008, «Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfektibozko perifrasiaren sorreraz», X. Artiagoitia & J. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*, *ASJU*-ren Gehigarriak LI, 585-604.
- Ormaetxea, N., «Orixe», 1924, «*Ari naiz y ari dut*», *RIEV* XV-4, 599-600.



- Ronjat, J. [1930-1941], 1980, *Grammaire historique des parlers provençaux modernes*, Slatkine, Marseille.
- Timberlake, A., 1977, «Reanalysis and Actualization in Syntactic Change», Ch. Li (arg.), *Mechanisms of Syntactic Change*, Texas Press,
- Zavala, J. M., 1848, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcatno*, Donostia, Ignacio Ramon Baroja.

b) *Erabilitako corpusa*

- Aizkibel, B., 1917, *Ipuin aberkoyak*, Abando, Grijelmo alargun-semeak.
- , 1918, *Urretxindorra*, Abando, Grijelmo alargun-semeak.
- Añibarro, P. A., 1802, *Esku liburua*, Tolosa, F. La Lama.
- , 1803, *Lora sorta espirituala*, Tolosa, F. La Lama.
- , c. 1804-1821, *Jesu Kristoren lau ebanjelioak batera alkarturik*.
- , c. 1820, *Geroko gero*, B. Urgellen edizioa (2001), Euskaltzaindia.
- Aranbillaga, 1684, *Jesu Kristoren imitazionea*, Baiona, A. Fauvet.
- Arbelbide, J. P., 1895, *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille, Desclée.
- Astarloa, P., 1816, *Urteko domeka guztijetarako berbaldi ikasbidekuak I*, Bilbo, P. Apraiz.
- , 1816, *Urteko domeka guztijetarako berbaldi ikasbidekuak II*, Bilbo, P. Apraiz.
- Axular, P., de, 1643, *Gvero bi partetan partitua eta berecia*, Bordeaux.
- Belapeire, A., 1696, *Catechima laburra*. Paue, J. Dupoux.
- Beriain, J., 1621, *Tratado de como se ha de Oyr Missa*, Pamplona.
- Barbier, J., 1924, *Supazter xokoan*, Eduardo Valenciaren edizioa (1987), Euskal Editoreen Elkarte.
- , 1926, *Piarres I*, R. Sánchezen edizioa (1992), Euskal Editoreen Elkarte.
- , 1929, *Ixtorio-mixterio*, Imprimerie du Courier.
- , 1929, *Piarres II*, Ane Loidiren edizioa (1996), Euskal Editoreen Elkarte.
- Duhalde, M., 1809, *Meditazioneak gai premiatsuenen gainean*, Baiona, Frères Cluzeau.
- Duvoisin, J. P., 1859-65a, *Biblia Saindua (I). Testament Zaharra: 1. zathia*, Londres, L. L. Bonaparteren inprimategia.
- , 1859-65b, *Biblia Saindua (II). Testament Zaharra: 2. zathia*, Londres, L. L. Bonaparteren inprimategia.
- , 1859-65b, *Biblia Saindua (III)*, Londres, L. L. Bonaparteren inprimategia.
- Etxeberri Zib. [1636], 1665, *Elizara erabiltzeko liburua*, Bordele, M. Milanges.
- , 1626, *Manual Debozionezkoa*, Bordele, M. Milanges.
- Etxeberri Sarakoa [c.1718], 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Julio Urkijoren edizioa, Geuthner.
- Elizalde, F., 1735, *Apezendaco dotrina kristiana uskaraz*, Pamplona.
- Etxaide, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza (1925)*, *Iker* 3. Euskaltzaindia.
- Etxepare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordeaux.
- Etxepare, J., 1910, *Buruxkak*, Tours, Mame.
- , 1931, *Beribilez*, Baiona, Lasserre.
- Gazteluzar, B., 1686, *Eguia Catholicac Salvamendv Eternalaren eguiteco necessario direnac*, Paue, J. Desparatz.
- Gerriko, J. I., 1858, *Kristau doktriña guztiaren esplikazioaren saiakera*, Tolosa, Mendizabalen alarguna.

- Haranburu, J., 1635, *Devocino escuarra, miraila eta oracintegua*, Bordele, P. de la Covre.
- Hiriart-Urruti, M., 1891-1914, *Gontzetarik jalgiaraziak*, I. Caminoren edizioa, 1995, Euskal Editoreen Elkarte.
- [1892-1912], 1971, *Mintzaira, aurpegia, gizon*, Jakin.
- [1892-1912], 1972, *Zezenak errepublikan*, Jakin.
- Iraizozkoa, P., 1935, *Lapurren menpean, Zeruko Argia* (1935-07, 199. zbk.), (1936-07 211 zbk.).
- Iratzeder, X. [1920-41], 1983, «Pindar eta Lano», in *Biziaren olerkia*, Iratzeder (arg.), Gero.
- [1941-46], 1959, *Zeru menditik*, Ezkila.
- Iturzaeta, A., 1894, *Ikasbide kristinaukorraren azalduera laburrak*, Durango, E. Lopez.
- Joanategi, B., 1887, *San Benoaten bizitzea*, I. Mujikaren edizioa, 1996, Euskal Editoreen Elkarte.
- Lakarra, J., 1983, «Acto para la Nochebuena, Texto y traducción», in *ZZEE, Gabonetako ikuskizuna*, Gasteiz, 75-126.
- , 1984, «Bertso Bizkaitarrak (1688)», *ASJU XVIII-2*, 89-184.
- , 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa* (Euskararen Lekukoak 19), Bilbo, Euskaltzaindia.
- Laphitz, F., 1867, *Bi Saindu Heskualdunen bizia: San Inazio Loiolakoarena eta San Franzisko Zabiarekoarena*, Baiona, Lamaignère Alharguna.
- Lardizabal, F. I., 1855, *Testamentu Berriko Kondaira*, B. Urgellen edizioa, 1998, Euskal Editoreen Elkarte.
- Larzabal, P., 1951, *Etxahun*, Esquizkribua.
- , 1952, *Bordaxuri*, P. Xarritonen edizioa, Elkar 1981.
- Lauaxeta, 1931-35, *Azalpenak*, J. Kortazarren edizioa, 1982, Labayru.
- Lazarraga, J., c. 1564, Esquizkribua, I. Landaren edizioa, <http://klasikoak.armiarma.com/>.
- Leizarraga, J., 1571, *Jesus Krist Gure Jaunaren Testamentu Berria*, La Rochelle.
- Lekuona, M., 1973, «Textos vascos del siglo XVIII, en tierra de Estella», *FLV* 15.
- Leon, L., 1924, *Jesu-Kristoren imitazioa*, Baiona, J. P. Diharce.
- Lhande, P., 1921, *Yolanda*, Donostia, Argiaren Idaztiak.
- Mendiburu, S., 1740-67, *Festegunetarako irakurraldiak*, P. Altunaren edizioa (1982), Euskaltzaindia.
- Mikoleta, R., 1653, *Modo bien [sic] aprender la lengua vyzcayna*, A. Zelaietaren edizioa (1988), *Oihenart* 7, 135-214.
- Oihenart, A., 1657, *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart. Plus les poesies Basques du mesme Auteur*, Paris.
- Ondarra, F., 1981, «Primer sermón en vascuence navarro (1729)», *FLV* 38, 147-173.
- Ormaetxea, N., «Orixe», 1934, *Barne Muinetan*, Itxaropena.
- Otxoa Arin, J., de 1713, *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itcegutendan moduan*, Donostia.
- Pouvreau, S., 1665, *Gudu espirituala*, Paris: C. Audinet.
- Satrustegi, J. M., 1987, *Euskal testu zaharrak*, Iruñea, Euskaltzaindia.
- Tartas, I., 1672, *Arima penitentaren okupatione debotak*, Orthez, I. Rovyer.
- Ubillos, J. A., 1785, *Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan Eguia-sinis-beharra-berria dacarrena*, Tolosa, F. de la Lama.
- Webster, W., 1877, *Euskal Ipuinak*, X. Alberbideren edizioa, Euskal Editoreen Elkarte, 1993.

- Xurio, M., 1720, *Jesu-Kristoren imitazioea*, Hordago, 1978 (faksimilea).  
Zaldubi, 1877, *Eskualdun peleginaren bidaltzailea*.  
Zavala, J. A., 1818-33, *Sermoiak* I, L. Villasanteren edizioa, 1996, Euskaltzaindia.  
—, 1818-33, *Sermoiak* II, Luis Villasanteren edizioa, 2000, Euskaltzaindia.  
Zerbitzari (Jean Elizalde), 1921-22, *Artho-xuritzetan*.  
—, 1928-1957, *Azkaine gure sorterrria*, P. Xarritonen edizioa, 1985, Elkar.  
—, c. 1914-1940, *57a gerlan*, P. Urkizuren edizioa, 1995, Alberdania.  
—, d.g.1, *Ixtorio eta ipuinak*, eskuizkribua.  
—, d.g.2, *Metsikorat*, eskuizkribua.



# ATLAS SINTAKTIKOAREN APLIKAZIO INFORMATIKOA

Gotzon Santander, Aitor Soroa, Mikel Lersundi eta Larraitz Uribe

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea & IXA taldea)

## Abstract

*In order to study the syntactic variations of Basque dialects, we have developed an application to store, organize and manage all the information concerning that dialectal variation. The application consists of three modules: a data-base, a search engine and the cartographic module.*

*All the data are organized and stored in the data-base. The search engine makes it possible to search for any field included in the data-base. Thanks to the cartographic module, we can see, in the map, in which places the searched syntactic phenomena have been collected.*

*In order to display the answers to the queries in the map, we have made use of the free technology offered by Google Maps. The provinces and regions of the Basque Country are visualized in the map, and if the answers of a query belong to more than one province, each province is displayed in a different colour in order to distinguish them. There are different options to consult the maps: satellite image, the map itself, the combination of both, the possibility of using the zoom, etc.*

*In order to store the data, to search for any linguistic phenomena or to see the maps, the application developed will be accessed via a web browser.*

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Euskal hizkeren aldakortasun sintaktikoa aztertzen hasita, beharrezkoa da herriz herri jasotako datu guztiak era antolatuan gordetzea, ondoren datu horiek berreskuratzea eta kudeatzea erraza izan dadin. Horretarako (datuak gordetzeko, antolatzeko, berreskuratzeko eta kudeatzeko), Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa garatu dugu. Aplikazioak hiru modulu nagusi ditu:

- datu-basea, aplikazioko datu guztien gordelekua izango dena,
- bilaketak egiteko moduluak, hots, gordeta dagoen informazioa berreskuratze aldera garatutako moduluak,
- modulu kartografikoa, fenomeno sintaktikoak non jaso diren irudikatze baliabidea.

---

<sup>1</sup> Lan honek proiektu hauen laguntza jaso du: Espainiako Ministerio de Educación y Ciencia sailaren laguntza *Ricoterm-3* proiektuaren bitartez (HUM2007-65966-CO2-02); Frantziako Agence Nationale de la Recherche-ren laguntza *TSABL: Towards a Syntactic Atlas of the Basque Language* (ANR-07-CORP-033) proiektuaren bitartez.

Garatu dugun aplikazioaren ezaugarri nagusienetako bat modulu kartografikoa da. Modulu horren bitartez, erabiltzaileak era grafiko eta intuitiboan ikus dezake fenomeno sintaktiko jakin bat Euskal Herriko zein tokitan jaso den. Horretarako, aplikazioa *Google Maps* teknologiaz baliatzen da. Horri esker, Euskal Herriko mapak osatu dira, probintzien eta eskualdeen arabera irudiekin. Probintzia bakoitzak bere kolorea du, kolorea ikustearekin batera bereizi ahal izateko. Halaber, mapak ikusteko *Google Map*sek dituen aukera guztiak eskaintzen zaizkio erabiltzaileari: sateliteko argazkia, mapa, bien konbinazioa, zooma, eta abar.

Garatutako aplikazioa web bidez erabiltzeko prestatuta dago bai datuak gordezko, bai kontsultak egiteko eta bai mapak ikusteko.<sup>2</sup> Bestalde, aplikazioa eleaniztuna izateko prestatuta dago. Egun, webgunea euskaraz inplementatuta dago.

Behin aplikazioa garatuta, datu-basea aberasten hasi behar dugu. Horretarako, garrantzitsua da lan-metodologia hasieratik ongi prestatzea eta, horretarako, irizpide metodologiko batzuk finkatzen ari gara.

Sarreraren ostean, gure aplikazioaren bi aurrekari aurkeztuko ditugu 2. atalean: *DynaSAND* eta *Ahotsak.com*. Ondoren, 3. atalean, guk garatu dugun Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa izango dugu idazgai; finkatu ditugun irizpide metodologiko batzuk laburbilduko ditugu (3.1. puntua), eta aplikazioa osatzen duten atal nagusiak azalduko ditugu (3.2. puntua): datu-basea, bilaketak egiteko modua eta modulu kartografikoa. 4. puntuan deskribatuko ditugu labor aplikazioa garatzeko erabili ditugun baliabide teknologikoak. Bukatzeko, 5. atalean lanaren laburbilpen bat egingo dugu eta etorkizuneko eginbeharrak edota erronkak aipatuko ditugu.

## 2. Aurrekariak

### 2.1. DynaSAND<sup>3</sup>

Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa garatzen hasi ginenean, kontuan izan genituen alor honetan ordura arte egin ziren lanak, eta batik bat *DynaSAND* (*Dynamic Syntactic Atlas of the Dutch dialects*) proiektuan egindakoak. Aplikazio hau *Dialect Syntax* proiektuko abiapuntu nagusienetakoa izan da.<sup>4</sup>

*DynaSAND* nederlandera hizkuntzaren bariazio sintaktikoei dagokien informazioa gordetzeko garatu den aplikazioa da, eta lau atal ditu (1. irudia):

- datu-basea,
- galderak egiteko tresna,
- osagai kartografikoa,
- bibliografia.

*DynaSAND* proiektuaren webgunean galdera eginez gero, erantzunen kokapen grafikoa ikusiko dugu mapa bektorial batean, puntuen bidez (2. irudia).

<sup>2</sup> <http://ixa2.si.ehu.es/atlas/index.html>.

<sup>3</sup> <http://www.meertens.knaw.nl/sand/zoeken/indez.php>

<sup>4</sup> Proiektuaren helburu nagusia da atlasen inguruan metodologia estandar berdintsua erabiltzen duen dialektologo-sintaxilari europarren sare bat eraikitzea, eta sare horretan Europako hizkuntzetako dialektoen inguruko informazioa biltzea, modu koherentean aztertu ahal izateko.

Home->Databanken

search maps help

**SAND** ...

Not logged in ⓘ | Log in | Request account

The **Dynamic Syntactic Atlas of the Dutch dialects** (DynaSAND) is an on-line tool for dialect syntax research. DynaSAND consists of a database, a search engine, a cartographic component and a bibliography.

- Search with interview locations ⓘ  
This option gives you a list of all locations (with location codes) in which an interview was held.
- Search with test sentences ⓘ  
With this option you get a list of all sentences (with sentence codes) that were tested in the interviews.
- Search for data ⓘ
- Search for tags ⓘ
- Search for lemmas ⓘ  
Search interviews with one or more words, tags, lemmas, sentence code and location code.

## 1. irudia

*DynaSAND* webgunearen interfazea



## 2. irudia

*DynaSAND* webguneko mapa

*DynaSAND* aplikazioak SVG<sup>5</sup> izeneko formatua duten irudiak erakusten ditu, eta irudi horiek estatikoak dira; alegia, erantzun bakoitzeko puntu txiki bat agertuko da mapan, baina erabiltzaileak ez du modurik puntu horiek ikusteaz gain beste ezer egiteko. Gainera, mapak ez du erakusten kokapenari buruzko informaziorik.

## 2.2. *Ahotsak.com* proiektua<sup>6</sup>

Gertuagokoa dugu *Ahotsak.com* proiektua (3. irudia). Proiektu horren helburu nagusia da Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatzea eta hedatzea. Horretarako, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatzen dute, euren eus-kara eta bizipenak jasotzen dituzte, eta herritarren artean zabaltzen dituzte.

**Zer da hau?**  
**Ahotsak.com, Euskal Herriko Ahotsak**  
 Proiektu honen helburu nagusia da, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea. [Gehiago](#)

**Albisteak**  
 Gerra Zibileko lekukotasunak sarean  
 2009-03-24  
[Udaberrin Galduta](#) proiektuan 1937ko loreak argitaratzen hasi dira.  
 Berrogeitamar pertsona elkarrizketatu ondoren banaka banaka bideoak editatzen eta argitaratzen hasi dira. Gerra Zibilaren lekukoak aurpegiak, hitzak eta kontakizunak agertzen dira blog pedagogiko horretan. Aurrera ta zorte on!

**Une honetan...**  
 Herriak: **84**; hizlariak: **1292**; zintak: **1676**;  
 pasarteak: **11527**; transkribatutakoak: **2438**;  
 audioak: **1561**; bideoak: **1638** [Gehiago](#)

**Pasarteak:** [Zabalburuko bolatokia](#)  
**Hizlaria:** [Lucio Sarasketa](#)  
**Herria:** [Elgeta](#)

### 3. irudia

*Ahotsak.com* webgunearen interfazea

Proiektuaren oinarriak 2002-2003 urteetan landu zituzten: metodologia, baliabi-deak eta alderdi teknikoa. Ondorengo hiru urteetan, 2004-2007 bitartean, bilteta-lanari ekin zioten eta jasotako materiala lantzen hasi ziren. Hortik aurrera, Interneteko webgunea atontzen joan dira. Webgunea 2008ko apirilaren 16an aurkeztu zuten, baina proiektuak aurrera darrai, etengabe materiala biltzen, lantzen eta datu-basea eguneratzen. Helburua da 2012. urterako euskal herri guztietako lekukotasunak izatea atari honetan.

*Ahotsak.com* webguneak hainbat aukera ditu elkarrizketak entzuteko eta ikusteko (audioak eta bideoak), idatzitako transkripzioak kontsultatzeko, eta abar. Gune ho-

<sup>5</sup> SVG (*Scalable Vector Graphics*) irudiak gordetzeko formatu estandarra eta irekia da.


<sup>6</sup> <http://www.ahotsak.com/>



rretan hainbat parametroren arabera egin daitezke bilaketak: herrien, proiektuen, gaien edota hizlarien arabera, hain zuzen ere.

Oso interesgarriak dira maparen gainean egin daitezkeen bilaketak. Webgunean mapa-eremua zabaltzen denean, datu-basean gordetako Euskal Herriko herri bakoitzean puntu gorri bat azaltzen da. Puntuaren gainean klik eginez gero, herri bakoitzari dagozkion hizlarietara, elkarrizketei eta bestelako datuei buruzko informazioa ikusten da (4. irudia).

## Herrien mapa



### 4. irudia

*Ahotsak.com* webguneko mapa

Bi aurrekariak alderatuz, *Ahotsak.com* webguneko mapa erakargarriagoa egiten da. Gainera, *Ahotsak.com*eko aplikazioak aukera ematen du, puntuen gainean klik eginez, herri bakoitzari dagokion informazioa ikusteko. Bi aplikazioen arteko beste ezberdintasun handi bat da *DynaSAND* proiektuko mapan galderaren emaitza ikusten dela, eta *Ahotsak.com* webguneko mapa, aldiz, bilaketak egiteko tresna dela.

Inork pentsa lezake *Ahotsak.com* webgunea eta guk garatu dugun aplikazioa berdintsuak direla, baina badira desberdintasun nagusi batzuk bi proiektuen artean:

- garatu dugun aplikazioaren helburua da hautatutako fenomeno sintaktiko jakin batzuei buruko informazioa datu-basean sartzeko aukera eskaintzea eta Euskal Herriko herrietan horri buruzko aztarnarik baden edo ez biltzea. Ho-

rrek bilaketak egiteko garaian zer bilatu baldintzatzen du, bilaketak datu horien arabera egingo baitira. *Ahotsak.com* webgunean egiten diren bilaketak, al-diz, pertsonen, herrien edota gaien ingurukoak dira;

- horrezaz gain, gure aplikazioaren helburu nagusia ez da hizketaldi osoak jasotzea, fenomeno linguistiko jakinei buruzko informazio zehatza baizik;
- mapari dagokionez, garatu dugun aplikazioaren webgunean egingo diren bilaketan erantzunak mapan kokatuta jasoko dira, baina ezingo da mapa bera erabili bilaketak egiteko.

Hala ere, aipatutako desberdintasunez gain, gure ustez badituzte elkarguneak ere. Izan ere, proiektu batek bestea elikatzen ahal du: esaterako, ikertzaileen bat animatzen bada *Ahotsak.com*eko audio eta bideo horiek aztertzerako, euskararen aldaera sintaktiko zehatzei buruzko informazioa topatuko du eta azterketa horretan agertzen zaizkion aldaera sintaktikoak guk garatutako aplikazioan txertatu ahalko ditu; hala, datu-basean aldaera horren inguruko bestelako informaziorik baldin badago, lortu dituen datu berri horiekin kontrastatu ahal izango du.

### 3. Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa

Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa euskarazko aldakortasun edota bariazio sintaktikoen azterketa sistematikoak egiteko aukerak eskaintzen dizkigun aplikazioa da.

Bariazio sintaktikoaren azterketari ekin ahal izateko, aplikazioa sortzeaz gain, lan-metodologia prestatzen ari gara, datuak biltzeko modurik egokienak eta landu edo aztertu nahi diren fenomeno sintaktiko esanguratsuenak zehaztuz. Atal honetan, orain artean erabakitako hainbat irizpide aipatuko ditugu eta aplikazioaren hiru atal nagusiak deskribatuko ditugu: datu-basea, bilaketak egiteko modulua eta modulu kartografikoa.

#### 3.1. Finkatutako hainbat irizpide

Datu-bilketari dagokionez, bariazio sintaktikoari buruzko informazioa eskuratzeko galdetegiak pasako zaizkie hainbat zonaldetako lekukoei. Erabakitzeke dago, oraindik, elkarrizketak zein herritan egingo diren.

Hautatutako fenomeno linguistiko bakoitzari dagokion galdetegia lau lekukori pasako zaie. Lekukoen ama-hizkuntza haien herriko euskara izango da, eta herrian jaio eta bizitakoak izango dira. Adinari dagokionez, berriz, lau lekukoetatik bat 50-75 urte bitarteko pertsona izatea aurreikusita dago, beste bat 30-50 urte bitartekoak eta bi 18-30 urte bitartekoak.

Galdetegiei dagokienez, helburu den informazioa eskuratzeko elkarrizketak, itzulpenak edota *hutsuneak bete* motako galderak prestatuko dira, beste batzuen artean. Erantzunak grabatu egingo dira eta aplikazioan grabazio horiek entzuteko aukera egongo da.

Bestalde, galdetegi bakoitza fenomeno linguistiko jakin bati dagokio. Euskal hizkeren bariazio sintaktikoaren berezitasun edota desberdintasun nagusiak islatzen dituzten fenomenoak aukeratu dira eta fenomeno horiek kasua, komuntadura, hitz-

hurrenkera edota izen-sintagmaren egitura eremuetan daude bereizirik. Bakoitzaren azpian azpiatalak daude; horrela, fenomeno linguistiko guztiak sailkatzen dira.

Lekuko bakoitzari galdetegi bat baino gehiago pasako zaizkionez, hainbat fenomeno linguistikoren inguruko datuak jasoko ditugu. Eta galdetegi guztietan jasotako erantzunekin bariazio sintaktikoen inguruan askotariko azterketak egiteko aukera izango dugula aurreikusten dugu. Aplikazio honen bidez jasotako informazioa baliagarria izango da oso euskarak duen barne-bariazio sintaktikoa ikertzeko.

Hala ere, datu-bilketari ekin baino lehen, azterketa pilotu bat egin nahi da galdegegiak egiteko metodologiaren egokitasuna eta fidagarritasuna neurtzeko.

### 3.2. Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoaren atalak

Garatu dugun aplikazio informatikoak hiru modulu nagusi ditu: datuak gordetzeko datu-basea, bilaketak egiteko modulua eta modulu kartografikoa.

#### 3.2.1. Datu-basea

Datu-baseak jasotako datu guztiak era antolatuan gordetzeko aukera ematen du. Datu-basearen diseinuan bi multzo bereizi ditugu: galdetegiari dagozkion datuak, eta bestelako informazioa.


Galdetegiari dagozkion datuetan taula hauek ditugu:

- herriari buruzko datuak,
- fenomenoari linguistikoari dagozkion datuak,
- lekukoaren datuak,
- erantzunaren datuak.

*Herria* eremuan, datu-basean egongo diren erantzunak jasoko diren herriei eta lekukoaren jaioterriei buruzko informazioa gordetzen da. *Fenomenoari* dagokion taulan, galdetegiaren izango diren erantzunak multzokatzeko erabiliko diren fenomeno batzuei buruzko informazioa jasotzen da. *Lekukoaren datuak* taulan galdetegiaren erantzunak dituzten pertsonen buruzko datuak ditugu. Azkenik, *Erantzunaren datuak* taulan gordetzen dira galdetegiaren erantzun guztiak.

Galdetegiarekin zerikusi zuzena ez duten datuak gordetzeko beste taula batzuk daude datu-basean. Oraingoz, bi taula ditugu elkarrekiko loturarik ez duten datuak gordetzeko: *Administratzailea* eta *Berriak* taulak. Lehenengo taula da webguneko datu-basearen kudeaketarako administratzaile izango diren erabiltzaileei dagokiena. Taula horrek erabiltzaileei buruzko informazioa gordetzeaz gain, webgunea kudeatzeko baimena emateko balio du. Segurtasun gehigarri moduan, interesgarri litzateke datu-basearen aldaketa historiko bat gordetzea administratzaile bakoitzeko; baina, esan bezala, gehigarri bat izango litzateke hau eta, momentuz, hedapen posible bezala utziko dugu. *Berriak* taulan egongo dira aztergai, fenomeno linguistiko jakinen, aplikazioaren, proiektuaren, etab.en inguruan izango diren berriak.

Datu-basearen diseinua 5. irudian azaltzen da; bertan taulen arteko erlazioak daude ikusgai:



## 5. irudia

### Datu-basearen diseinua

#### 3.2.2. Bilaketak egiteko modulua


Erabiltzaile arruntaren webguneko interfazearen lehen orrian Euskal Herriko mapa izango dugu. Eskuinaldean, bilaketak kudeatzeko menua dago eta aurreikusita dagoen edozein eremuri buruzko galderak egin daitezke, egin nahi diren bilaketen baldintzak zehaztuz (6. irudia).

Galderaren erantzun guztiak mapan agertuko dira, erabiltzaileak fenomeno hori non gertatzen denari buruzko ikuspegi orokor bat izan dezan. Halaber, erabiltzaileak erantzun bakoitza azter dezake, maparen behaldez azalduko diren leihotxoetan klik eginez (7. irudia).

Leihotxo horretan erantzun guztiak banaka agertuko dira, eta erantzunari dagokion informazioa ikus daiteke, eremutan banatua (Laburpena, Erantzuna, Lekukoa, Fenomenoa eta Herria) (8. irudia).

Egingo diren galdetegiak grabatu egingo dira. Interfazean erreproduzigailu bat egongo da elkarrizketa entzuteko aukera emango diguna (9. irudia).

Bilaketak egitean, baldintza bat baino gehiago zehaztu ahal dira: adibidez, fenomeno jakin bati buruzko galdera egiteaz gain, herri jakin batean zein fenomeno gertatzen diren ere bila daiteke.



6. irudia

Aplikazioaren hasierako orria



7. irudia

Bilaketa baten emaitza



## 8. irudia

Emaitzei dagozkien atal desberdinen adibideak



## 9. irudia

Erreproduzigailua

## Euskararen Atlas Sintaktikoa

Sesloa bukatzeko sakatu hemen

Nire datuak
Erantzunak
Herriak
Lekukoak
Fenomenoak

### Erantzunak kudeatu

Hiria, eskualdea:

Fenomenoa:

Lekukoa:

Erantzunaren MP3a:

MP3 izen aleatorioa:

Datu biltzailea:

Erantzuna:

Elizitatzeko metodoa:

Ortografia bateratuan:

Lematzazioa:

Hizkera:

## 10. irudia

Erantzunak kudeatzeko interfazea

Datu-baseko atal bakoitzean datuak gordetzeko interfaze bat inplementatu da, gero datuak kontsultatu ahal izateko. Administratzaile-baimenak dituzten erabiltzaileentzat izango da interfaze hori eta, datuak sartzeaz gain, aukera egongo da datu-basean jadanik dagoen informazioa eguneratzeko edota ezabatzeke. Hain zuzen ere, erabiltzaileei, herriei, lekukoei, fenomeno linguistikoei eta erantzunei dagozkien datuak kudea daitezke interfaze horretan. 10. irudian erantzunak kudeatzeko interfazea ikus daiteke.

### 3.2.3. Modulu kartografikoa: mapak

Arestian aipatu dugun bezala, aplikazioaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat modulu kartografikoa da, aukera ematen baitu bilaketa baten erantzun guztiak mapa baten gainean ikusteko. Herri bat maparen gainean kokatu ahal izateko, ezinbestekoa da koordenatuak ezagutzea. Horrela, aplikazioak herri bakoitzaren koordenatuak gordetzen ditu herria bera estreinako aldian datu-basean sartzen denean. Fenomeno jakin baten inguruko bilaketa egiten denean, berriz, sistemak herrien koordenatuak eskuratzen ditu, eta koordenatu horiek erabiltzen ditu herriak irudikatzeke, *Google Map*sek eskaintzen duen doaneko teknologia tarteko. Teknologia horrek mapak erakusteko malgutasun handia eskaintzen du. Mapak ikusteko hiru aukera daude (mapa arrunta, sateliteko argazkia eta bien konbinazioa), eta erabiltzaileak mapan zehar mugitzeko, zooma egiteko, eta abarrerako aukerak ditu.

Esan bezala, herriak irudikatzeke *Google Map*sek eskaintzen dituen funtzioak erabili ditugu, Javascript izeneko lengoaiaren bidez. Funtzio horiek zehatz-mehatz azaltzeak oso luze joko liguke, eta artikulu honen helburuetatik at dago. Hala ere, funtzionamendua azalduko dugu, labur-labur bada ere. Webguneko hasiera-orrian Euskal Herriko mapa dago (ikus 6. irudia). Bertan ez da inongo herririk irudikatzen, ez eta Euskal Herriko probintziarik ere. Euskal Herriko mugak dituen irudia baino ez da azaltzen. Bilaketa bat egitean, erantzuna duen herria eta herri horren probintzia agertzen dira mapan irudikatuta. Herria irudi batekin markatzen da: eskualdearen araberrako izen bat du eta probintziaren araberrako kolore bat. Aldiz, herriaren probintzia bektore bitartez adierazten da mapan, dagokion kolorez irudikatuta.

Beraz, mapan markatutako puntu bakoitzak ezaugarri bereziak ditu: herriari buruzko informazioa erakusteko aukera, emaitzari eskualdearen araberrako ikono berezia jartzeko aukera, ikonoaren kolorea eta emaitzari dagokion probintzia kolorez erakusteko aukera, eta abar.

## 4. Teknologia

Aplikazioa garatzeko hainbat teknologia erabili ditugu eta atal honen xedea da horiek azaltzea, labur-labur bada ere.<sup>7</sup>

---

<sup>7</sup> Datu zehatzagoak nahi izanez gero jo (Santander 2009) lanera.

#### 4.1. Google Maps

Esan bezala, aplikazioak *Google Maps*en teknologiak erabiltzen ditu mapak erakusteko. *Google Maps*en APIak malgutasun handia eskaintzen du mapak adierazteko orduan, bilaketen emaitzak mapan modu egokian kokatzeko orduan (sateliteko argazkiekin, irudi bidezko mapa modura edo biak konbinatuta), edota mapen barrena nabigatzeko (zooa, mapan zehar mugitzeko aukera, eta abar). Halaber, aukera ematen du mapen gainean irudiak txertatzeko; aukera horretaz baliatu gara, hain zuzen ere, Euskal Herriko zein zazpi herrialdeetako mugak erakusten dituzten irudi bektorialak erakusteko.

#### 4.2. AJAX

Web-aplikazioetan gero eta gehiago erabiltzen da AJAX (*Asynchronous JavaScript And XML*). Oro har, AJAX teknologiek aukera ematen dute aplikazioko zenbait datu berreskuratzeko, webgune osoa birkargatu arte zain geratu behar izan gabe. Jo dezagun, adibidez, erabiltzaileak fenomeno bati buruzko informazioa nahi duela; aplikazioa, AJAX lagun, gauza da fenomeno guztien artean begiratzeko eta aukera hobereak erakusteko, erabiltzaileak fenomenoaren izenaren lehenengo letrak idatzi ahala. Bestalde, kontsulta baten emaitzak jaso ahala kokapen-markak Euskal Herriko mapan txertatuko dira, kontsulta horrek dituen erantzun guztien zain geratu behar izan gabe, alegia.

#### 4.3. FLASH

Flash motako objektuak erabili dira webguneko soinuak entzuteko. Horri esker, fenomeno sintaktiko baten isla den elkarrizketak ere gorde ahal dira aplikazioan, nahi denean entzuteko.

#### 4.4. MOOTOOLS *frameworka*

Javascript programazio lengoaiatzat idatzitako *Mootools* izeneko *frameworka* erabili dugu. *Mootool*sek hainbat tresna eskaintzen dizkigu gure webguneari ikuste-efektuak gehitzeko. Horietatik hainbat efektu erabili dira webguneari ikusgarritasuna emateko.

### 5. Laburbilpena eta etorkizunerako lana

Artikulu honetan Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa aurkeztu dugu, euskararen barietate sintaktikoa biltzeko eta aztertzeko helburuarekin garatu duguna. Aplikazioaren ezaugarri nagusienetako bat modulu kartografikoa da. Modulu horren bitartez, erabiltzaileak era grafiko eta intuitiboan ikus dezake fenomeno sintaktiko jakin bat Euskal Herriko zein tokitan jaso den. Horretarako, aplikazioa *Google Maps* teknologiaz baliatzen da. Horri esker, Euskal Herriko mapak osatu dira, probintzietako eta eskualdeetako irudiekin.

Erabiltzailearen esperientzia atsegina izan dadin, interfaze intuitibo bat garatu da, eta eraginkortasunari garrantzi berezia eman zaio. Erabiltzaileak edozein fenomeno



linguistikoren inguruko bilaketak egin ditzake, eta emaitza gisa fenomeno hori zein tokitan gertatzen den ikusi ahal izango du mapa gainean. Horretaz gain, erabiltzailak aukera izango du erantzun bakoitzaren xehetasunak aztertzeko, bai eta elkarrizketak entzuteko ere.

### 5.1. Etorkizunerako lanak

Atlas Sintaktikoaren Aplikazio Informatikoa hastapen fasean dago egun, eta prototipo bat garatu bada ere, hamaika lan geratzen da azken produktua izango dena lortu arte. Dagoeneko baditugu etorkizunerako hainbat lan zehaztuta.

Bilaketa sinplifikatu nahi da, bilaketa bat egitean ahalik eta urrats gutxien eman behar izateko. Bilaketak erraz eta azkar egiteko interfazea sinplifikatzeaz gain, bilaketa aurreratuak egiteko aukera ere eman nahi dugu. Horrela, bilaketa batzuk kateatzeko eta bilaketak eremuen arabera murrizteko edo iragazteko aukerak izango ditu erabiltzailak.

Datuak jasotzeko orduan, mota askotako galdetegiak beteko dira. Aplikazioa gai izango da edozein luzerako eta mota desberdinetako galdetegiak onartzeko. Galdetegiak galdera-erantzun arruntak izateaz gain, test, itzulpen edota *hutsuneak bete* motakoak ere izan ahalko dira. Galdetegiak horrela gordez gero, erabiltzailari galdera soilen erantzunak erakustez gain, galdetegi osoak ere erakutsi ahalko zaizkio.

Proiektuan aukeratutako lekuko erantzunak jasotzeaz gain, etorkizunean datu bibliografikoak biltzeko eremua ere sortu nahi dugu. Horrela, historian zehar aztergai ditugun fenomeno linguistiko jakinen inguruan liburuetan aipatu izan den informazioa edota eman izan diren adibideak bildu ahalko dira, gaiari buruzko ikuspegi orokorrako bat eskuratzeko.

Aplikazioa eleaniztuna izateko prestatuta badago ere, egun euskara baino ez du onartzen. Etorkizunean gaztelania, ingelesa eta frantsesa gehituko dira.

Aplikazioa eleaniztuna izateaz gain, datu-basearen eta webgunearen diseinua orokortu egin da beste lurraldeetan aplikatzeko erraza izan dadin. Hala, konfigurazio-datu batzuk bakarrik aldatuz aplikazioa erabilgarria izan daiteke, esaterako, Kataluniako aldaera sintaktikoak aztertzeko.

Etorkizunean hainbat erabiltzaile mota zehaztuko dira: kontsultak egiteko aukera baino ez dutenak, lekuko erantzunak datu-basean sartu ahal dituztenak, galdetegiak sortu edota ezabatu ahal dituztenak, eta abar. Erabiltzaile ezberdinak definituko direnez, segurtasuna bermatu beharko da. Horregatik, erabiltzaile batzuek eragiketarako egiteko baimenez gain, jardunik gabeko sesioek iraupen mugatua izango dute. Horrela, gure erabiltzailaren sesioa abiarazi ondoren denbora jakin bat pasatzen badugu ezer egin gabe, saioa itxi egingo da eta berriro hasieratu beharko dugu.

Aplikazioak aukera emango digu, halaber, bilaketen emaitzak zenbait formatutara (pdf, xml, excel) esportatzeko.

### Aipamen bibliografikoak

Ahotsak: <http://www.ahotsak.com/>

Ettxepare, R., 2009, «On Some of the Uses of the Syntactic Atlas», *Tinta*, spring 2009.

Google-eko APIak: <http://code.google.com/intl/es-ES/apis/maps/>

KNAW/Meertens Instituut (DynaSand): <http://www.meertens.knaw.nl/sand/zoeken/index.php>

Mootools: <http://mootools.net/> Valerio Proietti

Santander, G., 2009, *Mapa fonologikoen eraikuntza*, Karrera Bukaerako Proiektua. Zuzendaria: Aitor Soroa eta Iñaki Alegria. Informatika Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea) Donostia.

ERANSKINA



# DATIBO OSAGARRI BITXIAK ARAITZ-BETELUKO HIZKERAN

Kontxi Arraztio

(Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea)

## Abstract

*This appendix includes the results obtained by Kontxi Arraztio from the questionnaires on Basque differential object marking (Fernández & Rezac 2010). The author gathered data from the Basque variety of Araitz-Betelu (Central Basque).*

Eranskin honetan dakartzagu Kontxi Arraztiok Araitz-Beteluko hizkeran, datibo-osagarri bitxiez jasotako emaitzak. Galdetegia Fernández & Rezacek (2010) egindakoa da —ikus liburu honetan—, eta bertan aurkituko dira iruzkindurik Arraztiok bildu dituen datuetatik batzuk. Hauexek dira elebidunen profilak:

- Lehen datu-emailea: 53 urteko emakumea, euskaldun-zaharra. Inguru erabat euskalduna du bere herrian, hortik kanpo soilik du gaztelaniarekin kontaktua eta eguneroko bizia euskaraz egiten du.
- Bigarren datu-emailea: 71 urteko emakumea, euskaldun-zaharra. Bai euskarekin bai gaztelaniarekin du kontaktua. Seme-alabekin gaztelaniaz egiten du, aldiz, nagusiekin euskaraz. Inguru elebiduna du.
- Hirugarren datu-emailea: 45 urteko emakumea, euskaldun-zaharra. Gaztelaniara jotzen du maiz, inguru elebiduna du. Eguneroko bizia ia gazteleraz egiten du.

Arraztiok, kasu gehienetan, gaztelaniaz eman zizkien datuak datu-emaileei euskaratu zitzen.

## 1. Lehen datu-emailea

### 1.1. Datibo osagarri bitxiak. Biziduntasuna

- |     |                          |                            |
|-----|--------------------------|----------------------------|
| (1) | a. Ekosi zattot          | c. Zok ni ekosi nazo       |
|     | b. *Nik zuri ikusi dizut | d. *Zuk niri ikusi didazu  |
| (2) | a. Nik ekusi'tt Jon      | c. Nik ekusi'tt neska      |
|     | b. *Nik Joni ikusi diot  | d. *Nik neskari ikusi diot |

- (3) a. Nik ekusi'tt txakurre  
 b. \*Nik txakurrari ikusi diot  
 c. Nik telebisioa ikusi'tt  
 d. \*Nik telebistari ikusi diot

### 1.2. Zehaztasuna

- (4) a. Ez dot inor ikusi  
 b. \*Ez diot inori ikusi  
 c. Jonek neska asko ikusi'tto  
 d. \*Jonek neska askori ikusi dio/die
- (5) a. Elkar ikusi'ue  
 b. \*Elkarri ikusi diote  
 c. Jonek bee burue ikusi'o ispillun  
 d. \*Jonek bere buruari ikusi dio ispiluan
- (6) a. Idazkari bat billatzen dot  
 b. \*Idazkari bati bilatzen diot

### 1.3. Denbora

- (7) a. Nik zo ikusi ziñuten  
 b. \*Nik zuri ikusi nizun  
 c. Zok ni ikusi niñuzun  
 d. \*Zuk niri ikusi zenidan  
 e. Nik Jon ikusi nun  
 f. \*Nik Joni ikusi nion

### 1.4. Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea (biak dituzten hizkeretan baino ez)

- (8) a. (Nik) zuri ikusi dizut  
 b. (Nik) zuri ikusi zaitut  
 d. (Zuk) niri ikusi didazu  
 e. (Zuk) niri ikusi nauzu

### 1.5. Bigarren mailako predikatuak

- (9) a. Nik zuri mozkortuta ikusi dizu (mozkortuta dagoena ni / ZU ■ / ni edo zu)  
 b. Nik umeari oinutsik ekarri diot  
 (oinutsik dagoena ni / UMEA ■ / ni edo umea)
- (10) a. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta begiratu nion hondartzan  
 (NI ■ / Mikel / ni edo Mikel)  
 b. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta jarraitu nion hondartzan  
 (NI ■ / Mikel / ni edo Mikel)  
 c. Nik Mikeli mozkortuta entzun nion (ni / Mikel / NI EDO MIKEL ■)
- (11) a. Nik zuri umea haserre ekarrarazi dizut  
 (ni / zu / UMEA ■ / ni, zu edo ume hura)  
 b. Niri mutil hura mozkorturik gustatu zitzaidan  
 (ni / MUTIL HURA ■ / ni edo mutil hura)  
 c. Nik zuri kantariari mozkortuta entzunarazi dizut  
 (ni / ZU ■ / kantaria / ni, zu edo kantaria)  
 d. Nik umeari haserre ekarrarazi dizut  
 (ni / zu / umea / ZU EDO UMEA ■ / ni, zu edo umea)

### 1.6. Datibo bat gaineratzen. Pertsona Kasuaren Muga

- (12) a. Martak Ane eaman do ikastolaa  
 b. ??Martak Aneri amonari eraman dio ikastolara  
 c. ??Martak Aneri eraman dio amonari ikastolara

- (13) a. Martak Ane eaman dio amonai (momentu baterako)  
b. Martak Ane eaman do amonangana (umea denbora luzean geldituko da)
- (14) a. \*Martak Aneri eraman dio zuri [Martak Ane ekarri'izo]  
b. \*Martak Aneri eraman dizu zuri [Martak Ane ekarri'izo]
- (15) a. Etsaiek saldo nai naue etsaiei  
b. Etsaiek Jon saldo due etsaiari
- (16) a. Etsaiek saldo naue ni etsaiari  
b. \*Azpizapoek ni etsaiari saldu didate  
c. \*Azpizapoek niri etsaiari saldu didate
- (17) a. ??Martak zuri eraman dizu Aneri  
b. ??Martak niri eraman dit zuri  
c. \*Martak zuri eraman dizu niri
- (18) a. Martak arretaz beittu'izo zoi  
b. Martak arretaz aitto dio Anei
- (19) a. \*Martak zuri arretaz begiratu dizu niri  
b. \*Martak zuri arretaz begiratu dit niri  
c. \*Martak Aneri arretaz entzun dio niri  
d. \*Martak Aneri arretaz entzun dit niri

### 1.7. Datiboak urrunetik

- (26) a. Nik Jonei eman nai dazkiot liburuk  
b. Nik eaman nai dittot umeak pizinaa
- (27) a. Nik Joni seitto/beitto nai diot  
b. \*Nik Aneri ikastolara eraman behar/nahi diot  
[Nik Ane eaman nai dot ikastolaa]  
c. Nik zuri ikastolara eraman behar/nahi dizut  
[Nik zo eaman bear zattott ikastolaa]
- (28) a. Nik Ane ikastolaa eaman bear dot  
b. Nik zo eaman bear zattott ikastolaa
- (29) a. Jon Mikeli poemak irakurtzen ari da [Jon poemak leitzen ai zaio Mikeli]  
b. Jon poemak leitzen ai zaio Mikeli
- (30) a. Jon Mikeli ikusten ari da [Jonek Mikel ikuste'o]  
b. Jon Mikeli ikusten ari zaio [Jonek Mikel ikuste'o]
- (31) a. Jon zuri ikusten ari da [Jonek zo ekusten zatto]  
b. Jon zuri ikusten ari zaizu [Jonek zo ekusten zatto]
- (32) a. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dit [Jonek launek ekusiaazi azkit]  
b. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dizkit  
c. Jonek (niri) lagunak ikusarazi dizkit

## 2. Bigarren datu-emailea

### 2.1. Datibo osagarri bitxiak. Biziduntasuna

- (1) a. Nik zu ikusi zattut  
b. Nik zuri ikusi dizut  
c. Zuk ni ikusi nazu  
d. \*Zuk niri ikusi didazu

- (2) a. Nik Jon ikusi dut  
b. Nik Joni ikusi diot  
c. Nik neska at ikusi'tt  
d. \*Nik nes kari ikusi diot
- (3) a. Nik zakur bat ikusi'tt  
b. \*Nik txakurrari ikusi diot  
c. Nik telebisioa ikusi'tt  
d. \*Nik telebistari ikusi diot

## 2.2. Zehaztasuna

- (4) a. Inor ez dut ikusi  
b. \*Ez diot inori ikusi  
c. Jonek neska asko ikusi men dittu  
d. \*Jonek neska askori ikusi dio/die
- (5) a. Alkar ikusi men due  
b. \*Elkarri ikusi diote  
c. Jonek be burue ixpillun ikusi du  
d. \*Jonek bere buruari ikusi dio ispiluan
- (6) a. Idazkari bat billatze't  
b. \*Idazkari bati bilatzen diot

## 2.3. Denbora

- (7) a. \*Nik zu ikusi zintudan  
b. Nik zui ikusi nizun  
c. Zuk ni ikusi niñuzen  
d. \*Zuk niri ikusi zenidan  
e. Nik Jon ikusi nun  
f. \*Nik Joni ikusi nion

## 2.4. Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea (biak dituzten hizkeretan baino ez)

- (8) a. (Nik) zuri ikusi dizut  
b. (Nik) zuri ikusi zaitut  
d. (Zuk) niri ikusi didazu  
e. (Zuk) niri ikusi nauzu

## 2.5. Bigarren mailako predikatuak

- (9) a. Nik zuri mozkortuta ikusi dizu  
(mozkortuta dagoena ni / ZU ■ / ni edo zu)  
b. Nik umeari oinutsik ekarri diot  
(oinutsik dagoena ni / UMEA X / ni edo umea)
- (10) a. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta begiratu nion hondartzan  
(ni / MIKEL ■ / ni edo Mikel)  
b. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta jarraitu nion hondartzan  
(ni / MIKEL ■ / ni edo Mikel)  
c. Nik Mikeli mozkortuta entzun nion  
(ni / MIKEL ■ / ni edo Mikel)
- (11) a. Nik zuri umea haserre ekarrarazi dizut  
(ni / UMEA ■ / ni, zu edo umea)  
b. Niri mutil hura mozkorturik gustatu zitzaidan  
(ni / MUTIL HURA ■ / ni edo mutil hura)  
c. Nik zuri kantariari mozkortuta entzunarazi dizut  
(ni / zu / KANTARIA ■ / ni, zu edo kantaria)  
d. Nik umeari haserre ekarrarazi dizut  
(ni / zu / UMEA ■ / ni, zu edo umea)



**2.6. Datibo bat gaineratzen. Pertsona Kasuaren Muga**

- (12) a. Martak Ane eaman du ikastolaa  
 b. ??Martak Aneri amonari eraman dio ikastolara  
 c. ??Martak Aneri eraman dio amonari ikastolara
- (13) a. Martak Ane eraman dio amonari [Martak Anei eaman dio amonangana]  
 b. Martak Ane eraman du amonangana [Martak Anei eaman dio amonangana]
- (14) a. Martak Aneri eraman dio zuri [Martak Ane zugana ekarri dizu]  
 b. Martak Aneri eraman dizu zuri [Martak Ane zugana ekarri dizu]
- (15) a. Azpizapoek ni salatu naue etsaiari  
 b. Azpizapoek Jon saldu due etsaiari
- (16) a. Azpizapoek ni saldu naue etsaiari  
 b. \*Azpizapoek ni etsaiari saldu didate  
 c. \*Azpizapoek niri etsaiari saldu didate
- (17) a. ??Martak zuri eraman dizu Aneri  
 b. Martak niri eraman dit zuri [Martak nei zugana eaman dit]  
 c. Martak zuri eraman dizu niri [Martak zui negana ekarri zattu]
- (18) a. Martak zuri arretaz begiratu dizu [Martak zu arretakin ikusi zattu]  
 b. Martak Anei arretakin entzun dio
- (19) a. \*Martak zuri arretaz begiratu dizu niri  
 b. \*Martak zuri arretaz begiratu dit niri  
 c. \*Martak Aneri arretaz entzun dio niri  
 d. \*Martak Aneri arretaz entzun dit niri

**2.7. Datiboak urrunetik**

- (20) a. Nik Joni liburuk eaman nai/bear dazkiot  
 b. Nik umeak pizinaa eaman nai/bear dittut
- (21) a. Nik Joni jarraitu/begiratu behar/nahi diot [Nik Jon ikusi nai dut]  
 b. \*Nik Aneri ikastolara eraman behar/nahi diot  
 [Nik Ane eaman nai dut ikastolaa]  
 c. Nik zuri ikastolara eraman behar/nahi dizut  
 [Nik eaman bear zattut ikastolaa]
- (22) a. Nik Ane ikastolara eraman behar/nahi dut [Nik Anei ikastolaa eaman bea't]  
 b. Nik zu ikastolara eraman behar/nahi zaitut  
 [Nik zui ikastolaa eaman nai dizut]
- (23) a. Jon Mikeli poemak irakurtzen ari da [Jonek Mikeleri poemak ai zazkio]  
 b. Jon poemak leitzen ai zaio Mikeli [Jonek Mikeleri poemak ai zazkio]
- (24) a. Jon Mikeli ikusten ari da [Jonek Mikel ikusten du]  
 b. Jon Mikeli ikusten ari zaio [Jonek Mikel ikusten du]

- (25) a. Jon zuri ikusten ari da [Jonek zu ekusten zattu]  
 b. Jon zuri ikusten ari zaizu [Jonek zu ekusten zattu]
- (26) a. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dit [Jonek nei launek ikusiaazi azkit]  
 b. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dizkit  
 c. Jonek (niri) lagunak ikusarazi dizkit

### 3. Hirugarren datu-emailea

#### 3.1. Datibo osagarri bitxiak. Biziduntasuna

- (1) a. \*Nik zu ikusi zaitut c. \*Zuk ni ikusi nauzu  
 b. Nik zui ikusi dizut d. Zuk nei ikusi diazu
- (2) a. \*Nik Jon ikusi dut c. \*Nik neska ikusi dut  
 b. Nik Jonei ikusi diot d. \*Nik neska bati ikusi diot
- (3) a. Nik zakur bat ikusi dut c. Nik telebisioa ikusi dut  
 b. Nik zakur bati ikusi diot d. \*Nik telebistari ikusi diot

#### 3.2. Zehaztasuna

- (4) a. Eztut inor ikusi c. Jonek neska asko ikusi ditu  
 b. \*Ez diot inori ikusi d. \*Jonek neska askori ikusi dio/die
- (5) a. Elkar ikusi due c. Jonek ikusi du bere burue ispillun  
 b. \*Elkarri ikusi diote d. \*Jonek bere buruari ikusi dio ispiluan
- (6) a. Sekretaria bat billatzen dut b. \*Idazkari bati bilatzen diot

#### 3.3. Denbora

- (7) a. \*Nik zu ikusi zintudan d. Zuk nei ikusi zenian  
 b. Nik zui ikusi nizun e. \*Nik Jon ikusi nuen  
 c. \*Zuk ni ikusi ninduzun f. Nik Jonei ikusi nion

#### 3.4. Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea (biak dituzten hizkeretan baino ez)

- (8) a. (Nik) zuri ikusi dizut d. (Zuk) niri ikusi didazu  
 b. (Nik) zuri ikusi zaitut e. (Zuk) niri ikusi nauzu

#### 3.5. Bigarren mailako predikatuak

- (9) a. Nik zuri mozkortuta ikusi dizu (mozkortuta dagoena ni / ZU ■ / ni edo zu )  
 b. Nik umeari oinutsik ekarri diot  
 (oinutsik dagoena ni / UMEA ■ / ni edo umea )
- (10) a. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta begiratu nion hondartzan  
 (NI ■ / Mikel / ni edo Mikel )

- b. Nik Mikeli biluzi/mozkortuta jarraitu nion hondartzan  
(ni / Mikel / NI EDO MIKEL ■)
- c. Nik Mikeli mozkortuta entzun nion  
(ni / MIKEL ■ / ni edo Mikel)
- (11) a. Nik zuri umea haserre ekarrarazi dizut  
(ni / UMEA ■ / ni, zu edo umea)
- b. Niri mutil hura mozkorturik gustatu zitzaidan  
(ni / MUTIL HURA ■ / ni edo mutil hura)
- c. Nik zuri kantariari mozkortuta entzunarazi dizut  
(ni / ZU ■ / kantaria / ni, zu edo kantaria)
- d. Nik umeari haserre ekarrarazi dizut  
(NI ■ / zu / umea / ni, zu edo umea)

### 3.6. Datibo bat gaineratzen. Pertsona Kasuaren Muga

- (12) a. Martak eaman diio Anei ikastolaa  
b. ??Martak Aneri amonari eraman dio ikastolara  
c. ??Martak Aneri eraman dio amonari ikastolara
- (13) a. \*Martak Ane eraman dio amonari  
b. Martak Anei eaman dio amonangana
- (14) a. \*Martak Aneri eraman dio zuri  
b. Martak Anei eaman dizu zugana
- (15) a. Deabruak nei saldu diate etsaiari  
b. ???Deabruak Jon etsaiari saldu diote
- (16) a. \*Azpizapoek ni etsaiari saldu naute  
b. \*Azpizapoek ni etsaiari saldu didate  
c. Deabruak nei saldu diate etsaiari
- (17) a. Martak zui Anei eaman dizu  
b. \*Martak niri eraman dit zuri [Martak nei eaman dit zugana]  
c. \*Martak zuri eraman dizu niri [Martak eaman dizu zui nigana]
- (18) a. Martak beittu dizu zui arretaz  
b. Martak aittu dio Anei arretaz
- (19) a. ??Martak zuri arretaz begiratu dizu niri  
b. ??Martak zuri arretaz begiratu dit niri  
c. ??Martak Aneri arretaz entzun dio niri  
d. ??Martak Aneri arretaz entzun dit niri

### 3.7. Datiboak urrunetik

- (20) a. Nik nai diot Jonei liburuk eman  
b. Nik nai dittut umeak pizina eaman
- (21) a. Nik nai diot ikusi Jonei  
b. Nik Anei eaman bear diot ikastolaa  
c. Nik zui ikastolaa eaman bear dizut

- (22) a. \*Nik Ane ikastolara eraman behar/nahi dut [Nik Anei eaman bear diot ikastolaa]  
 b. \*Nik zu ikastolara eraman behar/nahi zaitut [Nik zui ikastolaa eaman nai dizut]
- (23) a. Jon Mikeli poemak irakurtzen ari da [(a)ren ordez (b) darabil]  
 b. Jon poemak leitzen ai zaio Mikeli
- (24) a. Jon Mikeli ikusten ai da  
 b. Jon Mikeli ikusten ari zaio [(b)ren ordez (a) darabil]
- (25) a. Jon zuri ikusten ari da [Jon zui ikusten dizu]  
 b. Jon zuri ikusten ari zaizu [Jon zui ikusten dizu]
- (26) a. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dit [Jonek nei launak ikusiazi dizkit]  
 b. Jonek (niri) lagunei ikusarazi dizkit  
 c. Jonek (niri) lagunak ikusarazi dizkit

- XXXI. KARLOS OTEGI, *Lizardi: lectura semiótica de "Biotz-begietan"*, 1993. 18 €.
- XXXII. AURELIA ARKOTXA, *Imaginaire et poésie dans "Maldan bebera" de Gabriel Aresti (1933-1975)*, 1993. 18 €.
- XXXIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VI. Ipiztu-Korotz*, 1993. 8 €.
- XXXIV. JOSÉ I. HUALDE - GORKA ELORDIETA - ARANTZAZU ELORDIETA, *The Basque dialect of Lekeitio*, 1994. 18 €.
- XXXV. GEORGES REBUSCHI, *Essais de linguistique basque*, 1997. 18 €.
- XXXVI. XABIER ARTIAGOITIA, *Verbal projections in Basque and minimal structure*, 1994. 12 €.
- XXXVII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VII. Korpa-Orloi*, 1994. 8 €.
- XXXVIII. PATXI GOENAGA (ed.), *De grammatica generativa*, 1995. 18 €.
- XXXIX. ANTONIO CID, *Romancero y balada oral vasca. (Literatura, historia, significado)*. En preparación.
- XL. AMAIA MENDIKOETXEA - MYRIAM URIBE-ETXEARRIA (eds.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*, 1997. 21 €.
- XLI. BERNARD HURCH - MARÍA JOSÉ KEREJETA, *Hugo Schuchardt - Julio de Urquijo: Correspondencia (1906-1927)*, 1997. 21 €.
- XLII. JOSÉ I. HUALDE, *Euskararen azentuerak*, 1997. 15 €.
- XLIII. RUDOLF P. G. de RIJK, *De lingua Vasconum: Selected Writings*, 1998. 15 €.
- XLIV. XABIER ARTIAGOITIA - PATXI GOENAGA - JOSEBA A. LAKARRA (arg./eds.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, 2002. 30 €.
- XLV. JOSEBA A. LAKARRA, *Ikerketak euskararen historiaz eta euskal filologiak*. Argitaratzeko.
- XLVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*, 2003. 18 €.
- XLVII. BLANCA URGELL, *Larramendiren "Hiztegi Hirukoitza"-ren Eranskina: saio bat hiztegi-gintzaren testukritikaz*. Argitaratzeko.
- XLVIII. IÑIGO RUIZ ARZALLUZ, *"Aitorkizunen" historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren edizioa*, 2003. 21 €.
- XLIX. GOTZON AURREKOETXEA - XARLES VIDE-GAIN (arg.), *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, 2004. 21 €.
- I. JOSEBA A. LAKARRA, *Ratz y reconstrucción del protovasco*. En prensa.
- LI. XABIER ARTIAGOITIA - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. 36 €.
- LII. BEATRIZ FERNÁNDEZ - PABLO ALBIZU - RICARDO ETXEPARE (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*. 18 €.

